

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXIII (2. aldia)
(1988, 1)

33

BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.

Fotokonposaketa: Rali

Particular de Costa, 12-14

48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza

Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

© Euskaltzaindia

Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI-257 89

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** se intercambia con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

PATXI ZABALETA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA (Leitza, 1987-X-25)

<i>Juan Oronoz Zabaleta</i> , PATXI ZABALETA EUSKALTZAIN BERRIA	11
<i>Fr. Luis Villasante</i> , PATXI ZABALETA JAUNAREN EUSKALTZAIN- DIAN SARTZEA	13
<i>Patxi Zabaleta</i> , EUSKALTZAINDIAN SARTZEA	17
<i>Piarres Xarritton</i> , PATXI ZABALETAREN HITZALDIARI PIARRES XARRITTON-EN IHARDESPENA	31
<i>Patxi Aranguren</i> , PATXI ZABALETA EUSKALTZAIN BERRIA.....	37

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

ARGITARAPENEN BATZORDEAREN ERREGELA BEREZIEI PRO- ZEDURAZKO XEHETASUN ERANSKINA.....	41
<i>Jose Luis Lizundia</i> , 1988. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BA- TZAR EGUTEGIA.....	47
<i>Ricardo Badiola Uriarte</i> , EUSKALTZAINDIAREN ARGITARAPENAK EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK.....	53
	59

BERRIAK

DICCIONARIO GENERAL VASCO / OROTARIKO EUSKAL HIZ- TEGIA (I).....	87
---	----

<i>Jose Alberto Pradera, DICCIONARIO GENERAL VASCO / OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I) LIBURUAREN AURKEZPENA...</i>	89
<i>Fr. Luis Villasante, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA</i>	91
<i>M.^a Karmen Garmendia, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA.....</i>	97
<i>Ibon Sarasola, OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA AURKEZTEAN.....</i>	101
<i>Jose Antonio Ardanza, Lehendakaria, DICCIONARIO GENERAL VASCO / OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)</i>	109
<i>Jean Haritschelhar, KOLDO MITXELENAREN OROIMENEZ</i>	113
<i>Jose Antonio Arana Martija, ZAITEGIREN FONDOA BILTZE ETA BANATZEAZ.....</i>	117
<i>Rosa Mari Arza - Xabier Gereño, ARGITARAPEN INBENTARIOA</i>	119
<i>Joseba A. Santxo Uriarte, "OLGETA MAGIKOA"</i>	129
<i>Joxe Aierbe Iraola, "NERE IRRATITXOA".....</i>	133
<i>Joxe Aierbe Iraola, "TXEKOR ZAZPIKIA".....</i>	135

HILBERRIAK

<i>Fr. Luis Villasante, KOLDO MITXELENA ELISSALT.....</i>	139
<i>Jose M. Satrustegi, JOSE ESTORNES LASA.....</i>	145
<i>Alfonso Irigoien, MANUEL ZIARSOLO GIRONELLA.....</i>	147
<i>Fr. Luis Villasante, AITA PEDRO ARANGUREN</i>	149

GRAMATIKA

<i>Imanol Zurutuza, PARTIZIPIO PERFEKTU-IZAN-ADITZ LAGUNTZAILEA</i>	153
<i>Michel Morvan, COORDINATION SANS COPULE ET REDOUBLEMENT EXPRESSIF A LABIALE DANS CERTAINES LANGUES DE LA RUSSIE PRE-SLAVE</i>	171
<i>J. L. Alvarez Enparantza, "Txillardegí", KOSTALDEKO GIPUZKERAREN BERRI TXANKA BERTSOLARIAREN BITARTEZ.....</i>	177
<i>Karmele Rotaetxe, AZENTUA ETA ENTONAZIOA: HARREMANAK</i>	195

ONOMASTIKA

<i>Alfonso Irigoien</i> , HITZ HASIERAN AGERTZEN DIREN <i>IA-</i> , <i>IE-</i> , <i>IO-</i> , <i>IU-</i> BI SILABAKOAK NOLA EMAN EUSKAL TOPONIMIAN	223
<i>Beatriz Madariaga Arana</i> , ZAMUDIOKO TOPONIMIA	227
<i>J. San Martin</i> , JAIZKIBEL MENDIKO IZEN ZAHAR BATZUK	261
<i>Alfonso Irigoien</i> , IPAZTER HERRIKO UDALETXEARI ERIZPIDEA. . .	275
<i>Jose Luis Lizundia</i> , IKAZTEGIETA HERRI-IZENARI BURUZKO ADIE- RAZPENA.	277
<i>Alfonso Irigoien</i> , LEKU IZENEN EUSKARAZKO FORMAK NAFARROAN	279
<i>Fr. Luis Villasante</i> , ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK. Sarrera . . .	281
KOLDO MITXELENAK URDUÑAN TELEFONOZ ESANA LICEN- CIADO POZARI BURUZ	285
<i>Fr. Luis Villasante</i> , ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK. Amaiera . . .	287
<i>J. Mari Jimeno Jurio</i> , ENCUESTA TOPONOMASTICA.	289

BATZAR TXOSTENAK

<i>Jon Bilbao</i> , LA BIBLIOGRAFIA Y EL EUSKERA	305
<i>Juan San Martin</i> , J. DUVOISIN KAPITAINAREN LAN EZEZAGUN BATI ZENBAIT OHAR.	309
<i>Eloy (Ignacio M.^a Echaide)</i> , SOBRE EL ORIGEN Y PARENTESCOS DEL PUEBLO EUSKARO Y SU IDIOMA.	315

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

(Leitza, 1987-X-25)

PATXI ZABALETA EUSKALTZAIN BERRIA

Leitza, 1987-X-25

*Juan Oronoz Zabaleta,
Leitzako Alkatea*

Jaun andreak egun on eta ongi etorri bero bat denori eta bereziki Euskaltzaindikoa bazkide guztioi, gaur ospatzen dugun ekitaldi honetara.

Egun haundia da gaurkoa Leitzako herriarentzat, zeren bertako seme ospetsu batek gaur hemen egingen duen sarrera —hitzaldiarekin emanen du aurreneko pausoa Euskaltzain bezela—.

Oso gazte gandiak jo zuen herritik kanpora, kultura eta Euskal Herriko askatasunaren bila. Beronen ibilialdia luzea eta kementsua izandu da eta horregatik Patxi Zabaleta, Euskaltzain berriaren izena oso ezaguna da Euskal Herrian orain baino lehenagotik.

Zorionez edo zoritxarrez badago zer eginga gaur egun Euskadi mailan dagoen egoera soziala eta instituzionala normalitate batera iritsi arte eta hontaz hain zuzen hitzeginen du Patxi Zabaletak bere azalpenean.

Gure hizkuntza urte askotako represioaren bitartez leku askotan desagertua izandu da, eta euskarari eutsiaz aurrera jarraitu dugun lekue-tan, modu askotara izandu gara marginatuak.

Hizkuntza bat biziko bada gaur egun, behar beharrezkoa da hobea-gotzen eta gaurkotzen joatera, egunetik egunera zainduaz.

Lan garrantzitsu honen arduradun, Euskal Herri mailan, Euskaltzain-dia da. Eta badakigu gure hizkuntza ez dagoela esku txarretan.

Baino kontutan eduki beharra dago euskera babestu eta indartzeko euskaldun guztion indarra behar dugula, eta euskaraz hitzeginez bizi gainera.

Helburu hori lortzeko irakaskintza beharrezko oinarria da. Eta euskal irakaskintzan ez dago Ikastolak aldebatera uzterik, zeren herriko iniziat-i-baren bitartez sortuak izandu dira, eta ezinbesteko lan garrantzitsua egiten jarraitzen dute oraindik eta jarraitu beharko dute geroago ere, ahalik eta Nafarroako Gobernuak beren nortasuna aintzakotzat harturik,



irakaskintza sailean Ikastolari orokortasunezko irtenbide bat bilatzen ez duen artean.

Zoritxarrez, Nafarroako Ikastolak eraso baten azpian jaio ziren, eta gaur egun batez ere Ikastola txikiak ez dira egoera hobegoan aurkitzen. Ikastola hauen aurka azken urte hauetan eraso gogorak izandu dira, eta nahita nahiezkoa da herrialde honetako Aldundian jokaera aldatzea eta jartzen ari diren oztopoak eta eragozpenak alde batera utzirik, finantziabide aldetik tratamendu berdina ematera estatal eskolari eta Ikastolari, hauen izakera berezia errespetatuz.

Bukatzeko bihotz bihotzez opa diogu Patxi Zabaleta, Euskaltzain berriari eta Euskaltzaindia osoari, bakoitzak planteatu dituen helburu guztiak lortzeko bidea izan dezala, etorkizun on bat euskerari eman diezaion.

Agur eta zorionak bereziki Patxiri.

PATXI ZABALETA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Leitza, 1987-X-25

Fr. Luis Villasante

EUSKALTZAINBURUAREN HITZAK

Juan Oronoz, Leitzako alkate jaun agurgarria
Guillermo Herrero, Hezkuntza eta Kulturako Zuzendari jauna
Xabier Chorraut, Iruñeko Alkate jauna

Euskaltzaindiko jaunak:

Leitzarrak, eta Euskaltzaindiak gaur Leitzan egiten duen batzarre ospetsu honetan parte hartzera etorri zareten guztiak:

Egun on denoi!

Euskaltzaindiak Leitzan egiten du gaur batzarrea “académico” edo euskaltzain berri baten sarrera ospatuz. Herriko seme baten sarrera ospatuz, alegia.

Egun pozgarria Leitzako herriarentzat, bertako seme den Patxi Zabaleta jauna gaugerotzik Akademiaren partaide aitortua gelditzen baita.

Ez nuke neure hitzetan luze egon nahi. Zerbait esatea dagokit, ordea, euskaltzain berriaren lan eta merezimenduei buruz. Euskal olerkari, idazle, itzultzaile eta irakasle dugu Patxi Zabaleta jauna. “Arturo Campión” akademiaren sortzaileetatikoa. Baditu bi olerki-liburu: *Zoriontasun baten zainak* eta *Ezten gorriak*. Elaberri bat ere bai: *Euskomunia ala Zoroastroren artalde*. Tesina gisako beste lan bat oraino: “Sobre la estructura del euskara”. “Radio Requeté”n hitz egin izan du eta aldizkari askotan parte hartu, hala nola *Egin*, *Anaitasuna*, *Principe de Viana* orriko “Arnas Berri” sailean, etab.

Ez dator, bada, esku hutsik Euskaltzaindira, gazte izanarren, euskaltzain berria. Gainera, ez dut aipatu gabe utzi nahi lege gizon eta gizarte-gizona dugula Patxi jauna, eta egintza askotan sartua.

Patxi Zabaleta jauna Aita Damaso Intzaren ondorengoa dugu Euskaltzaindian. Aita Intza, berriz, Akademiaren lehen aroko euskaltzaina genuen. Ehun urteak betetzera zihoanean itzali zitzaigun, euskararen alde hainbat lan egin ondoren. Nafarra zen, noski, Patxi Zabaleta jauna nafarra den bezala. Bai. Gure Akademiak badu bere Arautegian lege hori, hots: Euskaltzaindian, ahal dela, egon daitezela euskararen euskalki guztietako ordezkariak. Zergatik duen lege hau Euskaltzaindiak, ez da zail asmatzen. Euskaltzaindiak nahi du Euskal Herri guztia bere osoan hartu, euskararen aberastasun eta bereizgarri nabarrak hobekiago ezagutu eta kontutan hartzeko. Ez du nahi Euskaltzaindiak eskualde bateko euskalkia denen gain jarri eta besteak baztertu. Aitzitik, Euskaltzaindiak nahi du denekin moldatutako euskara-mota bat aurrera atera eta aitzinatu. Eta agerian da, bai euskara bere osotasunean ezagutzeko, eta bai euskararen batasuna egiteko ere, euskaltzainak eskualde desberdinetakoak izateak zer-nolako garrantzia izan dezakeen.

Eta zilegi izan bekik Leitzan egindako Euskaltzaindiaren beste batzarrere ospetsu bat gogoratzea. Badira 30 urte. 1958ko gabon aurreko egunetan zen. Orduan ere Euskaltzaindia Leitzara etorri zen, noren eta Orixeren Euskaltzaindian sartzea ospatzera. Eta hain zuzen, Orixeren hitzaldiari erantzun ziona, orain galdu dugun Mitxelena jaun hizkuntzalari jakintsua izan zen.

Orain, bada, bigarrenez eta arrazoi berberetatik, hots, euskaltzain berri baten sarrera ospatzeko, etorri da Euskaltzaindia Leitzara.

Eta maiz aho-mihitan hartu dudana gaia baldin bada ere, zilegi izango ahal zait betiko galdea egitea eta galde horri erantzun ematea! "Zer nahi ote du edo zeren bila ote dabil Euskaltzaindia, euskararen Akademia?"

Galde honi behin eta berriz erantzutea behar-beharrezko dela iruditzen zait, zeren Euskaltzaindiaren xede eta helburuak ez baitira beti ongi hartuak edo ulertuak izaten. Behar da, bada, gauza bera behin eta berriz errepikatu.

Hemen Nafarroan zen, eta oraindik denbora asko ez dela. Emakume batek, bere xalotasun eta zintzotasun guztiarekin, haxe esan zidan: "Zer zabilzate zuek euskarakin? Utz zazute baketan euskara!"

Berehala etorri zitzaidan gogora Sebero Altubek kontatzen diguna (1). Berari ere bere aitabitxiak guti gorabehera gauza bera esan omen

(1) Ikus *Eusko Jakintza*. (1949), 185.

zion: “Etxatak gustetan, eskuera gora ta eskuera berako zerok; karlistak pe olaxe asi zittuan gerria gertaketan ziarduenian, eta ara zer ekarri uskuen, Eskualerri guztia galdu ta ondatu. Eskuera bizikok olako zer bare pe, oiñ arte bizi izan dan lez”.

Bai, hala balira gauzak, gaitzerdi. Baina guk aurreko gizaldietatik hartu dugun ondasun hau, hura atxikitzeko eta salbatzeko ezertxo egin gabe, berez bizirik aterako dela gaurko kinka honetan, mende berriko egoera gutiz berezi eta nahasi honetan, ezin sinetsia da.

Eta, hain zuzen, horretarakoxe sortua da Euskaltzaindia: euskaldunen mintzaira hau begiratzeko, lantzeko, sustatzeko eta bizirik ateratzeko. Euskaraganako ardura eta arrangura eraman nahi du, bada, Euskaltzaindiak euskaldunen bihotzetara.

Eta kasu honi! Herri baten ondasuna da euskara. Eta horrexegatik, hain zuzen, Euskaltzaindiak ez du nahi guztiona den ondasun hau ideologiekin eta aukera politiko jakin batzuekin lotua ager dadin. Denona da euskara eta Euskaltzaindiak denok irabazi nahi ditu beronen alde, inor uxatu gabe. Julio Caro Baroja jaun jakintsua mintzatu zen lehengo egunean horretaz (2). “Euskarak —esaten zuen— kultura-munduan politika kolore gabeko gauza izan behar du”.

Gaur-egun halako sentikortasun berezia piztu da bazterretan Ekologia zaintzearen alde. Gaur nahi da, bizitzeko behar dugun mundu-inguru hau bere mendi, oihan, ibai, arbola, landare, lore, arrain, itsaso, hegazti eta animalia-mota guztiekin, garbi, osorik eta orotariko izaki guztiekin kutsadura gabe eta ahal dela triskantza eta galerarik gabe atxiki edo gorde dadila. Bada guk nahi duguna ere horrelako zerbait da, ekologia-suerte bat da, Jose M.^a Sanchez Carrionek oraintsu gogoratu digun bezalaxe (3). Munduan diren hizkuntza ttipi eta handiak, den-denak izan dezatela beren lekua eta errespetua, gizadiaren altxorraren zati dira eta; denek osatzen dute gizonak bizitzeko behar duen mundu-ingurua eta inguru hori galera gabe, osorik iraun arazi nahi dugu. Euskara geure mundu-inguruaren zati dugu, eta geuri aurrekoek eman ziguten bezala, guk ondokoei pasaraztea nahi dugu.

Hizkuntzetan munduan den aberastasun hori gordetzea, horra ideal bat ustez zibilizazio eta kultura gizatiar batek bultzatu behar duena.

Erdaraz nahiz euskaraz mintzo garelarik, ikaş dezagun gizonok anai-kiro bizitzen eta errespetua elkarri gordetzen. Halabiz.

(2) Ikus *Navarra hoy*, 26-IX-87.

(3) *Un futuro para nuestro pasado*; San Sebastián, 1987.

EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Leitza, 1987-X-25

Patxi Zabaleta

SARRERA

Euskararen alde historian zehar saiatu diren, eta lan egin duten, hainbeste eta hainbesteren oroimenez hasi nahi nuke Euskaltzaindiko nire sarrera mintzaldi hau. Egoera gogorretan batzu, esker gutxiren truke gehienak, baina Erromaren aurretik hemen zegoen hizkuntzak iraun dezan eta gureganaino iritsia izan dadin lortu duten guztiak gogoratu nahi nituzke. Euskara nondik datorren eta nola sortua den inork ez baldin badaki ere, oraindik zailagoa ote den, nago nola euskarak orain arte iraun ote duen eta nola bere inguru guztietan Erromako hizkuntza nagusitu zenean, latina alegia eta bere ondorekoak, nola diot euskarak iraun ote duen gureganaino.

Eta euskarak gureganaino iraute horetan gu bakoitzaren gurasoek inork baino esanahi haundiago izan dutela aitortu ondorean, oroitu eta gogoratu egin behar ere, orain berriro ezkutatu zaizkigun hiru euskaltzainak, Aita Intza, Manuel Lekuona eta Koldo Mitxelena.

Orain dela seiren bat hilabete egon nintzen Manuel Lekuonarekin arratsalde batez. Gela ilun samar batetan, argiak bestan kalte egiten omen zion, karpeta haundi batzu paperez beteak aurrean erakutsiz irripar murrizta egiten zuen. Idazteko makina portatil edo eramateko horietako bat zeukan. —Bi behatzez besterik ez dakit idazten, esan zidan; baina halere hamabigarren tomoa laister argitaratuko didate— eta irriparra egiten zuen arrotasun apur batez.

Koldo Mitxelena ere aipatu egin behar nahi ta nahiez, zeren eta euskara gaurko bizimodurako tresna egokia egiten, hau da euskararen batasun literarioa egiten, bera izan baita, hain zuzen ere, aintzindaririk nabarmenena. Euskara idatzia denok berdin erabiltzeko ez du izandu gure hizkuntzak, beste hainbeste hizkuntzek izan dutena; zera alegia, estatu bat edo instituzio politiko nagusi bat. Nafarroako erreinua bera ere, nahiz euskalduna izan, ez zen euskaraz idazten zuen erreinua bilaka-

tu. Villasante jaunak bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan adierazten du (sarrera hiru) Nafarroako erreinuak hizkuntza ofizialtzat erromantzea hartu zuela, Kastillak berak baino lehenago. Baina orain euskararen batasuna, bere zailtasun, akats eta aurrera edo atzera joan-etorriekin egindako edo agintxea dagoen zerbait da, beste askoren artean, Mitxele-nari esker.

Baina, halere luzeago egin behar dudan aipamena aita Damaso Intza deitutakoarena da, zeren eta haren tokian naiz ni euskaltzaindiko kidea eta ohitura zabalduta bat da akademia bateko kideak lekua utzi dionaren aipamena egitea.

Ohiturak dakarkidan zor hori pozik beteko dut, Aita Damaso Intza izenez ezagutua izan zen nire aurrekoa aipatuz.

Ehun urte betetzeko hogeitazortzi egun falta zitzaizkionean, 1986ko Irailaren 21.ean hil zen Damaso Intza. Haren jatorrizko izena Migel Olasagarre Zubillaga zen, Intzan jaioa eta erbesteraturik bizitu zen 32 urtez gainerako gehienak Iruñean igaro zituelarik.

Iruñean, Tuteran eta Zangotzan egin zituen bere ikasketa guztiak eta 1910ean kaputxinoen kide bezala apaiza egin zen eta Iruñean gelditu. Bertan bizitzekoa zen 1936 arte. Urte horretan Ondarribiko kaputxinoen fraile etxera joan zen eta gerraren hasieran fraile etxe hartan gertatutakoengatik lehendabizi atxilotu egin zuten eta gero berriz Ameriketara joan zedin erabakia harrerazi zioten kaputxinoen buruzagitari. Ameriketatan, Txilen hain zuen ere, egon zen Damaso Intza 1936tik 1968a arte. Beraz hogeitamabi urte.

Euskarari buruzko Damaso Intzaren lanak, batez ere gerrate aurrekoak dira. Ondorekoak 1968-tik honuntzakoak ez dira asko, esan bezela 82 urterekin eta gaixoturik itzuli baitzen.

Honela bada batez ere gerrate aurrekoak aztertu beharko nituzke. Hiru lan egite edo ekintza azpimarratu beharrak aurki litezke, lehendabizi aldizkari bat, *irugarrengo prantziskotarra* izenekoa; 1913ean sortzen da eta 23 urte irautekoa zen; 1921ean aldizkari honek 4.000 harpidedun zeukan. Azpimarratu beharra dago Nafarroan sortutako aldizkari zela, bertan egiten zela, Iruñean hain zuzen ere, eta alegia jende askori iristen zitzaiola. Sei urte geroago, 1919an, Damaso Intzaren eraginez batez ere, *zeruko argia* aldizkari erlijiosoa sortu zen; honek ere 1936a arte iraunen zuen eta beran ere Iruñean egiten zen. (*argia* izeneko aldizkaria ez da gauza bera). Eta Damaso Intzaren euskarari buruzko beste ekintza bat, berriz, "euskararen adiskideak" deitutako elkarteak, edo "euskaltzaindiko" eta "eusko irakaskuntzako" kide bezela egindako lanak dira. "Euskararen adiskideak" deitutako elkartea 1925an sortu zen Iruñean eta bere buruzagitzan Bernardino Tirapu azaltzen da berritu zen hiru aldietan; eta azkenekoan,

1933an baita ere Ignazio Baleztena. “Euskeraren adiskideak” elkarteari buruz, Damaso Intzak hamabi orrialdeko historia labur bat idatzi zuen. Bertan hona zer dioen hasierako urte haietaz ari delarik, “billatu nitun buru eta zuzendari izateko Larratxe’tar Jenaro jauna, Iruña’ko alkate izan berria, Udaletxeko artxibero zana, Olibier’tar Leandro jauna, Apaiztegiko Euskal-irakasle, Intxaurren’tar Migel jauna, Tirapu’tar Bernardino sendalari jauna. Lau edo bostak Larratxe’tar jaunaren etxean bildurik, gure eginkizuna eta eginbideak aztertzen asi giñan. Aldundian giñeuzkan zorionez Irujo’tar Manuel eta Baleztena’tar Ignazio jaun ospetsu eta euskaltzaleak. Oiengandik iritsi nuan gure errietako eskoletan euskeraz irakurri eta idatzi egiten erakusteko baimena. Baita, ikasten zuten aurrei “Aurezki kutxa”ko libretaz diru-sariak emateko eskubidea ere.”

Damaso Intza Euskaltzaindian 1921ean sartu zen, Elizondoko udal-etxean egin zuen sarrerako hitzaldia, urtarrilak 27an eta Ramon Olabide jaunak eman zion erantzuna. Gaia “zuketako” hizketa izan omen zen.

Damaso Intzaren euskara oso argia eta ulerterraza da. Ekintza eta laneko gizona bezela azaltzen zaigu; euskara erabiltzea da bere kezkarik nagusienetakoa, aldizkariak tresna bezela ulertzen ditu, edozein helburu estetikoetik oso urruti. Horrengatik ez da arritzekoa gerrate aurrean izan ziren ikastola bakanen bultzatzaile bezela ere agertzea. “euskararen adiskideak” elkarteak bi ikastola sortu zituen Nafarroan, biak 1927an, elkarren artea 32 ikaslerekin hasi eta 128 ikasletara iritxi zirenak 68 pertsonen laguntzaz.

Ikus litekeen bezela joandako garaia ez dira beti hobeak izan.

Harridura sortu didan zerbaiz aipatu nahi nuke, Damaso Intzaren harremanetan ez dut aurkitu Arturko Kanpionekiko erlaziorik, ezta bere “euskararen adiskideak” elkartearen kondairan aipamenik ere. Eta harritzekoa dela diot hori guztia, gogoan izanik Kanpion euskararen inguruko gora behera guztietan, behintzat Nafarroa eta Iruñeari dagokionez, azaltzen zaiguna dela.

Ameriketatik etorri ondorean, Euskaltzaindiko kide izaten jarraitzen du; zaharra da ordurako, 82 urte, oraindikan beste hamazortzi biziko bada ere; 1968ko Abenduan, etorri berria zelarik, Euskaltzaindiaren urrezko eztaiak ospatzeko egiten den Iruñeko biltzarrean bere garaia beste euskaltzain batzuren aipamen bitxiak egin zituen eta lehen garaietako Euskaltzaindiaren lekukotasuna azaldu.

Damaso Intza ez zen literaturgilea, baizik eta gizartean euskara tresnatzat erabiltzea helburu zeukan ekintza gizona. Aldizkarietan egindako lanetaz gainera itzulpen batzuek argitaratu zituen, eta horien artean, Esteban Adoingoaren bizitza; egin zituen baita ere erlijioso mailan lan batzuek, esate baterako Mateo Mujika gotzaiaren aginduz egin zuen kristau ikasbi-

dea. Eta azkenik aipatu behar da *Nafarroako Euskal-Esaera Zarrak*, Nafarroako Diputazioak 1974an argituratua. Liburu honek berak badu beste argitaratze bat Bilbon 1927an *esaera zarrak* izenburu soilaz.

Aipatu beharra dago baita ere Damaso Intzak ez zuela ongi ikusi euskararen batasunerako bidea, edo gutxienez ez zituela inoiz ontzat hartu nahi izan ortografia ereduak. Nahiz eta bere aditza, euskara batuko aditzarekin nahiko bat datorren.

Ezagutu nuen aita Damaso Intza, orain dela hiru urte; ordurako osotara itsuturik zegoen, baina gogoan zituen bere gazte denborako eginahalak eta saminak. Eta batez ere gogoan zituen euskararen alde lan egindako pertsonak.

Oraingoak bezala zailak ziren denbora haietan zuhurtasunez eta hain luzaroan Intzak bete zuen tokiak eta haren asmoetako batzurekin bat natorren honek, hitzaldi honetan nire kezkarik sakonena ukitu (aztertu) nahi nuke, euskararen etorkizunerako oinarri eta baldintzak. Eta gai hori Euskal Herriko zati batetik Nafarroako ikuspegitik begiratuta batez ere.



Argitu nahi nuke ordea aldez aurretik; ez noala ohizko den euskararen atzerakadaz mintzatzeraz, baizik eta gure hizkuntzak bere etorkizun eta zabalkunderako nahitaezkoak dituen baldintzatzaz. Euskara bizi egin daitekeela lehendabizi gu, geu, —gu, gerok— ohartu eta aitortu behar dugu. Nahiz eta baldintzatua dagoen etorkizun hori; arriskutan alegia.

Euskararen etorkizuna jendearen eta herriaren borondatean oinarritu beharra daukagu. Borondate hori herri honek duen gizarte oso eta zaballean, herri honek dituen ezberdintasun eta diferentzia guztien artean tinko eta tente eustean eta ezartzean legoke.

Jendearen edo gizartearen borondatea berriz ekonomia eta soziologia eta kultura mailako arrazoinak baldintzatzen edo mugatzen dute. Eta ondorioz baita arrazoin, gora behera eta arazo politikoez ere.

Gainera gizartearen borondatea gizarteko edo hobeki esateko gizasemeen beharrekin loturik dago. Beharra eta borondatea elkarrekin bizimoduak lotu egiten dituela gaureguneko edozein pentsamoldek onartutakoa da.

Gizartearen borondate hori eta gizarteko beharrak, loturik daude bizimoduko ekonomiaren, kulturaren eta soziologiaren harreman sarean.

Hizkuntza, gizartearenak diren harreman gehienetako tresna bat da, tresnarik garrantzitsuena, beste tresna eta bitartekoekin uztarturik dagoena baina azken finean tresna bat. Tresna denez gero egokia izan beharra dauka bete behar dituen premiak, helburuak edo egitekoak betetzeko. Eta premia edo beharrak bizimoduaren egoera bezela aldakorak dira; gero eta aldakorragoak gainera. euskara Euskal Herriko bizimodurako tresna egokia izatea baldin bada ba, lehendabiziko baldintza, bigarrena tresna beharrezkoa bilakatzea litzateke. Baina guzti hori gizartearen eta gizarte honetako gizaseme eta emakumeen borondatearen medioz, bitartez; ez bakarrik biderik egokiena delako baizik eta bide bakarra delako ere. Gaur egun, bortxaz edo indarrez euskararen zabalkunderik ezin liteke lor, gogoan izanik gainera gure gizartean dagoen borroka eta aurkakotasunak hizkuntza tartean hartu duela. Era berdinean ezin dugu ahaztu ere, tamalgarria eta harritzekoa bada ere aitortu behar izatea euskarak etsaiak ba dituela gure artean. Eta ez da askibortxa ez egitea, baizik eta bortxaren edo inposaketaren irudirik ere, edo aitzaki biderik ere ez da utzi behar.

Euskararen etorkizunak gizarteko gora behera Soziologia, demografia, eta harreman guztiekin duen zerrikusia Koldo Mitxelena zenak maisutasunez adierazi izan zuen eta nik behin baino gehiagotan entzuna diot euskararen batasunaz ari zenean. Zera esaten zuen Mitxelenak, Bilbo uri euskalduna izan balitz batasunaren eredia edo oinarria Bilboko euskalkiak ezarriko zukeela, demografia hutsaren eragina ezin bestekoa irudi-

tzen bait zitzaion. Eta berdin baita ere, euskararen batasuna biologiarekin lotzen zuen Mitxelenaren esaldi ezagun hark.

(Hizkuntza), (eta) euskara (hizkuntzaren artean) gizarteko tresna bizi-modurako egokia eta beharrezkoa eta gizaseme emakumeek borondate eta aukera lipez askez onartzen dutena bilakatzea da -horixe da euskararen etorkizuna nahi dugunon helburua. Eta ondorioa berriz gizarteko maila guztietako harreman eta gora beheratan euskararen erabilpena bilakatuko da.

2. GAUR EGUNGO EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN. EUSKARAREN ERABILPENA

Aingeru Irigaraiek 1935ean (*Euskera* 1956, I-42, orr.) Nafarroak zeukan egoeraren azalpen edo deskribapena egiten du. Idazle berak 1974ean eta “una geografía diacrónica de euskera en Navarra” izenaz lan beraren berritze bat ematen du. Bigarren lan honetan ordea eta lehendabizikoaren erreferentzia berdin berdina eginez mapa bat dakar. Mapa horretan hiru lerro azaltzen dira Nafarroak euskararen muga non zeukan azalduz, lehendabizikoa 1778koa Lizarra eta Tafalla ukitzen dituen; bigarrena berriz Bonaparteren garaiekoa, 1983koa, Iruñea kanpoan utziaz Goñi, Orobía, Ibero eta Erronkariko harana barruan hartzen dituen; hirugarren lerroa, 1935ean Irigaraiek ezartzen duena, Goñiko harana, Erronkarikoa eta Ororbia, Ibero eta horrelakoak kanpoan uzten dituen. Irigarairen liburu hau Jose Maria Sanchez Carrion, Txepetxek 1970ean egindakoaren azterketa batez hasten da. Baina, Sanchez Carrionen azterketa bera ere —*El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*— Nafarroako euskalduntzat hartzen diren 145 herritan euskara duen azterketa da. (Barranka, Burunda, Araiz, Larruan, Basaburua haundia eta txikia, Bidasoa, Bertiz Arana, Baztan, Esteribar, Odieta, Ulzama, Imoz, Atez, Gulina).

Villasante jaunak berak aipatutako liburuan Nafarroan euskarak duen egoerari buruz ari denean, Irigarai aipatuz, azalpen edo deskribapen geografikoa ematen du soilik (2.kap.23.).

Baina gaurko egoera ez daiteke azalpen edo deskribapen geografiko hutsarekin egin.

Gutxiengoen jatorrizko hizkuntzak aztertzerakoan ohizko izan diren ikerketa geografikoak Estatuko beste hizkuntz politikan ez badute barne ondorio zuzenik izan ere, helburuak desberdinak zirelako, Nafarroako hizkuntz politikan zerikusia izan du bai Foruen Amejoramenturako legean nola ondoreko euskararen legean ezarri den “zona” edo lurralde konzeptoarekin. Eta ondorio hori benetan tamalgarritzat jo beharra daukagu.

Mapa linguistiko batek edo azalpen geografiko soil batek izan lezake helbururen bat edo beste, bai dialektologiaren alorrean nola euskararen aldaketetan ere, baina gaur egun gizarte maila batetan euskara Nafarroa osoko ondasuntzat hartzekotan mapak eta ikuspegi geografikoak baztertu egin behar ditugu, abiapuntu bezela behintzat.

Hona hiru arrazoi esandakoa oinarritzeko: A) Gaur egun euskaldunik gehiena dagoen Nafarroako herria Iruñea da; 25.000etik 30.000era, Iruñeko udalak eragindako ikerteta batek azaldu duenez. B) Gainera Iruñea Hiriburua da eta bertan herrialde guztiko ekonomiaren, kulturaren eta gizarteko harremanen erdi-gunea eta bide-gurutzea dago. Administralgoarekiko harremanak, ekonomiako gorabeherak eta kultura eta ikasketako arazo eta harremanak han dituzte ez bakarrik bertakoek baizik eta Nafarroako beste herri ta herriskatakoek ere. C) Gogoan izan behar da ere Tafailan, Imozko haranean baino euskaldun gehiago dagoela Jadantik eta Lizarran berriz Larraunen baino gehiago.

2.1.2. Jose Anjel Irigaraik, —lehen aipatutako Irigarairen semea— *Euskera eta Nafarroa bere liburuan* (Aranzadi 1973), bere bostgarren kapituluan, gaur eguneko euskararen egoeraz ari denean ez du eredu bezela mapa linguistiko bat erabiltzen, baizik eta kultura mailan, garai hartan orain dela hamabosten bat urte zeuden gora beherak dakazkigu. Orain dela hamabost urte gorputza hartzen hasi ziren ikastolak eta euskaldun berrien kopuruak esan nahi bat edo toki bat eskatzen zuen dagoeneko gure gizartean. Geroztik eta gero eta presa haundiagoz aldatzen joan da euskararen egoera. Pakita Zabaletak euskal ikaskuntza Nafarroan. Normalizazioaren oinarriak izena duen bere liburuan 1985/86 ikasturteko datuak ematen dituenean eskolaurrean eta oinarritzeko heziketa orokorrean ikastoletan 6.889 ikasle dagoela dio, Nafarroa guztiko %8. Eskola publikoetan berriz ikasturte berean 1921 ikasle dago. Orain gutxi argitaratu diren aurtengo datuen arabera ikastoletako hurrek zazpi milako kopurua osatu dute eta eskola publikoetan euskaraz ikasten dutenak hiru milara inguratzen dira. Gainera euskararen irakaskuntza 4.509 hurrei ematen zaie eskolaurre eta OHO delakoan.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari buruz lehen aipatutako liburuan dagoenez 1984/Sean 2.529 ikasleri ematen zitzairen euskalduntze edo alfabetze bidea; eta erakusketa hori Nafarroan hirurogei euskaltegie-tan egiten zen horietariko 24 Iruñean kokatuak zeudelarik. Ikasturte honetako zifrarik ez da oraindik argitaratu baino kopuruan hazkunde handia ez bada espero ere gero eta uzкета gutxiago ematen dela aipatu behar.

Komunikabideen harremanak, administralgoaren gero eta eginkizun zabalagoak, gizartearen beraren mugikortasunak eta Nafarroa beraren izaerak batasun batera garamazki eta euskara, Nafartar guztion ontasun-

tzat besterik ez daiteke hartu. Mapek edo azalpen geografikoek ez dute egia osoa azaltzen helburuak at utziaz eta nahiz ekonomiaren, lanaren eta administralgoarekiko harremanen munduan gure hizkuntza oraindik atzera egon emandako datu edo adibideetatik euskararen etorkizuna Nafarroan herrialde osoarentzat defendatu behar dugula eta herritar bakoitzaren eskubidea zaindu behar dugula aterako nuke ondorio bezela.

2.1.3. Joan den udaberrian Tuterako euskaltegi berria inauguratu zenean eta hiri hartako euskararen egoera aztertzerakoan, orain dela hogeitazko Iruñeko zenbaki berberak agertzen zitzaizkigun: 1985/86 ikasturtean 32 ikasle zegoen orain dela 20 urte Iruñeko San José Plazako salsipuedes atererarik gabeko kalean hasi zen ikastolan ziren bezelatsu. Hirurogei eta hamar pertsona heldu ari ziren euskara ikasten; orain dela 20 urte Iruñeko peñatan ere lehen euskarazko eskoletan holatsuko kopurua ari zen.

Euskara tresna da, baina gure herriaren sinbolo eta ezaugarririk nabarmenena den bezela, Kanpionek hainbestetan errepikatzen zuen modura baita ere herri guziaren ondasuna da eta ondorioz herritar bakoitzaren eskubidea. Zentzu horretan ezin ahaztu korrikaren lekukoa edo testigutxo horribeherako zelai lehorrak barrena doanean askotan euskaraz ikasteko zaharregiak direnen atzaparretan joaten dela gizaldi galdu baten itxurara edo nahi baduzue gizarteari galdutako katamaila edo eslaboi galduaren antzera. Eta horiek ere eskubide dutenak dira, euskara den ondasunarekiko.

2.2. Euskararen egokitzea

Euskaltzaindiaren bete beharrik nagusiena gaurko bizimodurako euskara egokitzea da. Horrekin loturik baditu ere instituzio mailan bere zereginak bai euskal komunitateari dagokionez eta baita ere Nafarroari berari dagokionez. Honela adierazten bait dute bai euskal komunitate autonomo nola Nafarroako hizkuntz lege bereziek.

Lehenik euskararen batasuna zen beharrezkoa. Gero —hizkuntza bizia izateaz gainera— zientzia eta teknika mailatako gora beheratan sartzea. Hor daude gaurregun Euskal Komunitateko unibertsitateko lanak, Udako Euskal Unibertsitatea eta beste maila askotako kulturgintza.

Baina egunerokoa hizketaren premiak, telebista, zinema eta irrati hizketak sortzen duten premia eta ohitu beharrak, guzti horrek lana egiten jarraitu beharra dakar.

Euskaldungoa berritzen ari da, euskaraz hitzegiten ari direnen multzoa aldatzen ari da. Baina multzo horrek gainera hizkuntza minorizatuak eta gutxiengo batek erabiltzen duteneko arazo guztiak dauzka. Nafarroan

euskaraz bostetatik batek baino zerbait gutxiagok dakigu, 500.000tik, 90.000ak gutxi gora behera; baina dakigun horiek ere gure harremanik gehienetarako ez dugu euskara erabiltzen.

Orduan ba, Odgen eta Richard, eta beste hizkuntzalari askok esan zuen bezela hizkuntza bitartekoa izatez gainera, depositua ere baldin bada kulturarentzat, hain bazterturik dagoen hizkuntzari asko falta zaio normaltasunera iristeko. Askok falta zaigula ezin ukatua da, bai hizkuntza edo hizketa hitzegina bezela, nola idatzitakoa bezela, nola kultur edukin edo depositu bezela ere.

3. Nafarroan euskararen egoera zein den aztertzeke ordea, esandako guztietaz gainera, hau da, hitzegiten den hizkuntzaz eta idazten edo erakusten den hizkuntzaz gainera, hizkuntzari buruz zer pentsatzen den ere aztertu beharra dago.

Begirada bat eman behar zaio horretarako Nafarroako gizarteari ea zer pentsatzen ote duen, ea zer asmo ote duen eta ea norainokoak ontzat hartuko ote lituzkeen eta norainokoak ez. Hau guztia alegia ez da berdin Nafarroa osoan, baina orokorki eta banaz bestekoan hartu beharra daukagu.

Aipatu beharrezkoa da gainera esandako ikuspegi hori hurrengo hiru arrazoinengatik:

A) Nafarroako gizartean erakunde edo instituzioen eta komunikabideen jarrera ez delako beste hiru probintzietan bezelakoa. Komunitate autonomoan ez dute behar haina egiten, euskara baztertu egiten da normalki, politikoez oso gutxitan erabiltzen dute adibidez, baina hala eta guztiz ere inork ez du zalantzan jartzen euskararen garrantzia eta euskara erabiltzeko eskubidea, gutxienez agirian eta denen aurrean. Nafarroan ordea euskararekiko eskubidea ukatzen da eta eztabaidatzen da egunero eta bizimoduko maila askotan.

B) Gizarteak zer pentsatzen duen euskarari buruz oso garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu horrek zerikusi izagarria izanen duela ondorean ematen diren erantzunekin.

C) Eta hirugarren arrazoina berriz zera da, aldatu egin dela, euskarari buruz Nafarroako erakunde eta komunikabiderik nagusienek pentsatzen dutena; Orain dela gutxi arte, euskararen alde ez zeudenek —utz dezagun “etsaia” hitza beste baterako— gutxietsi edo gutxitat jotzen zuten; despreziatu eta askotan parre egin. Orain ordea ez dute aurreraz aurre eta zuzenki euskararen kontrakorik esaten. Baizik eta euskara batua- ren kontra hitzegiteari eman diote, artifiziala dela, ez dela ulertzen, eta holakoak; giro horretan lehen ahaztuta zituzten euskalkiak goraiatzaren hasi dira.

Nafarroako euskaldun zaharren artean ere euskarari buruzko eritzia pixkaheka aldatzen ari da. Badira oraindik Sanchez Carrionek 1970an

azaldu zuen bezela berena den euskara gutxietxi eta batzutan gorrotatu ere egiten dutenak; hain zuzen ere beren bizimodurako ez dielako errez-tasunik eman, baizik mugak jarri. Baina inguru urbano edo hiritarretan euskararen balorapena haunditzen ari den neurrian, Iruñerrian batez ere, balorapen txar hori gutxitzen ari denik ezin uka.

Azkenik badira politikan erradikaldu multzoren bat edo beste euska-ra arrotz bezela hartzen dutenak eta edozein eskakizun, ez baldin bada behintzat ongi erabiltzen eta azaltzen, inposaketatzat salatzen dutenak.

Eta jarrera guzti hoiek kontuan izan behar dira, hurratsak aurrera eman nahi baldin baditugu, hersiak gainetik igaro nahi ditugunean gure puskak han utzi gabe.

3.1. Nafarroako politiko batzuen artean ere, oso nabarmena da giro berria. Euskara batuaren kontra hitzegiten dute, —batere ezagutu gabe gehienetan— eta bapatean euskalkien alde agertu zaizkigu. Ez euskalki horiek ikasten edo erabiltzen dituztelako, ez; baizik eta euskara beraren aurka hitzegin gabe, eta askotan goraipatuz, euskara batua gaitsetsi nahi dutelako.

Halere eta inon batuaren beharra argi egotekotan, Nafarroan dago, euskaldunik gehiena den herrian, Iruñean —25.000-tik, 30.000-ra— euskal-ki bakarra batua besterik ez daitekelako izan. Eta berdin beharko luke Lizarran edo Tafallan.

3.2. Euskalkien kontra ez doa euskara batua, baizik eta euskaraz ez hitzegitea. Batuak izan litzake hutsegiteak eta akatsak, baina ez dago beste biderik euskarak iraun dezan eta aurrera joan dadin.

Nahitanezkoa jartzen ari zaigu Nafarroan azalpen eta esplikaziorik zabalenak ematea euskara batuaren alde. Behar bada kanpaina baten moduan eta guzti.

3.3. Euskararen zabalkundeak Nafarroan nahitanahiez elebitasuna hartu behar du oinarritzat. Elebitasuna berriro ere defendatu beharra daukagu buru belarri. Badakigu elebitasunak ezin egoneko oreka gogoe-razten digula, ekilibrio mugikor bat bururatzen digula, arrisku bat alegia. Badakigu diglosiaren itzalak estali egiten duela elebitasunaren ahala edo posibilitatea, baina gure gizarteak ez du inolaz ere beste biderik ontzat hartuko. Eta bide hori berriz ahala da, ibiltzeko modukoa.

Liburu batek, argitaratua *euskararen borroka* izena duen Eusko Jaur-laritzak hiru probintzietako egoeraren definizioaren estadistika ematen duenean, Arabako probintzian erantzun guztiz ezberdina ateratzen da beste bi probintzietakoaren aldean. Gehiengo batek, % 34ak beren helbu-rutzat “nahi luketen guztiek ikas dezaten lortzea” dela aitortzen dute. Beste bi probintzietan berriz erantzunak askoz ere erradikalagoak dira.

Nafarroan berriz, eta dakigunez batez ere Iruñean helburu hori “nahi luketen guztiek ikas dezaten lortzea da” gehiengo haundi batek ontzat hartzen du. Hortik beste hurratsa, gehiengo batek ere onartzen duena, “nahi duten guztiek erabili ahal izan dezatela lortzea da”.

Niri oraingoz teorizazio aldetik oso defendagaitza izan arren askorentzat gure eskakizunetan abiapuntu horri erantsi behar gatzazkiola deritzait.

Alde batetik hizkuntza tresna denez gero, nahiz kuttuna eta maitagarria izan askorentzat, gauza arrunta eta erabiltzeko erraza izan behar duelako gehiengoarentzat, galdu gabe erabil daitekeena edo gutxi galduz. Eta horretaz gainera nire iduriz betiko edo jatorriz euskaldun direnak eta euskaldun berri eta ikastola edo eskolatan euskaldunduak holatsuko egoera batetan elkarrekin topo egin behar dutelako.

3.4. Euskararen aukera, —nahi duenak ikas beza, nahi duenak erabil beza— gaur egun Nafarroan nonahi defendatu daiteke eta askotan gainera aurrera ateratzen da. Aukera hori ordea bortxaketa edo inposaketa bezela agertaraz baldin badezakete, nahiz gezurra izan, ez dago deus egiterik.

Aukera, opzioa, askatasunez jendeak egin dezakeen erabakia... hori dena defendatu daiteke legeei buruz, komunikabideei buruz, ofizialtasunari buruz ere; eta baita ere ekonomiako eta laneko munduari buruz (eperen baten barrenean). Eta hori dugu bidea; gainera bitarteko ekonomikoak lortzeko ere.

(Eta guzti hau zergatik? Ez ote naiz ari ni neu mugak jartzen?. Nire helburua eta saiaera betire ez da hori, baizik eta bideak bide eta ez hesi izan ditzagun lortzea. Gaur egun elebitasunak arrazoin teoriko serio eta garrantzitsuengatik duen prentsa edo irudi txarrak galeraz bait liezaguke lorpen zehatzak izatea).

(Askatasun edo aukera hori alegia ekonomiakoa) gero eta zailagoa egiten zaio edonori aukeraren bidetik egiten den eskakizuna ukatzea Nafarroan.

4.1. Gizarteak euskara tresna bezela bere bizimodurako erabil dezan, eta horretarako borondaterik izan dezan, tresna horrek egokia izan beharra dauka.

Egokitze hori ez dezake eta ezin ahal izan du Nafarroak. Ez diezaioke holako lanari ekin ere. Ez Euskal Komunitateak ere. Hori Euskal Herri osoaren egitekoa da edo eta ez du inork egiten.

Bereizi behar da ordea, tresna beraren egokitzea eta baita ere tresna hori erabiltzen dutenen jabetasuna. Adibidez latina zientzia eta teknikarako hizkuntza egokia zen orain dela ehun urte, medikuek eta batzutan injenieroez ere latinez ikasten bait zuten, baina ez zen hizkuntza bizia.

Euskarari dagokionez, behar beharrezkoa da hizkuntza biziaren eta zientzia eta teknikarako egokitasuna batetaratzea; behar beharrezkoa zaigu betiko euskaldungo zaharra eta euskaldungo berria harremanetan sartzeara... eta hori egiteke dago Iruñerrian; herrietatik etorritako euskaldunak eta euskaldun berriak eta/edo eskola-ikastoletatik ateratakoek harremanik ez daukate; eta horrek kentzen dio indarra euskaldungoaren kopurari.

4.2. Euskaltziandiak, Euskal Herri osoa besarkatzen duen erakunde bakarra bezela, hizkuntza egokitzeaz gainera, hizkuntzaren etorkizun eta zabalkuntzaz arduratu beharra dauka, nahiz eta helburu horiek lortzea ez dagoen bere esku.

Horregatik, bere esku ez dagoelako holako lorpenik burutzea, hizkuntza egokitzeaz gainera, euskaldungo ezberdinen artean, herrialde eta erakunde ezberdinen artean batetaratu edo gutxienez hurbilduko dituen sarea sortzeko bulkatu egin behar.

Ez ote da ba lortuko egunen batean Europako erakundeek ondasun garrantzitsu bezela onar dezaten gure euskara eta nazio arteko babesia izan dezan.

Euskal Herria, euskaldunen herria, euskara daukagunon herria baldin bada, euskaraz bizi nahi dugunon herria bilakatzera edo bihurtzera iritsi behar du.

4.3. Euskal Herriaren osotasuna eta herritasuna azken finean euskarak, guztion ondasun horrek, definitzen ditu. Osotasun horrek bere ondorioak ere izan ditu mendeak zehar. Hor dago, adibidez, Gipuzkoak euskarari eustean, erdian egoteagatik beste herrialdeei zor diena. Herri erdaldunekin kontaktoa Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean egiten zen; horietan zihoan euskara galtzen bere atzapar luze eta meheak lurak dituen mendi, muino eta harrobi guztien izenetan erantsiz... borroka horrek Gipuzkoako euskara zaintzen zuen bitartean.

Nafarroak ez baldin badezake bada euskararen etorkizuna beste herrialderik gabe pentsatu, ez da ere itxurakoa Nafarroarik gabeko euskararen etorkizuna, oraingoaz eta hemen larriago baldin bagabiltza ere.

4.4. Bestalde, hemengo egoeraz ari naizenean, aipatzeko besterik ez bada ere, Foruen Hobekuntzarako lege foralaren 9garren artikuluan Nafarroa zatitu eginen zela ezartzen zen. Eta joan den urteko Nafarroako euskararen legeak hiru zati egin du, euskalduna, euskalduna ez dena eta mixtoa. Halere legearen zabalkunde guztia gobernuaren esku gelditu da. Horregatik euskararai dagozkion eskakizun guztiak, erreibindikazio guztiak zilegi dira eta egin beharrak etorkizunari begira, aipatutako 9garren artikulua eta euskararen legea aldatzea lortu arte.

5. NAFARROAKO EUSKARAREN LEGEAREN ZABALKUNDEA

Lehen aipatu dudan bezela Nafarroako Euskararen legeak, hiru atal edo gai ukitzen du:

Heziketa, komunikabideak eta koofizialtasuna, nahiz eta beste zenbait gaitaz aipamenik egiten duen ere.

5.1. Heziketari buruz, hona baldintza, hona gutxienez erabaki behar litzatekeena: edozein nafartarrek eskubide izatea heziketa euskaraz berak —edo bere seme-alabek— hartu ahal izan dezaten. Bestela guztiona den ondasun hori ukatu egiten zaie batzuei. Eta gainera hizkuntzak berak ere nahitanahiezkua du, denona bezela onartua izan dadin, denok behar dugu izan eskuratzeko bidea.

Nafarroako Gobernuak nahi baldin badu egin dezake zabalkundea bere esku gelditzen bait da Urralburuk Eskola paktua dela eta ahalkera egonen dela esan du berriro. Horregatik eskakizun edo erreibindikazio hau ez da bakarrik behar beharrezkoa, legezkua eta lor litekena baizik.

Nafarroako Gobernuak nahi baldin badu euskaraz heziketa izatearen opzioa edo aukera ezar lezakelako bai Elizondon, nola Iruñean, Lizarran, Tuteran edo Kaskanten. Orain erne egon behar dugu helburu hau lortzeko, heziketa euskaraz eta dokainik.

Hau dena ahaztu gabe, noski, Foru Hobekuntzarako Lege Foralak eta bere ondorioa den Euskararen legeak euskarari ematen dion tratamendua gaitsesten dugula, Euskaltzaindiak egin zuen bezela.

Baina Nafarroako euskararen legeak Magisterio Eskolako salbuespenaz aparte ez du irakaskuntza ez unibertsitarioa besterik ukitzen edo arautzen. Legetik kanpo gelditzen dira ondorioz, bai heziketa bereziak, nola unibertsitate mailako ikasketa guziak. Horiek denek eskakizun edo erreibindikazio baten helburu izan behar dute Nafarroako Gobernuak onartu berri duen Unibertsitate Publikoan eta abar eskuak aske edo libre dauzka nafartar guztioi euskaraz egindako heziketa edo ikasketaren aukera onar diezagun. Honetarako Euskal Herri osoko harremanak sendotzea ordea ezinbestekoa da.

5.2. Gerora begira nahitanahiezkua da elebitasuna egiazkoa izan dadin hiriburari hiriburuaren trataera ematea, Bruselasen antzera adibidez administralgoa dagoen hirian, Iruñean, euskararen egoera ofiziala trinkotuaz eta sendotzuez. Ez du asko esan nahi Elizondo, Leitza edo Ezkurran euskara ofiziala izateak, gero Iruñean dauden erakundeekiko harremanak ezin baldin badira hizkuntza horretaz baliaturik egin. Koofizialtasunari buruz, nahitanahiezkua da egiazkoa izan dadin eta ez farragarrikeria bat kapitaleko elebitasuna ere sendotzea.

5.3. Komunikabideei buruz berriz, beharrezkoa da gutxienez bai irrati eta bai egunkari mailan euskararen presentzia orokorra bihurtzea. Helburu hau ez da Nafarroak bakarrik egin dezakeena, edo hobeki esateko Nafarroako erkundeetatik bakarrik lortu behar dena, zeren eta komunikabidei dagokienez ere Euskal Herriaren osotasuna eta Euskal Herriko herrialde eta lurraldeen harremana ezinbestekoa bilakatzen baita.

5.4. Legeetan agertzen diren hiru atal klasiko horietaz gainera ordea —hezkuntza, ofizialtasuna eta komunikabideak— gizarteak dituen ekonomia eta kultura mailako harremanak eta batez ere sozial mailakoak ez dira euskararentzat ukatuak utzi behar, baina euskarak gizartearen borondatea beste biderik ez dauka hor sartzeko.

Zaila da entepresetako eta negozioetako munduak euskara sartu nahi izatea, espainola bera ere kasu askotan baztertzen den bitartean. Baina da dago horretarako biderik, adibidez abiapuntu bezela zerbitzuak ematen dituzten erakunde publikoek, ofizialtasuna beraren eraginez elebidunak izaten lortzea eta Canada eredutzat hartuz, egokitzapenak egokitzapen, esan litezke hainbat urrats eremu hauetako helburuak lortzeko.

5.5. Euskal Herriak estatu bat izan balu, euskararen erabilpena, eta baita normalizapena ere, eginik egon zitekeen. Baina estaturik ezean eta gure zatiketa egoera gogoan harturik, hizkuntzari dagokionez, erakunde harremanak, hau da harreman instituzionalak, baita estatuen arteko harremanak ba dira ere lortzea helburutzat jo behar dugu. Hau da beste nazioarteko kasuetan gertazen den bezela euskarari buruzko hitzarmena egitea ez bakarrik Komunitate Autonomo artean baizik eta estatuen artean ere ezin ahaztu dugun helburua da nahiz eta urrutiko helburua iduri.

PATXI ZABALETA-REN HITZALDIARI

PIARRES XARRITTON-EN IHARDESPENA

Leitza, 1987-X-25

Jaun andereak,

Atsegin dut eta ohore, Euskaltzaindian azkenik sartua naizen honek, nere ondotik sartzen zaigun Leitza Juandegi-ko seme honi, bere sorterriko udaletxean, Euskaltzaindiko atea idekitzea eta aita Migel Olasagarre Intzako euskaltzainak: joan den urte arte zeukan alxian jarreraztea. Egiten dudan urrats honek ordea eskatzen dit —labur bada labur— bi hitz erraitea: bat lehenik zuri, Patxi, zure lagunarte berri honen aurkezpena egiteko; bestea gero zuei, jaun andereak, eta bereziki euskaltzainkideak, gure lagun berriaren aurkezteko.

Eta lehenik, zuri Patxi, Euskaltzaindiaz hitz bat erran behar-eta, zer erranen dizut bada? —Euskaltzain guziek kezka nagusi ber-bera dugula, hots euskara eta euskararen iraupena eta garapena eta hedapena. Baina bestalde Euskaltzain guztiok aski ezberdinak gara, bai adinez— hiru-hogei bat urteren artea baita Pello Salaburu, gutariko gazteenaren, eta Jose Migel Barandiaran, gure gehienaren artean —bai ofizioz— badaude gutartean ikerleak eta irakasleak, idazleak eta hizkuntzalariak, apezak eta fraileak eta ere “prakadunak”, erraten ohi zen bezala, edo “laikoak”, zentzu orotan adierazten dugun bezala —bai aburuz ala sinestez ezberdinak ere— alderdi eta fede eta uste askotakoak biltzen garenez geroz. Ta horrela izan da, nik uste, Euskaltzaindian, elkargo hau sortu zen lehen egunetik beretik. Iduritzen zait ordea, saiatzen garela halere guztiok, Paul Valéry poeta frantsesak bere buruari eta bere Akademiako garaikideei emaiten zien aholkuari jarraituz: “Enrichissons-nous de nos différences!”, “gure ezberdintasunez duntu, ondu eta aberastu gaitezela!”.

Ohar bakar bat oraino egin behar banu, ausartuko nintzateke bada honen aitortzera: Ezberdintasun bat “ments” dugula —Ziberotarrek dioten bezala— gure lagunartean: Nahiz andreak —eta nolakoak! —onartzen ditugun gure elkartearen goiko eta behereko mailetan, bai ohorezkoen bai urgazleen bai laguntzaileen lerroetan, euskaltzain tituludunen sailean

ez dugu oraino emakumezko bihirik sarrerazi. Maila horretan, Euskal Herriko etxekanderei Euskaltzaindiko ateak hersten zaizkie orainokoa.

Historiazale batek erranen dit menturaz, kontuz ibili behar dugula gure Euskal Herri honetan gure emakumeekin; ez dakigun gerta Joani Paulo II.aren egun hauetan, Gregorio VII.aren mendean bezalako zerbait izigarri: Iruñeko apezpikuaren alkiar jabetu baitzen omen, orduan, San-txa delako kondesa (1).

Dena dela, gai hau beste zenbait bezala eztabaidatzeko ordua etorriko zaiguke, ondoko egunetan, Euskaltzaindikoei, eta zu bezalako gizona, Patxi, lege eta arau eta erakunde mota guzietan aditua zauden hori, baliagarri eta beharrezko izanen zaitugu, ala gure elkartearen barneko ala gure elkartearen gaineko erregela edo arau batzuren eragina, gure helburu nagusien eretzean, aztertu nahiko dugunean.

Ezen, Jaun andereak, eta ene euskaltzainkideak, haxe dugu ofizioz eta ofizialki, Patxi Zabaleta euskaltzain berria, gaur Iruñean bizi eta lan egiten duen abokat edo "altein" (2) ezaguna, bai eta ere, ezkerreko alderdi abertzale baten izenean, Iruñeko udaletxean zinegotzi sartua dena.

Bainan hori baino lehen —nahiz hori ahortzi gabe— zuen lau haurretatik bigarrena eta zuen seme gehiena duzue, Leitza Juandegiko nausi-etxekandere ohoragarriak, Patxi, orai dela 40 bat urte sortu zaitzuen. Hemen bilduak garen guzien eta beren ezin etorria bidaltzen dizueten Hegoaldeko eta Iparraldeko ainitz adixkideen goresmenak eta zorionak behar dizkizuet eskaini, eta bihotz bihotzez eskaintzen dizkizuek, zuei Patxiren gurasoei eta anai-arrebei, haren lagun Koro eta alaba maite Olatz eta Miren-i bezala.

Zuhaur aldiz Patxi, zinez aspaldi baitu —hogoi urte pasa, nik uste— eta Leitzako Jose Mari Aleman beste adixkide baten bitartez, seguru, elgar ezagutu genuela, Baiona edo Hazpaneko alde horietan euskalzale moltzo batzuk egiten genituen batzarre eta bilkuretan; geroztik joan dira urteak —joan dira neretzat, bainan zuretzat ere bai, Patxi, joan eta joaiten ororentzat— bainan Euskaltzaindiaren aitzakiarekin maizago elgar ikusteko parada izanen dugula engoitik gogoratzea bera atsegin dut.

(1) JOSÉ GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona, S. IV-XIII*, T. I, Pamplona, 1979, 224-228.

(2) P. CHARRITTON, *R. M. de Azkue eta P. Broussain-en arteko elkarriketa*, Euskaltzaindia, *Iker-4*, Bilbo, 1986, 295: "altein", "avocat", Piarres Broussain-ek asmatu hitza.

Horiek hola, eta ez dezan nehork erran adixkidetasunak itsutu naue-la, hona hemen bi lerro, egungo gertakariari buruz, Mikel Atxaga kazeta-riak herenegun idatzi dituenak: “Aita Inzaren lekurako egoki aukeratua izan da Patxi Zabaleta Nafarroan, aho hizkuntza onaren jabe, idazle eta eskualduntzearen arazoaz kezkatua bait da” (3).

Azken puntu honetatik hasteko, erran nezake —norbaitek hemen ez baleki-nola 69-70 urteetan ibili zinen lanean Periko Diez de Ulzurrune-kin, *Principe de Viana* aldizkarian eta ber denboran, Nafarroako Ikastolen liberatu eginkizunetan, bai ta ere, 68-73 urteetan, Arturo Campion eus-kaltegiaren zuzendaritzan, bainan aski zaigu, adixkide ona, oraintxe eman diguzun hitzaldia entzutea, ikusteko noraino kezkatua zauden euskaldun-tzearen arazoaz.

Alta, aho hizkuntza ona baino hobearen jabe zarela ere, Patxi, badakigu orai hemen garen guziek; bainan lehenagotik bagenekien, bai Udako Euskal Unibertsitatean behin, bai Ziberoko Maule herrian Aberri egun batez beihala, argi eta sutsu mintzatzen entzun zintugun zenbaitzuk.

Gure euskal idazle hoberenetarik zarela ordea, bai hitz neurtuz bai hitz lauez, hori menturaz gutartean askok ez daki. Gure herri honetan, behin eta zorigaitzez, ez da asko idatzi —nahiz, orai eta hemen berean, Leitzan bereziki, erran digutenez, gauzak aldatzen ari diren (4)— eta gure liburu gutxi horiek ez ditugu ez irakurtzen ez ezagutzen. Zergatik ez dizuet aitortuko nihonek aspaldian eskuratuak neuzkan Patxiren liburuak hantxe neuzkala, beste askoren artean, nere liburutegiko apaletan 10, 10-12 bat urte honetan? Oraikoan hargatik hurbiletik, eta buruan buru, irakurri ditut, hiru obra garrantzitsuenak: Lehena 1972 koa, “Zorion baten zainak”; bigarrena 75 ekoa, “Ezten Gorriak”; hauek biak olerkiak eta hirugarrena prosaz 77 koa, “Euskomunia ala Zoroastroren artalde!” (5).

Ez naiz ni, egia erran, ez pertsulari ez olerkari behinere izan, ez literatura azterketan egundaino biziki higatu. Bakarrik hitz joko politen, esaldi apainen, irudi deigarrien, gogo pizgarrien zale daukat ene burua. Eta egun hauetan, “Gorka Trintxerpe” izenordearen giblean argitaratu ziren lehen olerkiak berrirakurri ditudanean, aitortu dut zinez zuzen zabilala “Etor” argitaldaria, “Askatasuna”, “Zalantza”, “Izarrak erori dira”,

(3) “DEIA”, Bilbo, 1987-X-23: M. Atxaga, “Euskaltzaindia Berritzen”.

(4) Ikus hemen berean, Patxi Zabaletak bere hitzaldian, Leitzako euskal idazleen kopuruaz dioena.

(5) GORKA TRINTXERPE, *Zorion baten zainak*, Etor, Bilbao, 1972; *Ezten Gorriak*, Idatz, Pamplona, 1975; *Euskomunia ala Zoroastroren Artalde!*, Idatz, Pamplona, 1977.

“Hitz debekatu, hori, Euskadi”, “Euskal Herriko baratzean” “Domuit Vascones” eta hemen aipa ere ez ditzakedan horrenbeste olerki eder biltzen dituen liburua sartzen zuelarik, Orixe handiaren, Patxi Altunaren, Txillardegiren, Koldo Mitxelenaren, Mikel Lasaren eta beste horrelakoen idazlanen sailean. Bada hor erraztasun bat, zorroztasun bat, musika bat eta umore bat, ni hasteko, xarmatzen nauena. Olerki horiek berak, eta gero, oihal beretik, Patxi Zabaletak josi zituen bere bigarren liburuko neurtitzak, zituzkeen gogoan, ni ez bezala aditua den Juan Mari Lekuonak, 1978 ko *Jakin* aldizkariaren 5. zenbakian, gerla osteko poesigintzan kritika lan sakon bat argitaratzen zuelarik. Poesigintzaren etapak mugatzen zituen lehenik Lekuonak: 1.a. *Euzko Gogoaren* aroa; 2.a “Uhin Berria”, San Martin adixkideak erran zuen bezala; eta 3.a 1968 tik 1978 ra, “Zailtasun garaia”. 3. aro honetan sartzen zituen Gandiaga, Lete, Artze, Koldo Izagirre, Luis Mari Mujika, Patri Urkizu, Mikel Arregi, Joseba Zulaika eta gure Gorka Trintxerpe hau. Belaunaldi horren bilakabidea adierazteko Juan Mari gogoratzen zituen “errepresionaren eragina alde batetik, herri giroarena bestetik”, eta Xabier Lete-ren oihu ezaguna aipatu ondoan: “Eta poeta, eta poeta...” Mikel Lasak, Patxi Zabaletaren poema bat irakurri-eta berari egin zion ateraldia errepikatzen zuen: “Gaur ezin daiteke poesiari egin surrealismoaren bidetik ez bada” (6).

“Surrealismoaren bide” hori hartu zinuela, Patxi, uste dut, ez bakarrik zure olerkietan, baina ere bai nolazpait zure prosazko ipuinetan:

Ene herriko goibeltasuna
Abestutzen dut saminki,
Ene herriko askatasuna
Itxaroten dut sakonki,
Langileriak izanen ditu
Egun alaiak ugari,
Bin bitartean ene kitarraz
Kantatzen noa, ni, beti...”

kantatu bazinuen behin (7) pertsulariek bezala, historia konda hasi zinen gero, supazter xokoko gure aitonak iduri.

Ez dut ordea erran gure haur tipiei kondatzeko historiak dituela idatzi Patxi Zabaletak. “Euskomunia” irakurri dudalarik, oroitu naiz, Patxi, asko maite zituen Narbaitz kalonje zenak erran zidala, zutaz mintzo ginen halako aldi batez: “Ez dut uste baden nehor horrelako ateraldi harrigarririk hoin polliki ateratzen duenik!” (8).

(6) J. M. LEKUONA, “Poesigintza eta kanta gerraostean”, *Jakin* 5, Donostia, 1978.

(7) G. TRINTXERPE, *Ezten Gorriak*, 54-55.

(8) PIERRE NARBAITZ kalonjea (1910-1983), Baionako bikario jeneral luzaz egona, euskal idazle ezaguna: *Kattalinen gogoetak*, *San Frantises Jatsukoa*, eta beste...

Ez dakit zuzen zein ipuin, zein mito, zein igarlekeria, zein nobela motz zuen gogoan, hori erraiten, gure kalonjeak: “Martzelina” ala “Baz-tango gaztea”, “Izokiaren jauzia” ala menturaz “Euskabedertasuntxo”? Dena den, zure ipuin horiek, beste euskal idazle baten, zuk eta nik hain gogoko genuen Monzon zenaren antzerki bat edo beste gogoratzen dida-te askotan. Haiek bezala naute xoratzen, nere hats laburreko irudimenak eraman ez nazakeen amentsetako eremuetara eramaiten nautelako (9). Gaitz bat bakarrik kausitzen diet zure lanei, adixkide Patxi, gaitza haxe dute: hamar urte baduela jada zure azken liburu horren argitaratzeak. Eta beraz egun elkarte berri honetan sartzen zarenaz geroz, zure etxeko lan eta kezka guzien artetik zor diguzu —zure lagun Korok eta zure alaba maiteek barka diezadatela!— zure dohain ederraz baliatuz, poema berriak ezpada ere —poemagintzarako sasoi bereziak baitira nere ustez— ipuin eta kondaira berri aberatsak ontzea.

Ixildu aintzin bizkitartean, banuke puntu bat oraino aipatzeko: Badu orai berrogoi ta zenbait urte —zu sortu aintzin, Patxi,— baziren orduan ere “errefuxiatuak” Euskal Herrian. Bainan orduan Iparraldeko Euskal-dunak ziren heldu, Alemaneri ihesi beren haurride Hegoaldekoen gana. Bagenituen horrela ikasle lagun batzu Iruñeko Semenario Nagusian aterbe aurkitu zutenak. Gauza horiek ez dira asko aipatzen, bainan ontsa oroit naiz, ordukotz abertzale ginen Iparraldeko gaztek, lagun horien bitartez jakin genituela, ezagutzen ez genituen bainan jada maite geni-tuen, gure Aberriaren bazter batzuetako berriak. Entzun ginuen bada, beren ziloetan sarturik eta gorderik egon behar zuten urte ilun haietako abertzale anaiek bazituztela buruzagi argi ta bipilak beren artean, itxaro-penaren sua bizirik zeukatenak: Bizkaia aldean ba omen zen Juan Ajuria-gerra izeneko inginadore famatu bat eta Nafarroako Iruñean gaitzeko gizona zela, zioten, Jose Agerre delako euskalzale handia (10).

Ainitz urte geroago konturatu nintzen 1940-1945. urteetako Jose Agerre hori bera zela, 1889 an jaioa Iruñean eta 1919an Euskaltzaindian sartu izana zen Nafar euskaltzain hura bera. Gero ordea gertatu zitzaion Jose Agerre-ri, beste euskaltzain bihi bati gertatu ez zaiona: hots bizipi-dez Euskal Herritik urrundu behar izan zuelakotz, bere kargua utz zezan

(9) TELESFORO MONZON (1904-1981), euskal politikari eta idazle aipatua. Haren obren artetik ikus *Menditarrek*, 1958, *Hazparneko anderea*, *Behorraren ostikoa*, *Eneko Bizkai eta Maria Lorka*, 1966, eta beste.

(10) JUAN AJURIAGERRA (1903-1978), inginadore eta Euzko Alderdi Jeltzalearen buru-zagia Franco-ren denboran eta gero ere, bera hil arte.

JOSE AGERRE (1889-1962), ikus *Euskera VII*, Bilbo, 1962, 349.

eskatu zioten eta haren orde aita Inza izendatu zuten. Jakin dudana Jose Agerre mindu omen zen, baina ez zuen horrengatik uko egin ez hizkuntzari ez herriari. 1962 an hil baitzen, arte horretan idazki asko, prosa ta olerki, argitaratu zuen euskal aldizkarietan, *Euzko Gogoia*, *Egan*, *Gure Herria* eta beste (11). Eta egun, Jose Agerrek estrainatu zuen alkia, zuk Patxi Zabaletak hartzen duzun egun honetan, iduritzen zait Iruñeko abertzale handiari Euskaltzaindiak dion zorra ordaintzeko xedea hartu behar dugula: Tartetxo bat izanen ahal dugu, zuk eta nik, adixkide Patxi, hor gaindi sakabanatua den haren idazlana biltzeko eta argitaratzeko. Ongi legoke, lagun zenbaitek argitaratzen hasi berri duten Nafarroako euskal idazki zahar eta berrien saila osatzeko (12).

Halabiz!

(11) JON BILBAO, *Eusko Bibliographia I*, Aguerre Santesteban, Jose.

(12) J. M. SATRUSTEGI, *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea, Euskaltzaindia, 1987.
J. M. LARREA & P. DIEZ DE ULZURRUN, *Nafarroako Euskal Idazleak I*, Pamiela Iruñea, 1987.

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAIN BERRIA

Leitza, 1987-X-25

Patxi Aranguren,
herriko Erretorea

HOMILIA.

Senideok:

Gaurko honetan, abesti polit bat datorkit burura; Esanahi haundikoa da. Bere mezua, opa genezakeen edozein giza eta erligio balorekin, lotu leikena. Honela dio: “Egun senti hura laster altxa dadilla lur gañean. Zango azpiak larruturik ta gorputzak ezinduak, beilariak joko dute askatasunaren lurra; Itxasoan hondaturik galdutako mariñela, fortunazko ontzietan sartuko dira kaiara”.

Gaur gure ametsa eta nahia haxe litzateke: Euskalerrria aintzakotzat hartua izango dan egun senti hura laster altxa dadilla. Euskalerrriko lur gañean, euskara dizdiratsu agertuko dan egun senti hura laster altxa dadilla.

Denok dakigu hortarako bide luzea eta latza egin beharra daukagula. Bide honetan oztopoak ugari, galtzorian batzutan, ezinduak askotan, itxasoan hondaturik galdutako mariñelaren antzera nahi baño gehiagotan. Hala ta guztiz ere ezin gindezke etsipenaren atzaparretan erori; Baizik denok alkarturik, itxaropenak eraginda jo dezagun aurrera: Argia nagusituko da, lanaren lanez iritxiko gera kaiara. Bide honetan, Euskalzaindiko zeratenok izango zerate aurrekari eta gidari, zuen irakaskintza beharrezkoa izango zaigu guztioi. Bañan baita ere, zuek herriaren laguntza, babesa eta eragiña behar-beharrezkoa izango dezute.

Horregatik goazen denok baturik, izan dezagun bihotz, leporatu dezagun bakoitzak gure erantzunbeharra eta ekin dezaigun bideari garaipena lortu arte. Kristau geranok ezin dezakegu lan hau saietsean utzi. Hain zuzen gure sinismen bizitza, dagokigun herriaren izaeran, kulturen, historian oñarritzen baita. Guztioi opa dizuedana haxe da: Orain aitortzea goazen sinismena egiaztatu dezagula eguneroko ekintzetan. Hortarako Eukaristi honetan Jaunari argia eta kementa eskatuko diogu.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

ARGITARAPENEN BATZORDEAREN ERREGELA BEREZIEI PROZEDURAZKO XEHETASUN ERANSKINA (1)

Euskaltzaindiak 1984.eko Urtarrilaren 27an eta Otsailaren 24ean egin-dako batzarretan onartu zituen *argitalpen batzordearen erregela bereziak*.

Erregela Bereziok zuzenak diren arren, oso orokorrak dira eta zen-bait pundutan zehaztu beharrezkoak, batez ere, ondoko atalotan:

1. Argitaragaiaren onartzea

Aipatu Erregela Berezien 8.1. eta 2. artikuluan “Argitalpen Batzordeak onartu beharko ditu argitaratu behar diren testu guztiak” esaten da. Baina ez da esaten zein izango den onartze horren prozedura eta onartze horren frogagiria “Euskararen Lekukoak” bilduman edo “Lanaren berezi-tasunak hala eskatzen duen bakoitzean” salbu.

Euskaltzaindiaren edozein bildumatan liburu bat argitaratu ahal iza-teko, ezinbestekoa izango da:

1.1. Originala guztiz amaitua eta Argitalpen Batzordearen eskuetan izatea.

1.2. Argitarapen Batzordearen, edo honek izendaturiko hiru kide-ren “baietz idatzia” izatea. (*Argital. Batzor. Erreg. Berez.* 8.1.2. artikul.).

1.3. Egile eta Euskaltzaindiaren artean eginikako “Argitalpen Hitzar-men” sinatua buruturik egotea.

1.4. Argitarapen Eragileak gutxienez, bederen, gutxienez bi argile-txe desberdinen aurrekontuak aurkeztu beharko ditu (*A.B.E.B.* 9. arti-kul.), Argitalpen Batzordeak liburu baten argitalpenari baietza eman ahal izateko.

1.5. Liburu argitalpenerako Egitasmoaren urteko Aurrekontuan “ema-teke” atalean dirukopuru nahiko dagoela, edo, bestelako dirulaguntza nahikoa lortu dela, ziurtatzen duen Diruzaintzaren “baietz idatzia” izatea.

(1) Argitarapen Batzordeak, Donostian, 1987-IX-3an aztertutako erabaki-proposamena, gero Euskaltzainek, Leitzan, 1987-X-23an eta Donostian, 1987-XI-27an onartua.

“Azken erabakia ezin har daiteke harik eta Ekonomi Batzordeak —finantziaketa gestioak egin behar baititu— aintzinkontuari bere adostasuna eman arte” (*A.B.E.B.* 9. artikul.).

1.6. Koedizioetan, Argitarapen Batzordeak bere baietza eman aurretik, © *copyright*, aurrekontua, inprimategia, aleen kopurua, salneurria, jabego kontuak, aleen banaketa eta beste erabakirik eta agiri sinatu batean jarriak egon beharko dute. Eginkizun hau Diruzaintzari dagokio besterik erabakitzen ez den bitartean. “Harremanetan izatea inprimatzaile eta salmenta arduradunekin Euskaltzaindiaren agerkari eta liburuei dagokien aldetik”. (*Barne Erregelak* 16.2.).

1.7. Aurrez presupostatu gabe edo oso garestia gertazen delako, lan bat Argitarapen proiektutik kanpo gelditzen bada, baina Argitarapen Batzordearen beraren ohizko bileretan, argitaratzea on dela erabakitzen badu, Diruzaintza argitaratzeko beharrezko diren laguntzak lortzen ahaleginduko da.

1.8. Laguntzok lortzen edozein euskaltzainek egin ditzake ahaleginak, baina Herri Erakundeei eskaririk egin behar bazaie, eskari hori egitea, tokian tokiko ordezkariarekin harremanetan, Diruzaintzari dagokio.

1.9. Laguntza osorik lortzen ez denean, Diruzaintzak idatziz esan beharko du Euskaltzaindiaren Aurrekontuen lepotik hornitu ahal den ala ez.

* * *

2. Argitarapena - Inprimaketa

2.1. “Inprimategiarekin harremanak Eragileak burutuko ditu eta ez da beste inor arazo honetan sartuko, salbu *Batzordeburua*” (*A.B.E.B.* 10. artikul.).

Eranskina: “Argitarapenen Batzorde honek hartarako espreski izendatutako ordezkoko batek”.

2.2. Nahitaezkoa da liburu bakoitzean, egilea testuaz arduratzea. Beraz, gaiaren arabera, Argitarapen Eragileak, autorearen laguntza izango du.

2.3. Lana Batzorde batek egina edo bultzatua denean, Batzorde horren Burua edo Batzordeak hautatzen duen pertsona izango da Argitarapen Eragilearen laguntzaile.

2.4. Lana ateratzen den lekuan ateratzen dela, dirulaguntzak edo bestelako zenbait gestiotan aritu denak, hor eten behar du bere betebeharra, inprimategiko ardura guztia Argitarapen Eragilearen eskuetan utziz.

2.5. Euskaltzaindiaren argitarapen guztiek © *copyright* Euskaltzaindiaren izenean eraman behar dute, argitarapen jabegoa berea dela azalduz, nahiz eta argitarapen horren finantziaketa Erakunde, Elkarte edo bestelako norbaitek egin izan.

2.6. Arrazoren batengatik © *copyright* Euskaltzaindiaren izenaz gain, finantziatzen duen Erakunde, Elkarte edo Egilearena ere agertu behar balu, Argitarapen Batzordeak hala erabaki behar du aldez aurretik.

2.7. “Lana onartua izan ondoren, zein bildumatakoa den, eta hango baldintzak errespetatuko ditu Argitarapen Batzordeak; bildumez kanpora balitz, argitarapen xehatasun guztiak erabakitzea berari dagokio” (*A.B.E.B.* 9. artikul.).

2.8. Beraz, letra mota, paper, azal eta liburuaren testura arteko orrialdeetan © *copyright*, inprimategia, urtea, Legezko Gordailua, I.S.B.N., neurria eta abar, liburu bakoitzean berdintsu atera daitezen, arduradun berberak ikusirik eta onarturik egin behar dira.

Ardaradun hori Argitarapen Eragilea izango da, eta ardura horretan Euskaltzainburuari edo argitarapen horren autore / egileari bakarrik obedituko dio.

2.9. Argitarapen Eragileak, ardura berezia izango du, bilduma bakoitzari dagokion maketazioaren ezaugarriak zehatz zaintzeko.

* * *

3. Argitarapen ondorioak

3.0. *Argitarapenen zabalkundea.* Euskaltzaindiaren argitarapenak bi era desberdinez zabalduko dira, alegia:

1. Dohainik eta trukez.
2. Salmenta bidez.

3.1. *Dohanik eta trukez.* Beste Erakundeek bezala, Euskaltzaindiak argitaratzen dituen liburuetatik zenbait ale, dohainik banatzen ditu, bai bere kideen artean, bai Erakunde, Elkarte edo bestelakoen artean ere.

Hona hemen laburki zabalkunde hauen nondik norakoak:

3.1.1. *Dohainik:*

3.1.1.1. Argitarapen guztiak: euskaltzain oso guztiei.

3.1.1.2. **Euskera** agerkia + *Oroit-Idazkia*:

- Euskaltzain ohorezkoei.
 - Batzordekide diren euskaltzain urgazleei.
 - Bulegoetako langilegoari.
- 3.1.1.3. Lekukoak, *Iker* eta *Jagon* bildumak:
- Batzordekide diren euskaltzain urgazleei.
 - Bulegoetako langilegoari.

3.1.1.4. *Opariak*:

Zenbait bisita dela eta, batez ere agintari berriak direnean, Euskaltzaindiak egindako lanen berri izan dezaten, honelako liburu-opariak egitea komeni da:

- *Euskaltzaindia* liburua.
- *Euskararen Liburu Zuria*.
- **Euskera** - *INDEX*.
- *Iker* bildumatik bat edo beste.
- *Jagon* bildumatik bat edo beste.
- *Argitarapenen katalogoa*.

3.2. *Salmenta bidez*:

Liburuak ere, beste edozein produktuk bezala, merkataritzaren bere ohizko lege edo arauak ditu, guk ere aintzat hartu beharrezkoak, ez komertzianteen zentzuan baina bai merkatu horri kalterik ez egiteko oreka egokia aurkituz.

Alor hau ere zehaztu beharra ikusten da Euskaltzaindiak argitara ematen dituen liburu-kopurua gaur egun dexentea baita. Horra hemen erabaki proposamen zenbait:

3.2.1. *Salneurria*:

Publiko-salneurri normala, inpimategiko kostua bi aldiz gehituz eza-riko zaio.

Erabaki honen oinarria: alde batetik, liburuak Gordailuan zaintzea, garraioa, bidaltze-zabaltze gastuak, dohainik banatuak, puskatu edo hondatzen direnak eta bestetik, banatzaileei eta liburudendei egin behar zaien beherapena da.

Gainera, zenbait kasutan, finantziazte horren truke, dirua eman duen Erakunde edo Elkarateak ere, liburu kopuru bat eskatzen du beretzat. Honelakotan, dohainik argitarapenaren 1/4 arte eman dakioke. Euskaltzaindiaren salmentetan honako beherapenak egingo dira:

3.2.1.1. % 50

- Liburu egileei.
- Euskaltzain oso eta batzordekide direnei.
- Urtean zehar eskari ugari eta handiak egiten dituzten banatzaileei.

3.2.1.2. % 25

- Batzordekide ez diren euskaltzain ohorezko eta urgazleei.
- Urtean zehar eskari ugari nahiko handiak egiten dituzten ikastetxeei.

Ezin izango da bestelako beherapen edo salbuespenik egin, Zuzendaritzak besterik erabakitzen ez badu, liburuaren merkatuko erregelak zaintzea denontzat eta Euskaltzaindiarentzat ere, komenigarria gertatzen delako.

Urtero, udazkenez, Diruzaintzak, Salmenta Arduradunarekin, argitarapen Gordailua behatuko du, urteko salmenten txostena prestatuz.

Ondorioz, salneurriak egokitu beharra aztertuko da edo eta Eguberriak edo bestelako ospakizunaren bat dela eta, zabalkunde bereziren bat egitea komeni den proposatzeko.

4. **Euskera** separatak

Euskera agerkarian lan bat argitaratzen den bakoitzean, egileari lan horren 25 separata egingo zaizkio.

Mendeurren, sarrera hitzaldi edo bestelako ospakizun bereziren bat dela eta, 100 ale emango zaio, ospakizun horretan hizlari izan diren guztien hitzaldiez osoturik.

1988. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Bilbo, 1987-XII-18

Jose Luis Lizundia, Idazkariordea

Urtero bezala, Euskaltzaindiaren batzar egutegia prestatu dut. Horretarako, lehendabizi, bibliografia aztertu dut, Aita Villasante eta A. Santi Onaindiaren *Euskal lietaratura historiak*, Jon Bilbaoren bibliografia, **Eus-
kera** agerkaria, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, *Gure Herria* eta Bizkaiko Diputazioaren hemeroteka, arakatu ditut, besteak beste.

Jarraian Zuzendaritzari aurkeztu diot zirriborroa, zeintzuk mendeurren izan daitezkeen garrantzitsuenak azpimarratuz. Azkenik, kargudunen ohar batzuk jaso ondoren eta haren oniritzia, burutu dut egutegi hau.

1988. urtean mendeurren hauek ditugu garrantzitsuenak, hots:

— 1888.eko Apirilaren 7an, Jules Moulier “Oxobi” jaio zen Nafarroa Behereko Bidarra herrian. Apeztu ondoren, Baiona ondoko Hiriburu herrira destinatu zuten eta han Saint Pierre, Barbier, Elissalde, Apeztegi, Souberbielle, Choribit, Eleizalde, Dassance, Dufau anaiak, Garmendia eta abarrekin talde egiten zuen eta horri esker sortu zen *Gure Herria* aldizkaria. Aldizkari horretan idatzi zituen gehienbat “Oxobik” bere artikulua, poesiak eta baita frogak zuzendu, sailak aztertu eta abar. Gero, Donostirira igorria izan zen. Eta handik 13 urtetara, Arrangoitzera. “Oxobik” bost liburu idatzi zituen: 1. *Bihotz, oihu, deidar, nigar*. 2. *Alegiak*. 3. *Heiatik zerura*. 4. *Haurelhe haurrentzat*. 5. *Oxalde*. Argitaratu gabeak, *Gure Mendiak*, *Nola gauden eskualdun* pastoralak eta *Urrikalmenduzko parabolak*. Ez zen bakarrik idazlea, pelotaria eta bertsolari txapelketetan bultzatzaile ere izan zen. Aipaturiko *Gure Herria* aldizkaritik landa, *Eskualduna*, *Almanaka*, *Herria* eta abar. Euskaltzain oso izan zen eta hori ere, gure kasuan, azpimarratzekoa da.

— 1888.eko Abuztuaren 20an, Uztaritzen sortu zen Louis Dassance euskaltzain eta euskaltzalea. Parisen “Institut National Agronomique” delakoan nekazal ingeniari ikasi zuen. 1921ean lehen aipaturiko taldearekin, *Gure Herriaren* sortzailetarikoa izan zen, baita urte askotan bultzatzaile ere.

tzaile ere. Aldizkari horretan aurki daitezke haren izkribu nagusi gehienak, Topet "Etzahun"i, Beñat Mardo, Elissanburu eta Goroztarzu poetei buruzkoak, Lapurdi zaharreko historiak, bertso zaharrak, pelotarien istorioak, Darrigol gramatikazaleaz eta abar. Bereziki bat aipatuko genuke: *Herrien eta herritarren izenak eskuaraz* izenekoa. *Kanta, Kantu, Khantare* bildumaren egilea ere izan zen. Euskaltzale bezala, "Eskualzaleen Biltzarra"ren 1921ko sorreratik partaidea izan zen, eta 1925 geroztik elkartearen Buru, 32 urtez. 1949an euskaltzain oso izendatua izan zen. 1959an "Ikas" elkartearen bultzatzailea; 1960an "Conseil de Defense des Langues et Cultures regionales de Paris" erakundeko Buru-ordea, "Musée Basque"ren adiskideen Buru, *Herria* kazetaren sortzailetarikoa. Ez zen izan, agian, idazle oparoa, baina bai euskaltzale purrkatua eta alderdi horretatik zor dio Euskaltzaindiak bere omen hau.

— 1888.eko Abenduaren 6an jaio zen, Oresa Gipuzkoako herri txikieneko *Hiriarte*a baserrian, Nikolas Ormaetxea Pellejero "Orixe". Ikasketak Jesuitetan egin ondoren, laster hasi zen euskal langintzan. 1915ean euskal bertsuak taiutzen hasi zen, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarian. Baita 1918, 19 eta 20an *Acento vasco, unificación del lenguaje literario* eta abar lanak RIEV delakoan. Euskaltzaindia sortu eta berehala urgazle izendatua izan zen eta handik laster, Euskaltzaindiak, Durangon, antolatutako bere lehen biltzarre edo "Euskalegunetan"; 1921ean, hitzaldi bi eman zituen "Eusko olerkitzaz" eta "Eusko olerki neurritzaz". Liburu hauen egile dugu "Orixe": *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*, 1927; *Santa Kruz Apaiza*, Bilbo 1927; *Barne Muiñetan*, Zarautz 1934; *Euskaldunak*, Zarautz 1950; *"Kito'n arrebarekin"*, Guatemala, *Euzko Gogoa* 1950-54; *Latin izkuntzaren joskera*, Bilbo 1966, *Jainko bila*, argitaratu gabea.

Euskal itzulpenetan ere nabarmendu zen, bereziki literatur lan famatuetan, hala nola: *El Lazarillo de Tormes*; F. Mistralen *Mireio*, 1929-30; *Misal completo*, 1943; *Confesiones de San Agustín*, 1956; *Bergsonen Filologia*; *San Juan de la Cruz*en poesia batzuk; *Salmutegia*, 1967; *Itunberriaren* Ebanjelioren parte, Jaime Kerexeta eta Anizeto Zugastirekin batera, 1967 eta abar. *Euzkadi* egunkarian ere 1924-34an idatzi zuen eta "Kirikiño"ren ondoren, euskal ataleko zuzendaria izan zen.

Euskal olerkigintzan behin baino gehiagotan, parte hartu zuen, *Eusko Gogoa*, *Gernika*, *Karmel*, *Olerti*, *Euskera*, *Yakintza*, *El Día*, *Euskalerriarren alde* eta abarretan. Baina lanik famatuena *Euskaldunak* poema izan zen.

Guatemalako exiliotik etorri ondoren, 1957an, Leitzan egin zuen, euskaltzain oso izendatu ondoren, sarrera hitzaldia.

Laburpena besterik izatea ez duen aipamen honekin, uste dut aski eta sobera agertu dela "Orixe" Eri zor diogun ospakizuna.

- Beste bi mendeurren ere ba ditugu datorren urtean, 1. “Instituto Vizcaíno” delakoaren euskal katedra sonatua, hain zuzen, Bizkaiko Batzar Nagusiak 1876.eko Urriaren 4ean erabaki zuten sortzea, baina laster, Foruen galeragatik, Batzarreak suntsitu ziren. Itxoin beharko du 1877.eko Azaroaren 18ra, orduan erabaki bai zuen Diputazioak katedra hori sortzea, gero, hurrengo Otsailaren 15ean iragarriko zena. Bost eta ez nolana-hikoak, gehienak, aurkeztu ziren katedra honen lehiaketara: Pedro Alderdi, Sabino Arana, Resurrección M.^a de Azkue, Eustakio Madina eta Miguel Unamuno. Maiatzaren 29an, Bizkaiko Diputazioko Idazkariak agertutako diktamenean bi proposatzen ditu azken lehiaketara pasatzeko: Miguel Unamuno eta Resurrección M.^a de Azkue. Beste hirurak estudio edo titulaziorik ez zutelako, baztertuak gelditzen zirelarik. 1888.eko Ekainaren 8an erabaki zuen Bizkaiko Diputazioak, Resurrección M.^a de Azkueri ematea katedra hori. Asko idatzi da katedra horretara aurkeztu ziren hiru gizon ospetsuez, alegia, Azkue bera, Sabino Arana eta Migel Unamunoz.

Euskal katedra horrek badu, bestalde, nire ustez, historikoki zerikusirik nahiko. Batetik, Azkueren hizkuntzalari ospea, hor nabarmentzen hasi zela, esango nuke. Nolabait, egungo euskara, literatura eta hizkuntza katedrek hor dute beren lekukotasun historiko nagusia. Egun, Euskal Herriko Unibertsitatean eta baita Euskal Komunitate Autonomoko institutu gehienetan autonomiaren ondotik, katedra ugari ditugulako. Ez ote luke mereziko euskal katedradunen ospakizunezko bilkura bat egitea?

- 1888.eko Irailaren 7, 8, 9 eta 10ean, Gernikan ospatu ziren Euskal Jaiak (Fiestas Euskaras), Abbadiak sortuak, lehendabizi Iparraldean eta gero, Nafarroatik, Gipuzkoara eta Bizkaira pasatu zirenak, 1884ean Mar-kinara eta 1886an Durangora. Datorren urtean beraz, Busturialdeko hiri horretan ospatuko dugu 100. urteurrena. Aurten, Jose Antonio Arana lankideak utzitako hemeroteka eta zehaztasunei esker bildu ditut zenbait zertzelada. Lehiaketa ugari izan zen: ezpatadantzari, aureskulari, palan-kari, musika banda, orfeoi, pintore, erdal eta euskal literaturazkoak. Esan behar dugu euskal literaturakoa, Felipe Arrese Beitiak irabazi zuela, eta epaimahaiko literatura sariketetan, Miguel Unamuno izan zela, beronek irakurri zuelarik euskaraz, Arrese Beitiaren poesia saritua. Uste dugu, beste zenbait hiritan bezala, Euskal Lore Joko hauek ere merezi dutela gure partaidetasuna. Hain zuzen, honetaz eta baita Azkueren euskal katedraz hitz egin genuen, ordezkaritza batek, Bizkaiko Diputatu Nagusi eta Kultura Diputatuarekin, joan den Abuztuan, Zuzendaritzako batzuk ikustaldia egiten etxe honetara etorri zirenean. Ba dakigu, bestalde, Ger-nikako Udala ere zerbait egiteko prest omen dela.

Azken urteotan Euskaltzaindiak ohitura interesgarria du, alegia, ospa-kizun hauen inguruan, zenbait Jardunaldi antolatzea. Aurten bertan hone-

la egin duelarik, Martxoan, *Euskalduna* aldizkariaren inguruan, Lapurdin, V. Barne Jardunaldiak eginez; Maiatzean, Toribio Etxebarriaren mendeurrena dela eta, Gramatika Jardunaldiak, Arrate-Eibarren; Ekainean, Zarauzko 750. mendeurrena dela eta, Lexikologi VII. Jardunaldiak eta Leitzan, Patxi Zabaletaren sarrerarekin batera; Licenciado Pozaren IV. mendeurrena dela eta Onomastikaz II. Jardunaldiak, Urduñan. Era berean, datorren urterako Leitzan finkatu ziren VIII. Lexikologi Jardunaldiak, Martxoaren hondarrean egitea, "Otsobi"ren mendeurena dela eta, Nafarroa Behereko Bidarrain. Agian, beste batzorderen batek egitea nahi izango ditu Jardunaldi batzuk eta komeniko litzateke mendeurren ospakizunen inguruetan egitea.

Hain zuzen, "Orixen"ren mendeurrena dela eta, bilera bat izan da hil honen 5ean, Orexan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria, Oresa eta Uitziko alkateak, mendeurren hau antolatzeko sortu den taldekoak eta Euskaltzaindiaren izenean, Juan San Martin. Jakina da, Orexan sortu baino ez zela egin, handik egun gutxitara Uitzira joan bait zen bizitzera. Beraz, bi herriotan egingo dira ospakizunak, Orexan momentua jarriko zaio eta Uitzin bilkurak. Uitzin lehen monjen ikastetxea izandakoan, orain Kontzejuak eresia, berriztatzeko asmoa dago. Etxe ederra da eta bertan, barnetegi gisa, euskal kulturaren zerbitzueterako jartzeko asmoa dute, "Orixenea" izena jarri diotelarik. Interesgarria izango litzateke Euskaltzaindiak ere, Azaroaren ondarrean, aipatuko egunetan, zerbait berezi antolatzea "Orixena" deritzon etxe horretan.

Jean Haritschelhar, Euskaltzainburu-ordeak Zuzendaritzako bileran aipatu zuen, agian, Iparraldean euskaltzain izandako biren mendeurrena, Martxoaren egun berean, elkaturik ospatu daitekeela, "Otsobi"-rena eta Dassancerena, Bidarrain; zeren eta Uztaritzen askotan bildua baita Euskaltzaindia. Kontutan izan behar dugu gainera, Dassance, Abuztuan jaio zela, garai desagokia zerbait antolatzeko. Bestalde, Euskaltzaleen Biltzarak ere agian, 32 urtez bere Buru izandakoari, bereziki, zerbait egingo diola, espero da.

Beraz guzti hau kontutan izanik, 1988. urterako egutegi proposamenak dakartzet. Hara laburpena:

Egutegi laburpena - 1988

- **Urtarrilaren 29an**, hileroko batzar arruntak Donostian.
- **Otsailaren 26an**, hileroko batzar arruntak Donostian.
- **Martxoaren, 25, 26 eta 27an**, "Otsobi" eta Dassanceren mendeurren ospakizuna, hileroko batzarra eta VIII. Lexikologi Jardunaldiak, Bidarrain.
- **Apirilaren 29an**, hileroko batzar arruntak Donostian.

- **Maiatzaren 27an**, hileroko batzar arruntak Donostian.
- **Ekainaren 24 eta 25ean**, hileroko batzarrak eta Euskal Katedraren mendeurren ospakizuna, Bilbon.
- **Uztailaren 29an**, hileroko batzar arruntak Donostian.
- **Irailaren 30ean, Urriaren 1 eta 2an**, Iraileko batzarrak eta oraindik zehaztu gabeko Jardunaldiak, Gernikan.
- **Urriaren 28an**, hileroko batzar arruntak Donostian.
- **Azaroaren 25, 26 eta 27an**, “Orixen”ren omenez, hileroko batzarrak eta Jardunaldiak, Uitzin.
- **Abenduaren 30an**, hileroko batzar arruntak Donostian.

P.D.: Heldu den urtean izango dira, agian, beste bi ospakizun, D. Manuel Lekuonaren eta Koldo Mitxelenaren ordezkoko euskaltzain oso berrien sarrera-hitzaldiak. Egutegia, beraiekin finkatu beharko dugu.

EUSKALTZAINDIAREN ARGITARAPENAK

Bilbo, 1987-XII-18

*Ricardo Badiola Uriarte
Argitarapenen Eragilea eta Batzordeko Idazkaria*

A) EUSKALTZAINDIAK BERAK 1987.URTEAN ARGITARATUAK

A) 1. **Euskera** agerkaria (1986-2):

P. Xarrittonen Euskaltzaindian sartzea. Lexikologi erizpideak finkatzeko IV. jardunaldiak. Euskal azentu eta ebakeraz II. jardunaldiak. Atlas-gintza. Euskaltzaindiaren agiriak. Herri-izenei buruzko adierazpenak. Batzar txostenak eta berriak sailak barnetzen ditu.

2. **Euskera** agerkaria (1987,1)

Une honetan inprimategian dugu, azken frogetan. Bertan hurrengo sailak azalduko zaizkigu, hots:

Damaso Intza, Oieregi eta Aita Donostiaren mendeurrena.

P. Topet Etxahunen bigarren mendeurrena.

Gailaburrak, alegia: J. B. Orpustan eta K. Morvay.

Euskaltzaindiaren Agiriak. Herri-izenei buruzko adierazpenak. Batzar txostenak (Koldo Mitxelena, Jose Antonio Arana Martija, S. Calleja- X. Monasterio, A. Sagarna, Juan San Martin, Karmele Rotaetxe).

Eta hilberria: Balendin Enbeita.

3. *Linguae Vasconum primitiae*

Bernard Etxepare. Patxi Altunak paratua. (Berrargitarapena). Euskaraz inprimaturiko lehen liburuaren (1545) edizio kritikoa.

4. *Euskal testu zaharrak (I)*

Euskararen Lekukoak 13. zenbakiduna. Jose M. Satrustegik paratua. Nafarroako euskararen lekuko da eta, batez ere, hilik dagoen goi-nafar-hegoaldeko euskalkia aztertu nahi dutenentzat baliagarri gertatu ahal da. Liburuak berrogeitamar atal dauzka, beste horrenbeste eredu desberdinekin.

Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

5. *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania*

Euskararen Lekukoa 14. zenbakiduna. Une honetan inprimategian, azken frogetan dugu.

Fr. Luis Villasantek prestatua.

Inoiz argitaragabeko ikasbide edo dotrina dugu. Liburuak Mogelet, pertsona nagusientzat egitea nahi izan zuen.

Lavieuxvilleren ikasbidean oinarriturik dago, dirudienez. Lavieuxvilleren lan hau Euskararen Lekukoak 11. zenbakiduna dugu. 14. zenbakidun honetan, Mogelet, *Peru Abarca*-rekin batera, pastoral zereginetatik kanpo euskarak ba duela ahaltasunik ideiak azaltzeko adiera nahi du. Itxuraz bi kodize daude bat Arantzazun eta beste bat Derioko apaiztegian.

Fr. Luis Villasantek, liburuaren barne, kodize biok erkatu egiten ditu.

Argitarapen honek Bizkaiko Foru Diputazioko Kultura sailetik dirulaguntza jaso du.

6. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*

Onomasticon Vasconia-2.

Jose M. Jimeno Jurio jaunak paratua.

Une honetan, inprimategian dugu, azken frogetan.

Iruñerriko leku-izenak biltzen ditu, bai agiri zaharretan daudenak, bai oraingo toponimia. Zenbait karta edo mapa ere azaltzen zaizkigu leku-izen bakoitza kokatzeko.

Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

7. *Iparragirre*

Jagon-2. Elkarlanean buruturiko argitarapena, hots:

Paco Rodríguez de Coro, Justo Garate, Juan M.^a Lekuona, Manuel Lekuona (Goian Bego), Jose M. Satrustegi, Endrike Knörr, P. Xarriton,

Juan San Martin, Jose Antonio Arana Martija (hiru lan), Federico Zabala eta Ander Arana Bareño (index onomasticon).

Jose M.^a Iparragirrerren heriotzearen (1881) lehen mendeurrena dela eta Euskaltzaindiak buruturiko lanen bilduma.

Liburu honen taiutze, maketatze eta zehaztea Jose Antonio Arana Martijari zor diogu. Eskerrik asko Jose Antonio lankideari.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

8. *Hitz-elkarketa/ 1*

Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordeak 1986.urtean zehar buruturiko lanaren ondorio eta emaitza dugu argitarapen hau. Liburu honek laguntza eskaini ahal du egungo irakurle, kazetari, idazle eta abarreko euskal buru-langileek, euskararen hainbat barne-lokarriz etxetik edo eskola bidez eskuratua duten ezaguera sendoagotu beharrean sentitzen dutenez bereziki, hitz-elkartuak nola erabili eta, haren beharrean gertatuz gero, nola eratu era artezago batez jakin dezaten.

9. *Euskal gramatika. Lehen urratsak-1 (Eraskina)*

Gramatika batzordeak paraturiko lana. Argitarapen hau lehen liburu-kia: *euskal gramatika: lehen urratsak-1* osatzera datorkigu, alegia:

hitzen ordena, *-ko* atzizkia eta deklinabide taulak ematen zaizkigu, banan banan, ereduzko eta zalantzazko kasu guztiak geratzen zaizkigu adieraziak, Euskaltzaindiak euskara baturako onetsirik dauzkan formetan oinarrituz.

10. *Euskal gramatika: lehen urratsak-2*

Gramatika batzordeak paraturiko lana.

Une honetan, azken frogetan, inprimategian dugu.

Bertan aditz sintagma aztertzen zaigu, alegia: aditza, laguntzailea nahiz trinkoa, aditz multzoa osatzen duten bestelako osagaiak; perfrasi multzoak eta abar. Halaber, aditz paradigmak ere agertzen zaizkigu.

11. *Oinak*

Oinarrizko euskararako batzordeak prestatua (6. argitarapena).

Euskara ikasten ari direnentzat lehen mailako irakurgaiak.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

12. *Oinarriak*

Oinarrizko euskararako Batzordeak prestaturiko liburukia.

Euskara ikasten dabiltzan ikasleentzat hirugarren mailako irakurgaiak.

Iberduerok babesturiko argitarapena.

13. *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*

Andrés de Poza.

Faksimilez egindako berrargitarapena laugarren mendeurrenean: 1587-1987. Urduñan jaio Errenaisantza denboretakoa.

Poza hizkuntzalaria, abokatua, matematikaria eta astronomoa izan zen. Bi liburu argitaratu zituen eta beste bat, foruei buruzkoa, argitaratu gabe daukagu Bizkaiko Foru Diputazioan.

1987.urtean, Euskaltzaindiak edizio faksimil batez, mila ale zenbaituak atera ditu. Kultur Ministraritzak emandako laguntzari esker argitaratu du Euskaltzaindiak Licenciado Pozaren laugarren mendeurrenean, hots, liburua, lehen aldiz, 1587.ean argitaratu baitzen.

Liburuaren titulua:

De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria.

Andres de Poza hau, Bizkaiko Jaurerriko abokatua zen XVI. mendean, Licenciado Andres de Poza: Salamanca-n eta Lovaina-n ikasia, Europan barrena egin zuen lan Erregeren aginduz eta haren izenean. Euskararik ba zekien? Ez dakigu.

Beraren emaztea Orozkokoa zenez zerbait jakitea ez da bat ere harritzekoa. Hala ere, ba dirudi euskara hurbil hurbiletik ezagutu zuela. 1987.urtean Euskaltzaindiak II. toponimia jardunaldiak direla eta argitara eman duen liburuan azaltzen dira Licenciado Pozaren ideiak hizkuntzaritzari buruz. Liburuan egiten du garai hartako Europako hizkuntzen zerrenda eta sailkapena, oso zehatza eta garai hartako bestek baino egokiagoa.

Adibidez, Albanierari buruzko datu estimagarriak eskaintzen dizkigu bertan. Hizkuntza hauek familiaka sailkatzen ditu, eta sailkapena —zabala eta hedatua— Espainian egin izan den bigarrena dugu eta Europakoen arteko lehenetarikoa.

Gaztelanian aurkitzen zituen eragin germaniarrak ere aztertzen ditu, huts gutxi eginez gainera, Eugenio Coseriu hizkuntzalari errumaniarrak II. onomastika jardunaldietako sarrera hitzaldian adierazi zuen bezalaxe,

Urduña hirian. Euskararen inguruan historian zehar mantendu izan diren zenbait ideia ere Licenciado Pozak eman zituen: hala, euskara eta iberikoaren arteko erlazioak eta euskara eta Kaukaso aldeko hizkuntzekin izan daitezkeen ahaidetasunak.

Idea hauek ez dute gaurkotasunik galdu eta berriki arte izan dira teoria hauen defendatzaile sutsuak. Licenciado Poza izan zen, bada, hipotesi hauen aintzindari. Gutxi da dakigu ere Licenciado Pozari buruz, komeni zaigu jakitea zerbaitegatik eskaini zaiola Bilbo erdi erdian kale bat. Sarri askotan gertatzen den legez, kalea ezagunagoa da ohoratu gura edo nahi duen pertsonaia baino.

Garai hartan Europako hizkuntzei buruz jakintsuek ziotena kontutan izanik, ezpairik gabe esan dezakegu gure Licenciado Poza jakintsua zela, asko zekiela, xehetasun handi eta anitz ematen bait dizkigu beraren lanetan. Beraz, Urduñako seme eta bizkaitar hau unibertsa edo jakite mailan orokorra zen.

14. *Argitalpenen katalogoa. 1987*

Euskaltzaindiak berak bere kabuz edo eta beste batzuren laguntzaz edo babesaz argitaratu dituen lanen zehetasunak dakartzan liburukia, hots:

- 14.1. **Euskera** agerkaria: 45 zenbakitan sailkatua.
 - 14.2. Euskararen lekukoak: 13 zenbaki.
 - 14.3. *Iker* saila: 4 zenbaki.
 - 14.4. Onomasticon Vasconiae: 2 zenbaki.
 - 14.5. *Jagon* saila: 2 zenbaki.
 - 14.6. Hiztegiak eta izendegiak: 9 zenbaki.
 - 14.7. Soziolinguistika saila: 6 zenbaki.
 - 14.8. Gramatika eta metodoak: 36 zenbaki. Hemen oharño bat, metodo sailean:
26 liburuki - 350.000 ale baino gehiago argitaratu ditugu.
Guzti hauek Iberduero enpresak babesturik.
Oraintxe, *Iparragirre* (Jagon-2).
 - 14.9. Batzu: 37 zenbaki.
 - 14.10. Jokin Zaitegiren itzulpenak: 8 zenbaki.
- Orotara*: 180 bat argitarapen.

B) EUSKALTZAINDIK BESTE BATZUREKIN 1987.URTEAN ARGITARATURIKOAK:

15. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia (I)*

Editorial Desclee De Brouwer, S.A. - Ediciones Mensajero, S.A.

Koldo Mitxelena paraturiko lehen liburukia.

16. *Zure argi kliskak*

Felix Zubiagak paratua.

1986.urtean “Felipe Arrese Beitia” olerki saria irabazi zuen lana. Bizkaiko Aurrezki Kutxa- Euskaltzaindia.

17. *Publikoari gorroto*

Xabier Mendiguren Elizegik paratua.

1986.urtean “Toribio Alzaga” antzerki saria irabazi zuen lana.

Bizkaiko Aurrezki Kutxa- Euskaltzaindia.

18. *Carmen Vasconicum plus quingentis linguis*

Gabriel Arestiren “nire Aitaren etxea defendituko dut” olerkiaren itzulpenak. Patxi Oroz Arizkunek paratua. Europako hizkuntzetara itzulia.

Tübingeneko Unibertsitateak argitaratua, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz.

Lehen liburukia, hiru izanen baitira.

Liburuki hau Euskaltzaindiari eskainia dugu.

**EUSKALTZAINDIAREN
BATZAR - AGIRIAK**

1987-VII-24

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1987ko uztailaren 24ean egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Goizeko 10 t'erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zearreta Ekonomi eragilea, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, E. Knörr eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Ekaineko bi batzar-agiriak onartu dira.

Eskuarteko gaiak

Hizkuntz Politikarako Idazkaritzatik gutun bat hartu da, orain berritzekoa den Eusko Jaurlaritzako "Euskararen Aholku Batzorderako" ordezkaria izendatzeko eskariarekin. Karguan J. Haritschelhar jaunak jarrai dezala, erabaki da. Horrela jakineraziko zaie arduradunei.

Licenciado Poza-ren mendeurrena Urduñako Onomastika Jardunaldiak bate-ra, irailean egingo dela aditzera eman du J. L. Lizundiak. Eugenio Coseriu eta Carlos Gonzalez Echegaray jaunek euren txostenak prestatuko dituztela hitzema-na dute. Hirugarren hitzaldi baten aipamena ere egin da.

HABEk, *Euskalduntzen C mailarako langaiak* izeneko bere liburuan sartzeko, Euskaltzaindiak argitaratutako zenbait lanen baimena eskatu du. Eragozpenik ez dagoela erantzungo zaie.

Nafarroako Gobernuarekin edukitako azken harremanen berri eman du J. M. Satrustegik. Harrera onaz bestalde, J. M. Jimeno Jurioren Iruñerriko Toponimia lanen bigarren alea plazaratzeko diru laguntza lortu da, eta Nafarroako Onomastika bilketaren jarraipenerako laguntzak ere eskaini dituzte. Ondoko egu-netan prestatuko den hitzarmena laster izenpetzeko asmotan gelditu dira.

J. San Martin Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilari berriarekin mintzatu da. Miramar jauregiko egoitzari dagokionez, lehen eskarian aipaturiko beharrez bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lantaldea ere bertan sartzeko gogoia agertu zion. Talde honek EJIekoekin dituen zailtasunak arindu beharra aipatu zion gero, Hiztegiaren argialetxeekin sortutako tirabiraren berri emanez denbora berean.

Zuzendaritzak kargudun berriak agurtu ditu. Imanol Murua Diputatu nagusia eta Jose Luis Telleria Kulturako diputatuarekin mintzatu dira, euskaltzainburua, buruordea, idazkaria eta diruzaina.

L. Villasante eta J. San Martin, M. Lekuona euskaltzaina ikusten izan direla, aditzera eman da.

Urgazleen izendapena

Bi urtetik behin egin daitezkeen izendapen hauek duela bi urte ez ziren egin eta, oraikoa, batez ere batzordeetan lanean ari direnen artean egin nahi izan ditu Euskaltzaindiak. Arautegiak dioenez, bi euskaltzainek izenpetuz egin dira aurkezpenak.

Bertan zeuden hamahiru euskaltzainez landara, E. Knörrek P. Salabururi eman dio bere ahala, eta P. Larzabalek P. Charrittoni. Beraz, hamabost dira euskaltzain hautesleak. Aurkezturiko hautagaiak, hemezortzi.

Banan-banan eta txartelen bidez egin da bozketa. Gehiengo osoa lortu dutenak honako hauek izan dira: Xipri Arbelbide Mendiburu, Andres Iñigo Ariztegi, Jose M. Jimeno Jurio, Jose M. Larrarte Garmendia, Abel Muniategi Elorza eta Andoni Sagarna Izagirre.

1988ko aurrekontuak

Datorren urteko aurrekontuak aurkeztu ditu gero Ekonomi eragileak. Gastu arruntek ez dute inolako arazo berezirik sortu eta besterik gabe onartuak izan dira.

Batzordeen aurreasmoez, alderantziz, diru kopuruaren igokada haundia agertzen dute era erakundeen aurrean zaila izango dela dena lortzea, aditzera eman du J. J. Zearretak. Gero eta gehiago begiratzen da kostuen eta emaitzen arteko orekari eta zenbait helburu beste une baterako utzi beharrak ote diren ere esan da. Eztabaida horretan, Nafarroako Gobernuaren partaidetza zertan den galdeztzen da. Asmo onak ukatu gabe, eskuarteko hitzarmen guziak gaurkotu eta zehaztu ondoren gauzatuko da Nafarroako hitzarmen nagusia, eta horrek bere denbora eskatzen duela, izan da erantzuna.

Aurrekontuen gorakada orokorraren ehuneko portzentaia bera batzorde guziei gutxitzea, proposatu du P. Salaburuk, horrela aurkeztu badaitezke beste aldagatarik gabe.

Ontzat eman du batzarreak proposamen hau.

Batzordeen berri

Onomastika batzordeko idazkaria den J. L. Lizundiak irailaren 24, 25 eta 26an Urduñan egitekoak diren Jardunaldietako aurre-lanen kontu eman du, lanak eskaini dituztenen zerrenda nahiz euron gaiak aipatuz.

Batzordeak azken ekainaren 26an onartutako eritzien ildotik, bost zati edo ataletan sailkatu dira Jardunaldiok, bakoitzeko txostena eta komunikazioak hizkuntza eta geografiaren arauera elkartuz.

Eta besterik gabe amaitu da goizeko batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

LICENCIADO POZAREN IV. MENDEURRENA

Batzar irekia, 1987-IX-23

Urduñako, “Arana’tar Sabin” Kultur Etxean ospatu da Licenciado Pozaren omenezko Euskaltzaindiaren batzar irekia. Mahaipuruan bildu dira: L. Villasante, Euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea; Joseba Arregi, Jaurlaritzako Kultur Kontseilaria; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Diputazioaren Kultur Diputatua; M.^a Karmen Garmendia, Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria; Ana M.^a Barañano, Urduñako Alkatesa.

Kultur Etxeko aretoa jendez beterik dagoelarik, bertan aurkitzen dira baita ere: A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Salaburu eta J. San Martin, euskaltzainak; J. Bilbao, euskaltzain ohorezkoa; R. Badiola, J.A. Etxebarria, J. L. Goikoe-txea, A. Iñigo, J. M.^a Jimeno Jurio, J. M.^a Larrarte, J. L. Lizundia, L. M.^a Mujika, A. Muniategi, J. Oleaga, Tx. Peillen, M. M.^a Ruiz Urrestarazu, A. Sagarna, P. Uribarren, Mikel Zalbide eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Lehendabizi, L. Villasante Euskaltzainburuak agurrezko hitz batzu esaten ditu. Euskaltzaindiak, Euskal Herrian zehar, honako bilkurak egiten dituela azpimarratuz. Aurten, Licenciado Poza Urduñako semearen omenez beraren *De la antigua lengua de las Españas* liburu famatuaren argitalpenaren IV. mendeurrena dela medio. Euskaltzainburuak adierazten du baita ere nola Onomastikazko II. Jardunaldiak irekitzen diren hemen bertan. Iaz, lehendabizikoak egin ziren Gasteizen eta aurtengo honetan gai nagusi bezala hau da: “Euskal onomastika egun euskara mintzatzen ez den tokietan”.

Jarraian, Eugenio Coseriu errumaniar hizkuntzalari eta Alemaniako Tübingeneko Unibertsitateko irakasleak, hitzaldi oso interesgarria ematen du, gai hau harturik: “Andrés de Poza lingüista del Renacimiento”. Puntuz-puntu, Licenciado Pozak garai hartako hizkuntzalaritzan izan zituen ikerketak eta jakiteak gorai-patu ditu, bai euskarari buruzkoak, bai Europako hizkuntzen sailkapenean errumaniara latin hizkuntza zela lehendabizikoz zabalduz.

Ordoren, L. Mitxelena jaunaren gutun bat irakurtzen da, zeinetan beraren emaztearen gaixotasunagatik, ezin etorri agertzen bait du. Beraren txostena: “Actividades no registradas de Andrés de Poza en Flandes” geroagorako agintzen du.

Hurrengo, Carlos González Etxegarai jaunak Licenciado Pozaren bibliografiaz hitzaldia ematen du, zehatz-mehatz Pozaren lanak arakatuz eta beraiek izan dituzten berrargitalpenen berri emanez.

Segidan, Euskaltzainburuak, banan-banan deiturik, euskaltzain urgazle berriei izendapen diplomak banatzen zaizkie: Andrés Iñigo, José M.^a Jimeno Jurio, José

M.^a Larrarte, Abel Muniategi eta Andoni Sagarnak hartzen dute agiri hori. Xipri Arbelbidek bere ezin etorria adierazten du.

Azkenik, Joseba Arregi, Jauriaritzako Kultur Kontseilariak, Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren izenean, II. Onomastika Jardunaldiak zabaltzen ditu, Licenciado Pozaren mendeurren goratzarre honetan.

Batzarrea amaitu ondoren, II. Mapagintza Erakusketa irekitzen da.

Urduñako Udaletxean, 1987.eko Irailaren 25ean egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea. Goizeko 11 terdietan, bildu dira: L. Villasante Euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, P. Salaburu, J. San Martin eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia Idazkari-ordeak, Idazkari bezala egiten duelarik.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal, F. Ondarra eta J. M.^a Satrustegi jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ana M.^a Barañano Urduñako Alkatesak euskaltzainei bere ongi etorria ematen die, ohore bat dela esanez Jaurerriko Hiriaren Udaletxean biltzeagatik.

Uztaileko batzar agiria onartu da.

Heriotzeak eta hutsarteak

D. Manuel Lekuona euskaltzainaren heriotzearen berri eman du Euskaltzainburuak, L. Villasante jaunak, jarraian, euskaltzain baten hutsunea iragarri du, hautagai proposamenduak hurrengo bi batzarretan aurkez daitezkeela aditzera emanez, Arautegiaren 33. art. arabera.

Manu Ziarsolo "Abeletxe" euskaltzain urgazlearen heriotzearen berri ere eman da. Zendu bion senitartekoei Euskaltzaindikoen dolumina agertzea erabaki da.

a) **Euskal azentuaz.** J. L. Alvarez Enparanza "Txillardegi" k U.E.U. ko biltzarren izenean gutun bat eman ziola adierazi du Euskaltzainburuak. Gutun honetan zenbait puntu aztertzen dira euskal azentuaz eta Euskaltzaindiari alor honetan bere erizpidea ezagutaraz dezala eskatzen dio. Bestalde, L. Mitxelenak ere gai berberaz, hots, azentuaz, txosten bat prestatuko duela esan dio Euskaltzainburuari. "Txillardegi" k emandako gutun hau euskaltzainen artean banatu da eta Donostian egingo den hurrengo batzarrean aztertzea erabaki da. Hala adieraz biezaio idazkiaren egileari.

b) **"Consejo de Universidades" delakoaz.** Estatuko "Consejo de Universidades" delakoaren Emilio Lamo de Espinosa Idazkari Nagusiak gutun batez zenbait estudio plangintza bidaltzen ditu Euskaltzaindiaren erizpena eskatuz. Akademia honi zuzenean euskal filologiakoa dagokiolarik, informe hori prestatzea eta bidaltzea ontzat eman da. Horretarako A. Irigoyenek eta E. Knörrek zirriborroa prestatuko dute, P. Altuna eta P. Salabururi entzunez. J. B. Orpustan, B. Oyharzabal eta Tx. Peilleni ere ale bat igortzea interesgarritzat jo da, beraiek zerbait

esateko baldin badute. Urriko batzarrean, aipaturiko lau euskaltzainak bilduko dira zirriborro hori erabakitzeko.

d) **Izendapenak.** “Ministerio de Cultura”tik gutun bat igorri dute “Premio Nacional de las Letras Españolas” sarirako Akademia honen izenean epaimahai-kidea proposatzeko. Endrike Knörr jauna izendatu da.

Txomin Agirre eleberri sarirako eta *Mikel Zarate* saiokorako epaimahaiak izendatzeko epea iritsi da. *Txomin Agirrerako:* Jean-Louis Davant, Eusebio Erkiaga eta Juan Angel Etxebarría hautatzen dira, ordezeko bezala, Juan San Martin. *Mikel Zaraterako:* Pierre Charritton, Alfonso Irigoyen eta Federico Krutwig.

e) **Batzorde gaiak.** J. L. Lizundiak, Onomastika Batzordeko Idazkariak, Batzorde honek joan den 8an, Iruñeko Ordezkaritzan, izandako bileraren berri ematen du, zeinetan Nafarroako Herri Izendegiaren l.l. zerrendari lehen onarpena emanda utzi bait zen. Zerrenda honek Zangoza merinaldeko euskal eremu eskualdeko ibarretako herri, herrixka eta auzo gotorren zerrenda hartzen ditu. Batzordekideek lehen onarpena eman zioten, salbu bost herri izen. Hauek gaur batzordekideen artean berrikustekotan gelditu dira, Urduñako Batzordearen bileran ziurtatzekotan utzi bai ziren. Urriko batzarrerako beste zerrenda bat prestatzekotan gelditu zen Batzordea.

P. Salaburuk, Baztan-Bidasoako zerrenda prestatzen denean, berak ere parte hartzea eskatzen du.

f) **Eskuarteak.** “Federación de Cajas de Ahorro Vasco-Navarras”ko Idazkari Orokor Teknikoa den Agustin Garmendia jaunak gutun bat idatzi du, *Euskadiko Kutxa* eta beste izen batzuei buruz, itzulpenak eta berauen zertifikatu ofizialak igortzea eskatuz. Batzarkideen ustez itzulpen soilak egitea ez da gauza zaila, baina auzia baino lehen zertifikatu gisa ematea ez da prozeduratzat jotzen.

P. Zabaletak bere sarrera hitzaldiari buruz egitarau proposamena ekarri du. Berau Urriaren 25ean izango litzateke Leitzan, bere jaioterrian. Gaitzat: “Euskararen etorkizunerako baldintzak Nafarroan” hartu du; erantzuna, P. Charrittonek egingo dio. Babes kontuaz, J. Oronoz Alkatearekin egon dela adierazi du. Zenbait puntu zehaztu ondoren, honela programatu da: hileroko euskaltzainen bilkura, azken ostiralean, 23an, izango litzateke Udaletxean; ondoren, Lexiko Erizpide Finkapenerako VII. Jardunaldiak, eta igandean, eguerdiko 12etan, ospakizuneko batzar irekia. Zehaztasunak lotzeko P. Zabaleta eta J. L. Lizundia arduratuko dira, Leitzaiko Alkatearekin izatekotan.

E. Knörr euskaltzainari bere tesi doktoregoarengatik zorionak ematea erabaki da.

J. Haritschelhar buru-ordeak Euskaltzaindiaren Iparraldeko legeztapen gestioen berri eman du. “Association” bezala izango du nortasuna eta horrela iragarri da Irail honen 9ko *Journal Officiel de La République Française* delakoan. Elkarte Kontseiluak sei kide izango ditu, berauetatik lau euskaltzain oso bederen eta Zuzendaritzan hirutik bi. Azken hau honela geldituko da: Burua, J. Hiriart-Urruty; Idazkaria, B. Oyhartzabal eta Diruzaina, J. Haritschelhar.

Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen tomoaren argitalpenaz informatzen du J. San Martin jaunak. Argitaletxekoekin izandako zenbait harreman zehazten ditu eta baita ere lehen ale horren azal, eta atariko testu ereduez. I. Sarasola eta bere laguntzaile bat lehen liburukiaren inprenta frogak zuzentzen ari direla, adierazi du, bestalde. Euskaltzainburuak sarrera-agur bat egitea ere ongi legokeela aipatu da. Guzti honen berri L. Mitxelena jaunari eta Jaurlaritzako Hizkuntz Politikaren Idazkariari aditzera emango zaie.

Ete besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose Luis Lizundia
Idazkari-Ordea

ONDORIOAK

1. Batzarkideek beren poza azaltzen dute aurtengo Jardunaldiotako helburua lortu bait dute, alegia, egun euskara mintzatzen ez den tokietako onomastika biltzea eta ikertzea.
2. Gobernu Autonomo eta Foralari eta Foru Diputazioei onomastika ikerketak bultza ditzaten eskatzea beharrezkoa ikusten dute, batez ere toponimiari buruzkoak Enkarterri, Aiara, Lizarrierrian, eta abarretan. Beka-dunak hautatzean Akademi Erakundeen aholkuak kontutan izatea beharrezkotzat jotzen dute.
3. Euskal Filologi, Geografi eta Historia Sailak onomastikarekiko eremua kontutan hartzea egoki litzateke, honetan Euskaltzaindiko Batzordeak orain arte buruturiko lanen berri eta aurrerantzekoen koordinaketa egiteko prest izanik.
4. Era berean egoki jotzen dugu gure inguruko Kultur Erakundeekin harremanak izatea.
5. Jabego Erregistro, Artxibategi, Protokolotegi eta abarretara sarrera erraztea behar-beharrezkoa da, berau onomastika ikerketarako ezinbestekoa baita.
6. Herri Administralgoak uneoro begiz jo behar du egitean eta eremuak finkatzean kontutan izan ditzala izen-ezartze eta toponimia ofizialtzean errealitate historiko eta linguistikoak.
7. Arreta handiz entzun ditugu merkatal izendegiarekiko komunikazioak, gure artean berau baita ia-ia landu gabeko eremua.
8. Era berean itxaropen handiz ikusi dituzte Batzarkideek Erdi Aroko iturri historikoetan azaltzen diren toponimiarekiko zerrendez egiten ari diren egungo ikerketak.
9. Jose M.^a Jimeno Jurioren gidaritzapean prestatuturiko *Euskal Herriko toponimia bilketarako gidaliburua* estimagarri eta balio handikotzat jo dute, lan hau hobegarri izanik oso erabilgarria izango delarik.
10. Ameriketa aurkitzearen V. mendeurrenerako bost urte falta direnean, premiatsuzkoa ikusten dugu Ameriketako euskal onomastikaz ikerketak burutzen hastea, kontinente berrian euskaldunen izatea frogatzen duelarik.
11. Era berean II. Euskal Mapagintza Erakusketak sorturiko poza adierazi nahi dugu, irakurritako ikerketen osagarri bikaina izanik, eta egoki-egoki jotzen dugu Euskal Herriko beste toki batzutan ere erakusketa egitea.

12. Azkenik, Jardunaldiok ezin izango genituen egin Bizkaiko Foru Diputazioak eta Urduñako Udalak babesa ez bazuten eman, Erakundeari gure eskerrik zintzoenak azaldu nahi dizkiegularik.

Urreztieta (Avellaneda)ko Juntetxean, 1987, Irailak 26.

Leitzako Udaletxean, 1987ko urriaren 23an, arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea, R. Badiola eta J. J. Zearreta Argitarapen eta Ekonomi eragileak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Karmen Agirre, herriko Alkatesaordeak, hitz laburrekin ongietorria eman dio Euskaltzaindiari.

Iraileko batzar-agiria onartu da.

Samin haundiarekin bada ere, Koldo Mitxelena Iker Sailburuaren heriotzea aipatu beharrean aurkitzen dela, aditzera eman du Villasante euskaltzainburuak, eta Arautegiaren 33, 34 eta 35. artikuluen arauera hutsunea betetzeko proposamenak aurkezteko epea irekitzat eman du. Datorren abenduko batzarreraino ekar daitezke hautagaien izenak.

Jose Estornes Lasa erronkariar euskaltzain urgazlearen hil berria ere eman da. J. M. Lekuonak egingo du bere osabaren hileta txostena, L. Villasantek Mitxelenarena, J. M. Satrustegik Estornes Lasarena eta A. Irigoyenek "Abele-txe"-rena.

Gaiak bultzatuta, egunkarietako hileta iragarpen edo eskelen aipamena egin du J. San Martinek. Behin edo beste Euskaltzaindiak bere izenean agertu izan baditu ere, arrazoi askorengatik utzia duela, esan du. Baina horren orde, zenduaren argazkiarekin txartelak ateratzea proposatu du, katalandarren ereduari jarraituz. Aho batez onartu da euskaltzain oso guziei oroigarri hori eskaintzea, M. Lekuona eta K. Mitxelena aurtun joandakoeekin hasita.

Orotariko Euskal Hiztegia

L. Mitxelenarekin *Orotariko Euskal Hiztegiak* bere arduradun eta egile nagusia galdu duela jakinik, haren lagunekin mintzatu dira Villasante eta San Martin

beren lantegian. Arazoarekin kezkatuak joan baziren ere, lasai gelditu zirela elkarriketaren ondoren, dio euskaltzainburuak. Izan ere, Durangoko Azokarako aterako omen dute lehen alea, eta datorren udaberrian kaleratzeko asmoa dute bigarrena. I. Sarasolari dagokionez, Barcelonan hemen baino denbora gehiago izango duela bere lana burutzeko, aitortu die. J. San Martinek bere aldetik aurreratu duenez, Sarasolak berak omen dauka inork baino hobeki hiztegi hau aurrera ateratzeko gakoa, eta bizkortu egingo dela irteera maisuaren argibide baliotsu asko galdu baditu ere. Mitxelenak berak esandako hitz hauek gogoratu ditu euskaltzainburuak: “Axular bezala naiz; gerotik gerora nabila”.

Argitalpenen Erregela Berezia

Argitalpen batzordeak aurkezturiko Erregela Berezien zirriborroa eztabaidatu da gero. Erregelak beharrezkoak direla, esan du euskaltzainburuak; ezin da bakoitzak bere aldetik ibili. Baina kezka garrantzizko bat agertu du berehala: Gehiegi estutzea komeni al-da? Ez ote da “Lekukoen” bilduma bezalako bat pikutara joango?

Nola nahi ere, proposamena bere osotasunean irakurri da denentzat eta datorren batzarrera ekar ditzake bakoitzak bere oharrak, idatzita noski.

Ordenagailuak

Bulego eta batzorde nagusiekiko lan prozedura gaurkotzeko ahaleginetan, proposamen zehatzen beharra ikusi zen Angelun. Teknikoekin harremanetan daude arduradunak eta Iñaki Ibarra, Atlasgintzako ordenagailuak ezarri dituenak, mintzatu da tresneriari buruz. Galde erantzunen ondoren, orokorki ontzat eman da proposamena eta teknikoek esku uzten da behar den eran aurrera eramateko lana.

Eskerrak eman zaizkio Iñaki Ibarrari bere lanagatik.

Ekonomi batzordea

Diruzaintzako batzordearen izenean, J. J. Zearreta mintzatu da. Aurtengo diru kontuetan partida gehienak normalki doazela orain arte, esan du. Abiada onari eusteko alferrikako gastuak moztea komeni da. Eta datorren urteko aurrekontuei dagokienez, hasierako eskari orokorra agertu du lerro batean, eta onartutako zerrenda murriztua, harekin parekatuz, bigarrean.

Eskuartekoak

Bilboko Lurralde Entzuteagiko eskari bat aztertu da Euskalerriko Aurrezki Kutxen Elkarteak duen auzi bati buruz. Esaldi konkretu batzuren edukin eta

itzulpena zehaztea eskatzen du funtsean. Denen artean eztabaidatu ondoren finkatu da erantzuna.

Toponimia bilketa zabala egin nahi duela talde batek Nafarroan, aditzera eman du J. M. Satrustegik. Eusko Ikaskuntzaren babesean legeztatuko da taldea eta Nafarroako Gobernuaren diru laguntzaz hornituko. Hizkuntz arloko zuzendaritza eta lanen onarpena eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Onartu da eskaria.

Monzon zenaren liburutegiaz hasitako jestioak zertan diren, galdetu du E. Knörr jaunak. Hasieran alarguntsak udapartean lanak hasteko gogoia agertu bazuen ere, epe hori luzatuz erantzun izan du gero. Nola nahi ere, J. A. Aranarekin izana dela J. San Martin, aditzera eman du honek, eta urtarrilean deitezekotan gelditu ziren, otsailean edo fitxak egiten hasteko.

Era berean, Plaza Barriko egoitzaren berriak eskatu ditu E. Knörrek. Batzordekoak azken egunetan egonak zirela bi arkitektuekin, eta aurre kontuak egiten ari direla Diputaziora eramateko. Egun hauetan ekarriko omen dituzte.

Onomastika Jardunaldiak direla eta laguntza eman duten erakundeei eta lankideei eskerrak emango zaizkie.

Haraneder-en Testamentu Berria zertan den galdetu du P. Charrittonek. Makinazko lana abantxu amaitua dela esan zaio, eta P. Altunak hartu duela bere gain argitalpena prestatzeko lana.

Euskal Telebistak duen euskararekiko arazoaz mintzatu dela zuzendariarekin, agertzeri eman du P. Salaburuk, eta gutun bat igortzeko edo gogoia agertu du. Orain baino lehen bialdu zitzaiola eta haren kopia igortzea erabaki da.

Eta besterik gabe amaitu da Leitzako batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi,
Idazkaria*

P. ZABALETA EUSKALTZAINAREN SARRERA

1987-X-25

Leitzako Udaletxean, 1987.eko Urriaren 25ean, eguerdiko 12etan, egin da P. Zabaleta euskaltzainaren sarrerako batzarre irekia. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak; J. L. Alvarez “Txillardegí”, J. Apezetxea, J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, X. Arbelbide, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. A. Etxebarria, K. Esnal, J. Garmendia Larrañaga, J. L. Goikoetxea, A. Iñigo, J. M.^a Jimeno Jurio, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, A. Muniategi, J. A. Retolaza, P. Uribarren, M. J. Urmeneta eta J. J. Zearreta urgazleak. Mahaipuruan egon ziren: G. Hertero, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultur Zuzendaria; J. Oronoz, Leitzako alkatea; J. L. Azpiroz eta M. Zabaleta, zinegotziak.

Juan Oronoz alkate jaunak eman du ongietorria Leitzako herriaren izenean. Leitzarrentzat egun haundia dela esanez, euskal irakaskuntzaren egoeraz, batez ere ikastoletakoez, kezkatua dagoela azpimarratuz.

Ordoren, L. Villasante Euskaltzainburuak, euskaltzain berriaren merezimenak azpimarratu ditu, A. Damaso Intzakoaren aipamena eginik. Akademiak nola eta zertarako Euskal Herrian zehar honako batzarreak egiten dituen zehaztuz eta euskara herri osoaren ondarea dela azalduz, amaitzen ditu bere agurrezko hitzak.

J. M. Satrustegi Idazkariak sarrera ospakizuneko bilkurak arautzen dituen Barne Erregelaren artikulua irakurtzen ditu, jarraian, E. Knörr eta P. Salaburu euskaltzainek Patxi Zabaleta batzarre salara sartzen laguntzen dutelarik.

Aita Damaso Intza, D. Manuel Lekuona eta Koldo Mitxelena euskaltzain hilberriak gogora ekarriz, hasi du Patxi Zabaletak bere sarrera hitzaldia. Batez ere, lehenengokoaren euskal lanak aipatuz, haren hutsartea betetzen baitu, “Euskararen etorkizunerako baldintzak Nafarroan” du titulua hitzaldiak. Herriaren borondatean oinarritu behar bada ere euskararen etorkizuna, borondate hori, kulturak, politikak eta ekonomiak baldintzatzen dituela dio. Foru Hobekuntzaren 9. artikulua eta Euskararen Legeak aukera txarrak ematen badituzte ere, zeren bere ustez, euskararen legeztasuna Herrialde osoan defendatu behar baita, nafar ororen ondare eta eskubidea izanik. Bost puntutan bilduko lituzke baldintza horiek: edonor nafarrek, edozein eskualdeetan, euskaraz irakaskintza hartzeko aukera; benetako elebitasuna Iruñerrian, hiriburu zerbitzu ofizial guztiak barne; euskararen presentzia gehitzea komunikabideetan; halaber, ekonomi gizarte eta kultur alorretan; eta akordio instituzionalak martxan jartzea, bai Euskal Komunitate Autonomokoak eta bai estatu-artekoak ere.

P. Charritton jaunak ematen dio erantzuna Patxi Zabaletaren bizitzaz zenbait xehetasun eman ondoren, euskararekiko lanak aipatzen ditu. Hasi 69-70 urtetan *Príncipe de Viana* aldizkarian eta gaur arte: Nafarroako ikastoletako eginkizunetan, Arturo Campion euskaltegian eta hainbat idazlan aldizkari frankotan. *Zorion baten zainak*, *Eztengorriak* eta *Euskonomia ala Zoroastroren artalde* liburuak jo ditu hiru obra garrantzitsuenak bezala. Euskaltzain berriaren beste zenbait merezimendu aipatuz amaitzen du bere txostena.

Azkenik, L. Villasantek izendapen agiria eskuratuz eta erakundearen domina ezarriz, zoriondu du euskaltzain lagun berria.

Batzarrea amaitu ondoren, III. Mapagintza erakusketa da, bigarrena Urduñan egin baitzen. Ikus 1987-IX-23ko batzar agiria.

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1987ko azaroaren 27an egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Goizeko 10 t'erdietan euskaltzain osoen bileran egon dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi, P. Zabaleta eta A. Zavala jaunak. J. L. Lizundia idazkariordea eta R. Badiola argitalpen eragilea, euskaltzain urgazleak ere bertan egon dira, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Ezin etorria adierazi dute, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta P. Salaburuk.

Urriko batzar-agiria onartu da.

Euskaltzaingaien aurkezpena

M. Lekuona euskaltzain ohiaren aulkia betetzeko bere egunean iragarri zen legezko epea bete dela adierazi ondoren, bi hautagai badirela aditzera eman du euskaltzainburuak: J. L. Alvarez Enparanza "Txillardegi", alde batetik, A. Irigoyen, J. L. Davant, P. Charritton, F. Krutwig eta P. Zabaleta jaunen izenean; eta J. M. Lekuona jauna, bestetik, E. Larre, F. Ondarra eta J. M. Satrustegik aurkeztua. Datorren abenduko batzarrean egingo da Bilbon hautapena.

Txillardegiaren aurkezleek ohar baten bidez jakinerazten dute, oraikoan aurrea atera ez baledi, hurrengoan K. Mitxelenaren lekua betetzeko aurkeztaturik uzten dutela euren hautagaia, bigarren hutsunea betetzeko aurkezpen epea ere irekirik dagoenez abenduko bilera aurretik.

Argitalpenen Erregela Berezia

Argitalpen batzordearen Erregela Bereziei egindako prozedurazko xehetasunen eraskina zabaldu zen aurreko batzarrean, letozkeen oharrak idatzirik ekarri behar zirela aginduz. A. Irigoyen, P. Salaburu eta L. Villasanteren zuzenketak jaso dira. Inprimategi lanetan, egile, batzordeburu eta argitalpen arduradunari dagozkien eskubide eta eginkizunei buruzko oharrak izan dira aipaturiko batzu. Bigarren maila batean egile eskubide eta diru laguntzak baldintzatu dira. Gai hau Erregela berezietatik atera eta berari dagokion proposamen bat eskatu zaio P. Zabaletari. Izan ere, legezko arauen eta kasu bakoitzean Euskaltzaindiak egile bakoitzarekin har ditzakeen akordioen arauera taxutuko baita. Arazoa mahai gainean geratu da beraz.

Mendeurren, sarrera hitzaldi edo bestelako ospakizun garrantzitsuetan **Eus-
kera** aldizkarian argitaratutako lanen ehun ale egileari ematea onartu da.

Euskaltzainburuak gehigarri baten proposamena egin du, bere aldetik. Zenbait edizio prestatzea zama haundia da, "Lekukoen" bildumarako batez ere. Argitaratuko den ere ez dakielarik lana presta lezakeenak, asmo asko geldi daitezke bidean. Hori dela eta, norbaitek argitalpen bat prestatzeko asmoa duenean, lanean hasi baino lehen lanaren gidoi bat ekarriz Argitalpen batzordeari esatea proposatzen du. Batzordeak, gero, hala baderitzo, prinsipiozko onespren bat emango dio asmoari. Hasierako onespren hori izanagatik, beharrezkoa da bestea ere, lana bukatu ondoan. Horrelako aipamenen bat sartzea eskatzen du, lanen bultzagarri.

Egia da bestalde, onarpen guziekin argitaratu gabe geldi daitekeela lan hori, dirulaguntzarik ezean. Halere aurre-hitzarmen antzeko zerbait egin daiteke. Ideia bezala ontzat hartzen da eta beste aldi batetan ikusiko da lege gizonen proposamenarekin batean.

Euskal azentuari buruz Txillardegi Udako Euskal Unibertsitatean aurkezturiko lana bidali zion Euskaltzaindiari, alor honetan bere irizpidea ezagutarazi dezan eskatuz, batasunerako prozesua horrela ahalik eta azkarrenik hasi eta burutu dadin.

K. Mitxelenak, bere aldetik, lan horri bere erantzuna emateko gogoia agertu zuen eta, hala beharrez joan zaigularik, zirriborro baten abiapuntu, ohar eta langaiak agertu dira eskuarteko bere paperen artean. Matilde, Mitxelenaren alarguntsak, irakurketa eta erdizkako esamesen osotzeko zailtasuna ikusita, gai horrezaz Mitxelenarekin gehien jardun zuen Maite Etxenikeri utzi zizkion zirriborro guziak. M. Etxeniketik etortzerik ez zuelarik, P. Altunak irakurri ditu hark bidalitako txosten eta oharak.

Lan biak irakurri ondoren, gaia gordin dagoela uste du Euskaltzaindiak, eta ikerketa berriak egingo diren neurrian arazoa argitzen joango delakoan, ez du oraingo inolako erabakirik hartu.

Eskuartekoak

Xenpelar sarirako epai mahaiko hauek izendatu dira, Herri literatura batzordekoen eskariz: A. Zavala mahaiburu, J. M. Etxezarreta idazkari, J. M. Aranalde, Mixel Itzaina, J. M. Lekuona eta A. Muniategi, mahaikide.

Nafarroako Gobernuak itzultzaileen hautatzeko J. M. Satrustegi izendatu du mahaiburu eta Euskaltzaindiak, bere aldetik, ordezeko euskaltzain bat izenda dezan, eskatzen du. P. Salabururen izena eman da.

Bilbo Plaza Barriko egoitzaren berri eman du J. L. Lizundiak. Arkitektoekin bildu da batzordeñoa eta barneak, kanpoko fatxadarekin zerikusirik badu ere, balio gutxi duela, diote. Solairuz-solairu eman dituzte euren irizpideak, sotanoak jasango duelarik autoen sarrera berriaren eragozpen haundiena. Azpi barneko lan

horien kostua noren gain joango den aipatu da, erakundeen arteko akordio beharrak atzeratzen baitu berrikuntza lana.

Orixen zenaren jaiot mendeurrena aipatu du P. Zabaletak. Uitzin egon da eta Otsanbelaren etxea kultur-etxe eta beste zerbitzu batzutarako erosi duela Kontzejuak, aditzera eman du. *Orixenea* izena eman diote. Festa, nola nahi ere, ezingo da Uitzin eta Orixan egun berean egin, joan-etorri luze eta neketsua dutelarik bi herriok. Hirugarren toki bat aukera daiteke agian. Uitziarrek euren eskariarekin Euskaltzaindiari gutun bat idazteko omen daude. Datorren urteko egutegian sartuko da.

A. Irigoyenek toponimo ez diren geografiako zenbait izen arrunt aurkeztuko dizkiola Euskaltzaindiari, esan du, honek bere iritzia eman dezan.

Euskarazko eleberrien “Txomin Agirre” sariko epai mahaikoek aditzera eman dute, bi lan aurkeztu direla aurrean eta berorien balio maila ikusirik, sari gabe uztea erabaki dutela.

Orotariko Euskal Hiztegiaren lehen tomoa egun hauetan plazaratuko denez, bere aurkezpena abenduaren 17an egingo da Bilbon Foru Aldundian. Euskaltzaindiak urte amaierako bere batzarrea bertan egingo du, biharamonean, abenduak 18.

Euskaltzaindiko argitalpenen katalogoa banatu da, azkenean, batzartuen artean. Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren batzar aretoan, 1987.eko Azaroaren 27an, arratsaldeko 3 t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea. Bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi, P. Zabaleta eta A. Zavala, euskaltzainak; J. M.^a Leizaola, ohorezkoa; J. A. Arana Martija, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. M.^a Etxebarria, J. Fz. Setien, J. Garmendia Larrañaga, J. Intxausti, M.^a P. Lasarte, J. M.^a Lekuona, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, urgazleak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta P. Salaburu euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Nekrologi-txostenak

Juan M.^a Lekuona urgazleak, bere osaba zen D. Manuel Lekuona euskaltzain zendu berriari buruzko txostena irakurri du, haren bizitza eta lanez zehaztasun ugari emanaz.

Alfonso Irigoyen euskaltzainak, Manu Ziarsolo “Abeletxe” urgazle zenaren aipamena egin du hitzez, gero txosten idatzia **Euskera** agerkarirako aginduz.

Goizeko bilkuraren berri

Euskaltzain osoek goizean egindako bilkuraren berri eman du idazkariak eta, beste gai batzuren artean, M. Lekuona euskaltzain zenaren aulkirako bi hautagai aurkeztu direla azpimarratu du.

Argitalpenen Erregela Bereziei egindako prozedurazko eraskina aztertu da, iritsi diren hiru ohar edo zuzenketak eztabaidatuz. Prozedurazko eraskin honen testua onartua gelditu da, egile eskubideena salbu. Azken hau, egunotan eman den lege berriaren arabera, aparte erabakiko delarik.

Goizeko batzar-agirian esandakoak errepikatu beharrik ez dago.

Txostenak

“Stress and pitch” izenarekin, euskal azentuari buruzko txosten bat aginduta zeukan L. Mitxelenak. Zenbait ohar eta zirrimarra bakarrik egin ahal izan zituen

zoritxarrez. Berauek, Maite Etxenike irakasleak biribildu ondoren igorri ditu eta P. Altuna euskaltzainak irakurri. Hurrengo batzar batetarako langai honen gehigarria Maite Etxenikeri eskatzea interesgarritzat ikusi da.

“Jean Duvoisin kapitainaren lan ezezagun bati zenbait ohar” izenburudun txostena irakurri du J. San Martinek, *Baigorriko zazpi-liliak* deritzan eleberriari buruz, hain zuzen. Ilunpean zerk eduki duenari buruz egin dituen azterketen berri eman du, eta ondorean, literatura mota, bere balioa eta beste zenbait eritzi. Bukatzean, liburu argitara berriaren ale bana eman zaie batzarkideei.

Eta besterik gabe, bukatu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi,
Idazkaria*

Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioaren jauregian, 1987ko abenduaren 18an egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Goizeko bederatzi t'erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, E. Erkiaga, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak. Egune-ko gaiei dagozkienetan, J. A. Arana "Azkue Biblioteka"ko arduraduna, J. L. Lizundia idazkariordea, J. J. Zearreta Ekonomia eragilea, R. Badiola Argitarapenen eragilea eta Karmele Rotaetxe, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. M. Barandiaran, J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, A. Labayen, P. Larzabal, P. Salaburu eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

Eskuarteko gaiak

Iparraldetik datozkeen euskaltzainei denbora emateko, eskuarteko gaiak ikusiz hasi da batzarrea.

Araba eta Bizkaiko Bertsolari txapelketako irabazleei sari bat banatzeko gomitajaso da Bizkaiko Bertsolari-ikasleen Elkartegandik, abenduaren 20rako. A. Irigoyen joango da Euskaltzaindiaren izenean.

A. Irigoyenek, bere aldetik, azaroko batzarrean aipaturiko Geografiako izen arruntten zerrenda banatu du, bakoitzak dakizkikeen aldakiak eta bestelako hitzak ekartzeko eskariarekin. Bigarren idazki baten bidez, "Leku izenen euskarazko formak Nafarroan" izeneko lana ere zabaldu du, Nafarroako Gobernuak eskatuta Euskaltzaindia egiten ari den ikerketarako.

"Xenpelar" bertso sariko epai mahaiak bere erabakia aurkeztu du: lehen saria *Olgeta Magikoa* izeneko lanak jaso du. "Itxasu" ezizenarekin zetorren eta Algor-tako Joseba A. Santxo Uriarte da bere egilea. Bigarren saria *Txekor Zazpikia*-rentzat izan da, eta hirugarrena *Nere Irratitxo*a lanarentzat. Biok Donostiako Joxe Aierbe Iraola egile bakarrarenak dira. Desegokitzat eman da Euskaltzaindiak epaia eta irabazleen izenak azaldu aurretik prentsan agertzea.

Nafarroako A. Iñigo Ariztegi euskaltzain urgazleak bidalitako gutuna irakurri da, toponimia lanetan ari dela eta Onomastika batzorderako bere laguntza eskainiz. Onomastika batzordeko partaide izendatzea erabaki da.

Ikastolen Konfederakundeak eta EKB-k elkarrekin burutu nahi duten ekin-tzaren berri jaso da, 500 mila firma eta 200 milioi pezeta Seaska eta Nafarroako ikastolen alde bildu nahi dela esanez. UNESKOra eramango omen dute arazoa eta horretarako prestatzen ari diren txostenari eransteko Euskaltzaindiari bere babesa eta oneritzia eskatzen zaizkio. Bat-batean eta azken orduan iritsi denez txostena, aztertze epe bat eskatu dute batzartuek. Hurrengo batean erabakitzeko utzi da pundu hau.

Euskaltzain berriaren hautapena

Manuel Lekuona zenaren hutsunea betetzeko bozketa egin da gero. Arau-dian nahiz Barne Erregeletan gertakizun honi dagozkion aginduak irakurri ditu euskaltzainburuak. Bertan bildutako euskaltzainak hamalau dira eta beste zortziek ezin etorria adierazi dute euren ahala idatzita igorritz. J. L. Davant eta P. Larza-balek, P. Charrittonen izenean bidali dituzte. P. Salaburuk, E. Knörr jaunari eman dio berea. Euskaltzainburuak jaso dituenak hauek dira: J. M. Barandiaran, J. Gorostiaga, Iratzeder, A. Labayen eta A. Zavala jaunena. Hogeitabi orohar, gehiengo nagusirako hamabi txartel behar direlarik.

Azaroko batzarrean esan zenez, bi dira une honetako hautagaiak: J. L. Alvarez Enparanza "Txillardegia" eta J. M. Lekuona. Lehen bozketak ondore hau izan du: J. M. Lekuonak 13 txartel, Txillardegik 6, eta 3 zuri. J. M. Lekuona da, beraz, euskaltzain berria.

Euskaltzaingaien aurkezpena

L. Mitxelena euskaltzain zenduaren hutsunea hornitzeko iragarria zen epea bete dela Arautegiaren arauera, esan du euskaltzainburuak. Hiru proposamen jaso dira artean: J. L. Alvarez Enparanza "Txillardegia", aurrez emandakoa, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig eta P. Zabaletaren izenean. Bigarren hautagaia, Ibon Sarasola, alde batetik J. Haritschelhar, J. San Martín eta L. Villasantek aurkezten dute; eta bestetik, J. M. Barandiaran, E. Knörr eta P. Salaburuk. Hiru aurkezpen baina bi hautagai dira, beraz, datorren urtarilean bozkatuko direnak.

OEH-ren hitzarmen berria

Atzo arratsaldean, abenduak 17, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hitzarmen berria izenpetu zen Bizkaiko Diputazioaren jauregi honetan. Euskaltzainburuarekin bate-ra, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur Sailburuak, hala nola Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Diputazioetako Kul-tur arduradunek sinatu zuten akordioa. Nafarroako Agintarien partaidetza finka-turik gelditu da horrela ekitza honen etorkizunerako.

Bigarren bilkura batean, OEH-ren lehen tomoa aurkeztu zen Bizkaiko Dipu-tazioaren areto nagusian. M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz

Politikarako idazkariak bultzatu du hiztegi honen erditze korapilatsua eta bere ardurapean gauzatu da hitzarmena.

Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta hiru Diputazioei eskerrak ematea erabaki da. Era berean Jarraipen batzordeari ere. Hutsune bat badela esan du P. Charrittonek: frantses Gobernuak ez duela parte hartzen eta 60 urteren buruan ez dela posible hala jarraitzea. Frantziako agintariei liburuarekin batean eskaria egingo zaie.

* * *

2. BATZARREA

Bilbon, Bizkaiko Foru Diputazioaren batzar-aretoan, 1987.eko Abenduaren 18an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bigarren batzarrea. Eguerdiko 12etan bildu dira, lehenengo batzar-agirian agertzen direnez gain, beste hauek: J. M.^a Leizaola, ohorezkoa; F. Barrenengoa, J. G. Etxebarria, X. Gereño, J. L. Goikoe-txea, I. Laspiur, J. M.^a Larrarte, A. Muniategi, J. Oleaga, J. A. Retolaza eta P. Uribarren, urgazleak.

Nekrologi-txostenak

Luis Villasante Euskaltzainburuak, Koldo Mitxelena euskaltzain zendu berriaren txostena irakurri du, haren bizitza eta lanei buruzko zehaztasunak emanez.

Jose M. Satrustegi Idazkariak, Jose Estornes Lasa urgazle zenaren aipamena egin du hitzez, gero txosten idatzia **Euskera** agerkarirako aginduz.

Aurreko bilkuraren berri

Jose M. Satrustegi Idazkariak, 9 t'erdietan hasitako euskaltzainen bilkuraren kontu ematen du, xehetasun nagusiak azpimarratuz.

Dagozkien batzordeen azalpena

E. Knörr eta J. L. Lizundia, Onomastika Batzordeburu eta idazkariak, Duran-goko Udaletxean, hil honen 7an, Onomastika Batzordeak egindako bilkuraren berri ematen dute. Nafarroako herri izendegiaren lanen martxa zehazten da, lehenengo hiru zerrendak aurkeztu eta aztertu direla azpimarratuz.

1988.urteko batzar egutegia

J. L. Lizundia Idazkariordeak, datorren urterako batzar egutegiari buruzko txostena aurkezten du. Iparraldeko "Oxobi" eta L. Dassance euskaltzainen jaiot-

ehunurteburua dator, alde batetik, eta biok egun berean gogora ditzakegula, esan du. Nafarroako Uitzu eta Gipuzkoako Oresa herriek euren aldetik Orixe zenaren mendeurrena ospatu nahi dute eta Euskaltzaindia bertan egotea eskatzen dute. Bizkaian bi gertakizun aipa daitezke: "Instituto Vizcaino" delakoaren euskal katedra Bizkaiko Diputazioak sortu zueneko ehun urteak, eta Gernikako Euskal Jaiak ospatu zirenko mendeurrena. Bi euskaltzain berriren sarrera hitzaldiak ere urte barruan gerta daitezkeela kontutan hartu da.

Egutegi honen ildotik A. Irigoyenek eskatzen du, euskal katedraren ospakizun horretarako Bilboko Udalari eskabide bat zuzentzea, Azkue, Unamuno eta Arana Goiri-ri monumenturen bat eraikitzeko, eta figuratibo zerbait balitz hainbat hobe.

Bestelako gaiak

Jokin Zaitegi zenaren liburutegi, aldizkari eta paperen berri eman du J. A. Arana Bibliotekariordeak. Baionatik ekarritakoen katalogo osoa egin ondoren "Azkue Biblioteka"-rako zenbait liburu utzi eta beste guztiak Arrasateko Kultur Etxera eraman direla, aditzera eman du.

Azken egun hauetan Elkanoko Ubarmin eritetxean izan dira, L. Villasante, J. M. Satrustegi eta J. San Martin, aita Jorge Riezukoa ikusten. Eroriko baten ondoren gaixorik dago euskaltzain ohorezkoa.

Bigarren Euskal Mundu Biltzarraren amaiera ospatzeko Abenduaren 19an antolatutako ekitaldirako gomita hartu da Ajuria-Eneatik. A. Irigoyen joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Euskaltzaindiaren inbentarioa banatu zaie euskaltzainei eta 1987ko liburu salmenten txostena azaldu du J. J. Zearreta, Ekonomi Eragileak.

Argitalpen Batzordeak eskatuta P. Zabaletak eskuartean duen egile eskubi-dei buruzko bere txostenaren adierazpena egin du. Lege berria aztertzen ari dela aditzera eman du.

R. Badiola, Argitarapenen Eragileak, bestalde, 1987an Euskaltzaindiak argitaratutako liburuen zerrenda zabaldu du, eskuartean daramatzanzen egoera azalduz.

Eta hitzarmen garrantzitsuen aipamenarekin amaitutzat eman du gaur Euskaltzaindiak 1987ko bere azken batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi,
Idazkaria*

BERRIAK

**DICCIONARIO GENERAL VASCO/
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)**

(Bilbo, 1987-XII-17)

**DICCIONARIO GENERAL VASCO /
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)**

LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1987-XII-17

*Jose Alberto Pradera
Bizkaiko Foru Diputazioko Diputatu Nagusia*

Jaun-andre agurgarriok. Arratsaldeon:

Bizkaiko Foru-Aldundira ongi etorriak izan zaiteze.

Koldo Mitxelena zanaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aurkezpena egiteko batu gara gaur hemen.

Hasieran, haren asmoa Azkueren hiztegia gaurkotu eta zuzentzea izan zan, baina gero, hogeita hamar urte luzetan jardun eban lan hori burutzen.

Agindua Euskaltzaindiak emon eutson, eta lana egin eta argitaratzeko Euskal Herriko erakundeen languntza izan eban.

Erraldoi-lana izan da, eta ikerketa-mailan gaur arte ez dogu euskereari buruzko lan garrantzitsuagorik, eta hori Koldori esker da, bera izan da mundu guztian zehar euskerea goi-mailan jarri dauana-ta.

Koldo joan jaku, baina bere lanei esker beti izango dogu gugaz.

Eskerrik asko.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA

Bilbon, 1987-XII-17

Fr. Luis Villasante

Jose Antonio Ardantza lehendakari agurgarria
Jose Alberto Pradera Bizkaiko Diputatu Nagusia
Nafarroako Gobernuako Ordezkaria
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioetako ordezkariak
Bilboko Alkate jauna
Koldo Mitxelena zenaren seme Rafael jauna

Jaun-andreak:

Egun zoragarria hauxe, hodei moduko batek goibelduko ez balu: egilea bera ez baita gehiago gurekin. Hiztegi honek argitara irten behar zuen unean bertan joan zaigu (G. B.).

Gaur kaleratzen den obra hau dugu, zalan-tza gabe, Koldoren ikerketa-lanak ekarri digun emaitzarik handienetako bat, handiena ez bada. "Handiena ez bada" diot, ezen Mitxelenak badu bere izenarekin betiko lotua geldituko den besterik ere, esate baterako, euskararen batasuna; baina bego.

Euskaltzaindiaren aginduz hartu zuen Koldok beregain hiztegi hau egiteko ardura. Bada hogeitamar urte baino gehiago hori gertatu zela. Zehazkiago mintzatuz, esan behar da orduan gu denon gogoan zegoena besterik zela, hots, Azkueren hiztegia zuzendua, gaurkotua eta osatua ematea. Mitxelena berehala lanari lotu zen agindu hori betetzeko asmoz, baina ezarian edo igarri gabe, haren behatz-ar-tean sortzen ari zena zerbait bestelako bilakatu zen, bai luze-laburrean, bai zabalean eta bai sakonean ere, erabat obra berri bilakatu zen, alegia. Eta bitartean teknika eta tresna berriak ere azaldu ziren, ordenagailua batipat. Mitxelena berandu xamar, baina aski goiz halere, jabetu zen, teknika berriak erabili gabe gaurko egunean ez dagoela honelako lan bat egiterik, eta Ibon Sarasola eta Eusko Jaurlaritzako Informatika Erakundeari esker burutu ahal izan du bere asmoa.

Obra honen tamainaz jabe zaitezten, esan behar dut gaur kaleratzen den liburuaren neurriko beste bederatzi guttinaz atera beharko direla oraindik, hiztegi haundi honi buru emateko. Materiale guztiak bilduak, hautatuak eta bideratuak utzi ditu Mitxelenak. Beraz, aterako diren tomo guztiak berarenak dira eta eskubide osoz beraren izena eramango dute.

Baina hiztegi hau burutzea ez zen posible gertatuko egileak ekonomi aldetik laguntza izan ez balu. Eta zorionean izan du. 1984ean sinatzen dute akordio bat Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek alde batetik, eta Euskaltzaindiak bestetik: haiek obra hau diruz laguntzera konprometitzen dira eta Euskaltzaindia obra egin arazi eta argitaratzera. Nafarroa falta zen, eta, hain zuzen, gaur bertan sinatu du berak ere obra honetan parte hartzeko bere atxikimendua.

Eta esan dezagun, laburzki bederen, zer den edo zertarako den hiztegi hau; honelako hiztegi bat, alegia, zergatik behar-beharrezkoa dugun. Hiztegi honek euskararen hitzen altzorra edo ondarea bildurik eman nahi digu, euskaraz gizaldiz-gizaldi erabili diren hitz guztiei buruz berri zehatz eta ugariak emanez. Eta gure hizkuntza horren beharrean zen, alajaina! Bai. Askotan euskal hiztegia baso itxi eta nahasi baten pare da; hitz askoren sinestamenduak ez ditugu garbi jakiten, hizkuntzan hitz batek norainoko erroztapena duen neurtzeko modurik ez dugu izaten, eta, hain zuzen, guzti horri buruz berri zehatz-ugariak ematen zaizkigu hiztegi honetan: noiztik agertzen den harako hitz hura hizkuntzan, zein idazlek erabili duten, zein euskalkitan den ezagun, adibideak, adierak, eta abar. Ez dizu esango "hitz hau ez bedi erabil", "beste hau bai". Ez da arau emaila, historiko antzekoa baizik. Esanik dago honez gero honekin ere ez dagoela dena egina, baina hau zen lehenbiziko urratsa eta hurrengoan nolabaiteko oinarria ere bai. Gerokoak gero egin beharko dira eta egingo dira, Jainkoa lagun.

Egun handia eta benetan pozgarria da gaurkoa. Eskerrak eman nahi dizkiet, bihotz-bihotzez gainera, gure agintariei obra handi hau esku zabalez lagundu eta bultzatu dutelako; argitaratzaile Desclee eta Mensajerori, eta Ibon eta lantaldeari, orain arte egindako lanagatik eta hemendik aurrera argitalpen honi buru eman arte egin beharko dutenagatik.

Obra handi hau ezin utzizko tresna izango dute herrian ezezik baita atzerrian ere, hizkuntzalari, ikerlari, irakasle, idazle, hitz batean, euskararen ezagupenean gauzen zolaraino jo nahi duten guztiek. Bai. Zinez egun haundia dugu hau.



PRESENTACION DEL *DICCIONARIO* *GENERAL VASCO* (VOL. 1.º)

(Bilbao, 17 de Diciembre de 1987)

Fr. Luis Villasante

Señoras, señores:

Una especie de nube empaña la alegría de este acto: que ya no está él con nosotros. Se nos ha ido justamente cuando debía iniciarse la publicación de su magna obra, que es la obra de su vida. Obra de un alcance y trascendencia para el futuro de la lengua vasca que yo no sabría justipreciar o tasar, pero que sin duda es muy alto. Obra que Koldo asumió y ha realizado por encargo de la Academia y que ha sido de larga, muy larga gestación.

Empecemos por los ya lejanos orígenes de este Diccionario. En la sesión académica celebrada en San Sebastián el 28 de Octubre de 1955 —y fue A. Irigoyen, aquí presente, quien dio cuenta de ello— se hace saber que ya no está a la venta, por haberse agotado, el *Diccionario Vasco-Español-Francés* de D. Resurrección M.^a de Azkue en 2 tomos, publicado 50 años antes, o sea, en 1905-1906, gracias a la ayuda de la Excm. Diputación de Vizcaya. El mismo Sr. Irigoyen lee en la sesión un informe subrayando la necesidad de que se vuelva a imprimir este Diccionario con algunas enmiendas y puntualizaciones, si es preciso. Los académicos unánimemente asienten a lo expuesto por el Sr. Irigoyen. En la siguiente sesión, celebrada en San Sebastián el 25 de Noviembre de 1955, Michelena presenta una especie de ponencia sobre este tema de la reedición del Azkue, y se le pide que para la próxima sesión traiga un plan o proyecto detallado. Por extravío seguramente no aparecen las actas de las sesiones siguientes. No hay que olvidar que por aquellos años no se publicaba el órgano *Euskera* y la Academia no llevaba una vida normal. A buen seguro fue en una de estas sesiones de 1955 cuando Euskaltzaindia encargó a Michelena la preparación de la reedición del Azkue, pero puesto al día, o sea, corregido, completado etc. Fijaos en la fecha del encargo. Han pasado desde entonces más de 30 años. ¿Por qué tan larga dilación? Michelena se consagró a su labor inmediatamente, o sea, desde el principio, y creo que nunca la dejó de la mano. Pero para poder vivir tenía que dedicarse a dar clases, y cuando, por fin, se le abrieron las puertas de la Universidad, que era su vocación, se fue a ella, pero sin dejar la responsabilidad del Diccionario. Este poco a poco fue saliendo de sus manos de tal modo reelaborado, transformado y agrandado, que ya no era el Azkue, sino obra enteramente nueva. Llegó también un día en que aquello desbordaba las posibilidades de una sola persona. El autor se convenció de que hoy no se puede hacer una obra de esta naturaleza a base de fichas y cuadernos, como fue el caso de

Azkue. Se hacía preciso el recurso al ordenador. Encontró también un colaborador fiel que trabajara a sus órdenes, Ibon.

Por fin, Michelena halló (y decimos halló, que es, según creo, dar con algo sin buscarlo), halló también el Mecenas, sin cuya ayuda no hubiera sido posible realizar la obra: el Gobierno Vasco y las Excmas. Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya; y hoy mismo, precisamente antes de este acto, se ha formalizado y firmado la adhesión y participación de Navarra a esta magna obra cultural. Debo dar las gracias a nuestras autoridades, que, al patrocinar esta iniciativa, demuestran tener conciencia de su trascendencia y significación.

Permitidme un desahogo. Creo que en los años que llevo al frente de la Academia éste es el día más feliz para mí. Siempre fue mi mayor preocupación el ver que esta obra, tan necesaria para la lengua y cultura vasca, se demoraba, sea por unas causas u otras, no siempre fáciles de averiguar, pues el autor solía guardar un silencio casi pudoroso sobre este particular.

Debo dar también las gracias a los editores Desclee y Mensajero, a quienes se les adjudicó, tras subasta, la edición. Ellos se darán perfecta cuenta, creo, de que esta obra no es sólo para andar dentro de casa, sino que se le debe dar una difusión internacional o mundial, y espero que así sabrán hacerlo.

Y ¿qué es a todo esto el *Diccionario General Vasco*, cuya publicación hoy se inicia? El propio Michelena escribió en su “Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue” (inserto en la última reedición de éste, que hizo la Academia en 1983, p. 28): “No será fácil hallar, a través del ancho mundo, una tradición léxica más abigarrada que la nuestra, confusión casi inextricable de fantasía y realidad”. Efectivamente, la literatura en lengua vasca, a pesar de su volumen más bien modesto y a pesar de que en el tiempo se extiende a un exiguo número de siglos, ha conocido en su corta existencia frecuentes bandazos, cortes bruscos; diríase que la nueva generación quería enterrar a la anterior y comenzar de cero. Esto hace que el que quiera asomarse a esta literatura se encuentre con un espectáculo abigarrado, como nos ha dicho Koldo, en el que hasta hoy no era fácil orientarse, al no existir un diccionario general descriptivo como éste. No obstante, y pese a esta impresión inicial un tanto negativa, creemos que de entre la maraña emerge un hilo conductor o línea de continuidad que no es difícil de percibir.

Dicho con otras palabras, el *Diccionario General Vasco* quiere darnos, y creo que lo consigue, la auténtica y genuina tradición vasca. Pero aquí urge hacer una precisión: cuando digo “genuina y auténtica” no quiero decir que Michelena se proponga, directamente al menos, enunciar juicios de valor: él quiere contarnos cómo ha sido, históricamente, el léxico vasco, o sea, qué palabras se han empleado; él no nos dirá: “Esto se debe emplear y esto otro no”; nos da los datos, los autores y testigos. Para ello ha tenido que realizar el despojo, prácticamente exhaustivo, con auxilio de la informática, de los autores vascos. Algún tope tenía que imponerse, y ha prescindido de los de las últimas décadas.

Claro que con esto no está hecho todo. Hará falta el diccionario de los últimos años, el normativo, el del léxico urbano etc. Pero, sin duda, por aquí había que empezar y esto está hecho, gracias a Michelena y a sus colaboradores y a los que con su ayuda económica han hecho posible la realización de este

ambicioso proyecto. Se calcula que la publicación de la obra completa, que Michelena ha dejado prácticamente terminada en sus elementos esenciales, comprenderá unos 10 tomos poco más o menos como éste que hoy se presenta al público.

Quiero agradecer a Ibon y al grupo que con él trabaja la aplicación y cariño puestos en la obra, cariño con el que espero la llevarán a buen fin, y agradecer asimismo a cuantos con su presencia han querido honrar y realzar este acto. Creo que su alta significación se lo merecía.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1987-XII-17

M.^a Karmen Garmendia

Lehendakari jaun txit gorena
herri-agintari prestuak
Euskaltzain agurgarriak
Jaun-Andreak:

Pozez eta atseginez bildu gara gaurkoan, Euskaltzaindiaren gomite-deiari erantzunez, Euskal Herriaren hainbat eskualdetako kideak: dela norbanaka etorriak, dela Herri-Aginte, erakunde eta elkarte desberdinen ordezkari bertaratuak.

Ez da gutxiagotarako, gainera, poz-atsegin hori: egun handia bait da hau, arrotzik arrotzenak ere uler dezakeenez, euskalgintzaren eremu-olorrarekin era bateko edo besteko harremana duen edonorentzat; eta egun seinalea, ondorioz, hizkuntz politikaren gurdiari aurrera eragiteko eginbidea geure gain hartua dugu-nontzat ere.

Batzuk eta besteok dituzkegu, jakina, nork geure pozbide-arrazoiak, Euskalari jakitunak nahiz euskaltzale suharrak seguruenetik izango dituztenak une batez alde batera utziaz, hizkuntz politikaren ikuspegitiko gogoeta bat edo beste egingo dizuet, zuen baimenaz, oraingo honetan:

I. Mendeak joan dira, dakigunez, Aita Manuel Larramendik, garaitezina garaitu ondoan, hiru eleko Hiztegia argitara eman zuenetik. Ez zen gainera, bere aurretik, aitzindari presturik faltatu izan: Silvain Pouvreau eta Pierre D'Urteren hiztegi-lanak aski erakuskari sendoak bait dira, besteak beste, Europa osoan zehar indartuz zihoan joera baten nondik norakoaz jabetzeko. Corpus Planning delakoaren aitzindari gutxi aurkituko genituzke etxean nahiz albo-herrietan, egungo hizkera-moldeaz jarduteko lizentzia izan ahal baneza, Larramendiren parekoak. Kiderik handienak Ipar Europan litzuke agian, Eskandinabiar munduan, Estatu-tradizio handirik edo inolakorik gabeko herrien hizkuntzei gizarte-erabilera arautua bideratu nahi izan zietenen artean. Ezin ahaztuko dugu ordea, halaz ere, batak eta besteak aski maila desberdineko emaitzak jaso zituztela, begiz jotako helburua iristeaz denaz bezainbatean. Argi azaldu zen bertan, mundu zabaleko beste hainbat herrialde eta bazter-zokotan hamaikaxko aldir agertu den bezala, corpus-plangintzaren alorreko eginahalak ezer gutxi balio dutela horiekin batean (aurretik edo ondoren, baina estu-estu loturik) status-plangintzak eratu eta probetxuz bideratzen asmatzen ez bada. Bere ondorengo hainbatek ere (Añibarrok, Aizkibelek, Novia Salcedok edo Harrietek, kasu) izana dute noski, nork bere neurrian, gertaera mingots horren berri ikasteko aukerarik.

II. Ez da harritzekoa, horregatik, Resurreccion Maria Azkueren hiztegiak aro berri bati hasiera eman izana: hitzez ezezik egitez ere batera uztarturik eraman dira izan ere, azken ehun urteotan, corpus eta status-plangintzak. Hizkuntza eguneratzen saiatzen zenak bazituen ondoan, maiz-asko bera ere tartean izaten zelarik, hizkuntzari gizarte-mailako bizibideak zabaltzen eta sendotzen saiatuko zirenik. Eta hiztegitagilearen lanak, horrela, liburuaren esparru mugatutik eskolara, aldizkari-egunkarietara, olerki-saio eta antzetzokietara ordurarte ez bezalako oihartzun-eragina eskura zezakeen. Ikustekoa litzateke, alde horretatik, Azkueren ondotik plazaratutako hiztegitagileak ere (Lopez-Mendizabal, Lhande eta, beranduago, Plazido Mujika ditudalarik gogoan) noraino ez ote diren, aldeaz edo moldez, egungo euskaltzale jantzi edo jantzi-nahion kontzeptu-azalpenezko iturburu eta hitz-altxor.

III. Oraindik behar bezala aztertu ez ditugun arrazoiengatik erasan eta urradura sakona jaso zuen ordea, orain hogeitahogeitamar bat urte, mende-hasierako euskalgintza-molde hark: bistan dago gerrak, eta seguru da gerrate-ondorenak, eragin nabarmena izan zutela horretan.


Errazegia litzateke ordea, guztiarekin ere, bide-aldaketa osoa arrazoi bakar horretan oinarritu nahi izatea. Kontua da *beste* era bateko hiztegiak direla, azken hamar-hogeitahogeitamar urteotan bereziki, gure artean gailendu direnak: berdin gertatu da hori nola hiztegi orokorretan hala espezialduetan. Gizarte-aldaketa larri, sakon eta luze-zabaleko honen zurrumbilaoan murgildurik, eskuratu berria genuen hizkuntz eredu bateratua osatzeaz bat eguneroko beharrei, behar berri-berriei kasu gehienetan, erantzuten saiatu dira hiztegiok. Kintana-Mujiken zein “bostak bat” taldearen hiztegiek batetik, eta UZEIrenak bestetik, hainbat behar eta eskabideri erantzun baliagarria ematen jakin dute: eskola-munduan zein komunikabideetan, administrazio-alorrean nahiz beste hainbat gizarte-esparrutan, ez dago zalantzarik txikiena mesedegarri eta ongile izan direnik eta direnik.

IV. Bada, ordea, kezka bat, urteek aurrera egin ahala euskaldun eta euskalarien artean indartuz joan dena: ez ote dugu orain, samaldan eta tropelka jardunaz, betidaniko euskal hitz-altxorra behar bezalako begirunerik gabe tratatzeko arriskua? Eta ez ote du horrek, hiztegitagile eta euskaltzale batzuen eta besteen arteko eritzi-desberdintasunez gainetik, euskaldun-jende osoaren hizkuntz bizitasuna moteldu eta ahulduko?

Azken epaia berari badagokio ere badirudi ez nabilkeela hain oker Euskaltzaindiak arrisku hori oso kontuan izan duela, aspaldi samarretik izan ere, badiot.

Eta gaur eskuartean dugun *Orotariko Euskal Hiztegia*, neurri on batean, belaunaldiz belaunaldiko kultur ondare horren transmisioa ahalik era osatuenean mantendu eta indarberritzeko tresna egokia gertatuko dela espero dugu denok.

Oso begi onez ikusten dute Herri-Agintek, jakina, holako asmo-helburua. Eta badute itxaropen sendorik abiaburu ezin egokiagoa gertatuko dela, oraingo idazlan zabal hau, bihar edo etzi Euskaltzaindiak, agindua dugun eran, bere Hiztegi Hiritartu Arau-emalea paratzeko. *Benetan erabili* den euskara biltzen duenez *Orotariko Euskal Hiztegiak* oinarri ona dirudi horrek, jakite-alor horietan oso jantziak ez garenontzat ere, hurrengo pausoa eman ahal izateko.



1983an taxutzen hasi eta Herri-Agintek Euskaltzaindiarekin 1984ean izenpetu genuen hitzarmena hasia da, azkenik, bere frutuak ematen. Eman eta zabal beza hiztegi honek ere, bizkaitar zindoen haritzak bezala, munduan frutua.

Eskerrik asko.

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA AURKEZTEAN

Bilbo, 1987-XII-17

Ibon Sarasola

Begien bistako gauza batez hasiko naiz: Koldo Mitxelenaren ordezt hitz egiten ari naizela, berari zegokiola egiteko hau, bere hiztegiaren, bere bizitzako obra nagusienetako baten aurkezpena egitea.

Duela hamaseiren bat urte izan zen. Atera berria nuen *Euskal Literaturaren Historia* zela-eta, elkarrekin hitz egitekotan gelditu ginen. Nere liburuaren eraketa hizpide harturik, bere hiztegiaren arazoa atera zuen: ez zekien bilduak zituen fitxa eta paperak, liburu nola bihurtu. Antza zenez, organizatzailearen bila zebilen nigan. Handik egun batzuetara Errenteriako etxean, kaxoiz osaturiko altzari-moduko bat erakutsi zidan, fitxaz-eta, betea. —Hau da asuntua?— esan nion. —Bai, hau da kontua—, erantzun zidan. Aitortu behar dut harrez gero ez dudala inoiz euskaraz *asunto* hitza erabili.

Orduan hasi zen benetan gure arteko harremana. Koldorekin lan egitea bihurtu zen nere alderdi profesionalaren ardatza. Berarekin lan egiteagatik utzi nuen Barcelonako Unibertsitatea eta joan nintzen Salamancara. Han lagundu nion bere hiztegia argitaratzeko lehen saio zinezkoan. A-Agindu zatia hartzen zuena.

Aspaldi aitortu nuenez, berari zor diot dakidanaren gehiena eta naizenaren zati nabarmen bat. Berarekiko leialtasunez, esker onezko ordainez-edo, jarraitu nintzaion Gasteizko Euskal Filologi saila eratzeke mentura menturatu. Mikel Zalbidek Mitxelenaren hiztegia kaleratzeko azpiegitura antolatzeke prest banengo, Erakundeek behar ziren bitarteko guztiak jartzeko gertu zeudela adierazi zidanean, ez nuen dudarik egin. Eta nere maisu eta adiskide izan zen Koldorekiko leialtasunez jarraituko dut berak hasi eta mamitu zuen obra, ahal dudana neurrian burura eramaten.

* * *

Baina orobat, nere lankideen ordezt ari naiz mintzatzen: Iñaki Segurola, M. Jose Kerejeta, Gabriel Fraile, Eduardo Valencia, Blanka Urgell, Isabel Arrigain eta Arantza Eguren izenean.

Bada Mitxelena irakaslearen lanaren alderdi bat oraindik ia kontuan hartzen ez bada ere, oinarritzkoa dena: hain zuzen irakasle gisa egin zuena. Izan ere, bere Gasteizko ikasleak dira bere jakituria zuzen zuzenean, bi, hiru, eta are lau urtez, eguneroko harremanean jaso duten bakarrak. Hor eman zuen Kolkok, adinaren heldutasunean, idazlanetan eta hitzaldietan baino areago, bere eskolarik oparoenena. Ikaslego hori gertatu da bere zientzi hil-burukoa, bere euskal testamentua. Horregatik, hiztegi honen argitaratzearen eskaintza heldu zenean, ikasle horien artean hautatu zituen lankideak. Gauzak gertutik ezagutzen dituenarentzat ezin zitekeen bestela izan. Berak jantzi ditu, azken urteotako berarizko harremanean, hiztegegintzari eta euskal hiztegegintzari buruzko bere ezagueran eta ikuspuntuetan. Horregatik esan nuen duela gutxi hau dela, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitara emateko lan talderik aukerakoena.

* * *

Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da beraz, eta ez arauemailea, ez normatiboa.

Hortaz, gure helburua ez da hitz baten aldaeren artean zein den hiztegi batuan hartu behar dena erabakitzea, edo zein adiera eta esamoldeetan erabili behar den adieraztea; are gutxiago zein hitz hartu behar diren euskal hitz-tzat finkatzea. Gure helburua, aitzitik, hau da: euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren, eta *nola* baliatu diren horietaz, ahalik eta osoki eta zehatzen azaltzea. Arauak ematea Euskaltzaindiari dagokio. Baina Euskaltzaindiak ezin du araurik eman —itxurazko araurik esan nahi dut—, arau-gaiaren alderdi guztiak aski zehazki aztertu ahal izateko argibideak ez dituen bitartean. Hor kokatzen da, gure ustez, orain aurkeztzen ari garen lan honen egitekoa.

Deskriptiboa izanik, ahalik eta osoena, ahalik eta esaustiboena izan nahi du *Orotariko Euskal Hiztegi* honek. Hortaz, lehenik, aurreko hiztegitileak bildu dituzten lekukotasun eta aipu guztiak aztertzen eta sistematikoki ematen saiatu gara.

Baina hori ez zen nahikoa. Jakina denez, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakoa da, argitaratu zenetik, euskal hiztegi nagusia. Berak hasi zuen euskal hiztegegintzaren etapa berri bat; bera izan da hainbat eta hainbat ikerketa eta lanen euskarria. Euskara batuaeren hiztegiak egin diren saioen oinarria ere Azkueren Hiztegia izan da, ezin bestean.

Bere balio ukaezinak zalantzan jarri gabe, ordea, akats nabarmenak ditu Azkueren hiztegi nagusiak. Lehena, guri axola zaigun aldetik, hau da: deskriptiboa izanik ez zuela euskararen zati bat baizik deskribatzen. Ez dago hemen aipatu beharrik nola baztertu zituen hainbat euskal hitz, erderatikakoak zirelako. Baina bada beste alderdi bat hainbeste azpimarratzen ez dena, eta guretzat besteak adina axola duena: hots, Azkue garbizalea zen —Arana Goiri'tar Sabin adina, dudarik gabe—, baina garbizaleaz gainera populista zen. Hortaz, *Diccionario Vasco-Español-Francés* delakoak jasotzen den euskara, herriaren ezpainetan jaso zitekeen euskara zen; hots, Azkuerentzat, bere Hiztegi nagusia prestatzen ari

zenean, euskara, ahozko euskara zen, berez. (Zehatzago esateko euskaldun ideal baten ahozko euskara, baina utz dezagun hori alde bat). Era berean, inoiz kontrakoa esan bada erre, Azkuek ez zuen delako hiztegian gure literatur tradizioa, berez, aintzat hartu. Idazleen testuak, ahozko euskara horren ispilu —bere ustez— ziren neurrian soilik jaso zituen.

Esan gabe doa, bestalde, Azkuerentzat, inoiz edo behin *arcaico* edo horrelakorik jarri bazuen ere, euskal hitz-ondarea denboran zeharko gorabeheretatik at dagoen zerbait zela. Euskal hitzak betidanikoak dira berarentzat. Beraz, aski da, esaterako, hitz jakin bat *Refranes y Sentencias*-en ager dadin, B ikurraz, besterik gabe, eman dezan bere hiztegian.

Eta are noskiago, ez zitzaion burutik pasatu ere egin hizkuntza batean, oro har, maila eta erregistro desberdinak, hitz landuak etab., daudela. Ez zitzaion burutik pasa, edo berdin dena, ez zuen horretaz gutxieneko axola agertu.

Akats hauek areagotu egin dira Azkueren ondotik egin diren hiztegi-lanetan. Alde batetik haren hiztegia osatzeko egitekoan aritu zirenak, batez ere bitxitasunak eta txokokeriak biltzera ahalegindu ziren, gure hitz-ondarearen irudia eta itxura areago desitxuratuz eta desorekatuz. Idazle zaharrenganik — berriak ez ziren kontuan hartzen — jasotzen ziren lekukotasunak ere izpiritu horrekin jasotzen ziren gehienetan.

Azken urteotan, zorionez eta beharrik, agertzen hasiak dira gure tradizioko autoreen hiztegia biltzen duten lanak, *Axularren Hiztegia*, adibidez. Lan hauek erabat beharrezkoak izanik, bakanak dira oraindik gure artean eta bakartuak agertzen dira. Hortaz, uste oker bat eragin dezakete: gure literatur tradizio osoa —edo merezi duena— hor bildua dagoela. Eta euskal hitz-ondarea, hiztegi batua eratzerakoan kontuan eduki beharko genukeen literatur tradizioa, askozaz ere zabalagoa eta baliabidez oparagoa dela ikustea galeraz dezakete.

Beraz, euskara osoa, “aldez eta aldiz osoa”, deskribatu nahi bazen, ez zen nahikoa orain arteko hiztegitzinta sistematikoki biltzea. Beharrezkoa zen, orobat, gure literatur tradizioan landu eta ondu zen hitz-ondarearen bilketa zabal eta ahalik osoena burutzea, ezein garai edo euskalki arbuia gabe, inongo idazle-talde edo hitz-motarik baztertu gabe. Hots, ahal zen neurrian, tradizioaren irudirik osoena eta neutroena, aberatsena eta orekatuena ematea zen gure egiteko nagusia.

Horretarako ia hirurehun liburu biluztu ditugu, gehien gehienak muturretik muturrena, Etxeparengandik hasita 1970-eraino, hau da, euskara batuaren aroa hasi zen arte. Euskalki guztietakoak, batez ere lau literatur euskalkietakoak, baina baita ere bestelakoak, Laudioko bizkaieratik hasi eta erronkarietarako. Eta orobat literatur mota guztietakoak, arruntenak nahiz landuenak. Baina beti garai, euskalki eta moten artean halako oreka gordetzen saiatuz.

Ia hirurehun liburutako *corpus* honek lau milioi testu-hitzetako erakusgarri bat eman digu. *Corpus* hori, orain arteko hiztegitzearen biluzketa ahalik eta sistematikoena, eta batez ere Mitxelena irakasleak azken hogeitamar urte honetan bildu zituen gaiak dira *Orotariko Euskal Hiztegi* honen datu-oinarrria.

DICCIONARIO GENERAL VASCO
OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

LUIS MICHELENA

Gaion egituraketari dagokionez, ahalik gutxien aldaratu gara Azkueren Hitzegi nagusiaren itxura eta moldeetatik, besteak beste, gure artean halako tradizio bat finkatu duelako. Baina gure helburuari jarraituz, literatur tradizioari oinarrizko garrantzia eman diogu, ahal zenean hitz bakoitzaren erabileraren historia egiten saiatuz. Era berean, nabarmenki gehitu dugu, Azkueren aldean, erabilera-adibideen kopurua. Hitz bakoitzaren adiera bakoitzean eta esapide guztietan, biluztu dugun autore bakoitzeko adibide bat ezarri dugu gutxienez, eta, oro har, delako adiera edo esapidea non eta noiz eta batez ere nola erabiltzen den zehatz azaltzeko, behar adina argigarri pilatu dugu, ugaritasunaren beldurrik gabe. Horretan ez dugu inolako zalantzarik izan, eta ez dugu uste inolako gehiegikeriatan erori garenik.

Badugu hori uste izateko arrazoi bat baino gehiago.

Gure artean egia ezin ukatuzkotzat ematen diren hainbat legek eta baieztapenek oso oinarri ahula dute, eta askotan kontrako adibideak ezin baztertuzkoak dira, edo gutxienez azterketa merezi dute. Eta ez dira falta kontrako adibideok ustezko legea oinarritzen dutenak baino ugariago edo pisu handiagokoak diren kasuak. Premiazkoa zen beraz, euskal estudioei oinarri sendoagoa emango badiogu, adibide eta kontraadibide horien sarea ikertzailearen eskumenean jartzea, salbuespenak-eta saihestu gabe.

Bestalde, lehen aipatu dudana literatur tradizioarekiko axolakabekeria, badirudi ez dugula oraindik erabat gainditu. Oso autore gutxi ezagutzen ditugu, eta gutxi horiek gaizki ezagutzen ditugu. Egungo idazleen artean oso gutxi dira gure literatur tradizioaren zentzua dutenak. Askok irudi erabat desitxuratua dute eta gehienak ez dute inongo irudirik, inondik ere ezagutzen ez dutelako.

Egoera honen aurrean ez genuke ahaztu behar hitz bat ez dela bere definizioan ahitzen. Hau da, hitz bat erabiltzeko ez da aski bere definizioaz jabetzea, are gutxiago zeren itzulpen den jakitea. Hitz bat erabiltzeko bere izateko modua- edo ezagutu behar da, ze testuingurutan agertzeko joera duen, ze lagunarte duen ohizkoen edo gogokoen, zein joskeratan gertatzen den gozoen, eta halaber, joskera bitxietan nola jokatzeko duen, zer efektu eragiteko gauza den. Hori literatur tradizioaren ezaguera osatu eta orekatu batek soilik eman dezake. Euskal tradizioaren ezaguera-faltagatik ari da gertatzen, gaur egun nabari den gure literatur eta are hizkuntz katearen etetze edo bestelakotzea. Honekin ez gara eraberritzeen premia ukatzen ari. Betor hizkuntzaren eguneratzea, betor joskeraren bortxaketa. Baina gauza jakina da, nonnahi eta noiznahi, tradizioaren ezagutzan oinarritzen ez diren eraberritzeek, ikasle hasberriaren ariketa hutsalen etorkizuna dutela.

Alde honetatik, paratu dugun adibide-ugaritasunak, tradizioaren ezagutze-falta horren hutsunea bete nahiko luke.

Adibide ugari eman dugu, beraz, hitz edo esapide bakoitzaren nortasunaren berri zabal eta zehatza emateko. Baina ez dago adibide bakar bat betegarri sartua. Aldez aurreko lanetan bildu genituen adibideetatik laurden bat-edo besterik ez dugu hiztegitatu, aski zelakoan; hau da, gutxienerako maila bederen betetzen genuelakoan. Hautaketa hori gauzatzen egin digu, eta egingo dugu ahaleginik handiena, Hori baita gure ustez hiztegi honekin euskaldungoari eskaintzen diogun emaitzarik garrantzizkoena.

Adibide ugaritasun hau da, itxuraren aldetik, Azkueren Hiztegitik gehien bereizten gaituena. Gainerakoan, esan berri dudana bezala, eragin nabarmena izan dugu beragandik. Are gehiegizkoa, beharbada, punturen batean. Esaterako, Azkuek bezala, hitz edo aldaera bakoitzaren ahozko erabilera adierazten saiatu gara, nahiz eta konturatzen ginen hainbat kasutan argibide horiek ez dutela zentzu handirik, ahozko erabilera, geografi arazo bat baino areago gizarte maila kontua delako hainbatetan: hots, hiztun ikasiak eta ez ikasiak ez dira zaku berean sartzekoak. Halere, eta besterik ezean, ahozko erabilerari buruzko argibideak beti eman ditugu, horretarako, orain arteko hiztegitik, *Erizkizundi Irukoitzak*, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoak* eta abarrek ekarri dutena bilduz. Esan gabe doa biltze-lan horren araberako akats eta balioak dituela gure hiztegiak alderdi horretatik.

H-ari ortografi-baliorik ez aitortzean ere Azkueren bideari jarraitu diogu. Ez da ahaztu behar lan hau *duela 30 urte* hasi zela gauzatzen eta egituratzen. Gero batasunaren kontua etorri zen, baina nolabait beranduegi hiztegi honentzat. Esan nahi dugu H-a zela-eta ez genuela hainbat hilabete galdu nahi, nahikoa berandu ari baita bestela ere hiztegi hau kaleratzen.

Azkueren Hiztegian bezala, metahizkuntzatza erdara erabili dugu. Bi arrazoi izan ditugu horretarako. Lehenik arazo praktikoa. Euskara ez da oraindik kultur hizkuntza eroso, eta zenbait gairi buruz, gutxieneko etekin batez eta erabat lardaskatu gabe aritzea lan benetan nekeza da. Alferrik da hori jakingo ez bagenu bezala jardutea. Eta egia esan, nahikoa zailtasun eta buruhauste dakartza berez *Orotariko hiztegi* honek, badaezpadako etekineko beste bat gehi diezaiozun. Horrek ez du esan nahi euskara kultur hizkuntza eroso eta egoki bihurtzeko ahaleginaren aurrean *txanda pasa* egiten dugunik. Hor dago, kontrakoaren frogagarri, *Hautal-lerako Euskal Hiztegia*, aurkezten ari garen hiztegi honen irakurketa normatibo bat besterik ez dena, eta zeinari Koldo Mitxelenak bere hiztegiari adina ordu edo gehiago eskaini baitizkio azken urteotan. Euskararen aitzinamenduaren aldeko suhartasunak, gure indar mugatuak alferrik-edo ez galtzen erakutsi behar digu, beste ezer baino lehen.

Bigarren arrazoiak garrantzi handiagoa du. Obra hau munduan zeharko ikerlariak bistatik galdu gabe egin nahi dugu. Alde batetik, nazioarteko homologazioa, nolabait esateko, bilatzen dugulako. Bestetik, Azkueren hiztegiarekin gertatu zen bezala, kanpoko ikerlarien erakarle edo akuilari izan dadin nahi dugulako. Zorotasun edo ezjakintasun handia litzateke euskal estudioen atzeratasun nabarmena ukatzea. Gure maila apal hau —Europako apalenetakoa, ez dezagun ahaz— ahalik gehien arintzeko, denen, bertakoen eta kanpokoen, euskaldun nahiz erdal-dunen laguntzaren premian gaude.

Badakigu, dena dela, ez dugula lan biribil bat eskaintzen, eta inor baino hobeki konturatzen zen Koldo horretaz. Baten bati gezurra irudituko zaio beharbada, baina gure lana erlojuaren aurkako lana da. Zera esan nahi dugu, obra honek bere fruitu guztia eman dezan, euskalari guztien laguntza behar duela. Hainbat puntu badira, hiztegi honetan, askozaz ere gehiago lant zitezkeenak. Egia esan, ez dugu horretako denborarik izan, edo nahiago izan dugu pentsatu, euskalariak ere badutela lan-proiektu honetan esku hartu beharra. Ildo beretik, argi ikusten ez ditugun puntuak, eta erabat ilun gertatzen zaizkigunak ere, plazaratu egin ditugu, guk baino jakintza edo denbora gehiago duen batek argituko dituelako esperantzaz. Lan bat eskaintzen dugu, baina orobat lana, egitekoa, eskaintzen ari gara.



Era berean, hainbat huts —idazketa-hutsak nahiz bestelakoak— itzuri zaizkigula jakinik kaleratzen dugu lehen liburuki hau, eta horrela joango dira halabeharrez besteak. Zenbaki eta kopuru handiak ez gaituzte liluratzen, eta kantitatea baino areago, kalitatea hartzen dugu aintzat. Dena dela, berrehun milatik gora erreferentzia, aipu eta adibideren kontrol eta zuzenketak amairik gabeko denbora eskatzen du erabat egingo bada. Uler beza irakurleak, halako memento batean bukatutzat eman behar izan dugula eginkizuna, zenbait huts gorabehera.

Gure lana ez da liburuki hau kaleratzean bururatzen. Eta tamalez, umezurtz gelditu den obra honen gainerako liburukiak prestatzea ez da zailtasun gabeko lana izango. Baina Koldoren landide-taldekoak ongi dakigu hau dela utzi digun betekizuna.

* * *

Guk dugu gure egitekoa lehenbailehen burutzen interes handiena. Baina hori dela eta, presaka eta muturka aritzea, *Orotariko Hiztegi* honen egilearen nahiari uko eta iruzur egitea litzateke. Ahaleginik handiena eskainiko diogu obra honi. Baina bururatzearen presa eta premia ez dugu inoiz aitzakiatzat hartuko, egileak ezarri zion gutxieneko mailaz beherago argitara emateko.

Ezin dut aurkezpen hau bukatu, lan-taldearen izenean, lagundu digutenei eskerrik zinezkoenak eman gabe. Askok izan dira, eta ezinezkoa da guztien kontua ematea. Dena dela argitaratzearen azken etapan erabakigarriak gertatu diren zenbait lagun aipatu behar ditut halabeharrez.

Lehenik nahitaezko bitartekoak, diruzkoak eta bestelakoak, ipini dituzten Euskal Erakundeetako (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako) ordezkotza egin dutenei, batez ere Joseba Arregi eta Pako Garmendiari. Eta bereziki M. Karmen Garmendiari, azken urteotan Hiztegi hau dela eta izan dituen buruhaustea gorabehera —horietako zenbait nik neronek, etsimenezko mementuetan, emanak—, neurriz gaineko ahaleginak egin dituelako, obra honekikoak, bideratzen.

EJIEKO lagunei, Anton Aiastuiaren gidaritzapean, ordenagailuak erabiltzen, eta tresneria informatikoa egituratzen eta zaintzen eskaini diguten laguntza gogoangarriatik. Orobat Fermin Larrea programatzailerari, lan honen alde agertu duen atxikimenduaz nabarmenki arindu digulako gure lanaren zailtasunaren alderdi bat.

Beharrezko genituen zenbait liburu eskuragaitz lortu dizkiguten Endrike Knörri-i, Eusko Legebiltzarreko liburuzainei, bereziki Mikel Mariazkurrenari, eta Gasteizko Fakultateko Liburutegiko Marian Egañari ere eskerrik zinezkoenak.

Euskaltzaindiko lagunei, bereziki Aita Villasanteri, Juan San Martin eta Joanjo Zearretari ere, beti eskaini diguten laguntza eragingarriatik, eskerrik asko.

Eta amaitzeko Matilderi. Ez noa Koldorengan izan zuen eragin osasungarria aipatzera, niregan izan duena baizik. Gogoratzen naiz Salamancako denboretan nola hunkitu ninduen Koldoren hiztegiarekiko zuen ardurak, eta Salamancako saio hark arrazoi teknikoagatik huts egin zuenean hartu zuen pena biziak. Batek ez ditu ezagutzen, askotan, hartzen dituen erabakien arrazoi sakonak. Baina aitortu behar dut Koldoren Hiztegia kaleratzeko azpiegitura prestatzeko eskea egin zitzaidanean, Matilderen irudi hura erabat erabakigarria gertatu zela nigan.

DICCIONARIO GENERAL VASCO/ OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA (I)

Bilbo, 1987-XII-17

*Jose Antonio Ardanza,
lehendakaria*

Euskaltzainburu Jauna, Diputatu Nagusi Jauna, Nafarroako Gobernu eta Foru Aldundietako Ordezkariek, Agintari, Euskaltzain, Jaun-Andreok:

El motivo que nos ha reunido esta tarde aquí ocupa un lugar preeminente entre los logros culturales de este País. Y es que el inicio de la publicación del *Diccionario General Vasco* cobra un significado especial en nuestro proceso de normalización lingüística y en el enriquecimiento de nuestro acervo cultural. Precisamente por ello, las instituciones públicas, Gobierno Vasco y Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como también el Gobierno de Navarra, conscientes de la importancia y de la urgencia de llevar a buen puerto un proyecto como el de este *Diccionario General*, han prestado su aliento y apoyo material para su consecución y manifiestan, su voluntad de seguir haciéndolo en el futuro.

La alegría que significa su presentación se ve, sin embargo, empañada por la ausencia definitiva del profesor Koldo Mitxelena, que nos dejó sin haber tenido tiempo de ver el primer fruto de una labor a la que tantos y tan grandes desvelos dedicó.

Atsegin handia dut gaurko ekitaldi honetan zuekin guztiokin egoteaz. Herri baten ibilera luzean suertatzen dira, noizean behin, gazi-gozoko mugarriak: zenbat eta urrunagotik begiratu, hainbat eta habarmenago agertzen diren horietarikoak. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen liburukia argitaratzeak ere baluke, oso oker ez banago, urteak aurrera joan ahala Euskal Herri osoan halako oihartzun-marka geroz eta ozenagoa bereganatzeko arrazoirik.

Ez nator bestalde, jaun-andreok, jardun luzean ari izatera: besteak beste, aurretik hitzegin dutenek aski argi eta zehatz azalduak dizkigutelako ekinaldi honek, azal eta mamian dituen aitzin-asmo, helburu eta gainerako gora-beherak.

Lauzpabost ohar egin nahi nituzke, halere, gaurko ekitaldiaren amaierako honetan.

I. Resurrección Maria Azkueren hiztegiari, mende hasieran, beharrezko babesa esku-zabalik ematen jakin zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza nagusian bildurik gaude gaur. Eta ez, ezinbestean, zori itsuaren kariaz: lehenaren eta orainaren arteko katea ez da eten, ekintza honek beronek adierazten digunez; eta, aurrerantzean ere, eten ez dadin ahalegindu beharko genuke guztiok. On da guztiontzat, eta are hobe gu bezalako herri batentzat, etorkizuna lehenaldiaren oreaz moldatzen ikas dezagun.

II. Jadanik azaldu zaigunez urrats sendoa eman nahi da, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitara emanez, hizkuntzaren normaltze-bidean barrena. Eta bidezko da, ondorioz, era batera edo bestera euskarari itxaropenezko geroa ziurtatu nahian ahalegintzen diren herritar guztiak pauso honekin poz hartzea. Ez horiek bakarrik ordea: hizkuntz egoeraren normaltzea da izan ere, askoren ustean, euskal gizartea bera egituratu, orekatu eta bere onera ekartzeko eginbeharrik handienetakoa. Eritzi horretakoak diren herritar guztiek jakin bezate gogaide dituztela, horretan, Herri Aginteak.

III. Mitxelena irakaslea gure artetik joana dugun arren badut itxaropen sendoa lan balios eta eragingarria izango dela *Orotariko Euskal Hiztegia*. Horren berri ongi dakitenek adierazia digute, oraindik asko ez dela, Koldo Mitxelenak ongi erabakita utzi dituela bideak eta erizpide nagusiak.

Badago beraz zertaz itxaropena izan. Ez dezagun ahaztu, halere, lanaren hasieran gaudela, argitalpenari dagokionez, oraindik. Geroko geroaren arriskuak lehenagoko idazle nafar ezagunak ongi argitu zizkigunez, gomendio estua luzatu nahi nieke, beharrezko begirunez, Euskaltzaindiari eta hiztegiaren lantaldeari: emazioe hiztegi honi, gorputz eta arima, behar duen dedikazioa. Lastima handia litzateke Euskal Herriarentzat behar den denbora, arreta eta jakite-maila garaiz opa ez izateagatik lan eskerga hau amaitu ezinik, argitalpena erdibidean, uztea.

Herri-Agintek emango dizuete aurrerantzean ere, oraindainokoan bezala, beharrezko diru-babesa: zuek duzue, beraz, hitza! Eta badut itxaropen sendoa, hasieran esan bezala, eginbeharra handia izanik ere asebetetzko erantzuna ematen asmatuko duzuen.

IV. Ez nuke beste hau ere aipatu gabe utzi nahi: Herri-Aginte gehienok elkar hartuz eman zaio Euskaltzaindiari, *Orotariko Euskal Hiztegia* prestatzeko, beharrezko diru-babesa.

Poz handia da, alde horretatik, Nafarroa ere elkarlan honetara bildu izana: gaur bertan izenpetutako asmo-agiria da, urrutirago gabe, horren lekuko zuzena.

Elkarlan hau ez legoke beste hainbat alor eta zereginetara hedatu ezinik. Eusko Jaurlaritzak nahi du bide horretan barrena aurrera egin: Abenduaren 15ean onartu-berria den Dekretuaz emanak ditu, gainera, asmoetatik ekintzetara-ko lehen pausoak.

V. Zorionak eta eskerrak eman nahi nizkieke, azkenik, *Orotariko Euskal Hiztegia* bideratzen nola edo hala partaide izan diren guztiei:

A) Zorionak Euskaltzaindiari, bere sortarauetako eginbehar nagusi bati hain gogotsu erantzuten saiatzeagatik.

B) Eskerrak lantaldeari, beharrezko profesionaltasunez *Orotariko Euskal Hiztegiaren* langintzari bete-betean erantzuteagatik.

C) Eta gorazarrezko oroi-aipamena, azkenik, bere heriotzera arte *Orotariko Euskal Hiztegiaren* iturburu eta zuzendari izan genuen Koldo Mitxelena irakasleari. Berak erakutsi zigun, inork baino zuhurrago, herri batek bere nortasunean iraun ahal izateko bizi nahi izatea ez dela aski: bizi-nahiari bizibideak erantsi behar zaizkiola esan zigun berak, behin baino gehiagotan, ametsetik izate sendoko izanera igarotzeko.

Bide asko dira hartarako baliozkoak; eta haietariko gehienak dira, gainera, beharrezko.

Bide eta bide-zidor gehienetan barrena (edota, nahiago baduzue, aldapa askotan gora) saiatutako Koldok bat izan zuen, dena dela, begiko: eguneroko buru-lan isila. Bere fruituak iraungo du. *Orotariko Euskal Hiztegia* ez da agian, jaiotzez azkena izanik ere, azkenik aipatzekoa izango.

Amaitutzat ematen dut jaun-andreok, besterik gabe, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* aurkezpen-ekitaldia.

KOLDO MITXELENAREN OROIMENEZ

Erreterria, 1987-XI-22

Jean Haritschelhar

Duela orai zazpi urte, Euskaltzaindiak bildu zituelarik munduko euskalariak Gernikan eta Leioan, galdegin zitzaidan zertan ziren, orduan, “Euskarari buruzko ikerketak”.

Aztertu nituelarik berrogei eta hamar urte aintzinago euskarari buruz egin ziren ikerketak, ohartu nintzan 1950-etik honarat Koldo Mitxelenaren lanen garrantziaz eta lehentasunaz. Eta egia da liburu eta artikuluen bitartez agertzen zaigula euskal ikerketan jakintsu haundi eta egiazko maisu.

— Koldo Mitxelenak idatzi duen lehen liburua, onomaztikaz da. Argitaratu zuen 1953 an *Apellidos Vascos* deitutakoa. Orai, hirugarren edizioan dago, salatzzen baitigu zer arrakasta haundia ukan duen. Nehork ez dezake deitura eta izenez zerbait jakin liburu hori eskuratu gabe. Artikuluetan ere ikus daiteke gure adixkide zenak sakondu dituen gaiak: “*Introducción fonética a la onomástica vasca*”, “*El genitivo en la onomástica medieval*”, “*Notas lingüísticas a colección diplomática de Irache*”, “*Toponimia, léxico y gramática*”, “*Onomástica y población en el antiguo reino de Navarra: la documentación de San Millán*”.

Fonetika, hiztegia, gramatika, linguistika, beti sakonki eta zuhurki arizan da Koldo Mitxelena, bereziki onomastika gaian, utziz alde batera bestetan hain ugari agertzen diren asmakizun zientzia eskasekoak.

— Aspaldidanik maite ukan dute Euskaldunek dialektologia, ikusiz eta aztertuz euskalkien berezitasuna. Nehork baino hobeki bazakien Koldo Mitxelenak zer eman zezakeen euskalkien ikertzeak euskararentzat. Aski da irakurtzea zer idatzi duen horretaz *Sobre el pasado de la lengua vasca* deitzen den liburuaren zati batean. Aski da irakurtzea erronkarierari buruz eginikako artikulua: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*, orai zendua den euskalki horren berriak jakiten baititugu Koldo Mitxelenari esker.

Nahiz euskara batuaren alde izan den (Oroit gaitezen Arantzazuko biltzar famatuaz) euskara batua beharrezko delakotz erakaskuntzan, komunika bideetan, administrazioan eta abar, beti esan du eta Euskaltzaindiak harekin, ez zela batere euskara batua euskalkien aurkakoa eta euskara batua euskalkietan oinarritzen zela.

Hortakotz Euskaltzaindiko talde bat lanean dabila Hizkuntz Atlas baten egiten euskalkieri buruz, lan zientifikoa beharrezkoa baita.

—Linguistika aipatzerakoan Koldo Mitxelenaren lan nagusia daukagu gogoan. Madrilen 1959 ean irakurtu zuen bere tesia *Fonética histórica vasca*. Liburu horrekin orduko teoriarik aurreratuena, estrukturalismoa, sartzen zen euskal linguistikan. Ez da bakarrik euskal fonetikaren deskribapena, baina tituluak salatzzen duen bezala diakronia edo euskal fonemen aldakuntza historikoa azterturik dago. Gehiago dena aurrehistoriako euskararen bila eta haren berrasmatzera doa Koldo Mitxelena, osatzen duelarik teoria hori *Lenguas y protolenguas* deritzan liburuarekin.

Beti diakronia eta euskararen bilakaera gogoan izanez, testu zaharren bila doa Erromatarren garaiko Akitaniako idazkietatik hasirik eta bildu ditu *Textos arcaicos vascos* delakoan. Liburu bikaina, beharrezkoa euskal fonologiarentzat, eskupean euskalariak ukan behar dutena. Eta nola ez berriz aipa *Sobre el pasado de la lengua vasca*, liburu horrek argi eta garbi agertzen baititu Koldo Mitxelenaren hizkuntz teoriak. Euskalkiak aztertuz eta dituzten berezitasunak ikertuz, euskararen historiari eta aurre historiari baliatuz neurtzen ditu Koldok latinari eta erromano hizkuntzeri egin diren maileguak eta berdin Erromanoen aurreko Indo Europearren herexak gure hizkuntzan. Horiek hola, euskararen eta beste hizkuntza batzuen ahaidetasunari buruz emaiten ditu bere iritziak, baztertuz gehien bat euskararen eta Kaukasiako hizkuntzen arteko ahaidetasuna.

—Akademia batek, eta nolaz ez Euskaltzaindiak, eginbiderik premiatsuen du hiztegi baten egitea. Hortakotz galdegin zion Koldo Mitxelenari lan izugarri horretan sartzea. Talde bat bere inguruan bildurik eta gaurko tresneria berriak baliatuz, sekulan bildu izan den hitz “corpus” bat osaturik dago, euskalki guzietako idazleak hartuz eta ordenadore “memoria” batean sartuz. *Orotariko euskal hiztegia* deituko den hiztegi haundi horren lehen liburukia (hamar bat izango dira orotarati) agertuko da, datorren hilabetea Durangoan liburu azokan.

Ez du gure adixkide zenak lehen liburukiaren agertzearen poza ezagutuko. Dakiguna da, Ibon Sarasolak eta hiztegiko taldeak segituko dutela beren lana kontutan harturik Koldo Mitxelenaren erabakiak eta urratu duen bidetik ibiliko direla. Eta hori izanen da zinez Koldo Mitxelenaren hiztegia.

—Ez dezagula pentsa hizkuntzalari bakarrik izana dela Koldo, Maite zuen literatura, maite zituen idazleak, lehengoak oraikoak bezala eta irakurtu ditu nehorik irakurtu dituen baino hobeki. Idatzi du *Euskal Literatura* bat euskal literaturetan den hoberena, bere iritziak emanez, neurtuz idazle bakotxaren ahalak eta merezimenduak, aztertuz alde onak eta berdin ere ez hain onak.

Huna beraz, gaingiroki bada ere, gaur nola ohoratzen dugun Koldo Mitxele-naren jakituriaren bilduma. Nahi nuke esan haren fama haundia ez dela bakarrik Euskal Herrian egon. Hedatu da munduan zehar, ezagutua delarik mundu guziko hizkuntzalarien artean. Salamancako Unibertsitatean Katedradun izana, Euskal Herriko Unibertsitatean halaber, Parise-Sorbonako Unibertsitateko erakasle izana da ere. Duela bost urte, 1982ko Ekainaren 15ean, Bordeleko Unibertsitatean egiten nion ongi etorria “Doctor honoris causa” izendatu ginuelarik eta hauxe nion:

“Ongi etorri zuri, adixkide ona. Zer poza neretzat eta hemen diren Euskal-dunentzat zure kausitzea egun, Bordeleko unibertsitateko gela nagusi honetan, gutarteko ohorezko kide eta lagun egina, sortzen baitira ofizialki Euskal Herriko unibertsitate gazte eta Bordeleko Unibertsitate adintsuaren arteko lokarri bere-ziak. Zurekin Euskal Herria, euskal erakaskuntza, euskal ikerketak eta euskara ongi hartuak dira, ohoretan ezarriak, goihen gradora iganak. Zu zaude hemen heien mezulari; har-zkitzu beraz neure bihotzetik jinikako goresmenik bizienak.”

Gaur, Errenderiko Udaletxeko gela honetan, Koldo adiskidea, omenezko hitz bertsuak errepikatzen ditut: Bai, Koldo, zurekin Euskal Herria, euskal erakaskun-tza, euskal ikerketak eta euskara ongi hartuak izanak dira, ohoretan ezarriak, goihen gradora iganak.

Zu izan zira heien mezulari lehena.

ZAITEGIREN FONDOA BILTZE ETA BANATZEAZ

Bilbo, 1987-XII-18

Jose Antonio Arana Martija

Jokin Zaitegi Arrasateko ospitalean bizirik zegoelarik erre zitzaion etxea 1980.eko Apirilaren 2an. Ordurako bere baimena lortuta geneukan eta Euskaltzaindiaren gordailura ekarri genituen han zeuden liburu, aldizkari eta beste paper solte pila, su eta uraren hondamenditik salbatuz.

Beste toki batzuetan ere bazeuden Zaitegiren liburu, aldizkari eta paperak, hots, Baionako Villa Izarra delakoan eta Lemoan, Pelikene Arreseren etxean. Andra honi bisita bat egin genion Juan San Martinek eta biok 1981.eko Urtarrilaren 14an eta bertan zeuden liburuak (*Platon, Euzko Gogoa*, eta abar) Bilbora ekartzekotan geratu ginen. Urte bereko Otsailaren 19 eta 25ean ekarri genituen han zeuden guztiak Bilboko gordailura.

Zaitegiren liburu, aldizkari eta paperen hirugarren gordelekua Baionako Villa Izarra zen. Ordurarte egindakoaz eta Baionakoaz zer egin behar zen erabakitzeko, bilera bat egin genuen Arrasateko Udaletxean, 1981.eko Otsailaren 11an, Arantza Akizu, Jose Maria Velez de Mendizabal, Juan San Martin eta nik neuk, Villa Izarran zegoena ikusteko bertara joatea erabakiz. 1981.eko Otsailaren 21ean joan ginen, Ander Barrutiarekin akordio batera helduz, dena Bilbora ekartzeko, eta hemen dena taiutu ondoren, banaketa bat egiteko.

Baina luzea eta aspergarria izan zen ondoko arazoa, Villa Izarratik hango fondoak ateratzeko eta muga pasatzeko oztopoak ugari izan genituelako. Azkenean, Villa Izarrako okerrak zuzendu zirenean, Jose Antonio Ardanza, Arrasateko Alkatea, eta Luis Villasante, Euskaltzainburuaren agiriak eskuratu genituen Baionako ondasun hori Euskaltzaindira ekartzeko. Baina oraindik mugako arazoak zeuden konpondu gabe.

Azkenean lortu genuen Baionako fondo guztia ekartzea. 1985.eko Urriaren 8an bildu ginen Villa Izarran, Ander Barrutia, Juan San Martin eta hirurok, eta han zeuden pakete guztiak zabalduz, inbentario bat burutu genuen eta 168 kutxetan sartu. 1985.eko Urriaren 25ean Euskaltzaindiaren gordailuan sartu ziren Baionako guztiak, Zaitegiren fondo osoa toki bakar batetan bilduz.

Ordutik hona lan ugaria izan dugu gordailuan dagoena taiutzen eta behar den bezala sailkatu jartzen. Zaitegiren fondo guztia hala sailkatuta geratzen zaigu:

1. Liburutegia.
2. Platonen lanak, argitaratuak
3. Platonen lanak, argitaragabeak
4. *Euzko Gogoa*, bilduma argitaratuak
5. *Euzko Gogoa*, argitaraturiko eta argitaragabeko lan originalak
6. Beste Zaitegiren argitalpenak
7. Gutundegia

Lehen sailaren Katalogoa egina da hogeitaz gutxi Baionatik ekarrita eta lehenago ekarritako liburuekin ere osatua: 1459 dira guztira Zaitegiren liburutegitik salbatu ditugun liburuak eta horietatik 892 dira Arrasateko Kultur Etxera gaur igortzen ditugunak. Beste 567 liburu "Azkue Biblioteka"n geratzen dira.

Beste sailtako (2/7), argitalpen eta paperak ere Euskaltzaindiaren Gordailu eta Artxiboan geratzen dira. Zaitegiren argitalpenak salgai daude, ateratzen den diruarekin lan argitaragabeak kaleratzeko. Beste paper guztiak (originalak, gutunak), zenaren borondatea errespetatuz, Euskaltzaindiaren Artxiboan daude, ikerketak bideratzeko.

ARGITARAPEN INBENTARIOA

Bilbo, 1987-XII-18

Rosa Mari Arza

Xabier Gereño

1. Euskera Agerkaria

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
Euskera, 1919-1953	165	14.283	2.356.695
Euskera, 1965-66	288	840	241.920
Euskera, 1969-70	309	840	259.560
Euskera, 1973	114	444	50.616
Euskera, 1974	63	444	27.972
Euskera, 1975	89	444	39.516
Euskera, 1976	125	444	39.500
Euskera, 1977-1	116	632	73.312
Euskera, 1978,1	133	632	84.056
Euskera, 1978,2	489	632	309.048
Euskera, 1979,1	131	632	82.792
Euskera, 1979,2	87	632	54.984
Euskera, 1980,1	832	632	525.824
Euskera, 1980,2	186	632	117.552
Euskera, 1981,1	180	632	113.760
Euskera, 1981,2	96	632	60.672
Euskera, 1982,1	110	632	69.520
Euskera, 1982,2	92	632	58.144
Euskera, 1983,1	120	632	75.840
Euskera, 1983,2	180	632	113.760
Euskera, 1984,1	201	632	127.032
Euskera, 1984,2	206	632	130.192
Euskera, 1985,1	304	632	192.128
Euskera, 1985,2	416	632	262.912
Euskera, 1986,1	379	632	239.528
Euskera, 1986,2	277	632	175.064

2. Euskararen Lekukoak

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Doctrina Christioarén cathechima</i>	162	424	68.688
<i>Linguae vasconum primitiae</i>	1.065	424	451.560
<i>Manual devotioñezcoa</i>	181	509	92.129
<i>Mendibururen idazlan argitaraga-beak I</i>	160	1.047	167.520
<i>Mendibururen idazlan argitaraga-beak II</i>	164	632	103.648
<i>Kredo edo sinhesten dut esplikatu</i>	539	424	228.536
<i>Lehen liburua edo filosofo huskal-dunaren ekheia (1785)</i>	760	424	322.240
<i>Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Gingo Jaunaren eçagutcia, s.i.</i>	301	424	127.624
<i>Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac</i>	401	358	143.558
<i>Koplak</i>	229	358	81.982
<i>Ongui iltzen laguntzecó itzgaiac</i>	338	424	143.312
<i>Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima</i>	626	424	265.424
<i>Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeeen neurrizco gatz-ozpinduba</i>	346	358	123.868
<i>Euskal testu zaharrak (I)</i>	330	1.113	367.290

3. Iker Saila

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>IKER-1: Euskalarien nazioarteko jardun aldiak</i>	832	632	525.824
<i>IKER-2: Piarres Lafitte-ri omenaldia</i>	1.075	1.047	1.125.525
<i>IKER-3: Erizkizundi Irukoitza</i>	729	1.047	763.263
<i>IKER-4: Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarr. idazketa</i>	308	632	194.656

4. Onomasticon Vasconiae Saila

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur</i>	130	1.047	136.110
<i>Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar</i>		1.047	

5. Jagon Saila

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Bertsolari Txapelketa 1982</i>	3.391	424	1.437.784
<i>Iparragirre</i>	2.939	1.113	3.271.107

6. Hiztegiak eta Izendegiak

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Diccionario Vasco-Español-Francés, R. M. Azkue</i>	1.137	2.943	3.934.791
<i>Voces alavesas</i>			
<i>Voces bascongadas</i>	168	170	28.560
<i>Zortzi urte arteko ikastola hiztegia</i>	1.230	170	209.100
<i>Euskal Herriko udalen izendegia</i>	7.447	94	700.018
<i>Euskal izendegia</i>	10.087	94	948.178
<i>Merkatalgo izendegia</i>	223	94	20.962
<i>Maileguzko hitz berriei buruz</i>			
<i>Euskaltzaindiaren erabakiak</i>	352	132	46.464
<i>Hitz-Elkarketa/I</i>	234	400	93.600

7. Soziolinguistika Saila

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Euskararen liburu Zuria</i>	1.434	424	608.016
<i>El libro blanco del euskara</i>	6.705	424	2.842.920
<i>Estudio socio-lingüístico del euskara</i>			
<i>Hizkuntz borroka Euskal Herrian</i>	62	255	15.810
<i>Conflicto lingüístico en Euskadi</i>	11	255	2.805
<i>Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización</i>			

8. Gramatika eta Metodoak

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Euskal gramatika: Lehen urratsak-I</i>	1.441	424	610.984
<i>Eglu-I (Eraskina)</i>	5.327	400	2.130.800
<i>Euskal gramatika: Lehen urratsak-II</i>			
<i>Begarako Biltzar ondoko erabakiak</i>	1.880	170	319.600

Hitz egin metodoa

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Hitz egin I: irakaslearen liburua</i>	476	340	161.840
<i>Hitz egin I: ikaslearen liburua</i>	3.715	264	980.760
<i>Hitz egin I: ariketa idatziak</i>	1.099	94	103.306
<i>Oinak</i>	5.238	170	890.460
<i>Ikasle Israelen</i>	5.153	94	484.382
<i>Oier, Xabier eta Amaiaren bihurrikeriak</i>	2.031	47	95.457
<i>San Braulioko eroa</i>	745	94	70.030
<i>Hitz egin II: irakaslearen liburua</i>	3.620	340	1.230.800
<i>Hitz egin II: ikaslearen liburua</i>	2.531	264	668.184
<i>Hitz egin II: ariketa idatziak</i>	4.051	94	380.797
<i>Harriak</i>	3.871	170	658.070
<i>Haizeak eraman ez dituen hitzak</i>	2.148	94	201.912
<i>Hitz egin III: irakaslearen liburua</i>	902	340	306.680
<i>Hitz egin III: ikaslearen liburua</i>	13.951	264	3.683.064
<i>Hitz egin III: ariketa idatziak</i>	7.860	132	1.037.520
<i>Itsasoa eta ni</i>	5.691	170	967.470
<i>Hitz egin III: gidaliburua mailaz maila</i>	3.873	208	805.584
<i>Ipuin beltzak</i>	2.693	170	457.810
<i>Herri ahantzia</i>	4.618	94	391.792
<i>Oinarriak</i>	4.109	198	813.582

9. Batzu

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Lenengo euskalegunetako itzal- diak</i>	109	104	11.336
<i>Euskal kantzak 1960</i>	156	47	7.332
<i>Agiriak</i>	584	424	247.616
<i>Euskal antzerkia 1980</i>	459	170	78.030
<i>Mikel Zarateren prosa</i>	439	170	74.630
<i>Emeki itxaropendutako egunkaria</i>	340	94	31.960
<i>Karl Marx teoria eta politika</i>	138	170	23.460
<i>Andre zuria</i>	454	151	68.554
<i>Beldur naiz</i>	437	123	54.751
<i>Zure argi kliskak</i>			
<i>Publikoari gorroto</i>			
<i>Indice de la obra las mil y una canciones populares vascas</i>	293	66	19.338
<i>Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia</i>	1.634	1.047	1.710.798
<i>Estatutos y reglamento interior de la R.A.L.V./Euskaltzaindia</i>	739	94	69.466
<i>Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo</i>	318	358	113.844
<i>Euskaltzaindiaren historia laburra</i>	472	123	58.056
<i>La fonction de la douleur</i>	140	104	14.560
<i>Laztantxu eta Betargi</i>	40	47	1.880
<i>Goldaketan</i>	239	170	40.630
<i>Adizki berenkoiak Olabide'ren</i>			
<i>Itun Berria'n</i>	23	85	1.955
<i>Ekatxa</i>	25	66	1.650
<i>Lear Errege</i>	254	66	16.764

Euzko gogoa aldizkaria

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Euzko Gogoa 1950-3/4</i>	24	85	2.040
<i>Euzko Gogoa 1950-5/6</i>	120	85	10.200
<i>Euzko Gogoa 1950-7/8</i>	228	85	19.380
<i>Euzko Gogoa 1950-9/10</i>	51	85	4.335
<i>Euzko Gogoa 1950-11/12</i>	63	85	5.335
<i>Euzko Gogoa 1952-1/2</i>	131	85	11.135
<i>Euzko Gogoa 1952-3/4</i>	144	85	12.240
<i>Euzko Gogoa 1952-5/6</i>	160	85	13.600
<i>Euzko Gogoa 1952-7/8</i>	134	85	11.390
<i>Euzko Gogoa 1952-9/10</i>	265	85	22.525
<i>Euzko Gogoa 1952-11/12</i>	155	85	13.175
<i>Euzko Gogoa 1954-5/8</i>	33	85	2.805
<i>Euzko Gogoa 1954-9/10</i>	34	85	2.890
<i>Euzko Gogoa 1954-11/12</i>	69	85	5.865
<i>Euzko Gogoa 1955-1/2</i>	19	85	1.615
<i>Euzko Gogoa 1955-3/4</i>	35	85	2.975
<i>Euzko Gogoa 1955-5/12</i>	7	85	595
<i>Euzko Gogoa 1956-1/2 Ilbeltza-Otsaila</i>	154	85	13.090
<i>Euzko Gogoa 1956-3/4 Epaña-Iorrraila</i>	375	85	31.875
<i>Euzko Gogoa 1956-5/6 Orrila-Garagarrila</i>	327	85	27.795
<i>Euzko Gogoa 1956-7/8 Uztaila-Daguenila</i>	361	85	30.685
<i>Euzko Gogoa 1956-9/10 Iraila-Urrila</i>	273	85	23.205
<i>Euzko Gogoa 1956-11/12 Azila-Gabonila</i>	386	85	32.810
<i>Euzko Gogoa 1957-1/2 Ilbeltza-Otsaila</i>	301	85	25.585
<i>Euzko Gogoa 1957-3/4 Epaña-Iorrraila</i>	555	85	47.175
<i>Euzko Gogoa 1957-5/6 Orrila-Garagarrila</i>	834	85	70.890
<i>Euzko Gogoa 1957-7/8 Uztaila-Daguenila</i>	802	85	68.170
<i>Euzko Gogoa 1957-9/12 Iraila-Gabonila</i>	697	85	59.245
<i>Euzko Gogoa 1958-1 Ilbeltza-Otsaila</i>	706	85	60.010
<i>Euzko Gogoa 1958-2 Epaña-Iorrraila</i>	708	85	60.180

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Euzko Gogoa</i> <i>1958-3/4 Orrila-Daguenila</i>	499	85	42.415
<i>Euzko Gogoa</i> <i>1958-5/5 Iraila-Gabonila</i>	252	85	21.420
<i>Euzko Gogoa</i> <i>1959-1/2 Ilbeltza-Otsaila</i>	478	85	40.630
<i>Euzko Gogoa</i> <i>1959-3/6 Epaila-Garagarriila</i> <i>Eusko Jakintza 1953-1957</i>	869	85	73.865

Vida vasca aldizkaria

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Vida Vasca 1974</i>	84	170	14.280
<i>Vida Vasca 1977</i>	91	170	15.470
<i>Vida Vasca 1978</i>	78	170	13.260
<i>Vida Vasca 1979</i>	9	123	1.107
<i>Vida Vasca 1980</i>	17	123	2.091
<i>Vida Vasca 1981</i>	10	123	1.230
<i>De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas</i>	798	604	481.992

I. Zaitegiren itzulpen lanak

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Platon'eneko atarian</i>	200	170	34.000
<i>Platon I</i>	548	170	93.160
<i>Platon II</i>	136	132	17.952
<i>Platon IV</i>	136	132	17.952
<i>Platon V</i>	122	132	16.104
<i>Sopokel'en Antzerkiak I</i>	439	170	74.630
<i>Sopokel'en Antzerkiak II</i>	61	94	5.734
<i>Euripide'ren Medeie</i>	36	47	1.692

Oroitgarriak

TITULUAK	ALEAK	SALNEURRIA % 60 BEHERAPENAZ	PEZETAK
<i>Dominak-Eleizalderen mendeurrena, 1978 Dominak-S. Altuberen mendeurrena, 1979 Dominak-A. Campion-en Grama- tikaren mendeurrena, 1984 Eranskailuak/Pegatinas “Bai Euskarari”</i>			
<i>GUZTIRA</i>			47.249.081

OLGETA MAGIKOA (*)

Doinua: Amurizaren “Deskalabrua”rena

Joseba A. Santxo Uriarte

Getxo

I

Bertsoen giltzaz amets-ateak
berriz zabaltzera noa
senak hortara naroa
berriro ere senti dezadan
bihotz-fereka banoa
plazeraren baltsamoa.
Bertso-doinutan hasi orduko
gogoaren pianoa
paperean arranoa
hegaz hasi da tajutu nahirik
altxor guztien pianoa
plano guztien asmoa

II

Bertsorik bertso mailarik maila
igotzen dut zurubia
bi mundutako zubia
igotzen eta argiagotzen
ludiaren irudia
irudiaren ludia.
Hitz-neurturiko jolas bihurtuz
sormenaren justuria
nire esku urduria
dantzan ari da papereratzten
hitz magikoen euria
ametsetan isuria.

III

Zurubi-mailak bukatu eta
oro ikusten dut lasai
ikustezina ere bai
gogoa baina egon ezinik
oraindik daukat goranahi
izar haundi-nahien anai.
Adimendua dudanez gero
sentipen magikotan blai
hain ditut zentzuak ernai
begiak jotzen duen guztia
bihurtzen baita kantagai
bertso berriaren sustrai.

IV

Atseginaren altzoan nago
heldzen baita niregana
musika eder bakana
baita lainotan hurbiltzen ere
kantatzen ari den dama
eta eskutik narama.
Bere ahotik eztitan dantzut
melodien karabana
belarrirako lastana
aire berritan edertzen baita
ezein bertsoren izana
apainduz bertan esana.

(*) *Xenpelar Saria, 1987, lehen sariduna.*

V

Liluraturik nago aditzen
 erritmo bizi arina
 txalapartaren berdina
 eta zainetan eutsi ezinez
 daukat odol irakina
 tun-tun setatsuen grina.
 Osorik hautsiz osorik betez
 bertsoaren diziplina
 neurriaren danbolina
 jotzen ari da silabakatuz
 esaldi-mokil gordina
 berba-dantza atsegina.

VII

Malkorik malko mailarik maila
 bajatzen dut eskailera
 bi mundutako barrera
 bajatzen eta ilunagotzen
 galeraren egoera
 egoeraren galera.
 Hitz-neurtuetan agortuz gero
 irudipenen kantera
 lehengoko esku artega
 nekez ari da ubideratzen
 eskas datorren urbehera
 ametsa baita sosega.


VI

Gozamenaren azken dardarak
 nago sentitzen hasia
 zirrara gozo-gazia
 entzuten baitut usapal baten
 hitz-xurrunmuru nahasia
 edertasun garrasia.
 Bere kantutik hitz hoskideak
 etengabe doaz ia
 parrastaka fantasia
 errima batek ereiten baitu
 hurrengoaren hazia
 armoniaren grazia.


VIII

Bihotz-erdian oraindik daukat
 kilika goxo biguna
 plazeraren oihartzuna
 ate ostean gelditu arren
 bertso idatzien luma
 magiaren erresuma.
 Ez dut barruan nabarituko
 bertsogintzaren lurruna
 hain hurbila hain urruna
 berriro ere zabaldu arte
 ametsen ate astuna
 neure olgeta kuttuna.


DESKALADURUA




Des - ka - la - bru bat des - ka - la - bru bi - des - ka - la




bru - en se - gi - da zen bat des - ka - la - bru di - ra gu - ro e -




tac - an bart gor - ta - tu - a des - ka - la - bru ta - er - di




da des - ka - la - bru ja - er - di da mahai e - ta - a - te sal - ta - tu



du - te tel - la - tu - tik lu - lar - gi - ra ni o - ha - pe - tik be - gu



ra jan - go ni - tu - en i - zar guz - ti - ak sor - gin hu -



tsak er - ha - li - ra sor - gin hu - tsak ez ha - li - ra

“NERE IRRATITXOA” (*)

(Doiñua: Aizak i motel mañontzi...)

Joxe Aierbe Iraola

“Ubegi”

Donostia

Luma ongi zorrozuta,
IRRATIA gai artuta,
bertso batzuek jartzera noa
merezi ditu-ta.
Egun osoan piztuta
batzuk erdi zapuztuta,
gauean ere entzuten baitut
oan sartuta.

Goizean esnatutzean,
belarriaren ertzean
artuta entzun, naiz azkar jeiki
ordua jotzean.
Bein bat orrela oitzean,
gaizki gabe gelditzean,
orregatik nik eramaten dut
bañura sartzean.

Baño-zuloko lanetan
goizeko ordu oietan,
badakizute eta ez noa
esatera zertan.
Ibili gabe ezertan
IRRATITXOA an bertan,
zeiñen ederki entzuten dudan
ixiltasun artan!

Albiste eta kantuak
edo beste asuntuak,
egíñez pozik pasatzen ditut
antxe minutuak.
Naiz ango pake santuak
minutuak kontatuak,
atea jotzen asten dira ta
orduan kontuak!

Lendabiziko ordena:
“irten aal dan azkarrena”,
badakit larri iristen dana
ara datorrena.
Baiña pozik zegoena
errespetatu aurrena;
iñoren onik ezin eraman,
ori da txarrena.

Ala irteten naiz andik
ia jantzi gabetandik,
iñork kejarik izan ez dezan
ortan neregandik.
Beartu gabe iñondik
esango ditut emendik,
ondorengoak okerragoak
baitira oraindik.

(*) *Xenpelar Saria, 1987, bigarren sariduna.*

Irratitxoa bitarte
aspertuxea naukate,
gu bion aurka, etxe ontan zer,
demonstre daukate?
Nik uzte ba'dut nunbaite
kendu egiten didate,
nunbait lotuta erabiltzera
beartuko naute!

Naiko aserre egunez
gauean zer esanik ez,
oe-ertzera eramateko
oitura dudanez.
Atzekaldea emanez,
bear danikan egin ez,
loak artzen nau nere IRRATI
kuttuna entzunez.

Aldamenetik: "aizazu,
bizio txarra daukazu,
gaurko naikoa entzun duzu ta
itzali ezazu.
Ze senar klase zera zu?
Zerbait pentsatu beazu,
kaso geiago egin ezean
alperrik naukazu".

"Leen, oroitutzen ba'zera
amaika'terdik aldera...
gaur egun ez dan bezelakoa
zan zure joera.
Orain leengoa atzera,
legezkoa da zaartzera,
baiña azkeneko noiz egin gendun
goatzen al zera?"

"Nai baldin ba'dezu jakin,
aserre nago zurekin,
orrela ezin bizi gaitezke
biok alkarrekin.
Zure irratiarekin
esango dizut zer egin:
egunez entzun ezazu baiña,
gauean nerekin".

Adiskidetu gaitean,
bizi nainuke pakean;
tresna kaxkar bat dala medio
aserre betean.
Doiñu polit bat astean,
ura entzun bitartean,
bion gustua egin daiteke
ederki batean.

“TXEKOR ZAZPIKIA” (*)

(Doiñua: Ai gure antziñako...)

Joxe Aierbe Iraola

Donostia

Beiak umea laister
egingo omen du,
aitonak esan du,
zer gerta ere iñor
ez bedi aldendu.
Une larri oietan
nola ez lagundu!
Aurreratua dator
ez dabil berandu,
egiten asi eta
ederra egin du!

Bazkaltzen asi eta
erdi bukatuan
giñan momentuan,
orro txiki batzuek
entzun genituan.
Ikullura joan giñan
denok segituan,
txekorra jaioa zan
naiz erdi ituan,
lan guztiak bakarrik
egin bai zituan!

Denborarekin nago
naiko kezkatuta,
denak kontatuta
zazpi illabeterik
oraindik ez du-ta.
Miatzen aritu naiz
eskua sartuta,
bizirik dago baiña
oso larrituta,
kontuz, onek laguntzak
bearko ditu-ta!

Beiak egindakoa
zala nola esan?
Ain txikia bai zan,
ao-zulotik aize
arnasa ar zezan.
Bere onera azkar
asko etorri zan,
txikia izan arren
osasuna izan,
andik ordubetera
zutikan jarri zan.

(*) *Xenpelar Saria*, 1987, hirugarren sariduna.

Emen alperrik gaude
 orrenbeste lagun,
 zer egin beagun:
 bear diran amarrak
 prestatu ditzagun.
 Argia itzalita
 aldegin dezagun,
 iñor bixtan ez dala
 etzango da ordun,
 ea guk bitartean
 bazkaldutzen degun.

Auzoan badaukagu
 txit andre laiala
 eta bereala,
 berria eman nion
 aal nuan bezela:
 — Biberói bat derrior
 bear genduala...
 — Aur txikiren bat jaio
 al zaizute ala?
 — Ez, —esan nion— txekor
 batentzako zala.

Ez dakit sinistu zun
 nik esandakoa,
 ez da aritzekoa,
 baiña denboraz eman
 zidan baiezkkoa.
 — Nunbait izan bear du
 nola alakoa,
 ez da izango, noski,
 gaurko modakoa,
 Axier'ek txikitan
 ibilitakoa.

Manta batez estali
 ez dedilla oztu
 eta au ez aaztu:
 amaren esnari
 ur pittin bat naastu.
 Iru ordutik iru
 ordutara juntu,
 biberoikada ori
 bearko du ustu,
 txikia izatea
 beste gaitzik eztu.

Albaiteroa bear
 degu nunbaitetik,
 dei aldamenetik,
 baita etorri ere
 azkar nunbaitetik:
 — Esnea eman baiña,
 biberói batetik...
 — Gure etxean ez da
 aspaldin ortatik.
 — Ez baldin badezute
 ekarri auzotik.

Sano itxurakoa
 da nere ustean
 jaten ikastea:
 pentsua eman lasai
 azpilla betean.
 Nai duan aiña esne
 bien bitartean,
 pixua kontrolatu
 papertxo batean,
 kilo bat irabazi
 bear du astean.

Aitona txoraturik
 dago berarekin
 eta zaintzen jakin,
 ondo konpontzen dira
 biak alkarrekin.
 Ikusten duanean
 biberoiarekin
 saltoka beregana
 giro da arekin,
 ez du ezer jakin nai
 beste iñorekin!

Neurriz arkume bat
 aiña alde-alde,
 zerbait badu alde:
 jale izugarria
 eta pozik gaude.
 Aitonak mantentzen du
 baiña ez debalde,
 — Zenbat kostako ote da?
 — egiten du galde.
 Iñoiz ez da egingo
 berrogei erralde!

HILBERRIAK

KOLDO MITXELENA ELISSALT (1915-1987)

Bilbon, 1987, XII-18

1987ko Urriaren 11n zabaltzen da berria, berri latza: ustegabea eta ia supituki hil zaigula Mitxelena (G.B.). Albiste honek beronek bazterretan altzarazi duen oihartzunak aditzera eman du —erarik adieragarrienean eman ere— Mitxele-
nak euskal kulturaren munduan duen izenaz eta balioaz guztiok jabetzen ginela.

Hemen ezin dugu egin azalpen labur eta trinko bat baizik. *Egan* aldizkaria Koldori eskainitako zenbaki berezi bat prestatzen ari da. Eta hor dira, bestalde, Eugenio Ibarzabalek (1) eta Martin Ugaldek (2), duela zenbait urte, argitaratutako liburuak. Aipagarri dira, baita ere, Haritschelhar adiskideak Bordeleko Unibertsitatean 1982. urtean egindako hitzaldia (3) eta Antonio Tovar jaunak Ossian Saria Koldori eman zitzaionean eginikakoa (4).

Koldo Errenterian jaio zen. Haren familia, ekonomi aldetik, ez zen, dirudie-
nez, lasaiegi bizi. Aita saskigilea zen. Ama, berriz, jatorriz, Iparraldekoa. Pobrea izanik ere, orduan “bachillerato elemental” deitzen zena Donostiako Institutuan egin ahal izan zuen Koldok.

Berberak aitortu duenez, haur eta gazte denboran, erabat uzkur eta lotsati zen; gero, berriz, adinarekin eta hartutako masailekoekin beldurra eta lotsa, bi-biak galdu omen zituen (5).

21 urte zituelarik, gerra lehertu zen, Espainiako gerra zibila. Koldo gudari joaten da. Legutianoko erasoan, Bizkaiko kanpainan etab. parte hartzen du. Santander aldean preso hartzen dute. Kartzela ezagutzen du, kartzela luzea: 6 urte. 1943an kartzelatik irten eta Madrilen lanean hasten da; baina handik hiru urtetara berriro sartzen dute kartzelan: oraingoan 16 hilabeterako. 1947an askatua izan zen.


(1) EUGENIO IBARZABAL: *Koldo Mitxelena*, Erein, San Sebastián, 1977.

(2) MARTIN DE UGALDE: *Hablando con los vascos*, Editorial Ariel, Barcelona, 1974.

(3) Université de Bordeaux III. Allocutions prononcées le 15 Juin 1982 dans l'Amphithéâtre Renouard.

(4) Gasteizen 1983.eko Otsailean izan zen.

(5) IBARZABAL, o. cit., 20. orr.



Esan behar da kartzelako urteak ez zituela alferretan igaro: ikasketak egiteko baliotsuak gertatu zitzaizkiola, alegia (6).

Libre irten zenean, bizimodua irabazteko, klaseak ematen zituen Donostia edo Donostia inguruan.

1949an Matilde Martínez de Ilarduya arabar andrearekin ezkontzen da. 1951.ean Clásicas-etan Lizentziatura lortzen du.

Euskaltzaindiari dagokion aldetik, 1950ean urgazle eta 1953an euskaltzain oso izendatua izan zen (7). Sarrera-hitzaldia, ordea, handik 8 urtera egin zuen, 1961ean. Errenterian izan zen. Hitzaldi-gaia: "Euskal iztegitilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan". Neronek egin nion ongi-etorritzko erantzuna (8). Urte batzuk lehe-

(6) Emilio Alarcos Llorach-ek Abenduaren 1ean ABCn egindako artikuluan ("Responso en soledad por Luis Michelena") Francisco Jordá-ren izena dakar historia-aurreko gauzetan jakintsu eta Koldoren kartzela-lagun bezala.

(7) Egia esan, batzar-agirietan ez dut aurkitu izendapenaren berri. 1953-V-29ko batzarrean euskaltzain oso da jadanik. Ikus "Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak 1949-1964" **Euskera**-ren bir-argitalpenean (1937-1953), 28. orr.

(8) Ikus **Euskera** (1961), 5-29.

nago, 1957an, eta Leitzan, Orixe Euskaltzaindian sartzean, Koldok egin zion erantzuna, euskal azentuaz, hain zuzen (9).

Mitxelena Euskaltzaindian sartu zenean Inazio M.^a Etxaide zen euskaltzainburu. Akademiaren egoera ez zen normala. Batzarreetara euskaltzain guti etortzen zen; batzuk, exilioan zeudelako, ez zuten etortzerik. Egoera hura erremedia-tzen laguntzeko, pentsatu zen Arautegi eta Barne-Erregelak berritu eta beroietan aldakuntza batzuk egitea. Arautegi eta Barne-Erregelen berriztapen hori 1954ean egin zen eta horretan Koldok partia handia hartu zuen. Aldaketarik nabarmenena, berriz, honako hau izan zen: euskaltzainen kopurua 12tik 18ra igotzea eta etortzerik ez zutenen ordezkokoak izendatu ahal izatea. Horrela, ordezkoko gisa, izendatuak izan ziren bai Arrue eta bai Lojendio ere.

1956an egiten da Euskaltzaindiaren gerra ondoko lehen Kongresoa Arantzazun eta Koldo han izan zen.

1958an egiten da beste bat Bilbon eta bertan Mitxelenak txosten bat aurkeztu du: "Euskal-itzak zein diren". Horren ondorioz, hurrengo urtean, 1959an, aterako da Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz (10). Mitxelenak bultzatutako gauza izan zen hura. Berak ikusten zuen Hegoaldeko euskal literaturan zegoen nahaspila gainditzeko, behar-beharrezko zela oinarrizko puntu hau argitzea, eta hala egin zuen Euskaltzaindiak. Erabaki honen arabera euskal hitzak dira euskararen sustrai sendoak dituzten guztiak, nondiknahi heldu direlarik, bestalde.

Agiri hura orduan halako mukertasun batekin hartu bazen ere —eta nik bezain ongi edo hobeki daki hori Alfontso—, gero, urteen joanean, beste puntako joerak azaldu zirenean, Koldo berdin agertu zen horien aurka. Berak gogoz aitortzen zuen gure hizkuntzak mailegu berriak hartzeko duen eskubidea eta bai premia ere; baina behar ez denean zabarkeria hutsez beti erdara jakin batera, hots, gaztelaniara, jotzea, hori ez zuen onartzen. Hori, Mitxelenaren ustez, euskara kolonialismo baten pean jartzea zen. Hizkuntzek, eta bereziki hizkuntza ttipiek, beren nortasuna zaindu behar dute.

Baina, guztiok dakiten bezala, Mitxelenaren izena euskara batuaren ekintzari gelditu da lotua. Zalantza gabe, ekintza edo oldar honek arnasberri ekarri dio euskarari. Mitxelenak bazekien alde z aurretik ekintza honek sesioak eta iskanbilak sortuko zituela, baina zilegi ote zen sesio batzuen beldurrez egin behar zena egin gabe uztea?

Jakina denez, 1968an, eta Arantzazun, aurkeztu zuen euskara batuaren aurre-asma (11). Hurrengo urteetan lan guztiz emankorra egingo du Aditzaren batasunean, Herri-izendegiarenean, etab.

(9) Ikus **Euskera** (1958), 29-44.

(10) Ikus **Euskera** (1959), 216.

(11) Ikus **Euskera** (1968), 203-219; IBARZABAL, o. cit., 169.

Handik hamar urtera, 1978an, Bergaran egiten du Kongresoa Euskaltzaindiak Arantzazuko Agiria birresteko. Han ere parte hartzen du Mitxelenak (12). Eta parte hartzen du, noski, hurrengo urteetako erabakietan: “H” letraren erabilerarako erregela zehatzak ematerakoan (13), Erakusle edo demostratibo batuak aukeztatzean (14), bustidurei buruzko erabakian (15), etab.

Deklinabide kontuan, Mitxelenak deklinabide mugagabeari Hegoaldean ematen zitzaion baino kasu gehiago emateko eskatzen zuen; “-a” bukaera duten hitzetan “-a” hori mantentzeko; kasu instrumentalari (-z letraz adierazten denari) erabileran sarrera gehiago eman zekiola, etab.

Euskal Herriko Hizkuntz-Atlasa, horra Mitxelenaren beste amets zahar bat, gaur zoriean martxan dena. Neurri batean berak abiarazi zuen. Besteak beste, beraren aholkuz, 1981ean ikastaro bat antolatu zuen Euskaltzaindiak Deban, irakasleak kanpotik ekarriz, langile gazteak bilketa-lanetarako presta zitezen amoreagatik.

Eta, azkenik, hor dago *Orotariko Euskal Hiztegia*. Beronen egilea obra handi hau kaleratzen hasi behar zenean joan bazaigu ere, luzarora begira, berau izango da Koldori osperik gehiena emango diona, nik uste. Euskaltzaindiaren aginduz egindako lana da, gainera. Berrogetamargarreneko hamarkadan eman zion Euskaltzaindiak Koldori agindu hau, baina orduan gu guztiok gogoan geneukana zerbait apalagoa zen, hots, Azkueren hiztegia zuzendua, osatua eta gaurkotua ematea. Eta zinez, hori da funtsean, nahi baduzue, oraingo hau ere, baina, jakina, lehengoaren luze-laburrak eta zabalak izugarri haunditu dira; hain haunditu, non atera zaion obra guztiz berria eta bestelakoa baita.

Ez dugu pentsatu behar, halere, hiztegi honekin dena eginik dagoela. Hiztegi historikoa da hau; lehengo hitzena batez ere, eta, jakina, azken orduko hitzena ere egin beharko da. Ez da arau emailea, eta hori ere ezin bestekoa dugu. Orduan zertarako da Hiztegi handi hau, hamar tomo guttinaz beteko duen Hiztegi hau? Euskaraz erabili izan diren hitz guztiei buruz berri zehatzak eta testigantzak jakiteko. Ez da guti. Nolanahi ere, hemendik behar zen hasi, eta hori bildua eta bideratua utzi digu Koldok. Eskerrak berari.

Linguistika arloan lehen mailatako jakintsutzat aitortua zen Mitxelena, bai erresuman eta bai atzerrian ere. Donostiako “Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo”ren sortzaileetarikoa izan zen (16).

(12) “Arantzazutik Bergarara”, **Euskera** (1978), 467-477.

(13) Ikus **Euskera** (1979), 659-695.

(14) Ikus **Euskera** (1979), 629.

(15) “Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren Agiria”, **Euskera** (1979), 91-92.

(16) IBARZABAL, o cit., 154 orr.

Baina oroz gain Mitxelenak Unibertsitatea zuen bere bokazio. Nahitaezko dut, bada, hitzerdi bat bederen berak maiteen zuen alderdiaz esatea. Euskal Herrian Unibertsitate publiko bat ez egonaren mina eta arantzea zekarren beti bihotzean kokatua. Azkenean amets hori ere ikusi du egia bihurturik —beste amets asko bezala, adibidez, Estatutua—. Unibertsitate-mailako irakaskuntzari eskaini zion bere biziaren parterik onena: Donostiako EUTGn, Salamancan, Parisen eta azkenik Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreran; nahiz eta Salamancan oso ondo kokaturik egon, dena utzi eta hemengoari bere lehen urratsetan, urrats zailetan, laguntzera etorri zen. Eta beti zegoen gertu orientabide-eske zetozkionei laguntzeko. Euskal Herriko Unibertsitateak ere, Koldoren merezimenduak aintzat harturik, omenaldi ospetsua egin zion jubilatutako zenean (1984-8-5).

Euskaltzaindian, berriz, *Iker* Sailburu genuen Koldo eta Hiztegi Batzordeburu ere bai. Denok aho batez aitortzen genuen haren maisutza, eta auzi zail eta korapilatsuetan berarengana jotzen genuen. Gaineratu behar dut lehenago, Lojendioren garaian, hots 1963an, Idazkari, edo orduan esaten zen bezala, Zadorlari izan zela.

Ez noa Mitxelenaren liburu, artikulua eta liburuei buruzko txostenen zerrenda ematera, luzea baita eta, gainera, puntuz-puntu *Symbolae* delakoan eginik baitago. Hamar folio bi zutabetan betetzen ditu bibliografia honek *Symbolae* bilduma horren aurrengo tomoaren hasieran (17). Bakarrik aipatuko dut, aipatu bakarrik gure literatura izan duen oihartzunagatik, berrogeitamar eta hirurogeiko hamarkadetan *Egan* aldizkarian egin zuen lana. Euskarazko gauzarik doi-doi agertzen zen garaian, hor aritu ziren Guatemalako *Euzko Gogoa* eta Donostiako *Egan* elkarren lehian. Mitxelenaren artikuluek arrakasta handia zuten beren idaztankera arina eta bihurri antzekoagatik; zer esan nahi zuen ulertzeko, esaldi asko bizpahiru bider irakurri behar izaten bazenituen ere. Kritikari bezala zorrotza zen. Patxi Altunak orduko eta geroagoko artikulua eta liburuen txosten batzuekin 1972an, guztiok ezagutzen dugun antologia moduko bat agertu zuen (18).

“Doctor honoris causa” zen Mitxelena Bordeleko eta Barcelonako Unibertsitateen izendapenez. Sari eta ohorezko domina asko jaso zituen: Ossian saria, Alfonso errege jakintsuarena, Menéndez Pidal ikerketarena, Eusko Jaurlaritzak jarritako euskal letrena, etab. Real Academia Española-n urgazle zen.

Egungo egunean euskarak dituen bihurgune eta arazo latzetarako so egile eta gidari bat behar zuen; gidari zolia bezain jakintsua, eta Mitxelena baitan hartakoa aurkitu du.

Fr. Luis Villasante

(17) “Bibliografía de Luis Mitxelena” in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, 1985; Pars Prior, 9-19 orr. Obra hau azaldu ondoren argitaratu dira, baita ere, *Lengua e Historia* (col. Parainfo); *Palabras y Textos* eta, azkenik, Editorial Noguer-ek agertutako eta lankide askoren artean eginiko *El País Vasco* liburuan euskal literaturaren historiari buruzko lana, Mitxelenak egina.

(18) *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor, Mensajero, Bilbao 1972.

JOSE ESTORNES LASA

(1913-1987)

Udazken epelean itzali zen Donostian, 1987ko urriak 11, Jose Estornes Lasa nafar euskaltzalea. Erronkariko Izaban sortua 1913ko apirilaren 17an, Zaragozan 1932an hasitako Merkatalgo ikasketak amaitzerik ez zuen izan denbora nahasien zurrunbiloak eraginik bizian.

Gudarien *Comandante* izendaturik hogeita hiru urtetan, Santoñako espetxeko apopilo zen hogeita laueta. Handik atera ondoren eta Catalunia aldean gudukatuta, Frantziara jo zuen gerra amaitzean eta handik Venezuelara 1940ean.

Bigarren gaztaroa izan zuen Hegoameriketan. Luz Miangolarra Gorostiaga gernikarrak hiru seme alaba eman zizkion aita familiakoari. Zaragozan hasitako ikastaroaren hogeita hamargarren urteburuan, 1962an alegia, Zuzentza ikasketak amaitu zituen Caracas-ko Unibertsitatean, eta hurrengo urtean itzuli zen Euskal-Herrira.

Euskaldunon txapel haundi zeharkatuaren azpian, amets asko, asmo ugari eta etengabeko ekintzen gordailu eta eragile zen buru menderakaitz hura.



Bospasei urteren buruan beste helburu gogor bat leporatu zion bere borondate hezikaitzari. Honela idatzi zidan 1969ko abenduaren 17an: "Aurten oso lantzu nago Legeak ikasten asi baitnaiz emengo Lege-Ikasguan. Egunero, arratsaldeko zazpietatik amarrak arte. Eta orrela bost urte". Donostiako Zuzentza lehen urteko ikastarotik abiatu zen ikasle gazteekin klasera joaten eta doktoradutza lortu zuen.

Betaurreko lodiska haiek erdi itxitako begirada kementsua azaltzen zuten izpiritu ernearen ezaugarri.

Euskaltzaindiko urgazle zen. Iruñeko "Euskal Herriaren Adiskideak" elkargoaren buru izan zen. Nafarroako Kultura Akademia sortu zuen.

Idatzitako liburuen izenburuak hauek dira: *La Real Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas* (1948); *Cómo aprender vasco fácilmente* (1960); *Método elemental de vasco* (1961); *Erronkariko uskara* (1968); *Los Vascos y la Universidad* (1970); *Nuestro Pirineo y la defensa de la naturaleza: Belagua* (1973); *Un gudari navarro en los frentes de Euzkadi, Asturias y Cataluña* (1979).

Abertzaletasunak ekintza politikoetara bultzatu bazuen ere gehienik, bizitza osoan mantendu zuen hizkuntzarekiko kezka bizia eta Erronkari-ko mintzairaren lekukotasuna suspertzen ahalegindu zen beti.

Biziak badu, bestalde, zeharbiderik eta, "astearte eta hamahiruko" gizona zela, esan ohi zuen berak askotan, eta ezin ukatua da asteartearekin gertatu zela 1987ko urriaren 13 hura, Koldo Mitxelenaren mundu honetako azken bidaia amaitzeko zain zegoelarik Joseren zerraldoa, kotxe berbera baitzen; eta, alda ezinez, arratsaldeko garai berean gertatu ziren euskaltzale bion hileta elizkizunak Errenteria eta Donostian. Adiskide askoren gogapenak erdibitu baziren ere, gorputzez ezin banandu denbora berean bietan egoteko.

Baina, hala beharren gainera haunditu ohi zen Jose eta gure herriko gertaera traketsak ikusita, honela idatzi zidan behin: "Dena dela, zerbait egin behar dugu. Lenengo gauza da zer gertatzen den jakitea. Gero zer egin pentsatzea. Azkenean garaille aterako da gure Euskalerrria. (J. Lagun)". Goian bego itxaropen haundiko erronkariarra.

J. M. Satrustegi

MANUEL ZIARSOLO GIRONELLA (1902-1987)

Abeletxe pseudonimoa erabili izan du. Bilbon jaio zen 1902-garren urtean. Gerra ondoan Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Gerra aurrean eta ondoan hainbat aldizkaritan euskaraz idatzi izan du: *Euzkadi, Ekin, Euzko, Gudari, Erri, Jagi jagi, Bizkaitarra, Euzkerea, Anaitasuna, Tierra vasca, Euzko gogoa, Karmel, Olerti, Egan*,..., eta *Zeruko argian*-n *Gazi-gazak* umorezko atala egiten zuen. *Eguna* egunkaria, gudarien artean ere zabaltzen zena, euskara hutsez sortu zenean artezkari egin zuten eta suntsitu zen arte iraun zuen zuzendari lanetan. Gerra ondoan, gartzela kontuak iragan eta gero, *Txinpartak* Euskaltzaindiaren Bilboko Erribera kalean ari zen taldekoentzat teatro gidioak prestatzen zituen.



1956-garren urtean *Eguberri aizeak* tituluarekin azpian, Barrutia-ren *Acta para la nochebuena*-ren adaptazioa zela, lehenengo saria eman zioten *Egan* literaturazko aldizkariaren inguruan ari zirenek. Gero Gabriel Aresti-k ikertu zuen XVIII-garren mendeko gabon teatro hori.

Gogoan izan behar da gerra ondoan garairik ilunenetan egin ziren saio haiek, bai teatro lanak herririk herri emanik, eta bai euskarazko klaseak eta hitzaldiak Erribera kalekoez gainera beste leku batzuetara zabaldurik, euskalduntzearen eta alfabetatzearen hasiera hasierakoak direla.

Beste titulu batzuen artean *Jai aurrekoa*, *Bermio'ko portuan*, *Sorgiñak Etxaburu'n*, *Jai arratsalde baten*, *Afal ordua*, *Artzañaren ametsa*, *Agur Donibane*, *Goiz otoia*, *Atsoa gaztetu bear dogu*, *Parisera gogo txarrez*, *Saku jantzia*, *Gabon gabonetan*, *Eztegu t'erdi*, *Bertsolari sariketa*, *Katalin errotako*, eta *Gogozar Berbizkunde goizean*, aipatuko ditugu.

Goian bego.

Alfonso Irigoien

AITA PEDRO ARANGUREN (1903-1988)

Fraide frantziskotarra, Legazpin (Gipuzkoa) jaioa, euskaltzale fina, Euskaltzaindiaren aldizkarian eta bestetan ere inoiz lankide izana. Arantzazun bere ikasketak egiten ari zenean, *Erizkizundi Irukoitzerako* Aita Aingeru Madariagari erantzunak eman zizkion bere jaioterriko testigu bezala. Apaiztu ondoren Cuba-ra bidalia izan zen eta han zenbait urte egin zituen. Handik itzuli zenean, Arantzazun Guardian, Donostian Kustodio etab. izan zen. Arantzazuko eliza berria zela eta, erantzukizun larria beregain hartzea egokitu zitzaion.



Aita Pedro Astarloa euskal idazle frantziskotarrari buruz hitzaldi bat eman zuen Donostian, gero *Egan*-en argitaratu zena. Ikus *Egan* (1957), 5-6, 309-327.

Idazle horren berorren liburuan ageri diren adizki guztien bilduma eginez, txosten bat prestatu zuen **Euskera**, Euskaltzaindiaren aldizkarirako. Ikus **Euskera** (1951), 59-160.

Eta, azkenik, Euskaltzaindiaren “Lekukoak” sortan bada liburu bat: Lavieuxville-Harosteguy (Iparraldekoa), 1985ean berriz agertua. Liburu honetan ageri den hiztegia prestatzeko, hitzak fitxetan jartzea berak egin zuen.

Zarauzko komentuko artxiboaren zaindari bezala, prest egon ohi zen beti xehetasun-eske zetorkionari laguntzeko.

Zarautzen hila da Aita Aranguren fraide on eta jatorra. (G.B.).

Fr. Luis Villasante

GRAMATIKA

**“PARTIZIPIO PERFEKTU-IZAN-ADITZ
LAGUNTZAILEA” egituraren inguruan:**

**(Uztapideren Lengo egunak gogoan eta
Lasarteren Gordean neuzkanak)**

Imanol Zurutuza

Uztapide. Lengo egunak gogoan

Bi tomotan banatutako ia 700 orrialdetako Uztapideren historia honetan 127 aldiz topatu dugu bilatzen genuen egitura hau (*part. perf. —izan—aditz lagun.*) eta ez da gutxi, uste baikenuen ez zela batere erraz gertatu-ko idazlea egitura hori erabiltzera behartuko zuen testuingurua atzema-tea. Bagenuen susmoa, dena dela, honelako estilo autobiografikoa izan zitekeela egokiena egitura horren erabilerarako, eta beraz, egitura horre-kin topo egin nahi baldin bagenuen, mota honetako testuetara jo beharra zegoela, eta ustez behintzat igarri genion.

Hala ere, 700 orrialde hauetan zehar kontaketa-mota ezberdinak erabiltzen ditu Uztapidek, nolabait esatearren estilo ezberdinak lantzen ditu, eta hortik, esaterako, 23 eta 30. orrialdeen arteko une horretan aztergai dugun egitura bederatzi aldiz agertzea eta ondorengo 30 orrial-deetan, aldiz, behin ere ez.

Baina, gehiago luzatu gabe, adibideen zerrenda osoa emango dugu ondoren. Horren ostean saiatuko gara zerbait komentatzen.

Adibideen zerrenda

1. Basarrik ere esan izan zidan: (I, 23. orr.)
2. Garoa, bi ganadu-pare uztartu ta zortzi gurdi ekarri izan giñuzen arratsalde batean. (I, 24. orr.)
3. Eibartar batek baño geiagok esan izan dit neri: (I, 25. orr.)
4. Bein baño geiagotan amak bialdu izan giñuzen goizean, “Tira, gosaltzeko perretxikoak ekarri!” esanda. (I, 25. orr.)
5. Emeretzi urterekin ezkondu zan, berak esan izan zigunez. (I, 28. orr.)

6. Guk, alako gauzarik batere pentsatu gabe, esan izan genduan: (I, 29. orr.)
7. Ez dakizute, gizarajoak, gerra zeñen gauza txarra dan! Nik bezela ikusita bazendukate, etzenduteke orrelakorik esango! —erantzun izan zigun. (I, 29. orr.)
8. Ogei seme-alaba azi ditugu —esan izan zuan—. (I, 30. orr.)
9. Danak etziran izango gazteak, baña semerik gazteenak, beintzat, justuan ezagutu zuala esan izan zuan bere aita. (I, 30. orr.)
10. Guk ardiak, onen-onenak, saldu egin izan giñuzen, sorora sartzen zirala ta beste gabe. (I, 64. orr.)
11. Ogei bildots utzi ta zortziraño bajatu izan ziran. (I, 66. orr.)
12. An ardiak ere galdu izan ziran iñoiz. (I, 66. orr.)
13. Arekin iñoiz jarri ta denbora errez pasa izan genduan. (I, 75. orr.)
14. Arto zuritzeak ere egin izan ziran. (I, 81. orr.)
15. Segajotzen ere larri ibilli izan nintzan iñoiz. (I, 82. orr.)
16. Ederki kostata pikatu izan nuen sega, ta gaizki gañera. (I, 83. orr.)
17. Arekin denbora errez pasa izan nuan nik; zenbaitetan ezta ezergatik ere. (I, 85. orr.)
18. Zutik lo egin izan det, ba, nik bidexiur txar samarrean ere, gari jotzen ibillita, oso loak beartuta, antxe morroi nengoala. (I, 87. orr.)
19. Illurre-ondokoak badira belar batzuk oso ezagunak, eta an, aren ondoan, asko zeuden, ta ortik zetorren izena izango zala pentsatu izan nuan nik. (I, 89. orr.)
20. Autobusarekin estaziotik errira aietako anaia bat ikusi izan det eta olaxe. (I, 96. orr.)
21. Askotan pentsatu izan nuan, gure ofizioa baño txarragoa uraxe izango zala. (I, 96. orr.)
22. Trumoia ta tximistak asita, iñoiz bildur ederrak pasa izan ditugu mendian. (I, 106. orr.)
23. Bein arkerak oso gutxitzen diranean, aaria bertara bialdu izan genduan. (I, 110. orr.)
24. Aiak animalia aundiak ibilli izan zituzten. (I, 112. orr.)
25. Gure aitak ere ia beti alaxe eman izan zizkan, ta ez det uste tranpa aundirik egingo zuanik. (I, 114. orr.)

26. Nik egin izan det: andik Uztapidera ordu ta erdiko bidea zegoan; (I, 145. orr.)
27. Agitako aitona beso motz ura ikusi izan genduan, ba, esku batekin laian. (I, 160. orr.)
28. Guk beti orrenbeste ta geiago ere egin izan genion alkarri. (I, 163. orr.)
29. Gero nik ere baso koxkor batzuek erosi izan nituan, (I, 164. orr.)
30. Baña batere bildurrik edo kezkarik gabe bertsolari oso ona ezin izan leikela pentsatu izan det nik. (I, 168. orr.)
31. Korrida ari dan denboran, bandeja pasa izan dute, zezen bat-edo palta dala, (I, 172. orr.)
32. Aiek morroi edo orrela ibilli izan ziran. (I, 179. orr.)
33. Txirritarekin ere jardun izan omen zan ura, (I, 181. orr.)
34. Beti tzozoetan-da ibilli izan zan. (I, 186. orr.)
35. Mostradorean egon izan zan beste batzuetan. (I, 187. orr.)
36. Iturzaeta orrekin bertsotan egin izan nuan nik. (I, 187. orr.)
37. I ez aiz izango utsena, nik aditu izan dedanez! (I, 201. orr.)
38. Nerekin bakarrik ez det ikusi nik ori; geiagorekin ere gertatu izan da orrenbeste. (I, 213. orr.)
39. Saiburu bere lengusuak esan izan zuan, bazuala sasoia amar oin errez egiten zituana; (I, 230. orr.)
40. Ikusi izan genduan an irurogei baso sagardoko erronda-ta ateratzen. (I, 250. orr.)
41. Nik aditu izan det, Urrestin sagardoa zegoala, bein kaleko gazteren batzuk toriatzen asi omen zitzaizkan, (I, 254. orr.)
42. Gurekin ere txuleta-jan ederrak egin izan zituzten. (I, 254. orr.)
43. Beti pozik gelditu izan giñan gu. (I, 254. orr.)
44. An ardoa eman izan diote gorputz jasotzera joaten danari. (I, 301. orr.)
45. Baña lenbiziko asiera meza nagusiarekin eman izan zitzaion, oitura dan bezelaxe. (I, 304. orr.)
46. Arekin ere gustora ibilli izan nintzan. (I, 304. orr.)
47. Orreri beti esan izan zioten, bein ori trabajadoreetatik etxera erretiratu zanean, eta orrek abisatzen zidan neri. (I, 305. orr.)

48. Getarian pesta geiago ere egin izan dira. (I, 311. orr.)
49. Bein baño geiagotan Basarrik esan izan zidan, urte guzian egiten genduan bazkaririk onena edo gustokoena, antxe egiten genduala, (I, 316. orr.)
50. Bazkari arekin geiago ere asi izan ziran bertsotan. (I, 316. orr.)
51. Idiazabalen, plazaren erdian, kiosko bat dago, eta anditxikan kantatu izan degu, orain aspaldi onetan beintzat. (I, 325. orr.)
52. Neguan dira ango pestak, eta batzuetan bero-usai aundirik gabe jardun izan gera. (I, 325. orr.)
53. Beste gañerako pestak ere antxe egin izan dira. (I, 325. orr.)
54. Sokatira ere ikusi izan degu polita, ezkonduak ezkongaien kontra, errikoak danak. (I, 325. orr.)
55. Ernaniko Mikel Toledo majiña bat bider joango zan onezkero, berak esan izan duanez. (I, 328. orr.)
56. Guk ostatuan askotan bazkaldu izan degu, eta ango apaizaren etxean ere bai. (I, 332. orr.)
57. Arekin kantatu izan genduan iñoiz Irunen; (I, 333. orr.)
58. Baña gu, jendea ugaltzen dijoan bezela, gure saioa egin eta alde egin izan degu. (I, 334. orr.)
59. Garagarillaren ogei ta lauan Segurara joan izan giñan. (I, 335. orr.)
60. San Juan egunean pestak leku askotan egin izan dira, (I, 335. orr.)
61. Gu, San Juan egunean, beti gonbidatu izan giñuzen kapea artzera. (I, 337. orr.)
62. Azkeneko urte auetan Lasarterekin joan izan naiz, ta arrezkero ere askotan joan naiz. (I, 341. orr.)
63. Erriko jaiak ez dirala ere joan izan gera. (I, 341. orr.)
64. Basarri ta biok joan izan giñan perretxikoak jateko aitzakian ere. (I, 341. orr.)
65. Arek ere egin izan du bertsotan iñoiz. (I, 341. orr.)
66. Oiek danakin kantatu izan det nik Ernaniko plazan. (I, 344. orr.)
67. Astibia ere ikusi izan degu kanpo artan sasoi ederrarekin, laste egurrak moztan. (I, 345. orr.)
68. Sokatira ere ikusi izan degu kale batekoak beste kalekoen kontra. (II, 11. orr.)

69. Gazteakin ere ikusi izan ditugu sariketak. (II, 12. orr.)
70. Eibarko Iskua esaten zaion ori ere ikusi izan degu esku batekin bera baño gizon aundiagoen kontra. (II, 12. orr.)
71. An Uztapidetik ere etorri izan nintzan, da onera Oiartzunera etorri ta gero ere jarraitu diot joateari. (II, 21. orr.)
72. Orrelaxe, Asteasura allegatuko nintzan, eta an Pello Mariren etxean izan genduan beti edo geienean. (II, 23. orr.)
73. Atano irugarrenak ere jokatu ziola aditu izan det nik, baña uztargi-leak irabazi ziola. (II, 23. orr.)
74. Batzuetan tabernan geldituko giñan, eta Batistaren etxera ere joan izan nintzan. (II, 24. orr.)
75. Guk lenako oiek Naparroako Donezteben ikusi izan giñuzen, Mariez-kurrenak ekarrita. (II, 38. orr.)
76. San Pedrotik urrengo igandean Arriarana joan izan giñan. (II, 39. orr.)
77. Gu, inoiz egun bat leku batean pasatu-eta, biaramonean beste erri batera joateko edo erri batean bertan bi eguneko joanak-edo oian gaudela, diana askotan jo izan digute guri, eta segituan jaikitzeo gogoia ematen dio arek gazteari. (II, 42. orr.)
78. Aizkolariak ere egin izan dituzte, Errekalde zana beintzat; (II, 42. orr.)
79. Bertsotan, ura baño leku txarragoetara, joan izan gera gu ere. (II, 44. orr.)
80. Agoztuaren ogei ta lauan, San Bartolome eguna, Amezketara joan izan giñan. (II, 45. orr.)
81. Gu ere ara arrimatu izan giñan, eta an maian jarriko giñan. (II, 47. orr.)
82. Bertan bazkaldu eta bertan apaldu ere egin izan genduan. (II, 58. orr.)
83. Pelota-lekuan beste zerbait pesta bazegoan, pelota-partidua edo aizkolariak, aiek ere ikusi izan ditugu. (II, 61. orr.)
84. Orkestina, txurrero bi anaiak eta beren lagunak ikusi izan nituan. (II, 62. orr.)
85. Dantza-sariketa ere ikusi izan degu Zegaman; lau sari ziran da bi bikote. (II, 63. orr.)
86. Ari txapela erantsi izan zioten danek, eta umore ederreko gizonak dira aiek. (II, 69. orr.)
87. An izan diranak, danak ez da aitatzen ere errez, baña Zarauzko Izagirre ere etorri izan da. (II, 69. orr.)

88. Neroni ere antxe egin izan zidaten omenajea txapeldun atera nintzanean, (...)
89. eta beti gogoan eduki izan det ori. (II, 70. orr.)
90. Santa Fetan egiten dira erriko festak, Urriaren seian, eta orduan ere joan izan gera. (II, 76. orr.)
91. Denbora baten, San Tomas egunean, Abenduaren ogei ta batean, Azpeitira joan izan giñan bertsotara. (II, 83. orr.)
92. Agerre arri-jasotzalle zanak ere egin izan zuan zezen-plazan. (II, 99. orr.)
93. Eleizako lanak beti Arruan egin izan giñuzen; konparazio baterako, lenengo komunioa eta konfirmazioa eta orrelako gauzak. (II, 103. orr.)
94. Ez da beñere bertsolaririk egin izan. (II, 112. orr.)
95. Orduan joan izan giñan Txapel, Zepai eta irurok; batean beintzat izan giñan. (II, 113. orr.)
96. Txikito Iraeta ere ikusi izan degu bere buru zuriarekin. (II, 114. orr.)
97. Ta Eibarren dan aberatsena zala esan izan zuten lenago beintzat eta orain ere ez da izango pobreena. (II, 120. orr.)
98. Berastegin ez degu pentsatu izan bertakoak ez geranik. (II, 122. orr.)
99. Billaprankan edo Ordizian leku geiagotan ere egin izan degu. (II, 127. orr.)
100. Teatroko saioak ere askotan egin izan ditugu, eta frontoian ere bai. (II, 127. orr.)
101. Gu beti pozikan gelditu izan gera aren tratuarekin; gure gustoa egiten zuan arek. (II, 129. orr.)
102. Larraitzko zabal artan ere jardun izan degu bertsotan Zepai ta ni biok. (II, 132. orr.)
103. Arte aundi aren azpian kantatu izan genduan. (II, 133. orr.)
104. Ara ere Zepairekin joan izan nintzan. (II, 134. orr.)
105. Zepairekin joan izan nintzan ara ere. (II, 136. orr.)
106. Teatroan edo antzokian ere egin izan degu. (II, 143. orr.)
107. An ere askotan kantatu izan genduan. (II, 143. orr.)
108. Xoxokan ere bai, izan-izan gera. (II, 159. orr.)
109. Ondarroara joan izan gera bertsotara. (II, 171. orr.)

110. Ibili-aldi galantak egin izan ditugu iñoiz, bazkari ori egiteko; (II, 172. orr.)
111. Bertako aizkolariak ere ikusi izan ditugu an. (II, 185. orr.)
112. Orrera jeneralean Lasarterekin joan izan naiz, erriko semearekin. (II, 199. orr.)
113. Aiuntamentuko balkoitik egin izan genduan goizean saio bat eta arratsaldean bestea. (II, 209. orr.)
114. Nik aditu izan diotet, koadrilla bat sartu omen zan ixil-ixilik Ultza-mako bentan, (II, 213. orr.)
115. Antzokia edo teatroa ederki betea ikusi izan degu: baita ateak zabalik utzitzen ere, kanpoan jende asko gelditu sartu ezinda ta aiek entzun zezaten. (II, 231. orr.)
116. Iñoiz, arkume-jan bat eginda, ilda baño gaizkiago egon izan naiz ni ere. (II, 269. orr.)
117. Larogei aatek irurigei ta emezortzi arrautza egin izan zituzten, eta ura izaten zan edertasuna, goizean txabolako atea idikitakoan! (II, 278. orr.)
118. Eizean ere ibilli izan giñan iñoiz. (II, 295. orr.)
119. Uztapiden izaten nintzanean, beti ollagorretan ibilli izan nintzan. (II, 304. orr.)
120. Eizean gustora ibilli izan gera iñoiz alako giroarekin. (II, 305. orr.)
121. Garrantzirik geieneko gauzak danak ondo ikusten, egun bat bear dala aditu izan det nik. (II, 315. orr.)
122. Apaiz jaun bati bein sermoian aditu izan nion: Gizonak etxeko burua eta andreak etxeko biotza; eta zerbait esan zuan. (II, 316. orr.)
123. Gizon umoretsua zan; bertsotan ere jardun izan zuan. (II, 319. orr.)
124. Nik askotan esan izan det Palazioko nagusi beltz arek etzuala artean il bear. (II, 322. orr.)
125. Antxe Zepai zana eta biok, aspertu eziñik egon izan giñan. (II, 330. orr.)
126. Len ere esan izan det, eta Txirrita eta biak amazazpi erritan izan zirala urte baten esan oi zuan Lujanbiok, gauza aunditzat bezala. (II, 348. orr.)
127. Ez du illero egingo ori, baño nik neronek ere, Dagonillean beintzat, amabost bat plaza egin izan nituan. (II, 348. orr.)

Zer adierazten digu *part. perf.* —izan— aditz lag. egiturak?

Badirudi partizipio perfektua eta aditz laguntzailearen artean “izan” partikula kokatzeak aditzaren erroak adierazten duen “ekintza” hori behin baino gehiagotan gertatu izana adierazten duela. Horrela:

1. “Basarrik ere esan izan zidan”, beraz, “Baserrik ere esan zidan, behin baino gehiagotan”.

2. “Garoa, bi ganadu-pare uztartu ta zortzi gurdi ekarri izan giñuzen arratsalde batean”, beraz, “... behin baino gehiagotan ekarri izan giñuzen arratsalde batean zortzi gurdi”.

3. “Eibartar batek baño geiagok esan izan dit neri”, beraz, “behin baino gehiagotan esan ere”.

Baina gertatu ohi da erregelak ez direla askotan oso zehatz betetzen eta kontra-adibide ugari agertzen dela. Uztapideren kasuan ere aurkituko dugu horrelakorik: alde batetik, ustez testuinguru egokirik ez dagoen lekuan agertuko zaigu zenbaitetan egitura; bestetik, ustez testuinguruak egitura eskatuko lukeen lekuan, zenbaitetan ez da araua beteko.

a) Testuingururik ez - egitura bai:

88. “Neroni ere antxe egin izan zidaten omenajea txapeldun atera nintzanean”. (“Eta beti gogoan izan det ori” jarraitzen du). Dirudienez omenaldi jakin batetaz ari da, Bar Ignacio hartan egin ziotenaz, eta hura behin bakarrik egin zioten, gerora besterik egin izan badiote ere. Beraz, logikoago dirudike “Neroni ere antxe egin zidaten omenajea...”.

122. “Apaiz jaun bati bein sermoian aditu izan nion”; “bein aditu izan nion” hori nahiko ulergaitz gertatzen zaigu goiko azalpenari jarraiki. Logikoago dirudike “Apaiz jaun bati bein aditu nion”.

Hala ere, zenbaitetan Uztapidek egitura hau “noizpait” zentzua adierazteko ere erabiltzen duela uste dugu, hots, ez derrigorrez behin baino gehiagotan, baina behin bai gutxienez. Horrela “iñoiz” aditz-lagunarekin agertzen diren kasuetan, 57. adibidean esaterako:

57. “Arekin kantatu izan genduan iñoiz Irunen”; geure ustez ez da argi geratzen Uztapidek behin baino gehiagotan kantatu izan

zuela esan nahi duen ala, “behin behintzat bai, gehiagotan ez naiz akordatzen” zentzuan ez ote duen erabiltzen.

Beraz, hori kontutan, araua aldaturik geratuko litzateke, hots, aztertzen ari garen egiturak ez luke adieraziko “behin baino gehiagotan gertatu izana”, baizik eta “behin behintzat edo, gehienetan, gehiagotan gertatu izana”.

b) Testuingurua bai-egiturarik ez:

62. adibidean honela irakur daiteke: “Azkeneko urte auetan Lasarterekin joan izan naiz”. Orain arte dena ondo, baina jarrai dezagun irakurtzen: “ta ni arrezkero ere askotan joan naiz”.

Esaldi honen bi atalak gonbaratzen baditugu ondorengo ondorioak atera ditzakegu:

– Testuingurua emanagatik ez da beti “izan” partikula ageri.

– Horren arrazoia, zenbaitetan bederen, “izan” horren funtzioa betetzen duen elementuren bat agertzea izan daiteke (ikus: “askotan”).

Adibide ugari aurki dezakegu:

i. “Gure atarian *askotan* ikusi nuan pasatzen Migel Txiki bera”. (I, 149. orr.).

ii. “*Bein baño geiagotan* aditu nion berari...” (I, 29. orr.).

iii. “Sariketetan-da *sarri* presentatu da ori bera ere” (II, 14. orr.).

iv. “Arrezkero *makiña bat bider* joan naiz Manuelekina Amezketara” (II.52. orr.).

v. “Markina-Etxebarrira ere joan giñan *bitan edo geiagotan*” (II, 179. orr.).

vi. “*Beti* antxe jan degu, Agiñazpiñean” (II, 9. orr.).

vii. “*Bakarren batean*, Lasturren edo olaxe, Kortatxorekin jardun genduan” (I, 174. orr.).

viii. “*Jardun asko* egin degu ango bertsolariakin”. (I, 215. orr.).

Luzea litzateke zerrenda, baina adibide bakar batzuk bakarrik ematen ditugu hemen. Ikus daitekeenez, zenbaitetan aditzlagunak, zenbaitetan objektu zuzen anizdunak (ikus. viii), derrigorrezko egiten du aditzaren

ekintza behin baino gehiagotan gertatu izana (literalki ii adibidearen kasuan), eta beraz “izan” partikulak ez luke ezer berririk aditzera emango.

Hala ere, adibideen zerrenda arretaz begiratuz gero, erraz ikus daiteke eman berri ditugun adibideen gisakoak (aditzlagun berberekin alegia) ugari direla “izan” partikula daramatenak ere: (ikus; 4, 21, 25, 28, 34, 35, 43 e.a.).

Esan dezagun, beraz, ez dirudiela Uztapideren kasuan behintzat egitura honen erabilera oso sistematikoa denik. Hala ere ugari erabiltzen du, eta gehienetan nahiko hurbiltzen zaio geure hasierako hipotesiari.

Aditzlagunen agertze maiztasuna

Gorago aipatu dugunez, askotan, baldin eta aditzlagunen batek (edo objektu zuzen anizdunak zenbaitetan) “behin baino gehiagotan” zentzua ematen badigu, Uztapidek ez du “izan” partikularik erabiltzen. Baina ikus dezagun zein den aditzlagunen agertze maiztasuna araua betetzen denetan (“izan” horren ordezkari gerta litezkeen aditzlagunak bakarrik aipatuko ditugu):

Beti	10 aldiz	(25, 28, 34, 43, 47, 72, 89, 93, 101, 119)
Iñoiz	10 aldiz	(12, 13, 15, 22, 57, 65, 110, 116, 118, 120)
Askotan	5 aldiz	(21, 56, 77, 107, 124)
Behin baino gehiagotan	2 aldiz	(4, 49)
Batzuetan	2 aldiz	(35, 52)
Bein	behin	(122)
Beñere	behin	(94)

Ikus daitekeenez ez dira ugari aditzlagun hauek geure adibide zerrendan. Gainera, gogoratu gorago ikusi duguna, hots, aditzlagun hauek agertzearekin (bi azkenak aparte utziz) zenbaitetan “izan” partikula desagertu egingo dela, Uztapideren kasuan bederen. Horregatik, adibide gehienetan ez dugu “behin baino gehiagotan gertatu izana” marka eman diezagukeen aditzlagunak.

Partizipio perfektorearen arauetako agertze maiztasuna

Hogeitamabi partizipio perfektu ezberdin aurkitu dugu aztertzen ari garen moduko egituretan parte hartzen. Horietatik hamabost bakarrik

agertu zaigu behin baino gehiagotan. Hona hemen partizipio horiek maiztasunaren arauera:

Egin	24 aldiz (14, 18, 26, 28, 36, 42, 48, 53, 58, 60, 65, 78, 82, 88, 92, 93, 94, 99, 100, 106, 110, 113, 117, 127)
Ikusi	15 aldiz (20, 27, 40, 54, 67, 68, 69, 70, 75, 83, 84, 85, 96, 111, 115)
Joan	15 aldiz (59, 62, 63, 64, 74, 76, 79, 80, 90, 91, 95, 104, 105, 109, 112)
Esan	13 aldiz (1, 3, 5, 6, 8, 9, 39, 47, 49, 55, 97, 124, 126) ^f
Ibilli	8 aldiz (15, 24, 32, 34, 46, 118, 119, 120)
Aditu	6 aldiz (37, 41, 73, 114, 121, 122)
Kantatu	5 aldiz (51, 57, 66, 103, 107)
Jardun	4 aldiz (33, 52, 102, 123)
Pasa	4 aldiz (13, 17, 22, 31)
Pentsatu	4 aldiz (19, 21, 30, 98)
Egon	3 aldiz (35, 116, 125)
Eman	3 aldiz (25, 44, 45)
Bialdu	2 aldiz (4, 23)
Etorri	2 aldiz (71, 87)
Gelditu	2 aldiz (43, 101)

Gainerako hamazazpiei dagokienez bakoitza behin bakarrik agertzen da:

Ekarri (2), erantzun (7), saldu (10), bajatu (11), galdu (12), pikatu (16), gertatu (38), asi (50), bazkaldu (56), gonbidatu (61), jan (72), jo (77), arrimatu (81), erantsi (86), eduki (89), izan (108), erosi (29).

“Izan” partizipio perfektuaren kasu berezia

Aurreko zerrendan ikusi ahal izan dugunez behin bakarrik erabiltzen du Uztapidek “izan izan-lag.” espresioa, 108. adibidean ageri den kasuan: “Xoxokan ere bai, izan-izan gera”.

Aipagarri iruditzen zaigu hau, adibide hau aurkitu dugun inguruko orrialdeak antzeko testuinguruz josirik daudelako:

- “Pare bat aldiz-edo izan giñan an ere” (II, 158. orr.).
- “Urnietan ere izan gera dozen erdiren bat aldiz” (idem.).
- “Andoaiñen ere askotan izan gera” (II, 159. orr.).
- “Lenengo Zepairekin, gero Basarrirekin, gero Lasarterekin eta Lazkanorekin izan naiz” (idem.).
- “An Basarrirekin eta Lasarterekin izan naiz” (idem.).
- “Sorabillan ere bai; iru bat aldiz-edo izan naiz”(idem.).

- “An ere Lasarterekin izan naiz” (idem.).
- “Billabonan ere izan gera” (idem.).
- “Or ere Lazkao-Txikirekin izan naiz” (idem.).

Zerrenda amaigabea litzateke. Geure ustez, testuinguru guzti hauek, goian aipatu dugun 108. adibidekoak bezalaxe, “izan izan-lag”. egitura eskatzen dute. Dena dela, gertatzen den kakofonia dela eta Uztapidek “izan-lag.” erabiliko du goiko adibide horretan izan ezik.

Orainaldia-lehenaldia

Bildu ditugun 127 adibideetatik 57k orainaldian dute aditz laguntzailea eta gainerako 70ek lehenaldian.

Aditz laguntz. orain.:	3,	18,	20,
Aditz laguntz. lehen.:	1, 2,	4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17,	19, 21,
22,	26,	30, 31,	37, 38,
41,	44,	23, 24, 25,	27, 28, 29,
32, 33, 34, 35, 36,	39, 40,	42, 43,	45, 46, 47,
48,	51, 52, 53, 54, 55, 56,	58,	60,
62, 63,	65, 66, 67, 68, 69, 70,	73,	49, 50,
57,	59,	61,	64,
71, 72,	77, 78, 79,	83,	85,
87,	89, 90,	94,	96,
98, 99,	74, 75, 76,	80, 81, 82,	84,
86,	88,	91, 92, 93,	95,
97,	100, 101, 102,	106,	108, 109, 110, 111, 112,
114, 115, 116,	103, 104, 105,	107,	113,
117, 118, 119,	120, 121,	124,	126,
122, 123,	125,	127.	

Atera al dezakegu ezer garbirik guzti honetatik? Uztapide bere bizitza kontatzen ari zaigu, era kronologiko batetan, bai, baina atzera-aurrera ugari eginez. Atzera-aurrera horiek azalduko digute neurriren batetan orainaldi/lehenaldi alternantzia horren nondik norakoa, aipatzen den gertaerarekiko hurbiltasun/urruntasun kronologikoaren arauera hautatzen baita hemen bata nahiz bestea (hala ere, ikusiko dugunez, hori ez da era guztiz sistematikoan gertatzen).

Goiko eskeman ikus dezakegunez, lehenengo 17 adibideek, hirugarrenak izan ezik, lehenaldian dute aditz laguntzailea. Izan ere, lehen lehenengo kontakizunak ditugu denboran urrutien hedatzen direnak, bertan

Uztapide amona zenaren garaiko gertaerak azaltzen ari zaigularik, Uztapide baserrian bizi zen garaikoak, gerra garaikoak... Ergoienera etorri berritakoak gehienez.

Adb. Erreferentzia tenporala

1. “Orduan, berriz, Baserrirekin asko ibiltzen nintzan bertsotan” — Ergoienera etorri berritan, alegia.— (leh.)

2. “Egurra ta garoa ere egoki ziran; etxetik bertan” — Uztapide baserriaz ari da, han bizi zen garaiaz.— (leh.)

3. “Pagadi ura ezagutzen zuten eibartarrak ere, perretxikoak biltzera etortzen baitziran. Eibartar batek baño geiagok esan izan dit neri: — Pagadi ura bota duanak etzeukak salbaziorik!” — Berak Uztapidetik aldegin eta geroztikako kontuak dira, antza, pago botatze kontu horiek. Are beranduagokoak “eibartarren esate horiek” — hortik honako honetan, besteetan ez bezala adtz. lag. orainaldian agertzea.— (or.)

4. Amak gosaltzeko perretxiku bila bidaltzen zitueneako.— (leh.)

5. Amonaren kontuak.— (leh.)

6. Amonaren garaiko kontuak.— (leh.)

7. Idem.— (leh.)

8. Idem.— (leh.)

9. Idem.— (leh.)

10. Uztapiden oraindik, artzantzan ibili zen garaiko kontuak.— (leh.)

11. Idem.— (leh.)

12. Idem.— (leh.)

13. Morroi ibili zen garaiko kontuak — “Emezortzi urte nituan da morroi joan nintzan baserri batera: Olaberri.”— (leh.)

14. Idem.— (leh.)

15. Idem.— (leh.)

16. Idem.— (leh.)

17. Idem.— (leh.)

Orain artekoak bere azalpen logikoa baduela dirudi. Ondorengo adibidean, ordea, ustekabeak harrapatzen gaitu. Izan ere, morroi garai horretako kontakizunekin ari zaigula, honela dio Uztapidek 18. adibidean:

18. Idem.— (or): “Zutik lo egin izan det, ba, ... antxe morroi nengoala”.

Hau da, geure ustez, *urruntasun tenporala* = *aditz. lag. leh. / hurbiltasun tenporala* = *aditz. lag. or.* eskema hausten duen lehen adibidea. Aurrerago gehiago ere topatuko dugu.

19. “Ogei ta bat urte nituala, ...” — (leh.).

20. “Orain Ernanin bizi dira aren semeak. Transporteak daukate;...” (or.) — kasu honetan orainaldia justifikatuta dago zalantzarik gabe, aspaldiko kontuetatik, Aranoko alkateaz aritzetik, kontu berrietara igaro baita hemen Uztapide, alegia, Aranoko alkate haren semeen berri ematera, seme horiek ondo hazitutako garaikoak, nahiko berri berriak beraz.

21. Egurgintzan ibili zen garaiko kontuak.— (leh.)

Hona hemen geure ustez irregulartasuna agerian jartzen duen bigarren adibidea:

22. “Trumoa ta tximista asita, iñoiz bildur ederrak pasa izan ditugu mendian.”— (or.)— baina aurreko adibidean aipatutako garai beretsuz ari zaigu, oraingoan berriro ere artzantzan ari bazaigu ere. (Honek lukeen esplikazio bakarra “ditugu” horretan legoke, alegia, “bildur ederrak pasa izan genituen” + “bildur ederrak pasatzen dituzte oraindik ere artzainek, ez pentsa” = “bildur ederrak pasa izan ditugu”, baina urrunegi joatea litzateke hau beharbada).

Aitzitik, ondorengo hiru adibideak, garai horretantxe bertan kokatzen direlarik, aditz lag. lehenaldian daramatela ageri zaizkigu: (ikus. 23, 24, 25) Ondorengo adibidea ere ez dirudi esandakoari zuzenean lotzen zaionik:

26. 1934. urtean gaude. Ikaskintzan ari zaigu oraingoan Uztapide: “Nik egin izan det: andik Uztapidera ordu ta erdiko bidea zegoan”— (or.) (Ez digu adierazi nahiko, bada, geroztik ere askotan egin izan duela?!)

27, 28 eta 29 adibideek ere lehenaldian dute aditz laguntzailea, logikari egokituz, garai beretsuko kontu zaharrekin ari baitzaigu Uztapide.

30 eta 31. adibideetan aditz. lag. or. dugu berriro ere, baina bietan ere erabilera geure hasierako urruntasun / hurbiltasun (kronologikoa) bereizketaren arauetara da:

30. “Pentsatu izan det nik”— (or.)— pentsatze hori, aspaldian hasitakoa izanarren, hots, lehen aldiz “hori” pentsatu zueneko garaia urruti koka badaiteke ere, gerora ere errepikatu izan da, askotan, Uztapide idazten ari den egunetan ere (horrela pentsatzen du oraindik ere, alegia).

31. “Bandeja pasa izan dute”— (or.)— Lasturreko San Nikolasetako jaietan gertatu ohi zen, eta gertatu ohi da zenbaitetan orain ere, bandeja pasatu beharra falta zen / den zezena zela / dela eta.

32, 33, 34, 35 eta 36. Adibideak Uztapide bertsotan hasi berri inguruko garaikoak ditugu eta lehenaldian ageri zaigu aditz laguntzailea, logikari jarraiki.

Geroago ikusiko denez, entonazioak doinua erabiltzen du melodiarren aldaketak lortzeko. Azentuak erabiltzen duen parametroa, ordea, hizkuntza batetik bestera desberdina izan daiteke: gazteleran, adibidez, indarra da; frantsesean, berriz, doinua. Nahiz eta hizkuntza bi horietan hitz bera erabili, “acento” edo “accent”, ingelesak, esaterako, baditu hitz bi azentu-mota desberdin horiek izendatzeko: “stress”, lehen kasuan, “pitch”, bigarrenengan. Baina, parametro hauek ez dute banaka funtzionatzen eta, aspalditik Maurice Grammont-ek erakutsi zuen indarraren gailentzeak erakartzen duela beti iraupenarena eta sarritan doinuarena, alderantzizko erakarrera jazo barik:

“L’intensité entraîne toujours avec elle la durée et souvent la hauteur; la réciproque n’est pas vraie” (6).

(6) M. GRAMMONT: *Les vers français, ses moyens d’expression, son harmonie*, Paris, 1913. S. KARCEVSKIJ-ek aipatua “Sur la phonologie de la phrase”, in *TCLP*, 4 (1931): 118-228, eta 201 bereiziki.

Behar bada, horregatik ere, indar-azentua benetako azentutzat hartua izan da, askotan.

Nire hipotesiak parametroen arteko erlazio hau oinarritzat hartzen du. Hori dela eta erakutsiko balitz oinarri teoriko hau zuzena ez dela, beronengandik datozen ondorioak egokitu beharko lirateke.

Hizkuntza baten azentuz eta entonazioz arduratzen den azterketak argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuen azentuak zein den eta, beste aldetik azentu-gauzatzeak eta melodiaren gora-beherak ze hartuemonetan gelditzen diren. Hau lortzeko, abiapuntutzat onartu behar da —teoriaren mailan, behinik behin— fenomeno bi direla, bakoitzak bere markoa duelarik. Gure hizkuntzaren kasuan, baina, diferentzia hau egitea ez da erraz izan eta, behar bada, ez dela oraindino erraz onartzen. Betidanik, fenomeno biak nahastuta ageri dira. Adibidez, Altube-k *El acento vasco* liburuan “entonación” edo “acento” erabiltzen ditu, hitz biren arteko alderik —edo, behintzat alde teorikorik— egin barik (7) eta Azkue-k parentesien artean sartzen du (“la entonación”) “el acento” aipatzen duenean (8).

Dirudienez, gaurko egoera ez da asko aldatu eta ez da aldatuko behar ditugun oinarri teorikoak onartu arte eta hauei dagozkien definizioak adierazi arte. Zeren, oinarri batzuk finkatu ta gero, ikerlangileak ondorio berdinetara hel daitezke edo ez; dena dela, eztabaida dezakete. Baina, oinarri teorikorik gabe, ezin hel daitezke ondorio berberera, ez eta eztabaidarik eduki.

1.1. Oinarri teorikoak

Azentuari dagokionez, goiko lerrook oinarriak garrantzitsuenetarikoa bat finkatu dute: azentua da soinuaren parametroei esker marko baten barruan jazoten den gailentzea. Hortaz, Paul Garde-ren definizioa nireak egiten dut lan honetan, beste aurreko lanetan egin nuenez:

“mise en valeur d’une syllabe —unité accentuable— dans le cadre du mot —unité accentuelle—” (9).

Definizio honetan, nabarmena dena hau da: nahiz eta azentua silaba batean (geroago zehaztuko dugu hau) jausi, bere efektua hitz bati (hau ere zehatzago ikusi behar da) dagokio. Ikusten denez, hain zuzen ere, goiko definizioan gauzak ez dira “a priori” emanak. Adibidez, jakin behar

(7) ALTUBETÁR SEBER: *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Bermeo, 1932, 219 orr.

(8) R. M. DE AZKUE: “Del acento tónico en algunos de sus dialectos”, in *Euskera*, VI, 1930: 282-297, 282 bereiz.

(9) P. GARDE: *L’accent*, Paris, P.U.F., 1968, 53 orr.

da zein den hizkuntza bakoitzaren barruan unitate azentugarria (“unité accentuable”) eta, hizkuntza askotan, silaba baldin bada ere —definizioan aipatzen denez— beste hizkuntza batzuetan segmento txikiagoa dugu, *mora*, hain zuzen. Euskarari aplikatzeko orduan, puntu hau erabaki behar da. Bestalde, azentudun unitatea ere (“unité accentuelle”) ez dago a priori emanda. Adibidez, gure hizkuntzarik gehienetan grafiari dago-kion unitatea (hitza) baino txikiagoa ez bada ere, bistan dago handiagoa izan daitekeela; horrela, hizkuntza batzuetan azentua hitzari dagokio (gaztelera, adib. “célebre” / “celebre” / “celebré”...) eta beste batzue-tan, frantsesean legez, hitz-taldeari: “Monsieur” baina “Monsieurjean” eta “Monsieurjeandubois”. Bigarren kasu hau izatekotan, hitz-taldearen berbak hartuemon estuetan egon behar direla suposa daiteke.

Bistan dago, euskal azentuaz mintzatzeko, jakin beharko dugula zein den edo izan daitekeen *azentuaren markoa*. Zeren, aipatu dugun gailen-tze hori erlatibo nozioa baitugu, unitate azentugarria *beste batzuren gai-nean* gailentzen delako, sortzen den *kontraste* bati esker. Hain zuzen, azentuaren garrantzirik handiena bere *funtzio kontrastiboan* datza eta hau, marko batean gertatzen eta gertatu behar delako, *funtzio demarkati-boa* ere ba dugu. Hori dela eta, azentudun unitate batean —marko batean— sortzen diren kontrasteek eragiten dute *azentu-egituratzea* edo *azentu-itxuraketa* izendatu genuena (10) “configuration accentuelle” bihur-tzeko. Beste moduz esanda, funtzio kontrastibo horregatik, marko bateko unitate azentugarri guztiek —gailendurik daudenek eta ez daudenek— moldatzen dute azentuitxuraketa. Euskal azentuaz arduratzean, konzeptu hau ere zaindu beharko da, nahiz eta gure estudioetan berria izan.

Beste oinarri batzuk argitu ditugu hemen: gailentzea unitate azentu-garrian jazoten da; azentua ohartzen da kontraste baten bidez eta kon-traste honek bere markoa du. Gainera, badakigu hizkuntza batzuetan azentua *libre* izaten dela (gaztelera...) eta beste batzuetan, *toki finko* batean. Oinarri guztiak batuta gero, azentu deskripzio batek finkatu behar-ko ditu:

- a) Unitate azentugarria: silaba? mora?
- b) Azentuak bereiziki erabiltzen duen parametroa, indarrak doinua eta iraupena dakartzala kontutan edukiz.
- d) Azentudun unitatea: hitza? hitz-taldea?
- e) Hitzaren edo hitz-taldearen barruan, ze tokitan kokatzen den unitate azentugarria: toki finko batean —beti bat delako (frantsesean bezala) edo arau batzuren bidez finkatu ahal dugulako (latinean bezala)—edo, alderantziz, toki mugikor batean (gaztelera bezala)?

(10) K. ROTAETXE: “Euskal Prosodiaz”, op cit.: 384.

1.2. Euskal Azentua

Roman Jakobson-ek dioenez, azalpen batek zera hartu behar du helburutzat: barianteen zehar, inbarianteak argitzea. Euskal azentuari dago-kionez, delako “inbarianteen” bila joan behar da zehatz indibidualetan ez itoteko.

Orain hamar urte, euskarari buruzko lehenbiziko espektrogramak aurkeztu eta aztertu nituen (11). Azentuari buruz orduan atara nuen hipotesia, gaur ere —beste espektro berriak aztertuta gero— mantentzen dut (12).

Hortaz, goiko itaunei erantzuten saiatuko naiz:

a) Espektrogramei esker, euskararen unitate azentugarria *silaba* dela eta ez mora ikus daiteke. Euskararen azentua doinuzkoa zela hain sarritan aipatua izan delako, egiaztapen hau egin behar zen.

b) Silaba bat gailentzeko erabiltzen den parametroa *indarra* da espektrogrameen azterketek erakusten dutenez. Hain zuzen, lan honegaz aurkeztuten ditudan 2.2.0.0. eta 2.2.0.1. espektrogrametan, goiko kurba indarrezkoa da eta bistan dago *a* bokalak —ostaabe berbakoa— inguruko bokalekaz gonparatuz, indartsuagoa dela, dagokion kurba-zatia altuago doalako. Egia da Ondarruko berba honetan kontrakzio bat jazoten dela, euskal ebakeran hain sarritan gertatzen denez. Baina kontrakzio honek, hain zuzen ere, silaba horren azentua indarrezkoa izan behar dela frogatzen du, Mitxelena-k aspalditik eta hizkuntza-historiaren arauera erakutsi zuenez (13). Doinuaz, geroago arduratuko naiz. Eta iraupenari dagokionez, fonemen azterketak argitzen duena ohartzen da: iraupena ez da ezaugarri pertinentea, beste ezaugarriek, automatikoki, ekarritako bat baino (14). Jakina, Paul Garde-k dioenez (15), belarrira parametro guztiak “en vrac” etortzen zaizkigu eta, ez da erraz jakiten, makinari gabe, zein den parametrorik nagusia.

(11) K. ROTAETXE: Op. cit. in (3): 58-59-61-69-153-154.

(12) Eskaini didan laguntzagatik, eskerrak eman behar dizkiot Hizkuntzalaritza Orokorreko Sailean lankidea eta adiskidea dudana Maitena Etxebarria Irakasleari.

(13) L. MICHELENA: “A propos de l’accent basque”, in *BSLP*, 53 (1957-58): 204-223.

(14) Honetaz, cf. adibidez: KARMELE ROTAETXE: “Interpretación silábica en la lengua vasca”, in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach*, V. Univ. de Oviedo, 1980. Lan horretan, *la* (tza)/*laa* (tza) oposizioa aztertu nuen eta bigarren *laa* zatiak silaba bi dutela agertzen da, espektrograma batzuri esker; ez dago bokal luzerik ez eta geminadarik.

(15) P. GARDE: Op. cit. in (10): 52.

d) ri erantzuteko —hau da, azentuaren markoari buruzko itaunari— jarritu diodan taktikaz hitz bi esan behar aurretik. Ohitura denez, interesatzen den hitza kontesto foniko berezi batean sartu behar da, balio metalinguistikoa emateko asmoz eta entonazioaren efekturik at lagateko; horretarako tokirik onena erdikoa da eta Ondarruko inkestetarako erabili dudan kontestoa: /Ostabe...diñot/ izan da. Hori dela eta, interesatzen den berba mugatuta geratzen da, baina entonazio gabeturik. Pentsa daiteke baina, mugatzailea, aktualizatzailea edo artikulua, hau da —a, enklitikoa delako, berez, azentugabaturik dela, enklitiko guztiak bezala. Espektrogramen azterketek erakusten dute *hitz-oinarean*, edo *basearen*, silaba bat gailetzen dela eta gailentze hau indarrak ekarritakoa dela, lehen esan denez: ikus daiteke 2.2.0.0. espektroko /andri/-ren silabak (16).

Bidenabar, eta honetan datza nire iker-lanaren alderik jakingarriena, honetaz ohartu naiz: *singularrean*, artikulua kokatzen den silaba altua da; silaba horren frekuentziaren *armonikoak* gorantz doaz, nahiz eta indarra handitu barik. Horrek esan gura du, silaba horretan, *azentu-oihartzuna* dugula eta oihartzun hori *doinuak* ekarritakoa dela (ikus. 2.2.0.0. espektrograman /andria/ taldeko soinuaren armoniko-joerak, batez ere /i/tik-/o/ra pasatzean).

Silaba bi baino gehiago dituzten unitateetan, *azentua duen silabatik eskumaldera doinua mantegitzen da silaba guztietan*. Horregatik entzuten dugu /adiskide/ edo /lengusina/ edo /batasuna/ edo /aurrerakada/ eta ez dugu inoiz ere entzuten /adiskide/ ez eta /adiskide/ ez eta /adiskidé/, gazlererazko azentuagaz. Baina, arrazoi berberetatik —doinua mantengintzen ez dutelako— euskera (edo, behinik behin, bizkaiera) entzuteaz ohiturik ez dutenengandik entzuten da sarritan /Euskadiko Ezkerra/ edo /Hérri Batasuna/ eta mila eta mila antzeko adibideak. Eta euskal berbak erdarazko esaldi batean sartzen direnean, erdal azentuari jarraitzen diote: “Trabaja en Euskaldúna” edo “tiene el título de Euskaltzáindi” edo “voy a Donóstia”.

Ohar honek esangura du azentu-oihartzuna zabaltzen dela *sapalda* batean (“plateau accentuel” deritzana, eta frantses esakera hau ingelesez ere gordetzen da), azentudun silabatik eskumara azentu-markoa agortu arte. Azalpen honen bidez, hobeto ulertzen da -eta justifika daitezkezeratik hain sarritan aipatu den euskal azentua doinuzkoa den eta zergatik S. Altube-k, adibidez, esan zuen:

(16) Gaitza da erabakitzea ea *r* bibranteak “esbaribatiko” bat sortzen duen —hori adierazteko *i* (?) txikerra jarri dut-ala *i* bokalak lotzaiki bat sortzen duen *o* bokaleraino. Dena dena, *dri* silaba da indartsuena espektro honetan, hau da, bigarrena hemen ere, orain baino lehenago aurkeztu ditudan espektrogrametan legez.

“la palabra vasca es impulsivamente isotónica, o sea que todas las sílabas se pronuncian con igual fuerza impulsiva” (17).

edo

“(...) la definición del acento euskérico; en este idioma, el tono de las palabras aisladas normalmente pronunciadas es de una uniformidad casi absoluta” (18).

Gauzak horrela izanez gero, indar-azentua duen silabak eta doinua mantegitzen duten hurrengo silabek (hau da, lehenaren eskuman daudenak) ematen diote entzuleari —denen artean— *azentu-itxuraketa*. Hori dela eta, azentu-markoari dagokionez, parametrorik handiena doinua du. Ohar daiteke, hain zuzen ere, doinuari esker lortzen den azentu-oihartzuna sapalda (“plateau”) bat legez errealizatzen delarik, unitate batetik bestera zabal daitekeela, azentudun hitz-talde bat emateko, hau da, azentu-markoa gauzatzeko. Hau gertatzen da izena eta izen-lagun atributuaren artean, adibidez. Hurrengo sintagmak /ume ona/ edo /etxe ederra/ etenik gabe entzuten dira eta *mé* edo /txé/ silabetik aurrera doinua geratzen da /uméóná/ eta /etxédérrá/ emateko. Azentu-marko hau ederto ikus daiteke 2.2.0.0. espektrograman: doinuari esker, /andriona/ unitate bakar bat izango balitz legez agertzen zaigu; aurretik eta atzetik mugatuta, hemen dugu azentua markoa. Baina, bestalde, /ostabe/ unitateak bere markoa du eten baten bidez amaitzen delarik.

Nahiz eta inguruko hizkuntzetan azentu-oihartzun fenomeno hau ez jazo, errusiaran jazo ei da eta japonieran, adibidez, antzeko gauza dugu kontrako sapalda bat izanez, hau da, eskumatik ezkererantz. Baina, eta guretzat harritzekoa ez da, japonierari buruz ere —euskarari buruz legez— askotan esan da azenturik ez zeukala (19).


(17) ALTUBETÁF Seber: *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de D. Resurrección M. de Azkue*, *Euskera*-tik atera izan zuena, Bermeo, 1934.

(18) —: Op. cit. in (7): 21 orr.

(19) E. POLIVANOV: “La perception des sons d’une langue étrangère”, in TCLP, 4: 79-98 orr. Iker-lan horretan, argi ta garbi egileak dio: “La conviction régnait chez les savants russes qu’en japonais il n’y avait pas d’accent du tout”. 87 orr. Bestalde, cf. nire hipotesia hobeto ulertzeko N.S. TRUBETZKOY-ek dioena *Mie*-ko (Nagasaki-n) japonierari buruz: “La mise en relief accentuelle peut embrasser toute une suite de prosodèmes, de sorte que cette série de prosodèmes, peut éventuellement former un mot tout entier”, in *Grundzuge der Phonologie*, J. Cantineau-k *Principes de Phonologie*, itzulpenetik, Paris, 1967:218.

TYPE B/65 SONAGRAM © KAY ELEMETRICS CO. PINE BROOK, N. J.

220.0



Azaldutako fenomenua —*oihartuna*— ditudan datuekin *ez da pluralean jazoten*. Hau da, pluralizazailerak -g, forma baten egitura sartuta gero, jesartzen den silabaren armonikoak *beherantz doaz* (ikus. 2.2.0.1. espektroko /*andrak/* eta /*onak/* berbetan azpimarratutako silabak). Azentuari dagokionez, pluraleko morfema honek oso ondorio berezi eta garrantzitsu bat duela esan daiteke, hemengo euskalkietan, behintzat. Enklitiko delako azentu gabeko izanik, bereizitasun bi ditu: alde batetik, ez du azentu-oihartunetik hartzen eta, beste alde batetik, Ondarroan, behinik behin, hitzaren azentua, bera, atzeratu egiten du, aurreko silabara bialdiz. Horrela, 2.2.0.1. espektroan, armonikoei dagokienez, /*andragonagdi/* talde honetan, /*an/* silabatik aurrera armonikoak beherantz doaz; eta, indar-kurbari dagokionez, hartzen badugu, orain, /*andrag/* unitatea lehengo silaba bigarrena baino indartsuagoa dela agertzen da.

Hortaz, pentsatu behar da azentu-itxuraketa morfologiagaz lotuta dagoela gure hizkuntzan eta azentu-markoa finkatzeko morfema bakoitzaren efektua kontutan eduki beharko genukeela. Arrazoia hau da: base edo hitz-oin bati lotzen zaizkion morfemak (hizkuntza eransle baten aurrean gaude) atzizkiak direlarik, bakoitzaren efektuak alda dezake hitzaldearen muga eta azentu-itxuraketa. Nahiko aspaldidanik aurkeztu nuen morfemen banaketan —azentuari begiraturaz— izen forma batean sartzen direnek ez dute efektu berdinik (20). “Grosso modo” baina, efekturik handiena eta pertinenteena pluralegilearena da.

Hitz batez, hona nire ondorioak:

— Unitate azentugarria silaba da.


— Euskal azentua indarrezkoa da, baina.

— Azentu-oihartun bat ageri da, doinuaren bitartez, azentudun silabatik eskumara, eta oihartzun hau sapalda batean (“plateau”) zabaltzen da, singularreko formetan.

— Pluraletan, bereizi behar dira lehen-denborazko kasuen formak eta beste guztiak, morfologiari dagokionez eta, jakina, azentu-itxuraketari dagokionez. Leku-denborazko formen itxuraketaz ez naiz hemen arituko (21). Beste pluraleko formen egitura, jakina denez, honela da: Hitz-oina (edo Basea) -a -g-funtzio marka, -g- konpontzaile hau pluralegilea izanik. Deskripzioak erakusten du pluralegile honen silabak (ezin naiz hemen sartu morfonologiaren zehatzetan) ez duela oihartzunetik hartzen eta bere esku-man dauden silabek ere ez.

(20) K. ROTAETXE op. cit. in (3), 4 Kap.: *Sistema acentual en formas ligadas nominales*. 4.1 Kap.: *Clasificación acentual de los morfemas* eta honi buruz datozen *observaciones*.

(21) Aldeak ikusteko, cf. op. cit. in (3), 3.10 kap. morfologiarako eta 4 kap. morfemen banaketarako.



— Bisilabadun hitzetan, -g-ren efektu atonizatzaileak hitzaren azentua atzera bidal dezake: /andri/ hitzak bigarren silaban azentua dakar, baina /andrak/ lehenengoan.

— Euskaran, azentu-markoa hitz-taldea izan daiteke beti. Hiztegiko unitate ezberdinek talde bat eratzeke gramatikari edo/eta pragmatikari dagokien zenbait baldintza bete behar dute: adibidez sintagma bat eratzea (*andriona*). Bestalde eta esan denez, markoak azentudun silaba (*gailentzea*) besarkatzen du eta bere barruan mantentzen den soinuparametroa doinua izanez, doinua dugu markoaren lokarria. Horregatik entzuten diren hitz-taldean erritmo-taldeekin lotuta daude, zalantza barik.

— Pluraleko formetan singularrekoetan baino *eten* gehiago ager daitezke pluralegilearen efektuagatik.

— Azkenez eta goiko e) itaunari zera esan behar da: azentu-itxuraketa aldean utzita, hiztegi baseak badauka azentua eta ditudan datuen arauera, hitzik gehienetan bigarren silaban —ezkerretik kontatuta— jausten da, nahiz eta hitz batzuetan lehenbiziko silaban egon. Aztertu dudana euskarra, azentuaren kokaguneak bereiz dezake zenbait oposizio: /báso/basó;/ /txistu/txistú;/ /hónek/honék;/ ... (22).

1.2.1. *Euskal azentu motak*

Oraintsu azaldutako azentua ez da bakarra gure hizkuntzan. Behin baino sarriago aipatua izan denez (23), lau azentu mota bereiz daiteke euskaran. Batzuren ustez, egoera honek aukera bat eskatzen du azentu bakar bat irakaskuntzan eta mass-medietan eredutzak eskaintzeko, euskarra barietateen arteko aukera bakarra egin zen bezalaxe. Nire ustez, baina, badago zer edo zer uniformitate hori baino garrantzitsuagoa dena: irakasle bakoitzak ezagutu beharko luke bere azentua zelan gauzatzen den errealizazio hau bere ikasleei irakasteko gauza izateko. Argi dago, baina, horrelako prestakuntza ez dela gaur egun ematen ez Eskoletan ez eta Fakultateetan. Gauzak honela izanez gero eta moten arteko aukera egitekotan, azaldu dudana motaren alde nago, arrazoi bigatik: a) soziolin-

(22) — op. cit. in (3): 161-162.

(23) L. MICHELENA: "A Note on Old Labourdin Accentuation", in ASJU, 6: 110-120, 1972.

N. HOLMER: *El idioma vasco hablado*, San Sebastián, 1964.

W. JACOBSEN: "Nominative-Ergative Syncretism in Basque", in ASJU, 6: 67-109, 1972.

guistikari dagokiona: azentu mota hau Mendebaldekoa da eta bere eske-mari begiratzen badiogu (eta ez ebakera indibidual bati), hau da, Fonetika hutsetik Fonologiara igarotzen garenean *pertinentea* zer den topatzeko, orduan eskema hau hiztunik gehienok duguna da; b) hizkuntz barruko arrazoiak: azentu mota honen ezaugarriok euskal azentuaren bereizitasuna azaltzen dute. Alde batetik, indar azentua delako, historian zehar jazo diren kontrakzioak eta gaur egun oraindino gertatzen direnak (ikus. espektroetan, *ostabe* berba, “ostera bere” adierazteko) aditu ahal ditugu; bestalde, doinu oihartzunak dituen ondorioek erakusten digute zergaitik hain sarritan (24) aipatua izan den doinuaren garrantzia gure hizkuntzan. Gainera, doinu oihartzun hau ez da jazoten inguruko hizkuntzetan eta euskarak berezkoa duela pentsatu behar da.

1.3. Grafiari eramateko proposamena

Goian esan denez, nire *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* liburuan azentuari buruzko euskal morfemek dituzten propietateak azaldu nituen. Arazo horretaz, zehatz eta mehatz hor aritu nintzen eta, ez dut hemen astirik azalpen luze horiek errepikatzeko, kritikarik izaten ez den bitartean, behinik behin. Zelan edo holan, baina, proposatuko dudana notazioa ulertzeko beharrezkoak dira.

Bestalde eta jakina denez, azentua notatzeko, diakritiko batzuk erabiltzen dira, benetako azentuaren gorabeherak erreflejatzeko gauza ez direla izaten jakin arren.

Gure kasuan, diakritikoen bidez erabilkeran jazoten diren azentu-itxuraketa motak (singularreko eta mugagabeko sekuentziak vs. pluralekoak edo leku-denborazko singularren sekuentzien itxuraketak etab. (25) bereizi beharko ditugu. Hitz batez esateko, hau da diakritikoek erakutsi behar dutena: itxuraketa mota biren arteko aldea; jakina denez, sekuentzia batzuetan doinu oihartzuna geratzen da eta beste batzuetan, ez. Diferentzia hau jasoteko, diakritiko tipo bi erabiliko dira. Gainera, jakin badakigu barbarik gehienetan azentua bigarren silaban jausten dela, baina beste batzuetan, lehenean, eta alde hau ere agertu behar da. *Estudio estructural del euskara de Ondárroa* delakoan proposatu nuen notazioak

(24) Ez bakarrik AZKUEK eta ALTUBEK, lehen esan denez, ikus. baita ere: J. BASTERRETXEA “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica” (I), in *Fontes Linguae Vasconum*, 18: 353-393, eta (II) in *id. id.*, 21: 289-338, 1974 eta 1975.

(25) K. ROTAETXE op. cit. in (3): 555-563.

ekonomia-erizpideak bilatzen zituen batez ere, diakritiko bakar bat eskainiz: diakritikoa, hain zuzen, azentu-eza adierazteko.

Nire oraingo ikuspunduz, diakritiko bi erabili beharko lirateke: azentu-eza adierazteko eta azentua adierazteko. Diakritiko hauek erabiltzeko arauak hauek dira:

A.1: 'ikurra azentudun silaban ipini behar da. Izan daiteke lehena edo bigarrena (báso/basó; txistu/txistú, etab...).

A.2: maileguzko hitzak aldean utzita, diakritikoa duen silabatik aurrera doinua mantengitu behar da, ahozkatzean, hitza edo hitz-taldea amaitu arte: adib. *gizónari* forma honetan doinu sapalda ("plateau") sortzen da azentutik aurrera; gauza berbera esan gura dugu *gizónek* mugagabeko ergatiboan, edo *gizónak* singularreko ergatiboan edo *gizónágitik* (azken honen pluralaz, geroago arduratuko naiz), idazten ditugunean.

A.3: maileguzko berbek aparteko tratamendua merezi dute. Dirudienez, hauek oihartzunik ez dute edukitzen: adibidez, /ze báso/ formak eta ergatibo singularreko /básoak/ formak edo hitz honen beste formek gaztelerazko azentua dute.

A.4.: 'diakritikoa agertzen den silabak ez du azenturik ez eta oihartzunik, ez silabak berak, ez eta bere eskuman dauden beste guztiek, berba amaitu arte. Ad.: *gizónèi* edo *lagúnèkin* forma idatzita hauek ahozkatu behar dira azentu-oihartzun barik *nèi* silaban, lehen kasuan, eta *né* silabatik aurrera (hau kontatuta), bigarren kasuan.

A.4.1: salbuespen bat egin behar da hemen. Dirudienez, *-gatik* morfema kontuan, bigarren azentu bat ("acento secundario") edo ohartzen da. Paradigma honen azentua aztertu nuenean (26) diakritikoa erabili nuen honetarako. Adibidez, *gixónakâitik* idatzitako forma honetan, diakritikoak zera adierazten zuen: aurreko silaba (*na*) azentu barikoa izan arren *kâi* silaban eta honen hurrengoan (*tik*) doinua ez zela behean geratzen, beste pluraleko formetan jazoten denez (ikus. goiko *lagúnèkin*). Baina, diakritikoa erabiltzeko beharra eztabaidagarria da, ekonomiaren aldetik. Azken baten, *lagúnakâitik* edo *lagúnengâitik* idaztean ere ez dago akats handirik pertinentea den gailentzea gordetzen den neurrian. Notazio hau gordezketan, irakurtzeko arau batek zera esan beharko luke: unitate berberren diakritiko berdin bat silaba bitan agertzen denean, erdiko silabak ez du doinua mantentzen.

(26) — op. cit. in (3): 3.09 kap.: 498-509.

2. ENTONAZIOA

2.1. Entonazioa Hizkuntzalaritza Orokorrean

Entonazioaren funtzioa ez da azentuatzen. Entonazioak ez du kontrastetik bilatzen hitz batean, ez eta hitz-talde batean. Entonazioaren bidez —eta hau hizkuntza guztietan— esaldi motak bereiztuten ditugu. “Esaldi” hitza eta ez “perpauza” erabiltzeko badago arrazoirik. Azken hau gramatika-nozioa dugu eta lehena, ordea, pragmatikari dagokio eta hemen interesatzen zaiguna da. Pragako hizkuntzalariek aspaldidanik erakutsi zuten, esaldi batean zati bi bereizten dira: tema/rema edo mintzagaia/galdegaia. Bestalde, “esaldi/perpauza” oposizioari dagokionez, beste hizkuntza batzuetan “*énoncé/phrased*” edo “*utterance/phrased*” etab., gauzatzen da.

Ez da esan beharrik hizkuntza guztietako hiztunok zenbait bide dugula benetako zalantza (ala sasi-zalantza) batean garela adierazteko, “deklarazio” bat (baiezkoa edo ezezkkoa) egiten ari garela adierazteko edo agindu bat ematen ari garela komunikatzeko. Baina ditugun hiru esaldimota hauek hitzek soilik ez dituzte bereizten. Ahozko hizkuntzan, hitzek eta hitzordenak egiten ez dutena entonazioak, hain zuzen, egiten du. Adibide batez baliatuko naiz: Frantsesezko honelako hitzen katea bat/*qui vois-tu Marie/* eta, bada ez bada ere, aurreratu gura dut /*qui tu vois Marie/* ordenagaz gauza berbera izango litzatekeela, hiru esaldi izan daitezke:

- 1) /*Qui vois-tu, Marie?*/
- 2) /*Qui vois-tu? Marie?*/
- 3) /*Qui vois-tu? Marie.*/

eta Ingelesekoari bardin gertatzen zaio:

/what do you say Mary/

- 1') /What do you say, Mary?/
- 2') /What do you say? Mary?/
- 3') What do you say? Mary./

edo Gaztelarazkoari:

/qué dices Mary/

- 1'') /Qué dices, Mary?/
- 2'') /Qué dices? Mary?/
- 3'') /Qué dices? Mary./

eta baita ere Euskarazkoari:

/zer esan duzu Miren/

1'') /Zer esan duzu, Miren?/

2'') /Zer esan duzu? Miren?/

3'') /Zer esan duzu? Miren./

Kasu guztietan, honako honetaz ohar gaitzke: esaldi mota bakoitzari dagokion entonazioa jartzen ez dugun bitartean, *ez dago mezurik*. Beste zer edo zer erakusten digute goiko adibideok: mezu desberdinak adierazteko, *esaldiaren zati baten doinua* aldatu behar da.

Hizkuntzalaritza Orokorrean doinu aldaketa horretaz eztabaidatu egin da. Hizkuntzalari batzuren eritziz, entonazioaren aldaketak “continuum” batean jazoten dira eta, beraz, ez dira fonologikoak. Beste batzuk, ordea, esaldiaren zati baten aldaketak “diskretoak” direla uste dugu eta, ikuspuntu honetatik, entonazioa fonologiari dagokio, nahiz eta hiztunen artean errealizazio bat baino gehiago agiri: funtsez, baina, hizkuntza baten barruan guztiok eskema bardin batzuk gordetzen ditugu. Askotan, gainera, eta problemari oso “grosso modo” begiratzuz, eskema minimo batzuk hizkuntza desberdinetan aurkitzen dira. Aipatutako adibideei buruzko kurbak, gutxi gorabehera, honela izango lirateke (27):

1. Lau hizkuntzetan: zati bi ditugu; lehen a zatia goitik behera doala eta eten ahul bat izanez gero, bigarrena gorantzeko joera duela, sostengitzen da.

2. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera joan eta gero, eten handiago bat dugu eta bigarren zatia behetik zeharo gora doalarik (ingelesez erditik gora).

3. Lau hizkuntzetan: lehen zatia goitik behera; gero eten handi bat (onartu behar da hiztun bik hartzten dutela hitza, hemen) eta bigarren zatia goitik behera zalanza barik.

Ohar interesgarri batzuk atara daitezke hemendik:

a) Entonazioaren markoa ez da azentuarena. Entonazioak esaldia du markoa.

b) Erabiltzen den parametroa doinua da beti.

(27) Kurbak orain baino lehenago aurkeztu ditut, ikus. op. cit. in (3): 170-206 eta in (11).

d) Esaldiaren barruan entonazio-talde batzuk sortzen dira, askotan joera oposatua dutelarik; hau da, esaterako, “deklaratibo” esaldiaren kasua, temari eta remari dagozkien kurbak (entonemak) kontsideratzen direnean, batez ere.

2.2. Euskal Entonazioa

Azterketan aurkitu ditudan kurbak beste hizkuntzetarako aurkezten direnakaz gonparatuta, ez da alde handirik ikusten. Funtsezko eskemak, gutxi gora behera, geratzen dira, hizkuntzaz hizkuntza, deklarazio bat egiteko, itaun bat egiteko edo agindu bat emateko. Dena dela, ohar bat egin behar da euskararen entonazioari buruz: Ondarroan hartu nituen datuetan, galdegaia eta aditzaren artean *etenik ez dago inoiz*, unitate biok talde erritmiko bat egiten baitute; horregatik, pragmatikaren aldetik, unitate bakar bat bezala funtzionatzen dute. Adibidez, Ondarroako esaldi honetan /sapatun beran aitzaz zinea du/, hau da “larunbatean bere aita-gaz zinera doa” eten bat ohartzen da /sapatun/ eta /beranaitaz/ taldeen artean, txikiagoa ala handiagoa izan daitekeena, erritomoari begiraturaz. Eta /beranaitaz/ eta /zineadu/ taldeen arteko etena derrigorrezkoa da, esaldiaren zati nagusi bi bereiztuteko. Baina /zineadu/ talde bat delako, /zinea/ eta /du/-ren artean ezin da etenik sartu. Gauza bera ohar daiteke /Juan Etxebarria Ondarrun bizi re/ esaldia entzuten denean: etenik bakarra /Juan Etxebarria/ esanda gero dator, besterik izan gabe. Ez da harritzekoa: entonazioaren zatiak —eta hauek ekartzen dituzten etenak— hiztunak komunikatzen duenagaz lotuta doaz eta, alde horretatik, galdegaia —tematik at delarik— rema eratu behar du.


Ondoko espektrograman (ikus. 2.7.0.) /arratoi orda/, *hor* eta *da* unitateen artean ez dago etenik. Gauza bera dugu 2.2.0.0. espektroan: entonazioaren bigarren zatia /onada/ dugu etenik gabe; arrazoi horregatik 2.2.0.1. espektroan /onagdis/ irakurtzen da, eten barik.

Badirudi ere entonazioaren gorabeherak ez direla, gure hizkuntzan, oso markaturik. Interesatzen dena, halere, aldaketak eta etenak dira. Ez dut hemen kurba-motarik aurkeztuko, orain baino lehenago egin nituenak mantengitzen ditudalako. Kurba joeraz soilik arduratuko naiz:

a) *Esaldi asertiboa*

Kurbak zati bi ditu: lehena gorantz doana (tema) eta bigarrena (rema) beherantz oso doinu graberik hartu barik:

/gaur goizean ≠ ≠ erosketa egin dut/ esaldia horrela ebakitzen da. Eta galdegaia /gaur goizean/ izango balitz, ebaketa honela izango litzateke:



/erosketa ≠ ≠ gaur goizean egin dut/

Kasu biotan, lehen zatia gorantz doa eta bigarrena beherantz, etena (≠ ≠) izan eta gero.

Eta, honelako zati batzuren barruan, zenbait hedatze sar daitezke: izen-sintagmari dagokionez, esaterako, erlatiboa hedatzea dugu. Orduan, eta printzipioz, erlatiboa eta dagokion sintagmaren artean ez dago etenik. Hau erlatibo determinatiboetan argi ta garbi entzun daiteke. Baina, erlatibo apositiba denean -eta honelako erlatiboak ere euskaran badituguten txiki bat egin ahal da. Abididez, eta ≠ ≠ eten nagusia eta ≠ eten txikiago bat adieraziz, honelako etenak (eta melodiaren aldaketak) ditugu:

/erosi doten orixu ≠ ≠ txarra da/, /erosidotenorixu/ talde bat izanik, edo

/dendanerosidotenorixu ≠ ≠ txarra da/, lehen taldea /dendanerosidotenorixu/, izanik. Baina:

/orko orixu ≠ neuk erosi dotena ≠ ≠ txarra da/, /neukerosidotena/ erlatibo apositiba izanez.

Enumerazioetan, zera ohartzen da: sintagma bakoitzaren artean etenak izaten dira, lehen sintagma duen melodia bera errepikatuz, eta, esaldi asertibo guztietan legez, etenik handienak zati bi ematen dizkigu. Esan gabe doa, teman sartzen diren sintagma guztiak gorantz doazela (“anticadencia”, Navarro Tomas-en hitzez baliatuz) eta reman sartzen direnak beherantz, lehen esan dugunez. Hona hemen Ondarroako esaldi honetan jazoten diren eten txikiak eta eten nagusia:

/ogixe ≠ esni ≠ azukri ≠ taorixu ≠ ≠ danakaroture/

Euskara batuan antzeko esaldi honek eskema berberari jarraituko lioke:

/ogia ≠ ardoa ≠ eta okela ≠ ≠ denagustatzenzait/

b) *Itaunak*

b.1. *Zuzenak* izaten direnean, kurba behetik gora doa eta esaldia oso luzea izaten ez denean ez da etenik entzuten. Garrantzitsuena dena kurbaren joera da:

/kaferikartukoduzu/

Bestalde, lehenbiziko silabaren eta azkenaren arteko doinuaren alde handiagoa edo txikiagoa izan daiteke: hemen “continuum” baten aurrean gaude eta hitzunen expresibitateak zerikusi handia du alde horren neurrian. Baina hitzun guztiok gorde behar duguna kurbaren joera da.

b.2. *Galderazko morfema bategaz* hasten diren esaldiak, beste hizkuntza askotan bezala, doinuaren gailurra morfema horretan egoten da. Euskaraz, nire ustez, kurba geroago beherantz doa baina azkenengo zatia ez doa oso behera. Alde horretatik, euskara gaztelerari baino frantsesari gehiago hurbiltzen zaio.

b.3. *Zehar itauna:*

Nahiz Ondarroako:

/preuntateoste ≠ ≠ zeindenJon/ esaldian nahiz /itaundu didate ≠ nor den Jon/ beste honetan eskema bera ikus daiteke. Zati bi ditugu: lehena goitik behera, etena eta gero bigarren zatia behetik gora doana, baina galdera zuzenean baino beherago gelditzen da.

b.4. Askotan, galdera zuzeneko egitura duten esaldi batzuetan itauna bera berba bati (eta ez aditzari) dagokio. Adibidez, 2.8.3. espektroaren azterketan, hau nabaritzen da: /xuan/ berba ahozkatu ta gero, eten luze bat dugu, tematik rema isolatzeko. Rema hau eten horren ondoren dator eta, itauna delako, armoniko guztiak gorantz doazela bistan dago. Baina joera hau batez ere /arin/-eko /a/ silaban nabaritzen da; eta egia esateko, itauna da ea Juan “arin” datorren ala ez, /Juan arin dator?/ esaldi horretan.

d. Azkenez, esklamaziokoek eta agintzeko esaldiek goitik beherako kurbak edukitzen dituzte:

/Etorri hona/ eten barik ahozkatzen da eta aipatutako kurbaren joerari jarraituz. Gauza bera Ondarroako honetan:

/zelakotxikixe/

Berriro esaldi mota hauetan lehen aipatu duguna jazoten da. Mintzagaia edo tema izatekotan, hau ahozkatuta gero eten luze bat dugu galdegai taldea (edo rema) ahozkatu baino lehenago. Hau ikusten da 2.9. espektroan: /Juan ≠ ≠ etorriarin/. Rema honetan, ez dago hitz bakar bat, bi baino. Baina entonaziorako, /etorriarin/ entonema bakar bat da eta, jakina, ezin pentsatu etenik jazoten denik.

3. AZENTUAREN ETA ENTONAZIOAREN ARTEKO HARTUEMONAK

3.1. Fenomenu biak nahastuteko arrazoiak

Ikusi ditugun fenomenu biak nahastuteko arrazoirik handiena hone-tan datza: batak eta besteak doinua erabiltzen dute gure hizkuntzan. Gainera, azentu oihartzunak sortzen dituen *erritmo taldeak* esaldiaren barruan mantengitzen dira. Egia esateko, hizkuntza gehienetan hitzaren azentua aldatzen da esaldi baten barruan sartuta gero, A. Belić esan zuenez aspaldidanik:


“Il n’y a aucun système accentologique de mots isolés qui ne change un peu de nature dans la phrase, étant donné que dans la phrase les accents de mots doivent s’adapter à l’accent phraséologique. Mais cela ne signifie pas qu’ils changent fondamentalement” (28).


Zalantza barik, azentua gauzatzeko doinua erabiltzen duten hizkuntzetan (euskaran legez) sortzen den “adaptazio hori” (Belić-en hitzez baliatuz) edo “moldaketa” hori erraztuten da. Gainera, ez da ahaztu behar euskara hizkuntza eranslea dela eta gure “hitzak” (zer edo zer deitzeko) benetako sintagmak direla.

3.2. Bereiztuteko beharrak

Baina, halan eta guztiz ere, fenomenu biak behar den moduz ulertzeko bereizi behar ditugu. Gainera, nahastuteko arrazoiak esaldi aserti-boetan, batez ere, jazoten dira. Agintzeko esaldietan, adibidez, fenomenu bien arteko aldeak argiago ikusten dira. Aipatua izan den azkenengo espektroan (ikus 2.9. esp.) zera ikus daiteke: mintzagaia (edo tema) den berbaren /Juan/ eta galdegaia (edo rema) den taldearen /etorriarin/ artean eten handi bat dugu eta eten hau entonazioari, bakarrik, zor diogu. Bestalde, /etorri/ hitz horretan azentudun silaba /to/ da, duda barik, eta esaldian sartua egon arren, silaba horrek bere indarra gorde-tzen du, espektroaren goiko kurbak erakusten duenez. Baina, jakina, doinua entonazioari moldatu behar zaio eta, ikusten denez, doinu oihartzunaren armonikoak behearantz doaz informazio mota bi adierazteko: a) hitzunak zer edo zer agindu duela eta, ondorioz, entzuleak agintekera dagoela mezuan aditu behar du; b) hitzunak mezuaren amaiera ematen diola.

(28) A. BELIĆ: “Accent de mot-Accent de phrase”, in TCLP, 4 (1931): 183-187.





Hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzen dugu gizon emakumeok gizar-tean elkarrekin komunikatzeko. Eta komunikazioaren unitateak esaldiak dira; hiztunok hauek moldatzen dizkiogu errealitateari edo adierazi gura dugunari, erritmo eta melodiaren bidez. Moldaketa hau ondo egiteko, *komunikazio gaitasuna* (eta ez gramatika gaitasuna) beharrezkoa da: *NORK?* *NORI?* *ZERTAZ?* *NON?* eta *NOIZ?* itaunei dagozkien erantzun zuzenak emateko., Entonazioak Pragmatikari jarraitzen dio. Ikusi dugun azentua (ez naiz ari izan azentu expresiboz), ordea, baldintza hauetatik at azter daiteke eta aztertu behar da.

Dena dela, fenomeno bi hauek ahozko hizkuntzari dagozkio, esan denez. Eta euskararen ezaguera, hizkuntza bizi baten ezaguera den neurrian, erdi ezaguera izango da azentuari eta entonazioari buruzko arau praktiko batzuk ematen ez diren bitartean. Horregatik eta amaitzeko, eskertu gura diot Euskaltzaindiari II. Jardunaldi hauek antolatzeagatik.

ONOMASTIKA

**HITZ HASIERAN AGERTZEN DIREN
IA-, IE-, IO-, IU- BI SILABAKOAK NOLA
EMAN EUSKAL TOPONIMIAN (*)**

Bilbao, 1988-1-21

Alfonso Irigoien

Nafarroako gobernuak eskaturik Euskaltzaindia egiten ari den lanari dagokiola, hau da, hiri, herri eta auzo izenen euskal formak finkatzeari dagokiola, ortografiatzeko arazo bat agertu da, lehen ere kasuren baten ondo erabaki gabe gelditu zena, Bizkairako *Iurreta* eman baitzen, eta ondorioz herrialde zabaletan lau silabatan ahoskatu beharrean hirutan egiteko arrisku nabarmena baitago, erdarazko *Yurreta* forman gertatzen den bezala, bertakoek *I[dz]orreta*, eta urrunagokoek *Ixorreta* ere bai, eta abar, esaten dutela.

Bizkaian erdaraz *Yurre* den formarako, ordea, *Igorre* eman zen, bertakoan artean ezaguna dena ontzat harturik, ahoskatzerakoan *[j]*-aren kontrako -g- bat sortu baita, Nafarroako *Igantzi*-ren kasuan bezala, erdaraz *Yanci*, edo *Agoitz*-enean bezala, erdaraz *Aoiz*, berez **Aioitz* batetik bailetorke, latinezko *Aionis* patronimikotik, hau da, *Aio* formaren genitibotik (1).

Arabakorako *Ihurre* utzi zen, erdaraz *Yurre*, gogoan izanik Donemiliaga Kukullako kartularioan 1025-garren urtean horrela agertzen dela, *h* aspiratu eta guzti, egungo eguneko euskaldunen lekukotasunik ez dugula. Gipuzkoako Olaberria herrikorako, ordea, *Iurre* (2).

(*) Euskaltzaindiari egiten zaion proposamena, ikertu eta gero ondo baleritza agiriko zerbaitez adieraz lezan.

(1) Euskaltzaindia, *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbao 1979.

Ikus baita ere II. Euskal mundu biltzarrerara iaz aurkeztatu nuen lana, "Algunas cuestiones relacionadas con la *[j]* en lengua vasca".

Arratian beste batzu *Iorre* hiru silabatan ematen dute.

(2) *Euskal Herriko autonomi elkarteko herrien izenak* - *Relación de las poblaciones de la Comunidad autónoma del País Vasco*, Hizkuntz politikarako idazkaritza, Eusko Jaurilaritza - Euskaltzaindia, Gasteiz 1986.

Nafarroan, alabaina, badira beste kasu batzu ere. *Yabar* erdarazkoa inguruko euskaldunen artean *lyebarre* moduan ebakitzen da, *i-* eta *-a-*ren artean *[j]* bat garaturik eta aurreko *i-*ren ondorik *-a-* > *-e-* bihurturik, eta gainera *-e* paragogikoa ere itsatsirik, inesibo kasuan ahoskatzeko beharrezko den epentetikoa hain zuzen ere. Hori orduan *labar* moduan eman zen, *[j]*-aren garatzea eta kondizio horietan *-a-* > *-e-* bilakatzea ez baitira hizkuntza normalizatuan idazterakoan aintzat hartzen eta inesibo kasuan nahi ta nahi ez *labarren* esan behar baita. Baina *labar* hiru silabakoa da eta bitan emateko arriskua dago idatziriko letrak duen eraginez, *jadanik* forma ere, *iadanik* erara ahoskatzen dena, hiru silabatan esaten baita, edo *josi*, *jausi*, *jautsi*, *jaso*, *jasan*, *jaiki*, *jalgi*, *jantzi*, eta abar, bitan.

Igantzi bera ere zenbaitek *Iantzi* esaten du, ontzat eman zen forman bezala hiru silabatan.

Baina badira gehiago ere erabaki beharreko direnak: erdaraz *Yaben*, *Yelz* (Lizoain), *Yarnoz* (Elortzibar), erakoak. Lehenengoaren kasuan hiru silabatan ematen omen dute bertako euskaldunek, *leben* eginik. Beraz normalizaturik *laben*, hiru silabatan ahoskatzeko, eta ez bitan.

Arabako *Yurre*-ren kasuan *Ihurre* euskarazkoan agertzen den *-h-* bokalartekoa zaharra da, etimologikoa, baina *labar*, *laben*, eta abar, formetan eman bagenezia ziurrenik ez litzateke, *Igantzi* erara finkatu zen *Iantzi* aldagarrian ere ez litzatekeen bezala, XIV-garren mendean *Eançi* dokumentatzen baita (1366, *PN-XIV*, *F. Pamp.-Mont.*, 531 orr.) (3), eta bide horretarik **Eiantzi* forma jatorrizkoa bazela suposa baitzekagegu, 1068-garren urteko *Eiaurrieta* zaharra erdaraz *[j]*-aren eraginez *Jaurrieta* eta bertako euskaldunen artean *[j]* galdurik *Eaurta* den antzera (4).

Hala ere *-h-* bokalartekoa halako kasuetan erabiltzea badirudi argitasunerako gendukeen bide egokienetariko bat litzatekeela. Silaba bereizi behar dela besterik ez luke adieraziko. Horrela *Ihabar* eta *Ihaben* emango genituzke. Eta beste alderdi batetik *Ihurreta*, edo ta zuzenduz gero *Ihorreta*, ez baitago arrazoirik *Igorre* ontzat hartu zelarik, *-o-* duela ez ipintzeko, halakoetan *-h-* etimologikoa ontzat harturik, *Zuhatzu* eta antzekoetan ontzat hartu zen bezala, ikus Nafarroarako: erdaraz *Zuazu*, Arakil-en, bertako euskaldunek *Zubetzu*, normalizaturik *Zuhatzu*.

(3) JUAN CARRASCO PÉREZ, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973.

(4) Leire-ko Bezerro zaharrean 1068-rako *Eiaurrieta* biltzen du Zierbide-k, "Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leire", *FLV*, IX (1977), 137 orr. Ikus baita ere Michelena, *Fonética histórica vasca*, 9.7, adic., 517 orr., eta *Apellidos vascos*, n.º 590b, eta neure *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, §72, 232 orr.

Jaurrieta XIV-garren mendean (1366, *PN-XIV*, *F. Sang.*, 475 eta 503 orr.).

Erdaraz ere *Huici* aspaldidanik *h-* duela idatzi izan da, bestela, hasieran *u-* duela, *Bizi* irakurtzen baitzuten, eta ez *Uici*, egungo egunean irakurriko gendukeen moduan. Berdin gertatzen da *huevo* hitz arruntarekin, aldamenean *óvulo* duela, ez batean eta ez bestean sekula ahostatu ez den *h-*rik gabe.

Guzti honetan oinarri harturik Euskaltzaindiari izkribu honen beronen bidez proposatzen zaio *Ihabar* eta *Ihaben* moduko toponimoetan *-h-* bokal arteko grafiak euskarazko grafiatzat eman ditzan.

Eta denbora berean Bizkairako *Ihorreta*, eta Gipuzkoako Olaberrirako *Ihurre* ere ontzat har ditzan, *Igorre* eta *Igantzi* dauden bezala utzirik, eskatzen zaio.

ZAMUDIOKO TOPONIMIA

Zamudion, 1983.eko Abenduan

Beatriz Madariaga Arana

BIBLIOGRAFIA

- *Libro de Cuentas Municipales Ayuntamiento de Zamudio. 18-6-1786*
- *Libro de Justicia. 20-5-1820.*
- *Declaración de Fincas Rústicas. 1891-2 Carpeta VIII Apartado B.*
- *Actas Ayuntamiento 1689-1820. Zamudio 5-II.*
- *Visitas de Montes y Plantíos 1631-1804 6-III Legajo 25.*
- *1900. urteko erraldoa.*
- *1936. urteko zentsoa.*
- *Amillaramiento riqueza rústica 1954.*
- *Historia de Vizcaya. Juan Ramón de Iturriza y Zabala hasta 1787. Ampliada hasta 1885 por D. Manuel de Azcarraga y Regil Imprenta de D. Cipriano Lucena y Co. 1885. Pág. 371, Cap. LII Zamudio.*
- *Historia de Vizcaya. Labayru.*
- *La formación y los usuales componentes de los topónimos vascos. Sdad. de Estudios Vascos 1916. Reproducción “La Gran Enciclopedia Vasca” tomo III 1972.*
- *El libro de Amurrio. José Medinabeitia. Consejo de Cultura de la Diputación. Foral de Alava 1979.*
- *Toponimia de Vizcaya. Juan de Gorostiza. Separata de la Revista Zumarraga 1954.*
- *Toponimia céltica del País Vasco. Juan de Gorostiaga. Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. S.S. 1953.*
- *Aramaioko toponimia. Patxi Uribarren.*
- *Biblioteca de Autores Españoles —Poetas Líricos del siglo XVIII—. D. Leopoldo Augusto del Cueto. Madrid 1869. Tomo I.*

— *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones en ultramar*. Pascual Madoz. Tomo XVI, Madrid 1850 pág. 502.

AURKIBIDEA

- I. SARRERA
- II. TOPONIMIAZKO LANEN GARRANTZIA
- III. METODOA
- IV. ZERGAIK LAN HAU ETA EZ BESTE BAT
- V. GEOGRAFIA ETA HISTORIAZKO JAKINGARRIAK
- VI. OHAR BATZU
- VII. LABURRATZAK
- VIII. TOPONIMOEN ZERRENDA
- IX. SAILKAPEN LABURRA
- X. KONKLUSIO GISA
- XI. MAPA

I. SARRERA

Nire lan hau ez dut uste garrantzizkoa denik, ez gaiagaitik gaur egun garrantzi haundikoa, baizik eta egilea ikasle bat baino ez naizelako. Dena dela-ta ilusioz egina dago eta nire herria pittin bat hobeto ezagutzen badugu helburua beteta egongo da, honen gainera hurrengo lanetarako baliabide bada ba, askoz hobe.

II. TOPONIMIAZKO LANEN GARRANTZIA

Berezko garrantzia

Jende askok uste du toponimiak bakarrik balio duela norberaren abizena edo herrien esangura jakiteko, baina toponimiak hau baino garrantzi haundiagoa dauka. Linguistikaren zati bat izanda hizkuntza bakoitzaren arlo asko argitzen ditu, adibidez: Historiko, etnografiko, ekonomikoak etab.

Toponimiaren azterketa adierazgarri bat da jakiteko gure historia eta iragana, zeren eta toponimian “fossilizatuta” daude aintzinako hitz asko eta.

Aparteko garrantzia

Euskaldunok baditugu beste arrazoi gehiago eta lehenengoa da gure euskera hilzorian dagoela eta dena izango dela gutxi bizirik edukitzeko. Beste arrazoi batzu hauek dira:

- a) Aintzina gure herria noraino zabalduta zegoen jakiteko.
- b) Hitz askoren oinarria aurkitzeko.
- c) Euskeraren hasierak susmatzeko.

Gaurko arrazoiak

a) Gure lurraldeak aldatzen doaz, pinuak sartu dira lehen beste zugaitzak zeuden lekuetan, eta gaurko gazteriak ez dakigu zer den pago bat edo intxaur bat, bakarrik pinuak ezagutzen ditugu.

b) Lantegiak urte batzutan ugaritu ziren eta gazteriak nekazaritza utziz lantegietara behar egitera jo zuen, horren ondorioz gazte askok baserri-hizkuntza galdu du. Baina gaur egun dagoen langabeziarekin atzera baserrira jo beharko dogu.

c) Industrializazio honek emigrazioa ekarri du eta honekin erdara. Zamudion orain 30 urte bakarrik euskera egiten zen lekuan gaur egun ia ia bakarrik erdara entzuten da.

Horregatik ahalegin guztiak behar izango dira euskera salbatzeko.

III. METODOA

Lan hau prestatzeko erabili dudan metodoa hau da:

1. Datuak biltzeko metodoa

a) Zamudioko udaletxeko artxiboak aztertu ditut liburu hauek begiratzuz:

Herriko Kastastroa.

Libro de Cuentas Municipales. 1786. urtean hasita.

Libro de Justicia. 1820. urtean hasiz.

1936. urteko zentsua.

1954. urteko *Amillaramiento de la riqueza rústica* (Liburu hau oso interesgarria izan da zeren eta solo eta lur zati gehienen izenak agertzen dira bertan eta. Penagarria izan da ez edukitzea beste bat lehenagokoa, konparaketa bat egiteko aldaketak ikusiz.

Declaración de Fincas Rústicas. 1891-2 Carpeta VIII apart. B.

b) Derioko Seminarioko artxiboan liburu hauek begiratzuz:

Actas Ayuntamiento. 1689-1820, Zamudio 5-II.

Visitas de Montes y Plantíos 1631-1804, 6-III legajo 25.

c) Baserri, auzo, erreka eta mendi izenak kontrastatuta daude jendeak deitzen dien izenekin. Ikusi ahal dira nolako diferentziak dauden izen ofizial eta ahoz-ahokoen artean.

Azaltzeko metodoa

a) Izenen zerrenda alfabetozko erara eta non agertzen diren.

b) Mapa, non agertzen diren erakutsiz.

IV. ZERGAITIK LAN HAU ETA EZ BESTE BAT

a) Bertakoa naizelako eta horregaitik apartekoa delako niretzako.

b) Zamudion euskera galtzen doalako eta zerbait salbatzeko.

c) Azken 20 urteotan aldakuntza haundi bat sufritu duelako Zamudiok eta Txori-Herri guztiak.

d) Beste lan sakonago batzutarako langungarria izando dan esperantzan.

V. GEOGRAFIA ETA HISTORIAZKO JAKINGARRIAK

Txori-Herri osatzen duten herrietako bat da Zamudio, Bilbotik 7 kilometro-tara dago gutxi-behera eta bere mugak hauek dira: Iparraldera: Derio; hegoaldera: Galdako; Sortaldera: Lezama eta Sartaldera: Sondika eta Loiu. 20,01 km² dauzka eta bertan 4000 biztanle inguru bizi dira, hauetatik ia erdiak kanpotik etorritakoak.

Gaurko auzoak 4 dira nagusi, ttipiagotan banatuta:

Sandolin:	Anotxe (Arenolza)	San Martin:	Elخالde (Ugaldeguren)
	Pinoa (Pinoaga)		Abarkotxe
	Lecumbiz		Txaldine
Artea (Arteaga):	Dainoak (Daños)	Santimami: (San Mamés)	Bistalegre
	Jule (Fula)		Maurikebaso
	Geldo (Gueldos)		Galbartu (Galbarriartu)
	Artea (Arteaga)		

1900. urtean honela banatuta zeuden: Arenolza, Ugaldeguren, Gueldos eta Daños.

Iturrizak dino Zamudiok “Cargadero del encinal” esan nahi duela, teoria bat baino ez da baina egia esan “Zamu” Zama-tik etor daiteke eta aintzina arteekin beteta egon zen Zamudio. Gaurko izenetan askotan agertzen da “Artea” izena.

Gernikako biltzarretan 42. jarrilekua zeukan.

IX. mende azkenean Galindo Ordoñez de Gabiriak (Fortunio Garces Nafarroako erregearen iloba) eraiki zuen Zamudioko “San Martin de Arteaga” eleiza eta bere ondoan dagoen dorrea. Eleiza hau XVIII. mendean oso apainduta zegoen, “Marques de Malpica”-ren babespean aurkitzen zelako. Markes hau arreta haundiarekin arduratu zen eleizaren jagoteaz. Iturrizak dino “En su época apenas había otra iglesia más lucida en Vizcaya” (bere denboran eskaz zegoen beste eleiza xarmantagorik Bizkaian).

(1) BACHILLER JUAN MARTÍNEZ DE ZALDIBIA: *Suma de las cosas Cantábricas y guipuzcoanas*. Lehen argitalpena, F. Arocenaren sarrera eta oharrez 1944. urtean egin zen. Jasotzen dugun aipamena ikus 16. orrialdean.

(2) ADOLF SCHULTEN: "Venus Marina" (T. Aranzadik itzulia), *RIEV*, 1927, XVIII. 373-380. orr.

erromar kutsudun baserri bat. Behar bada gaskoinaren bidez letorke, baina hor dago, Olearso mendia ziteken maldan.

Oraingoz aztergai utziko nuke, zeren bestek esan beharrik ez dut holakoetan zuhur jokatu behar dugula. Hala erakutsi zidan Kornuz ondo-ko baserri eroriaren izenak ere. Pekunia bezala jaso nion gure esnedunari, baina 1787ko *Censo*-an eta 1857ko *Nomenclátor*-ean aurkitu nuen argi eta garbi: Perukenea.

Itsas ertzean bertan badira Kapeluta eta Kapelu, latin kutsua dutenak, baina hondarribiarrek txapelari kapelua deitzen diotenez arrokak toki haietan hartzen dituzten berezko erosio formegatik izan daiteke. Bestalde, historiaren agiriek ez digute erakusten paraje horietan kaperarik izan denik.

Mendi izenaren lehen etimologia Baltasar Etxaberi zor diogu, "*Aizquibel* que se interpreta en Bascuence, espaldas de sierra" (3). Eta, badirudi ondo zebilela.

Inoiz entzuna dugu, nola daitekeen Jaizkibel (Haizkibel) bai Hondarribian, bai Pasaian eta baita Lezon ere, guzietan haitz-gibel baldin bada, gibelizat zein alde hartzen ote duten.

Nere eritziz, aurkitu ditudan azternategi egoitzak kontutan harturik, duela zortzi edo hamar mende familia asko bizi zen mendiaren gailurretatik itsasaldera, proportzio garrantzitsu batean denbora haietarako, eta hortik zetorkion izen hori.

Jaizkibelen lehen fonema bera, zalantzarik gabe, zahartasunaren leku-ko dugu, aintzina erabiliko zuten *H* aspiratua *J* bihurturik fosiltzean. Oroierdarazko Fuenterrabiak *F* hortik duela.

Gainera, mendigibeleko biztanleen aintzinakotasunez kontutan hartzekoa da 1625ean Isastik zioena, alderdi horretako Artzu eta Justiz baserriak espreski, Hondarribiko lehen biztanleetakotzak jotzeaz (4).

Jaizkibelen, abelzaintzak eta harrobiak garrantzia izan zuten azken mendera arteko ekonomian, 1627.eko agiri batean irakurri dudana lekuko: "Montes prados pastos agua yerbas canteras... Ganados mayores y menores de todo jénero..." eta zuhaitzen salketa debekaturik zegoen (5).

(3) BALTHASAR DE ECHAVE: *Discursos de la Antigüedad de la lengua cantabra*, Mexico, 1607, 32. orriaren atzekaldetik.

(4) ISASTI: *Compendio historial*, 458-459. orr.

(5) Udaletxeko Agiritegian, Ikus: Sección B, Negociado 1. Serie I, Lib. 1, exp. 20. *Ejecutoria contra el lugar de Pasajes sobre el disfrute de los montes de Jaizquibel*, expedido en Valladolid en 2 de enero de 1627.

Aurkitu dudán agiritik zaharrena Jose M.^a Lakarraren *Vasconia Medieval*ean dator, larraldatzeaz edo trashumanziaz, Aralardik gure egunokarte datorren ohituraz hain zuzen, eta zenbait saroi aipatzen dira; hara zer dioen: “San Miguel Excelsis enviaba sus ganados a pastar a los yermos de Fuenterrabia ‘en término clamado Jog, e los seles que se claman Muginça, Andialove, Gaiztanos, Leyurieta, Leiçanavar’ (año 1371)” (6). Horieta-rik azken hirurak baizik ez ditut atzeman, eta hirurak itsas-hegalean Pasaia eta Hondarribiaren mugan, gaur egun Gaztarrotz, Leuta eta Lexa-nabar bezala ezagutzen direnak. Oroi garai haietan Pasaia (San Juan aldea) Hondarribiarena zela.

Gaztarrotzen baserri bat ezagutu da duela urte gutira arte, baina hiruretan badira harpetxeak (harpeak, zizelez landurik handituak eta kan-pokaldera horma eraikiak egoitza egokitzeko). Agiri denez, harpetxe diren egoitza horiek, Neolitos aldiaren jarraipenezkoak dira, toki horietan aur-kitu ditudan suharrizko tresneriaren arabera.

Guzi horrek abelzaintzazko ekonomia adierazten digu, baina lehen lehenagotik bazen nonbait ihiza eta bereziki arrantza, Harri-arotik etenik gabe zetorren bizitza, zeren Marla eta Bioznar deitzen diren tokietan haize-agerian aurkituak ditudan azternategiek hala erakusten bait digute.

Toki izenetara itzuliaz, gauzak zehatz egingo banituen, ahozko bilke-taz gainera bibliografiak eskaintzen zidanaz ere jabetu naiz, besteak bes-te, Florentino Porturen monografian oinarriturik (7). Era berean, baserri guziak fitxatuz, XVII. mendetik (guti batzuren aipamen zaharragoak ere bai) 1969an Udalak egin zuen mapakoetara arte. Orain, Jaizkibel itsas-hegal horretako baserrien zehetasun gehiago dut.

Baserri guziak fitxatze horren ondorioz honako hau aurkitu dut: etxe izenak, XVIII. mendeko agiritan *-eche*-az gainera, *-egui*, *-tegui*, *-degui*; eta *-coa*, *-cua* bezala datozela. Baina, *-nea*, *-enea*, ez dela agertzen XVIII. era arte. Denbora berean, *Echeberri* aurkitzen da eta ez *Echebe-rria*; artikulurik gabe, Lapurdin bezala.

Horiek izan dira, arkeologiaz bestalde, aspaldi eremu bihurtu zen tokian izen jatorren bila burutu behar izan ditudan lanak.

Zuontzat aspergarri ez izateko, muga dezadan txosten hau Jaizkibel itsas-hegaleko izen zaharretara; baina lehenik mendi gailurretik itsal-hegalera aurkitzen diren baserri guziena emango dut.

(6) JOSÉ M.^a LACARRA: *Vasconia Medieval. Historia y Filología*, 19. orr.

(7) F. PORTU: *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades hasta 1969*.

BASERRIAK

Altxakoa

Lehenik deitura agertzen da, Migel de *Alchacoa* 1598. urtean (8).

Alchacoa azpicoa eta *Alchacoa garaicoa* etxeak aipatzen ditu Isastik 1625. urtean (9). *Alchacoa de abajo* eta *Alchacoa de arriba* agertzen dira 1787ko zentsoan (10). *Alchaco-chiqui* baizik ez 1857an (11). *Altxakoaundi* eta *Altxako-txiki* bezala ezagutzen dira gure egunotan.

Artzu

Hemen ere, lehen lehenik, deitura agertzen zaigu, Tomas de *Arsu* 1598. urtean (12). Eta Arzu, etxea, 1625ean (13). Gainera, Isastik dioenez, leinu honetakoak, Justizkoekin batean, Hondarribiko lehen biztanleeta-koak omen ziren (14).

Kondairak dioenez, Martin de Arzu 1280. urteko hesian heroetzat jotzen da, baina uste hori XVII. mendetik dator.

Baserria, itsasaldera, muino baten lepoan kokaturik dago. Era berean, ekaldeko muinoan Kornuz eta mendealdekoan Justiz; hirurak dira garrantzitsuak itsas-hegalean.

Arzu-errota Gipuzkoako *Nomenclátor*-ean agertzen da, 1857.ean. Gaur, zaharrek oraindik *Artzu-errota* bezala ezagutzen dute, baina gazteek “El Molino”.

Artzu baserri ondoan haizeolen zepak aurkitu ditut.

Etxe-txiki

Eche-chiqui, 1857an, eta *Etxetxiki* 1969an Udalak egin zuen mapa batean.

(8) F. PORTU: *aipatutako liburuan* 60. orrialdean.

(9) ISASTI: *a. lib.*, 91. orr.

(10) Archivo Municipal, Floridablanca kondearen aginduz egin zen lehen zensoaren kopia.

(11) *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa*, 1857. urtean Diputazioak argitaratua.

(12) F. PORTU: *a. lib.* 60. orr.

(13) ISASTI: *a. lib.*, 91, 137 eta 458. orr.

(14) ISASTI: *a. lib.*, 458-459. orr.

Garaikoetxea

Iraurgi o *Garaicoechea* dakar Isastik, 1625ean (15). Eta *Garaicoechea* soilik 1787ko zensoan eta 1857ko *Nomenclátor*-ean. Inoiz Goikoetxea bezala ere nahasturik dator agirietan.

Gaztarrotz

Hondarribia eta Pasaiaren mugan, azken honen partean, baina aitzina hartan Hondarribiarena zen. Baserri eroria. 1371. urteko agirian *Gaiztanos* (16). Benta zen eta duela urte batzuk erre egin zen.

Bertatik hurbil harpe-egoitza zaharrak daude eta suharrizko tresneria aurkitu dut.

Justiz

Baserri hau, gaur egun hiritik urrutien aurkitzen dena da, Jaizkibelen itsas-hegalean. 1613. urteko aitonenseme agiri batean aipatzen da lehen aldiz, erregeren arma-kronikagile zen Diego de Urbina-k emaniko diploma horietako batean. Agiri horretan esaten denez, 850. urtean Nafarroako errege Santxo Abarka ihizan ari zela baserri horretako alaba ederra ezagutu eta amorante bihurtu omen zen, esanaz: “Gutziz ederra zera” eta hortik omen etxearen izena (17). Gure artean esan beharrik ere ez dago etimologia hori faltsoa dela eta izena bera patronimiko horietakoa.

Arestian esan bezala, leinu honetakoak, Artzukoekin batean, Hondarribiko lehen biztanleen arteko ziren, Isastik dioenez (18). Eta, Serapio Múgica-ren ustez Euskal Herrian etxe bakarra omen *Justiz* izenekorik (19).

Jatorri honetakoa zen Habanako alkate eta Kontadore jenerala, Juan José Justiz y Umpiérrez, 1761ean “Marquez de Justiz de Santa Ana” titulua eman zitzaiona.

(15) ISASTI: *a. lib.*, 91. orr.

(16) J. M. LACARRA: *Vasconia Medieval. Historia y Filología* (Donostia, 1957), 19. orr.: “seles que se claman Muginça, Andialove, Gaiztanos, Leyurieta, Leïcanavar”.

(17) A. Y A. GARCÍA CARRAFFA: *El Solar Vasco-Navarro*, tomo IV, 302. orr. Conde de Llobregat, *Fuenterrabia. Noticias históricas* (2.^a ed.), 10. orr. Eta F. Portu, aipatutako liburuan, 9. orr.

NILS M. HOLMER: *El idioma vasco hablado* (1964), 110 eta 158. orr.

(18) ISASTI: *a. lib.*, 458-459. orr.

(19) S. MÚGICA: *Geografía del País Vasco-Navarro, Guipúzcoa* tomoaren 756. orr.

Kornuz

Baserria. 1481ean *Cornoz* deitura agertzen da, Joanes de Cornoz eta Esteve de Cornoz, Udaleko agirietan (20). XVII. mendean Jaizkibel mendiarren ifarralde guzia zen *Cornuz*, edo beste izen batez *Muguirio*, Isastik dakarrenez (21). Isastik, *Cornuz* eta *Cornus*, bukaeran z nahiz s-rekin bietara ematen du, baina Pepita Aginagak eman zidan 1658ko eskuizkribua, aitonensemetzaren onespenezkoan *Cornuz* dakar. Joan zen mendearen erdialdea geroztik inoiz *Gornus* bezala nahasturik aurkitzen dugu agirietan. Erromar izena dirudi, behar bada muino edo itsas-punta adierazteko. Atzizkia ordea, Gaskuinan eta Euskal Herrian aintzinatik hain hedaturik den -oz edo -otz. Baina, oraingoz ezin dezaket uka Gaskoin jatorria.

Erromarren garaian bazen Nafarroan *Coronium* zeritzan hiri bat Los Arcos inguruan, batzuk Mendabiaren ifarraldean Erdi-aroan ezagutzen zen *Coronio*-rekin zerikusia zuen ustea agertu izan dute (22). Bestalde, *Cornuquiz* Bizkaiko toki izen bat zen 1070. urteko agirietan agertzen denez Lope Iñigez kondeak San Millan-era emana (23).

Larrezuri

Baserri honen agiririk ez dut aurkitu 1969. urteko mapan baizik. Baina etxea, oso berria, zutik dago.

Legia

Joanes de *Leguia* 1598. urtean aipatzen da, eta 1631. urtean Guadalupeko Andre-Maria elizaren maiordomoa León de Leguia zen. Etxearen agiririk ez dut aurkitu Floridablanca-ren zensora arte, eta honetan bi etxe daude: *Leguia* eta *Leguiassar*.

(20) Arch. Munic. Ref.: Sección C, Negociado 5. Lib. 1, Exp. 2 *Carta Real Ejecutoria obtenida por la ciudad de Fuenterrabía contra la Universidad de Irún*. 30 foliodun kuaderno inprimatua.

(21) ISASTI: *a. lib.*, 91. orr.

(22) J. CARO BAROJA: *Los Vascones y sus vecinos*, 41 eta 47. orr. Eta M.ª J. PERÉX AGORRETA: *Los Vascones (El poblamiento en época romana)*, 147. orr. eta XIII. lam.

(23) L. SERRANO: *Cartulario de San Millán*, 210-211 orr.

Leizanabar (Lexanabar)

Lakarraren *Vasconia Medieval* delakoan dator *Leiçanavar*, 1371. urtean (24). Harpetxe eta azternategirik aberatsenetakoak hemen aurkitu ditut. Baina izen jatorra aurkitzeko ere burukominik handienetakoak toki honek eman dizkit, Lakarraren testuan aurkitu arte. Adibidez, 1969ko mapan *borda Lizanobar* dator, baina ahoz jasoak: Loxonar, Lixonar, Lexonar, Lixonabar, Lixanabar, Bixanar, Bixonar eta abar. Baina Jabier Aranburu adiskideak eman zidan bere amari maiz entzuna zion esaldi bat (oroi Jabierren ama, Celestina Sagarzazu, igaz hil zela 95 urte beterik, eta horrek berez aintzinatasuna ematen bazuen, are gehiago esaldiz zetorrenez); anai-arreben arteko haserreren bat sortzen zenean, elkarregandik ahalik urrutien bereizteko esaten omen zien: “zoazte, bata Mendelura eta bestea Lexanabarrera”. Mendelu, Bidasoa ertzean Irunekin muga egiten duen auzoa da eta Leizanabar Pasaiarekin muga itsasaldean, Turrui-lla puntaren ondoan. Tokiaren koordenadak: 1.º 49' 20"; 43.º 21' 33". Toki horretan, baserri bihurtutako borda bat ezagutu da mila bederatziehun eta berrogeitaka urteak arte. Abelzaintza zuten bizimoduz. Gaur, harpean hasiaz eraikitako borda eroria da, baina inguru horretan urte osoz bizi dira behorrak eta betizuak.

Leiurieta (Leuta)

Lehen borda zena, orain mendizale egoitza Lago-Rodríguez Salis familiarena. Hau ere harpetxe handitua da eta lehen gizonen aztarnak aurkitu ditut, Neolitos garaikoak. Egoitzaren jabeen ustez *Lekueta* du izen jatorra, Udaleko mapak, 1969an, *Legueta* dakar, baina artzainei eta Maximo Sagarzazuri (Maximo honek larogei urte beteak ditu, Hondarribiaren toponimiazko mapa du, berberak egina 1925ean nola zen oroituz), *Leuta*. Lakarraren *Vasconia Medieval*-aren 19. orrialdean *Leyurieta* zeritzan saroitzat (sel) dakar.

Martierreka

Antroponimo hau Kornuz eta Artzu baserrien artean itsasorantza doan erreka izena da. 1625ean Isastik aipatzen du etxe izen bezala (25). Hor zen nonbait Sein errota. Eta inguru haietako baserrietan orain-

(24) J. M. LACARRA: *a. lib.*, 19. orr.

(25) ISASTI: *a. lib.*, 91. orr.

dik ere kontatzen dute duela berrehunen bat urte nola ebatsi zituzten, itsas-lapurrek, bi neska. Ordutikakoa omen honako bertso hau:

Martierreka-Jauregi

gure neska ederrak

eztira ageri.

Florentino Portuk ere jasoak dakar bere monografian (26).

Bada beste erreka bat, Justiztik mendebaldera, Munaundi eta Martiz hegien bitartean *Martizko erreka* deritzona.

Martiz (Martitz)

Leiurieta edo Leutaren antzerako tokia da, hegi batean, itsasotik 150en bat metrotako alturan ekialdera aurkitzen den harpetxea, 1.º 50' 38"; 43.º 22' 03" koordenadetan, gerora borda bihurtzeko handitua. Due-la hogeitahamabost urtera arte bizi izan zen familia bat (Kornuzko andrea da hor sortua). Suharrizko tresnak aurkituak ditut.

Patronimiko honen antzerakoa agertzen zaigu 1638. urtean, *Martich*, Floridablanca-ren *Censo*-an, eta geroztik *Martichenea* baserria mendiz bestalde, hau da, Jaizkibelen hegoaldetik. Lezon ordea, kaletik hurbil *Martizkonea* etxea, behar bada Martizetik datorrena.

Murisenea (Muixenea)

Kornuz ondoan erorita dagoen baserria. 1787ko zensoan *Murisenea*, 1841eko padroian *Musienea*, 1857ko *Nomenclátor*-ean *Musenea* eta Udalak 1969an egin zuen mapan Muixenea. Hau ote da Lakarrak 1371kotzat ematen dituen izenen arteko *Muginça*? Litekeena.

Nojuronea (Nujurunea)

1787an Nojuronea zena, 1969an Nujurunea zen eta gaur ere hala ezagutzen da baserri hau. Baina 1857ko *Nomenclátor*-ean *Lujurunea*-goya bezala dator.

(26) F. PORTU: *a. lib.*, 184. orr.

Perkazenea

1523. urteko gertarietan aipatzen du E. Garibaik “casería, llamada *Percaça*” eta “casa de *Percaça*” (27). Floridablanca-ren aginduz egin zen *Censo*-an eta geroztik *Perkazenea* eta *Perkasenea* dator.

Perukonea (Perukenea)

Baserri eroria Kornuz ondoan. Isastik aipatzen du 1625. urtean *Iraurgui azpicoa o Peruza* (28). 1787ko zensoan *Perukonea*, baina 1857ko nomenklatorrean *Perukenea*. Udaleko mapan *Perukenea* dator, baina ahozkeraz *Pekunia* ere jaso da.

Sarabardi (Salabardi)

Kornuztik hurbil hegoalderago dagoen baserria. Oraindik bizi dira. 1841eko padroian eta 1857ko *Nomenclátor*-ean *Sarabardi* bezala dator eta 1969an, Udaleko mapan, *Salabardi*. Hondarribian, 1638rako aurkitzen dira Salaberria deiturak, baina ezin dezakegu ziurtatu Sarabardi edo Salabertik datorrenik, bitartean zubi egingo duen agiririk ez badugu.

Talaya

Higergo puntatik hurbil dagoen baserria. 1857ko *Nomenclátor*-ean dator *Talaya* eta Udalak 1969an egin zuen mapan *Atalaya*. Ahozkatzean *Talaya* erabiltzen da.

MIKROTOPONIMIA

Itsas-bazterreko toki izenak, agiri zaharretatik eta ahoz jasotakoetatik, zerrenda polita eskaintzen du F. Portuk bere liburuan (29), Higer-etik hasi eta Pasaiaiko mugaraino. Hara hemen hitzez-hitz: *Faro*, *Atal Erreca*, *Capeluta*, *Errechiqui*, *Errota*, *Sein* edo *Martierreka*, *Archo*, *Artzuko portu*, *Arasca*, *Argorri*, *Marla*, *Capelu*, *Sorchipi*, *Sisurco*, *Biosmar*, *Erentzin chaba-*

(27) E. GARIBAY: *Compendio historial*, 2. tomoa, XXX. lib.

(28) ISASTI: *a. lib.*, 91. orr.

(29) F. PORTU: *a. lib.*, 184. orr.

la, *Erentzin Aundi, Yscuru, Motelu*. Horko *Sorchipi, Txotxipi* bezala jasoa dut eta *Biosmar, Bioznar*. Instituto Geográfico y Catastral-eko 1:5.000 mapetan *Turrulla* deitzen dena da *Bioznar*, 1.º 50' 00"; 43.º 22' 20" koordinadetan. *Turrulla punta, Motelu* deritzanaren hurrengoa da mendebaldera, Pasaiarekin mugan.

Higer (Higuer) bera, gaskoina da ageri denez. Higerren puntan itsasora sartzen den irlaren izena *Amuitz* da eta *Itxasoco nabigacionecoa* liburuan aipatzen da: "Hondarrabiaco Iguere" eta "Amuisco puntaren Irlaren gainnetic" (30).

Beste izen zerrenda bat, handik eta hemendik bildurik, Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi" adiskideak ematen digu bere liburuan (31).

Itsas-ertzaren luzera guzian aurkitzen dira aintzinako gizonen aztarnak.

Beste izen ezaugarri batzuk zaizkigu Portuk ematen duen iturburu zerrendakoak (32), beraietatik Jaizkibel mendiaren itsas-hegalekoak, gutienez honako hauek dira: *Artola, Ayardi, Martis, Munuaundi, Justizko-erreka, Arzuko-erreka, Ansaan, Borbide* eta *Gaztarrotz*.

Florentino Portuk Jaizkibelgo berri asko ematen ditu eta ezinezkoa zaigu gaur hemen biltzea. Bukatzeko, honako hauek baizik ez ditut aipatuko: 1798. urtean herriaren mugarrietara egindako bisitan *Estillaundi* eta *Gorotardegui* aipatzen ditu *Aldarraunza*-kin batean (33). Eta orrialde berean harrobiak: *Erriestueta* (nik *Arriestueta* bezala jaso). *Lamiarrieta* eta *Arribaldieta*.

Azternategietako bat, *Zezendegiko* harpea, zeinetan gordetzen zen, 1903an, "Soñu" izengoitiz ezagutzen zen gizon bat (34).

Azternategiak ere, ez dira gauza berria Jaizkibelen, Iskulin lepoko dolmena ezaguna bait da, eta handik hurbil zen Santa Barbarakoa ere, ostatu berria egiterakoan hautsia, eta bertatik ez hain urruti badira harrespilak (Cromlech) (35). Bestalde, Santa Barbara zeritzon ermitondoan

(30) M. HOYARZABAL, P. DETCHEVERRY: *Liburu hauda Itxasoco nabigacionecoa* (Baiona, 1677), 10. orr.

(31) ETXABURU'TAR JOSE MARI "Kamiñazpi": *Ondarrabiako kondaira*, 231-233. orr. Liburu berean, 152-159. orr., baserri izenak ere sailkatzen ditu, IÑAKI LINAZASOROREN: *Caseros de Guipúzcoa*, liburukoen arabera. Eta, zein bata eta zein bestea, ez dira gomendagarri. Oso gaizki bilduak daude.

(32) F. PORTU: *a. lib.*, 208. orr.

(33) F. PORTU: *a. lib.*, 179. orr.

(34) F. PORTU: *a. lib.*, 308-310. orr.

(35) S. C. N. ARANZADI: *Carta arqueológica de Guipúzcoa*, 209-212. orr.

1611. urtean eginikako akelarreak zirela ta Inkisizioak zenbait pertsonari jarritako auziak hots handia izan zuen. Ikus ageriak Porturen liburuan (36).

Erentzin, Burkaitz eta Aunzbizkar dira beste toki aipagarri batzuk. Mikrotoponimiaz ahoz jasotakoa askoz ere zerrenda handiagoa da, baina ahozkatze desberdinegatik ez dira hain fidagarri eta oraingoz nahiago dut argi daudenez eta agiriz frogatu ahal direnez baliatu.

Instituto Geográfico y Catastral-ak 1:50.000 eskaladun mapan, *Turri-lla* ez dakar behar duen tokian. Turrilla edo Turrulla delakoa Pasaia partean da, *Motelu* atzekaldean, Hondarribiaren mugatik bertan. Mapa berean *Marla* den tokian jartzen da *Bioznar*. Baina, Bioznar, Marlatik Turrullara bitartean itsasora irteten den puntarik luzeena eta zorretzena da.

Itsas ertz horretan, erdaldun eta kanpotiarren eraginez, arrantzarako edo igerirako aukerakoak diren zenbait leku gaizki erabiltzen hasiak dira eta hondarribiar gazteen artean oso zabaldurik entzuten dira honako hauek: “Las Bañeras” *Izkiraputzu*-ren ordez; “El Molino”, *Artzuerrota*-ri; eta, “Malarranas”, *Kapeluta*-ri.

Mikrotoponimia honetan ezer berezirik aurkitzekotan, begirada batean, *Sein* antroponimoa litzake bitxienetako bat (37). Gure mende honen hasieran ba omen zen Martierrekan Sein izeneko errota (38), baina jatorriz Oiartzungoa nonbait, han etxe bat denez eta hemen, Hondarribian, XVIII. mendera arte ez zaigu agertzen Sein deitura (39), eta etxerik ez da izen horrekin.

Otoi, izen hauek, Gaztarrotz eta Turrulla ezik, Hondarribiko parte-koak soilik dira Jaizkibelen itsas-hegalean.

(36) F. PORTU: *a. lib.*, 61-74. orr.

(37) L. MICHELENA, *Apellidos vascos* (Ed. 1953), 15, 49 eta 99. orrialdeak ikus. Antroponimoen artean aipatzen du *sei(n)*, “niño”, Akitaniako epigrafiak eta Oiartzungo etxea gogoratuz. Baina, Hondarribiko han ez da agiri zaharretan aurkitzen.

(38) F. PORTU, *a. lib.*, 184. orr.

(39) J. C. GUERRA, *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa, según el orden de sus familias pobladoras* (1928) liburuak dakarrenez. Ikus 547. orr.

**HERRI-IZENEI BURUZKO
ADIERAZPENAK**

IPAZTER HERRIKO UDALETXEARI ERIZPIDEA

Ipazterreko Udaletxeak herriko izenaz egin digun galderari erantzunez hau esan daiteke:

Euskaltzaindiak *Euskal Herriko udalen* euskarazko *izendegia* egiterakoan *Ipazter* forma ontzat hartu zuenean kontuan izan zuen inguruetakoko euskaldunek nola deitzen dioten. Hain zuzen ere leku guztietan lehenengo -z- ahoskatu gabe ematen dute, hau da *Izpazter* formaren ordez *Ipazter* eta aldagarriak, txistukariaren disimilazio regresiboa gertatzen delako, eta arrazoi horregatik euskaldunen ohitura errespetatu zen.

Beraz, erdaraz *Ispaster*, ortografiatzeko ohitura gorderik, eta euskaraz *Ipazter*, aldagarrietarik bat hautaturik.

Bilbon 1988-1-15

Alfonso Irigoien
Euskaltzain osoa eta Onomastika batzordekidea

IKAZTEGIETA

Jose Luis Lizundia Askondo jauna, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko Diktamen hau ematen du:

Batzorde honek bere azken bilkuran, hain zuzen, joan den astelehenean, Iruñeko Ordezkaritzan egindakoan, beste gai batzuren artean, orain arte udal batetan elkartuta egon diren hiru herrien hiriburuaren izena, lehenago ofizialki orduko Administrazioak *Icazteguieta* ezenarekin ezagutzen zuena, euskal grafia akademikoan *IKAZTEGIETA* dela onartu zuen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzat babestu eta Euskaltzaindiak prestaturiko Izendegian: *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Izenak/Relación de las Poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, herri horren euskal deitura: *IKAZTEGIETA* da.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita zortzigarreneko Martxoaren hamazazpian.

On Ikusia.

E. Knörr
Batzordeburua

LEKU IZENEN EUSKARAZKO FORMAK NAFARROAN

Bilbao, 1987-XII-10

Alfonso Irigoien

Nafarroarako Euskaltzaindia prestatzen ari den udal eta auzune izenen zerrenda dela-ta hona hemen neure tesian sartu nuen txatal bat, erdaraz hitz egiterakoan -oz bukaera dutenak nola ahoskatzen diren euskaraz gaiari dagokiola, dirudienez, batzordeko azken batzarre bitan entzun genduenez, batzuetan txistukari afrikariaren lekuan frikaria ere erabiltzen baitute batzuk, seguru asko egungo eguneko erdararen eraginez, zeren halakoetan lehenago Erdi Aroko erromantzeak ere afrikaria izan baitzuen, Nafarroako Ekialdean —Erronkari inguruetan eta abar— eta Aragoi aldean izan ezik. Edozein modutan ere bertako euskaldun lege zaharreko gehiagori galdetu beharko litzaioke arazo honen egoitza zein den argi finkaturik geldi dadin, eta, ondorioz, ahal denik eta tradiziozkoen diren formak hautatzeko posibilitatea izan dezagun, gero zabal erabil litezen Herrialde hark ezarri berri duen legearen arauera. Honela dio:

“Según me informa Francisca Arregui, que conoce bien el habla vasca de Areso, Navarra, en dicha localidad dicen *Urrótz*, *Urrótzèn*, ‘en Urroz’, *Madótz*, *Madótzèn*, ‘en Madoz’, *Imótz*, *Imótzèn*, ‘en Imoz’, *Anótz*, *Anótzèn*, ‘en Anoz’, bisílabos con acento en la segunda sílaba, tanto en lengua vasca como en castellano, en cuya área no aparece la diptongación en -ue-, como ocurre en *Sagwéts*, *Sagwétsèn*, ‘en Sagüés’, utilizando en este caso en lengua vasca la forma románica diptongada, naturalmente la única que conocen, cuya -s final tiene como realización su africada correspondiente -ts, igual que en *Saiéts*, *Saiétsèn*, ‘en Sayés’. En trisílabos el acento sigue recayendo en la segunda sílaba, *Azpiótz*, *Azpiótzèn*, ‘en Azpiroz’, *Almándótz*, *Almándótzèn*, ‘en Almandóz’, este último con acento diferente en castellano aunque no lleve diptongación, si bien en este momento se está desarrollando en el interior de Navarra, no fuera, es decir, ni en Guipúzcoa, ni en Alava, ni en Vizcaya, etc., una tendencia, no generalizada aún, pues en Tafalla y en zonas de habla vasca como Areso no ha penetrado, a acentuarlo como *Almándoz*, lo que no ocurre con *Oronóz*, en este caso con acento agudo en todas partes sin vacilación alguna, *Eskiròtz*, *Eskirótzèn*, ‘en Esquíroz’, *Bidángòtz*, *Bidángótzèn*, ‘en

Vidángoz', cuya forma castellana tiene el mismo acento que las vascas occidentales, no de la vasca propia del Roncal [*Bidankóze*], que como hemos visto está de acuerdo, por otra parte, con el de las formas románicas navarro-aragonesas en *-ués*, escrito *-uasse* en la Edad Media, al parecer con *-e* paragógica en área donde una vocal no femenina en cuanto a la moción de género había caído normalmente en posición final, cuyo modelo podemos ver en *Beraskoitz*, hoy *Beskoitze*, forma oficial *Briscous*, localidad donde nació Leizarraga, que vivió el siglo XVI, sin duda patronímico de *Berasko* < *Belasko*, con sufijo *-itz* más aumento de *-e* no perteneciente al mismo, la cual procede de la vocal epentética necesaria para la declinación del caso inesivo, etc. Michelena e Yrigaray, *BRSVAP*, XI (1985), p. 411, señalaron que "*Berascoiz* puede proceder de *Belasconis* con pérdida de *-n-* intervocálica, y ésta podría ser la etimología de *Briscous*, ...mejor que la propuesta por Rohlf, *RFE* 36, 235 s. (*Veriscus* + *-ossu*)". Lo más probable es que por ser el Roncal, bajo el punto de vista histórico, área de habla vasca, se hayan impuesto aun en romance formas no diptongadas en *-ue*".

ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK

(Urduña, 1987-IX-23,24,25,26)

Fr. Luis Villasante

EUSKALTZAINBURUAREN SARRERA-HITZAK

Joseba arregi, Kultura Kontseilari jaun agurgarria
Tomas Uribe--Etxebarria jauna, Bizkaiko Kultur-Diputatua
Ana Mari Barañano andrea, Urduña hiriko alkatesa
M.^a Karmen Garmendia andrea, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren
arduraduna.

Eugenio Coseriu, hizkuntzalari jaun jakintsua
Euskaltzainkideak

Urduñarrak eta Jardunaldi hauetan parte hartzera etorri zareten guz-
tiok: Agur denoi!

Euskaltzaindiak bere galtzarrean dituen batzordeetan bada bat Topo-
nimi—, eta orain, egokiago, Onomastika-Batzordea deitzen duguna. Ego-
kiago esan dut, zeren Onomastika izenaz hobeki inguratzen baita batzor-
de honek azterkizun duen eremua. Bai pertsona-izenak, bai toki-izenak,
bi-biak sartzen dira *onoma* hitzaren azpian.

Batzorde honek aurrenengo Jardunaldiak, jakina denez, iaz eta Gas-
teizen egin zituen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatuak. Arrakasta
ezin hobeia izan zutela uste dut. Jardunaldi haietako lan eta agiriak aurki
kalean ikustekotan gaude.

Oraingo hauek bigarrenak ditugu, bada.

Aurrenengoak Onomastikaren eremu zabalarori orotariko gain-begiratu
bat emateko izan ziren. Beraz, disziplina honetako —nolabait esan— pro-
blemak zein diren, sail honetan langile edo biltzaile izan nahi dutenak
nola behar duten joka, beste lurraldetan zer egiten den, etab ikusi: hori
egin nahi zen eta egin ere zen orduan. Hitz gutiz eta laburzki esateko,

sail honetan lan egiteko bere burua jantzi nahi duenarentzat behar diren erizpide eta jokamoldeak azaldu ziren. Hori behar-beharrezkoa da, zeren borondaterik onenaz, baina behar bezalako jakintzarik gabe, alor honetan makurrak egiten direla egunoro ikusten baitugu.

Bigarren Jardunaldi hauetan hasi gara gaia nolabait mugatzen. Eta hara zein den oraiko hautatu dugun esparrua: Gaur euskaldun ez diren eskualdetako euskal toponimi edo onomastika. Izan ere, gaur euskaldun ez diren baina behiala euskaldun izan ziren lekuetako Onomastikak baditu bere problema berezi-bereziak, kontutan hartu beharrekoak direnak. Horiek nahi ditugu, bada, aztertu oraingo Jardunaldi hauetan.

Bai. Esparru honetako ikerketek zailtasun berariazkoak dituzte. Euskaraz landara beste hizkuntza batzuk ere tartean ditugula jakin behar da. Euskal izen batzuk beste hizkuntzara itzuliak izan ziren, beste batzuk aldatu, itxuragabetu, aldrebestu etab. Gauzak argitzea ez da beti erraz izaten. Metodologia bat hotz-hotzean erabili beharra dago.

Onomastikako mundu honen azterketak duen garrantziaz ez dugu luzaz hitz egin beharrik. Bakar-bakarrik esango dugu herri baten eta hizkuntza baten kulturaren alderdi esanguratsuenetakoa dela Onomastika. Eta herri hori Euskal Herria eta hizkuntza hori euskara denean, azterketok guretzat duten nondik-norakoa berez ulertzen da.

Bigarren Jardunaldiok Urduñako hiri honetan egiten dira. Urduña, Bizkaiaaren maiorazgoa, "la ciudad del Señorío". "Tierra llana, villas y ciudad": horrela adierazten zuten aintzina Bizkaiko lurraldearen edukina. Zilegi izan bekik gure fraide lekeitiar batek, Modesto Sarasolak, ateratako histori-lana hemèn aipatzea (1).

Zer dela eta egiten dira hemen Jardunaldiok? Licenciado Poza, Bilbon kale ezagun bat duena, hemengo semea zelako, eta aurten, hain zuzen, 400 urte betetzen dira haren liburua *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, Bilbon, Mathias Maresen inprimategian agertu zenetik. Euskaltzaindiak uste izan du ez zuela urte-muga hau igarotzen utzi behar jaun honen oroitzapena egin gabe. Horra zergatik etorri den Euskaltzaindia Urduñara, eta zergatik egin nahi izan dituen Jardunaldi hauek Poza jaunaren oroitzapenetan.

Poza jauna euskararen apologista bat izan zen, noski, nahiz eta apologista huts-soila baino gehiago ere baden. Apologista haiek izen-lerrokada aski luzea betetzen dute euskararen kondairan: Etxabe, Zaldibia, D'Iharce de Bidassouet, Irizar y Moya, Perochegui, Larramendi, Erro, Astarloa, etab. Beren modura, baina lan eskergarria burutu zuten

(1) *La ciudad de Orduña y su vizcainia*, Bilbao 1954.

etxekoen eta kanpoken oharpena euskararuntz abiarazteko. Horien artean lehenbizikoenetakoa Poza jauna dugu.

Ez naiz ni hemen hasiko Licenciado Poza jaunaren bizitzea, obrak eta nortasuna arakatzen. Ni baino gaiago diren jaunek egingo dute hori Jardunaldi hauen sarrera-ekitaldi honetan.

Urduñako Jardunaldi hauek badute, gainera, zerbait apartekorik, orain arte gure biltzarretan ezagutu ez dugun zerbait: gure artean baitugu Eugenio Coseriu, errumaniar hizkuntzalari jakintsua. Euskaltzaindiak gomit egin zion, eta berak, Licenciado Pozaren izenean egiten zirela Jardunaldiok jakin zuenean, baiezkoa eman zigun, berak bere ikerketa-lanetan behin baino gehiagotan Poza jaunarekin topo egin duela esanez. Eskerrak eman nahi dizkiot bihotzez bere etorreragatik eta Jardunaldiotan parte hartzeagatik. Ohoragarri da guretzat honelako jaun ospetsua gure artean izatea.

Eta esan beharrik al dago? Eskerrak ematen dizkiet halaber Jardunaldiotan parte hartu nahi izan duten guztiei: antolatzaileei, Urduñako udalari eta aparteko modu batean bere laguntzaz eta itzalaz Jardunaldi hauek babesten dituen Bizkaiko Foru Diputazioari. Eta ez dut aipatu gabe utzi nahi Pozaren liburuaren argitalpen berria faksimilez aterea, eta hori ateratzeko lagundu digun Madrilgo Kultur Ministeritza.



Jardunaldiok Urduñan egiten dira, hots, gaur-egun euskaldun ez den eskualde batean —nahiz eta gaur ere, segur aski, berreuskalduntako ez guti bertan egon—. Alde honetatik ere Jardunaldion kokalekutzat aukeratu den tokia aproposa gertatu da, ezen euskaldun izandako tokien Onomastikaz ari da Biltzarra.

Hara zer dioen Aita Larramendik bere Hiztegiaren hitzaurrean: “El Licenciado Andrés de Poza, aunque de Orduña, en que hoi apenas se habla Bascuence, eruditísimo, y diestro Bascongado, en su Tratado Castellano y Latino de la antigua Lengua de España, y Balthasar de Echabe en otro semejante, defiende valientemente este asunto” (hau da, euskara dela Espainiako hizkuntza zaharra) (2).

Ikusten duzueenez, Aita Larramendiren garaian Urduña doi-doi edo ozta-ozta zen euskaldun, atzeraka zetorren ordurako hizkuntza hau hemen, beste toki askotan bezala (3). Dena den, Poza jaun famatuaren sortzaile dugu Urduña.

Eta beste gabe, ospakizun honetan mintzalari izango diren jaunei pasatzen diet hitza.

(2) *Diccionario Trilingüe*. Prólogo 2.^a Parte. Cap. IX, p. LXXXVI.

(3) Dena dela *ozta* honek zerbait balio duela pentsa daiteke. Agian izango zen auzoren bat oraindik euskaldun zena.

**KOLDO MITXELENAK URDUÑAN
TELEFONOS ESANA LICENCIADO
POZARI BURUZ**

“Ha aparecido nueva documentación sobre el Licenciado Andrés de Poza en el Archivo General de Indias, Sevilla, que conocemos gracias a la generosidad de José Garmendia Arruebarrena que nos ha cedido la documentación.

Según los nuevos documentos el Licenciado Poza alega méritos ante el representante del Rey de España en Flandes, por lo que resulta que cuando a Andrés de Poza se le suponía estaba estudiando en Salamanca, era ya licenciado por esa Universidad y actuaba en Flandes como agente de la monarquía española, hecho que detalla textualmente. Ello no permite sacar conclusiones sobre las ideas lingüísticas del Licenciado Poza, excepto que su trato con los flamencos supone el conocimiento de esa lengua.

De una manera general puede decirse que la biografía de Andrés de Poza nos es muy poco conocida. Cuando trata de la lengua vasca se deja entrever que sí sabía vascuence. ¿Sabría desde Orduña? No. Casi con toda seguridad podía saber a través de su mujer que era de Orozco. Dan fe de esto unos dísticos latinos en honor de ella que el Licenciado incluyó en su libro.”

ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK

Urduña, 1987-IX-25

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

Amaierako hitzak

Jaun-andreak:

Gauza guztiek izaten dute beren azkena, eta hala gertatu zaie gure Jardunaldi hauei ere. Uste dut urrats bat eman dela beroietan gure herriaren altxorra —guztiz ere orain euskaldun ez diren eskualdeetakoa— arakatu baita. Lan baliotsuak aurkeztu dira eta aspalditik idatzirik den dokumentazioa ikertzearen bidetik sartu direnak gero eta gehiago direla ikusi da. Horrek bide ona aurkitzen asmatu dugula, esan nahi du.

Ekologia zaindu nahi den une honetan, herri baten eta hizkuntza baten altxorra den onomastikari ere kasu ematea guztiz da bidezko eta beharrezko.



Gizarte-modua zeharo aldatu den mende honetan hainbeste izen arras galtzeko zorian dira. Horrek, ordea, biltze eta jasotze lan horien premia premiatsuagoa bihurtu du.

Eskerrak eman nahi dizkiet Jardunaldion parte hartzaile, antolatzaile eta babestaileei. Gainera, Jardunaldi hauek loturik egon dira Licenciado Pozaren liburuaren laugarren mendeurreneko ospakizunaz. Guztien gogoan geldituko da ospakizun hura, Coseriu, Gonzalez Echegaray eta abarren hitz jakintsuez gantzutua egon baitzen. Azkenik, eskerrak beren laguntzaz gauza guzti hauek egiteko ahalbidea paratu diguten agintari jaunei.

ENCUESTA TOPONOMASTICA

José Maria Jimeno Jurio

0. INTRODUCCION

0.1. CARACTER Y FINALIDAD

- 0.1.1. Pensada para Navarra, concretamente para las zonas central y meridional. Aplicable a otras áreas del País Vasco.
- 0.1.2. Recoge nombres comunes (romances y euskéricos) de realidades geofísicas y otras, con que son designados ciertos parajes.
- 0.1.3. La encuesta tiene carácter auxiliar e instrumental, para orientar a los investigadores en la recogida de materiales.

0.2. METODOLOGIA

- 0.2.1. *Estudio previo*: Recomendable conocer, siquiera superficialmente, la realidad física, histórica, socio-económica y toponomástica del espacio a estudiar (lugar, municipio, comarca), mediante:
 - A. Consulta de bibliografía.
 - B. Acopio de materiales toponomásticos fundamentales (Catastros y otras fuentes).
 - C. Estudio de planoss y mapas (Vgrr. el del "Instituto Geográfico y Catastral).
 - D. Inspección del territorio para tener idea de elementos referenciales.
- 0.2.2. *Encuestador*: Vecinos de la localidad, labradores conocedores directos del terreno; preferibles los de más edad y buena memoria. De no conocerlos personalmente, conectar con ellos a través de amigos, parientes o conocidos. Merecer su confianza mediante actitud de respeto, prudencia y delicadeza.
- 0.2.3. *Realización*: Dedicarle el tiempo que haga falta, evitando molestias a los entrevistados.

- A. Repasar listados de topónimos y la encuesta, sobre plano.
- B. Observación del terreno desde un punto dominante, recorriendo los parajes más representativos o significativos, o visitando detenidamente el territorio.

1. ENCUESTA

1.1. LOCALIDAD (Nombre).

- 1.1.1. Entidad: Lugar, villa, anteiglesia, ciudad.
- 1.1.2. Concejo.
- 1.1.3. Ayuntamiento.
- 1.1.4. Comarca, Valle (Cendea, Quiñón); Cuadrilla, Merindad.
- 1.1.5. Provincia (Herrialde).

1.2. FECHA DE LA ENCUESTA: Día, mes, año.

1.3. INFORMANTES: Nombre, apellidos. Año de nacimiento. Profesión. Lengua en que se hace la entrevista.

2. TOPONIMIA MAYOR

2.1. NOMBRE DE LA POBLACION.

- 2.1.1. Oficial.
- 2.1.1. Euskérico. Forma popular.
- 2.1.3. Antiguo (Variantes. Año. Fuente documental).
- 2.1.4. Populares de los pueblos próximos.

2.2. GENTILICIO.

- 2.2.1. De la localidad.
- 2.2.2. De los pueblos vecinos.

2.3. APODOS.

- 2.3.1. De la localidad.
- 2.3.2. De los pueblos vecinos.

3. TOPONIMIA URBANA

3.1. NUCLEO URBANO

- 3.1.1. Villa (Hiri, Iri, (H)uri).
- 3.1.2. Lugar, pueblo (Herri).

3.2. SUBDIVISIONES INTERNAS.

- 3.2.1. Barrios. Cofradías.
- 3.2.2. Calles (Dinda, Inda; Kale, Karrika). Nombres.
- 3.2.3. Calleja (Belena, Mokarte, Zeharkale). Nombres.
- 3.2.4. Plazas (nombres)
- 3.2.5. Portales (de murallas).
- 3.2.6. Rincones con nombres tradicionales.
- 3.2.7. Fuentes públicas.
- 3.2.8. Espacios yermos interiores (Larratz).

3.3. CONSTRUCCIONES

- 3.3.1. Iglesias (Parroquiales, conventuales; Basílicas, ermitas).
- 3.3.2. Palacios (Jauregi) (Título. Nombre popular).
- 3.3.3. Casas (Etx, Etxa, Etxe) (Nombres tradicionales).
- 3.3.4. Caseríos de extramuros.

3.4. INMEDIACIONES DEL CASCO URBANO (Corseras, Coseras)

3.5. PARAJE (término, parte, endrecera).

4. ORONIMOS

4.1. ALTURAS.

- 4.1.1. Sierra.
- 4.1.2. Montaña, monte (Mendi).
- 4.1.3. Monte arbolado (Oihan; Baso).
- 4.1.4. Peñascal. Acantilado en montaña (Barga).
- 4.1.5. Acantilado en río (Atx, (H)aitz, Ripa).
- 4.1.6. Altura, colina, cabezo (Poyo, Muno, Muru; Kasko, Kasku).
- 4.1.7. Collado (Ate, Mendate, Arrate, Garate; Lepo, Lepaka).
- 4.1.8. Pico, punta (Moko; Buru).
- 4.1.9. Punta, cumbre (Kasko, Kasku).
- 4.1.10. Crestera rocosa.
- 4.1.11. Espinazo (Cantero; Bizkar, Bizker).
- 4.1.12. Peñón saliente (¿Troska?).

4.2. LADERAS.

- 4.2.1. Ladera; Loma ((H)egi; Magal).
- 4.2.2. Ladera norte; Umbria (Opaku, Paco; Ilun, Illun; Iparragerri).
- 4.2.3. Ladera sur (¿Bizkaia?).
- 4.2.4. Ladera Este (Carasol); Solana; Iguzkitza).

- 4.2.5. Ladera frontal (¿Bular?).
- 4.2.6. Ladera, pendiente, cuesta (Costalado; Alda, Aldapa).
- 4.2.7. Precipicio (Amildegi; Epeintza; Erroiz, Erroz).
- 4.2.8. Escarpa (Malkor).
- 4.2.9. Ribazo (Ezponda, Ezpuenda; Margin).
Ribazo sobre el río (Erripa, Ripa; (H)aitz).

4.3. HONDONADAS.

- 4.3.1. Valle (Arán, Ibar).
- 4.3.2. Desfiladero (Foz; Botxe, Poche; Meaka, Miaka).
- 4.3.3. Barranco (Arro, Arru).
- 4.3.4. Barranco seco (Irra).
- 4.3.5. Barranco, hondonada, vaguada (Sakana).
- 4.3.6. Hoyo, agujero (Zulo).
- 4.3.7. Cueva (Le(i)ze).
- 4.3.8. Sima (Torka, ¿Osín?).
- 4.3.9. Rincón, rinconada (Zoko, Xoko).

4.4. LLANADAS.

- 4.4.1. Llano, llanura (Plana, Playa, Zelai).
- 4.4.2. Vega (Landa).
- 4.4.3. Planicie (Zabal).
- 4.4.4. Campa (Zelai).

5. HIDRONIMIA

5.1. AGUAS CORRIENTES.

- 5.1.1. Agua (Río; U(h), Ur, Ug...).
- 5.1.2. Fuente (Iturri; Tur).
Caño (Chorro; Txirri).
A. Fuente de aguas termales (Urbero. Ibero).
B. Fuente de agua sulfurosa, salada (Agua negra; Agua batueco. Gesal).
- 5.1.3. Abrevadero (Aska, Ganbela, Arganbela).
- 5.1.4. Lavadero, Lavador.
- 5.1.5. Regata (Rigacho, Regacho; Cequia. Erreka).
- 5.1.6. Regata salada (Gesal erreka).
- 5.1.7. Arroyo (Lasa, ¿Latsa?).
- 5.1.8. Río (Agua; Ur...).
- 5.1.9. Isleta (Mejana).
- 5.1.10. Terreno aguanoso (Busti; Madura, Padura).

- 5.1.11. Espacio interfluvial (Ugarte, Urbitarte).
- 5.1.12. Espacio contiguo al río (Ugalde).
- 5.1.13. Confluencia de dos ríos.
- 5.1.14. Vado.
- 5.1.15. Paso o vado de piedra (Arri pausu).
- 5.1.16. Canal de riego.
- 5.1.17. Castilla para regulación de riego (Almenara, Torreta).
- 5.1.18. Erosión por curso de agua (Aguallévau).

5.2. AGUAS ESTANCADAS.

- 5.2.1. Laguna natural (Laku, More).
- 5.2.2. Balsa, charca (Badina, Idoi).
- 5.2.3. Pantano, embalse artificial.
- 5.2.4. Estanque (Alberca).
- 5.2.5. Ciénaga.
- 5.2.6. Paraje embarrado (Lohi, Lohitegi).
- 5.2.7. Pozo (Butzu, Putzu).
- 5.2.8. Salinas (Gesale; Getze).

6. SUELO

6.1. CALIDAD DEL SUELO.

- 6.1.1. Tierra (Lur). Tierra roja (Lur gorri); Tierra frondosa?? (Nobela; Nobla).
- 6.1.2. Arena (Area).
- 6.1.3. Arcilla (Busta, Bustin; Bustinzuri).
- 6.1.4. Marga (Tufa; Tufarro).
- 6.1.5. Canto rodado; Cascajo; Grava (Kaskailu; Legar; Angorri).
- 6.1.6. Peña ((H)aitz; (H)aitzgorri, (H)aizkorri, (H)aitzgibel).
- 6.1.7. Gradass de piedra (Armaila, Armela).
- 6.1.8. Pedrera (Arridi).
- 6.1.9. Piedra (Harri).
- 6.1.10. Pizarra (Losa, Arlausa).
- 6.1.11. Piedra de yeso; Yesal (Gisu, Kisu; Igeso).

6.2. DESTINO DEL SUELO

- 6.2.1. Inculto.
- 6.2.2. Selva. Bosque (Oihan, Baso).
- 6.2.3. Monte desarbolado (Raso).
- 6.2.4. Lugar (Leku. Metaleku = Lugar de “metas”; Dantzaleku = lugar de baile).
- 6.2.5. Lugar de ajusticiamientos (Justicia; Justitzieta; Urka, Urkamendi).

6.3. AGRICULTURA (Nekazaritza).

- 6.3.1. Roturas en comunal (Rotura; Lubarri, Luberri).
- 6.3.2. Parcela; Suerte; Quiñón (Kiñu, Kiñoa).
- 6.3.3. Pieza (Alor). Pieza labrada, barbecha; Rastrojera.
Pieza angulosa (Artola); Pieza de ordio (Ordial); Pieza de cebada (Alcaceral).
- 6.3.4. Viña (Ardantze). Viña joven (Majuelo).
- 6.3.5. Olivar (Olibadi).
- 6.3.6. Semillero (Mindegi).
- 6.3.7. Regadío.
- 6.3.8. Acequia, canal, fila.
Turno de riego (Ador; Aguada).
- 6.3.9. Huerta (Baratze; Ortu).
- 6.3.10. Cebollar (Tipula baratze).
- 6.3.11. Era de trillar (Larrain).
- 6.3.12. Finca cerrada con muro (Cerrado).
- 6.3.13. Remate de tapial (Barda, Bardal).
- 6.3.14. Cierre-empalizada de caña o carrizo (Abrigo; alar).
- 6.3.15. Montón de piedras y matas (en orillo o dentro de pieza)
(Markuero; Artegi).

6.4. GANADERIA.

- 6.4.1. Lieco (Faitío; Landa, Sarda).
- 6.4.2. Yermo; Pastizal en monte (Aborral; Larre; Larraz).
- 6.4.3. Prado; soto próximo a corriente de agua (Euntze, Onze, Unze, Unzu).
Dehesa (Espil, Ezpil; Izpil. Soro).
- 6.4.4. Prado tallazón (Talluntze).
- 6.4.5. Prado; Labrantío (Soro).
- 6.4.6. Corraliza (Acampadera, campadera; Egido).
- 6.4.7. Majada; Majadal.
Soto para dula de ganado mayor.
Soto para vacuno (Dehesa boyeral).
Soto para lanar.
Pastos para ganados de cerda.
- 6.4.8. Facería (Facero; Placería, Pacero).
- 6.4.9. Piedras saleras (para ovejas) (Gazarri).

7. CONSTRUCCIONES

7.1. EDIFICIOS RELIGIOSOS.

- 7.1.1. Iglesia (Eliz, Elex, Eleiz).
- 7.1.2. Basílica, Ermita.

7.1.3. Camposanto, Cementerio (Cimiterio).

7.1.4. Cruz, Crucero (Gurutze).

7.2. CONSTRUCCIONES AGROPECUARIAS.

7.2.1. Borda; Bustal.

7.2.2. Corral (Gorte, Korta, Korte; Ikorte; Likorte).

7.2.3. Majada (Sel; Saroi, Sario).

7.2.4. Casa-corral (Artzara).

7.2.5. Chozas (¿Sosa?).

7.2.6. Cabaña.

7.2.7. Caseta en era (Baltegi).

7.2.8. Pajar para menuceles (Malkartegi).

7.2.9. Señal de prohibición de acceso a viñas (Kapanas).

7.2.10. Abejera (Erlegi; Erletoki).

7.3. DEFENSIVAS (Arqueología).

7.3.1. Castillo (Gaztelu; Muru) (ADVERTENCIA: Los topónimos “Gazteluzar”, “Muruzar”, “Murugain”; “Torraza”, “Castillazo” y similares, denuncian frecuentemente yacimientos prehistóricos).

7.3.2. Torre (Dorre).

7.3.3. Dólmenes, Menhires. Vestigios arqueológicos.

7.4. CONSTRUCCIONES INDUSTRIALES.

7.4.1. Molino (Errota, Rueda).

7.4.2. Presa (Ubarka, Ugarka).

7.4.3. Nevera.

7.5. OTRAS.

7.5.1. Pared (Horma; Parete).

7.5.2. Mojón; Muga.

8. HAGIOTOPONIMOS

8.1. RELIGIOSOS.

8.1.1. Topónimos precedidos de “*Juan done*”, “*Juande*”; “*Dona*” (Señor San; Santa).

8.1.1. Titulares de basílicas.

8.1.3. Advocaciones de Dios, Cristo, la Virgen.

8.1.4. Nombres de Santos.

8.1.5. Calvario. Crucero.

- 8.1.6. Parajes a los que hacían rogativas (frecuentemente indican emplazamientos de primitivos lugares de culto o solares de ermitas desaparecidas).

8.2. OTROS.

- 8.2.1. Lamias.
- 8.2.2. Brujas (Sorgin).

9. FITONIMOS (Flora)

9.1. GENERALES.

- 9.1.1. Arbol; Arboleda.
- 9.1.2. Arboleda donde se cobija el ganado.
- 9.1.3. Selva (Baso).
- 9.1.4. Espesura (Sarri).
- 9.1.5. Grupo de árboles, de matas (Molso).
- 9.1.6. Planta (Min).
- 9.1.7. Vivero de plantas (Vivero; Mindegi).
- 9.1.8. Tronco (Enbor).
- 9.1.9. Rama (Abarra, Adarra).
- 9.1.10. Copa de árbol (Adaburu).
- 9.1.11. Mata; rama menuda (Barda).
- 9.1.12. Hoja (Hosto).
- 9.1.13. Palo (Makila).

9.2. ARBOLES (Zuhaitzak).

- 9.2.1. Alamo, Tiemblo; Alameda, Chopera (Lertxun, Lertxundi; Txopodi, Txopaldi).
- 9.2.2. Haya, Hayal (Bago, Pago; Bagadi). Olor a haya = Bagurrin.
- 9.2.3. Aliso (H)altza).
- 9.2.4. Arce (Astigar; Azkar).
- 9.2.5. Encina; Encinal (Arta, Arte; Artadi).
- 9.2.6. Bellota (Artazi).
- 9.2.7. Fresno, Fresal (Lizar; Lizardi; Leizar, Leixar, Lexar, Lexartza).
- 9.2.8. Mimbre, mimbral (Zumer; Zumadi).
- 9.2.9. Jara, Jaral (Txaraka; Txarakadi).
- 9.2.10. Olmo, Olmedal (Zubar, Zugar, Zumar).
- 9.2.11. Pino, Pinal (Pinu; Pinadi). Pinabete (Abeke).
- 9.2.12. Quejido, Melojo (Ametz; Ameztoi).
- 9.2.13. Roble pedunculado; Robledal (Aritz, Arizdi; Aretx, Aresti).
- 9.2.14. Robe pirenaico (Ametz).

- 9.2.15. Sauce, Sucedal (Sarats; Sarasti).
- 9.2.16. Tejo (Agin).
- 9.2.17. Tilo (Ezkia).

9.3. ARBOLES FRUTALES.

- 9.3.1. Almendro; Almendral (Almendrolar).
- 9.3.2. Avellano; Avellanar (Urretx, Urresti; Urritz, Urrisdi).
- 9.3.3. Castaño (Gaztain).
- 9.3.4. Cerezo (Gerezi).
- 9.3.5. Ciruelo (Aran).
- 9.3.6. Higo; Higuera; Higueral (Biku; Bikudi).
- 9.3.7. Manzano; Manzanal (Sagar; Sagardi).
- 9.3.8. Manzano silvestre (¿Sagarko?).
- 9.3.9. Manzanas de pastor (Carcabolla; Sagarmin).
- 9.3.10. Nogal; Nogalera (Etxaur, Itxaur; Etxaurdi, Itxaurdi).
- 9.3.11. Pera (Udare).
- 9.3.12. Peral silvestre (Madari).
- 9.3.13. Viña (Ardantze).
- 9.3.14. Moscatel (Moskatele).

9.4. ARBUSTOS Y MATAS.

- 9.4.1. Acebo (Gorosti, Korosti).
- 9.4.2. Argoma; Argomal; Aulaga (Ota; Otaka; Otadi; Hilaga, Hilagar).
- 9.4.3. Boj; Bojeral (Ezpel; Ezpeldi).
- 9.4.4. Brezo; Brezal (Ilar; Elar; Iñar; Illarraka; Zarranka).
- 9.4.5. Chaparro; Chaparral (Txapar; Txapardi).
- 9.4.6. Enebro (Ginebro; Ipuru).
- 9.4.7. Endrina (Arañón; Patxaran).
- 9.4.8. Espino, Espinal (Arantze; Aranzedi. Elorri; Elordi).
- 9.4.9. Helecho; Helechal (Iratze; Garo).
- 9.4.10. Gatuña ("Ononis campestris". Abriojo).
- 9.4.11. Hiedra (¿Untz?).
- 9.4.12. Junco; Juncal (Ihi, In(t)za; Txunku; Txunkadi).
- 9.4.13. Carrizo; Carrizal (Lezka; Lezkadi).
- 9.4.14. Matorral (Parrale; Sasitza).
- 9.4.15. Mimbre; Mimbral (Zume, Zumera).
- 9.4.16. Retama (Isats; Isasti).
- 9.4.17. Zarza; Zarzal (Barda; Berro; ¿Sasi?).
- 9.4.18. Tamariz (¿Milazka?).

9.5. HERBACEAS (Belarrak) y otras.

- 9.5.1. Hierba (Belar; Bedar).
- 9.5.3. Ortiga (Asuin, Achún, Ajún; Asuntze).

- 9.5.4. Grama (Atsomuturra).
- 9.5.5. Amapola (Mitxingorri).
- 9.5.6. Fresa (Maguri).
- 9.5.7. Lenteja (Txindila).
- 9.5.8. Trigo (Gari; Ogi).
- 9.5.9. Cebada; Ordeo (Alcacer).
- 9.5.10. Avena (Olozaga).

10. FAUNA

10.1. AVES (Hegaztiak).

